


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

SOZIOLOGIAKO GRADUA

IKASTURTEA : 2022 - 2023

BAIONAKO BERNAT ETXEPAREKO 15-18 URTE BITARTEKO IKASLEEK, IPAR EUSKAL HERRIAN, IKASTOLATIK KANPO, EUSKARA ERABILTZEKO DITUZTEN ARNASGUNEAK, OZTOPOAK ETA JARRERAK

EGILEA: Arantza Eguiguren Aizpiolea

ZUZENDARIA : Patxi Juaristi

2023ko maiatzaren 12a

LABURPENA: Gradu Amaiera Lan honek, Bernat Etxepare lizeoan dauden, 15-18 urte bitartekoen ikasleek, hezkuntza eremutik kanpo, euskara erabiltzeko dituzten arnasguneak, oztopoak eta jarrerak aztertu ditu. Lan hau aurrera eramanez ahal izateko, faktore ezberdinak kontuan hartu dira, ikasleen gune sozialak zein diren identifikatzea eta lehen hizkuntza zein duten jakitearena adibidez. Honetarako, hurbilpen historiko bat burutu da, identitate frantsesak iraultza frantsesean hartu zuen garrantzia aztertuz, gaurdaino duen indarra ulertzera, honek Seaskako ikasleen euskararengan dituen ondorioak landurik.

HITZ GAKOAK: Seaska, arnasguneak, erabilera, oztopoak, euskara, jarrera.

RÉSUMÉ: Ce travail de fin d'études a analysé les "arnasguneak" (municipalités à très forte densité de bascophones), les obstacles et les attitudes des élèves âgés entre 15 et 18 ans qui, en dehors du cadre éducatif du lycée Bernat Etxepare, conformément leur usage de la langue basque. Pour mener à bien ce travail, différents facteurs ont été pris en compte, tels que l'identification des espaces sociaux des élèves et la connaissance de leur première langue. Pour ce faire, une approche historique a été réalisée, analysant l'importance que l'identité française a acquise pendant la révolution française, pour comprendre la force qu'elle a aujourd'hui, par rapport aux divers effets, diverses conséquences qu'elle a sur l'usage du basque des élèves de Seaska.

MOTS-CLÉS : Seaska, "arnasguneak", utilisation, obstacles, langue basque, attitude.

RESUMEN: Este trabajo de Fin de Grado ha analizado los "arnasguneak" (municipios de muy alta densidad de euskaldunes), barreras y actitudes que tienen los alumnos de 15 a 18 años en el liceo Bernat Etxepare para el uso del euskera fuera del ámbito educativo. Para poder llevar a cabo este trabajo se han tenido en cuenta diferentes factores, como la identificación de los espacios sociales del alumnado y el conocimiento de la primera lengua. Para ello, se ha llevado a cabo una aproximación histórica, analizando la importancia que adquirió la identidad francesa en la revolución francesa, para comprender su fuerza hasta el momento actual, elaborando sus consecuencias sobre el euskera de los alumnos de Seaska.

PALABRAS CLAVE: Seaska, "arnasguneak", uso, barreras, euskera, actitud.

ABSTRACT: This undergraduate thesis has explored the breathing spaces, barriers and attitudes of students between 15 and 18 years old who, outside the educational framework of the Bernat Etxepare High School, conform their use of the Basque language. In order to carry out this work, different factors have been taken into account, such as identifying the social spaces of students and their first language. To this end a historical approach has been made, by examining the importance of French identity in the French revolution, to understand its strength to this day and its effects on the Euskera of Seaska students.

KEYWORDS: Seaska, breathing spaces, use, obstacles, basque, attitude.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Marko Teorikoa.....	7
a. Ipar Euskal Herriko testuinguru historikoa, identitate frantsesaren garrantzia.....	7
b. 60.hamarkada: Seaska, Ikastolaren sorrera.....	11
c. Bernat Etxepare lizeoa, Seaskaren azken uzta.....	15
d. Euskararen erabilera Ipar Euskal Herrian.....	17
i. Azken datu estadistikoak: 7.inkesta soziolinguistikako datuak: erabilera, jarrera, transmisioa.....	20
e. Euskara gaur egun, aukera pertsonala eta pribatua Ipar Euskal Herrian.....	22
3. Justifikazioa.....	28
4. Ikerketaren Helburuak eta Hipotesiak.....	30
5. Diseinu Metodologikoa.....	32
Diseinu mota.....	32
Ikerketa teknikak.....	33
Laginketa eta kontaktazioa.....	33
6. Emaitzak.....	37
1. Ikasleek, Ipar Euskal Herrian euskara erabiltzeko arnagune ezberdinak erabiltzen dituzte.....	37
2. Euskara erabiltzeko oztupoak nabari, frantsesa erabiltzearen beharra ikasle guztien egunerokoan.....	50
3. Jarrera ezberdinak Ipar Euskal Herrian, desinteresa eta kontzientzia falta azpimarratu dituzte. Bestalde, euskara galtzeko beldurra ez, atxikimendua eta aldeko jarrera nabari Etxepartarren.....	59
7. Ondorioak.....	67
8. Bibliografia.....	72
9. Eranskinak.....	74
a. Elkarrizketak egiteko erabili den gidoia.....	74
b. Elkarrizketatuen baimen informatua.....	75
c. Transkribapenak.....	77

1. Sarrera

Euskara, hizkuntza gutxitua izateaz gain, bakartua ere bada, orain arte ahaidetasunik gabeko hizkuntza baita. Gainera, zaharrenetan zaharrenetarikoa da, Europan sustrai luzeena duen hizkuntza delakoan. Arrastoek hizkuntza honen ibilbide historiko guztia adierazi ez arren, gaur egun, oraindik ere ageri izan dira hizkuntza honen urte anitzak adierazten dituzten mugarriak, duela gutxi topaturiko Irulegiko eskua azken arrasto historikoa izanik. Kontuan hartu beharra daukagu, euskarak, historian zehar ez duela abantzu onarpen ofizialik izan, beti ere, herriko hizkuntza gisa definitua izan baita, arlo administratiboan presentzia kasik nuloa edukirik. Historian zehar, aldaketa eta egoera asko bizi behar izan ditu, diktadura garaian debekatua izatetik, abantzu hizkuntza galdua izatera pasaz. Hori horrela izanik, aitzineko baskoia, gaur egun den euskara, errealitate historiko ezberdinetara moldatu behar izan da, zenbait testuinguruetako egoerei aurre eginez.

Euskararen iraganaren berri izanik, nire lehen hizkuntzak, gaur egun duen errealitatea ezagutzea izan da nire interes iturria. Euskararen egoera aipatu dut, baina lan hau Ipar Euskal Herriko eremuan murgildu egiten da, bertan topatzen ditugun hiru probintziei aipu eginez. Txikitatik Ipar Euskal Herrian jaso izan dut nire hezkuntza akademikoa, ikastolaren urteak lizeoan amaiturik. Horrek, bertako euskararen egoerara eraman izan nau, bertako errealitatean murgildua egonik. Ipar Euskal Herrian bizitzeak kezka eta galdera zenbait sortu izan dizkit azken urteotan. Honenbestez, nire Gradu Amaierako Lanaren bidez, galdera horiei, topatzen dugun errealitatearen esplikazio bat ematea izan da gura.

Euskara, Euskal Herrian topatzen ahal dugun hizkuntza bat da, bat diogu, beste hizkuntzekin jokoan sartzen delako. Hau da, Euskal Herria bi estatuetan banatua dago, hiru probintzia Frantzia kokaturik, eta beste lauak Espainiar estatuan. Bi estatuen presentzia izanik, euskarak eremuaren arabera legedi ezberdinak martxan ditu, honek euskarari mesederik ez eginez. Alde batetik, Espainiaren barne kokatzen den Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturik, 1982an onaturiko euskararen legearen kari, euskara ofiziala da, gaztelaniarekin batera. Nafarroa ordea, Espainiako beste autonomia bat da, 1986an onartu zen euskararen legearen ondorioz, egoera bestelakoa izanik. Ofizialtasun partziala lortzen du euskarak, hiru zatitan banatua dagoen autonomia da, eremuaren arabera euskarak lege ezberdinak edukirik. Ipar Euskal Herrian ordea frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra, euskararen ofizialtasuna alde batera utziz.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira Ipar Euskal Herriko hiru probintziak, eta esan bezala, bertako hizkuntza ofizial bakarra frantsesa. Honek zera eragiten du, iparradeko eremu publiko guztietan, frantsesa hizkuntza ofizial bakarra izatea, euskararen aitortza alde batera utziz. Arlo publikoak izendaturik, eskola jarri dugu erdigunean lan honetan. Izan ere, frantsesa hizkuntza ofizial bakarra den heinean, eskola publikoan ezinezkoa da hezkuntza euskara hutsean jaso ahal izatea, frantsesaren presentzia nahitaezkotzat azpimarratzen baitu frantses gobernuak.

Honen aurrean, euskara hutsean ikastearen ezintasunaren ondorioz, mugimendu, antolakuntza ezberdinak sortu izan dira, Seaska, 1969an, Iparraldean sorturiko Ikastolen Elkarte, horietako bat izanik. Elkarte honen helburu nagusia zein? Iparraldeko ikasleek hezkuntza euskalduna euskara hutsean jasotzeko aukera bultzatzea. Ideiak batu eta gaur egun dagoeneko martxan eta arrakastarekin aurrera eramanean den proiektua izan da. Dagoeneko ama eskolak herri ezberdinetan topatzen ahal dira, Seaskaren ibildea Baionako Bernat Etxepare lizeoan amaiturik. Honenbestez, bide publikotik izan ez arren, ikastolak gaur egun hezkuntza eremu kontzertatuak direnez, Iparraldean, euskaraz ikasteko hezkuntza eremuak bere lekua lortu du.

Ni ere, duela 5 urte arte Seaskaren parte nintzen, Hendaian hasi nuen ikastola ibilbidea, Baionako Bernat Etxepare lizeoan itxirik. Euskararen errealitatearen kezka txikitatik eramanean izan dut nirekin, baina unibertsitatea Bilbon egin izanak, Ipar Euskal Herriko euskararen egoera kanpoko prespektiba batetik hartzea eragin zidan. Honakoa kontuan harturik, gaur egun dagoen Seaskako lizeo bakarrean ikasi duen ikaslea izanik, ikerketa honekin, bertako errealitatera gerturatzeko tresna soziologiko bezala erabili dut.

Alde batetik, bada Bernat Etxepare lizeoarekiko mantentzen dudana lotura sendo bat, nire lanaren erdigunea izatera bultzatzen duena. Baina bestalde, euskalduna izanik, lehen hizkuntza bakarra euskara izanik, eta Ipar Euskal Herrian bizirik, beti izan dut hizkuntzekiko interes mordoa, hizkuntza txikituen egoeraren sustraia nondik ote datorren ulertzera iristearren jakin mina. Soziologia ikasketen barruan, soziolinguistikak beti sortu izan dit interes argi hori, hizkuntza bera sozialera lotzearen lana. Hortaz, nire interes iturri ezberdinen uztarketaren ondorioa izan da honako ikerketa soziologikoa.

Ikastolaren ibilbidea modu baikor batean definitu ohi izan da, arestian aipaturiko ikasleen kopuru emendaketaren harira. Hezkuntza eremu honek hizkuntza abantzu bakarra euskara du, baina kontuan hartu beharra daukagu hezkuntza eremutik kanpo frantsesa sartzen dela jokoan, hizkuntza ezberdinen nahasketa ondorioztatuz. Are gehiago, ikastola barruan hizkuntza bakartzat onartzen den euskara, Seaskako ateetatik kanpo ofiziala ez izatera pasa egiten da, frantsesaren nagusitasuna eta beharra parez pare topaturik. Errealitate honen berri izanik, Bernat Etxepareko ikasleek, ikastolatik kanpo, euskara erabiltzeko dituzten arnaguneak, oztupoak eta jarrerak zein oten diren jakitea izan da funtsa, eta ikerketa hau horren erantzuna. Hots, Seaskak eskeintzen duen azken hezkuntza eremua hartu da ikerleku bezala. Baionako Bernat Etxepare lizeoko, 15-18 urte bitarteko ikasleek, ikastolatik kanpo topatzen duten testuinguruan, euskara erabiltzeko dituzten eremu, harreman ezberdinak zein diren jakitea jakitera iritsiz.

Lehenik eta behin, sarreraren bidez, ikergai honek uztartuko dituen gai eta fenomeno ezberdinak testuinguruan jarri dira. Modu horretan, euskara hizkuntza, Ipar Euskal Herriko testuingurura eramango dugula zehaztu da, bertan topatzen den Seaskako lizeo euskaldunean begirada jarriko dugula aipaturik. Hortaz, sarrerak, lan honek aipatuko dituen gaien aurreikuspena egin ostean, ikerketa honek helburu duen aztergaia zein den adierazi du, euskararen inguruko erabilera eta aukerak ardatz nagusia izan direla azpimarratuz. Horren

ostean, marko teorikoa garatua izan da, lan hau, testuinguru historiko zein sozialean kokatu ahal izateko, horrela, fenomeno, kontzeptu, gerteei azalpena eman zaie, beti ere irakurketa teoriko batean oinarritu izanik, baita datu kuantitatiboen bidez errealitatearen irudia proiektatzen. Horien artean frantses identitatearen, Seaskaren sorreraren eta euskararen erabileraren inguruko gaiak sakonki garatuz adibidez. Izan ere, arlo teoriko honek, izenak dioen bezala, bide teorikotik azaldu izan ditu ikerketa honetan esplikatzeko funtsezkoak diren kontzeptuak, honela autore batzuen teoriak plasmaturaz adibidez, hots, iturri ofizialetatik tiraka. Ildotik segituz, justifikazioaren zatia ere garatua izan da, arlo teorikoaren ostean, lan hau burutzearen hautu pertsonalaren arrazoiak argitaratuz, ikuspegi soziologiko hau aurrera eramatearen lotura pertsonalak esplikatzea garrantzitsutzat joz.

Helburu eta hipotesian atala dugu guzti honen ostean. Horretarako, hiru helburu zehatz izendatu dira. Helburu hauen bidez, ikerketa honen galdera nagusia betetzea dute eginkizun. Lehen helburuak, ikastolako ikasleek euskara zein espazioetan erabiltzen ote duten jakitea da, ideia honi loturiko hipotesiak euskara erabiltzen den eremuaren gehiengoa ikastola inguruan murgilduak dauden loturetan bermatzen dela izanik, nolabaiteko arnaguneetara mugatzen dela aurretik iragarri. Bigarren helburuak, beste hizkuntzen presentzia, kasu honetan, frantsesaren presentzia agertzearen arrazoiak zein den ulertzearen nahia izan da. Ikastolatik at kokatzen diren pertsonen gehiengoaren hizkuntza frantsesa dela jakinik, haiekin ematen den hartu emana, ezjakintasunaren ondorioz, erderaz egiten dela dio bigarren hipotesiak. Azken helburuak ordea Seaskaren azken etapan dauela jakinik, etorkizunera begira, euskararekin edukiko duten harremana, erabilerak nola proiektatzen duten jakitea izan da. Kasu honeri loturik, ikasketak frantsesegiteak, euskararen urritasuna eta erabileraren murriztasuna ekarriko duela zehaztu da azken hipotesian.

Honako guztia aurrera eramanez ahal izateko, lanak bere hildoa hartu zezan, diseinu metodologiko kualitatiboa erabili da, metodo honen ezaugarri ezberdinak atal horretan jorraturik. Laburbilduz, kualitatibo arlotik eman da ikerketa honetan lanketa, aukeratu den lagin mota eta kopuruak Ipar Euskal Herriko, euskal lizeoko ikasleen irudi orokorraren argazki sendoa egitera bidean. Aurrera eramateko, ikasleei eginiko elkarrizketak erabili izan dira. Honen bidez, emaitzen atalak ikasleen hitzak ikertu egin ditu lan honek plantan ezartzen dituen hipotesi eta helburuekin alderatuz. Izan ere, emaitzetan, ikasle hauen elkarrizketek sorturiko errealitatea aztertu egin da aurretik azalduko teoria eta helburu-hipotesiekin harremanetan jarri.

Horrela, ondorioek, orain arte aipaturiko atal guztien lotura eginik, erantzuna eman diote hasiera batean planteatua izan den ikerketa galdera orokorrari. Hala ere, lanean zehar erabili izan diren gehigarriak erantsiak izan dira lanaren azken zatian, bibliografiak, lan hau egin ahal izateko erabili diren iturriei erreferentzia eginez. Amaitzeko, elkarrizketak egiteko erabili den gidoia txertatu da, baita elkarrizketak burutzeko erabili den baimen informatua eta elkarrizketen transkribapenak ere.

Ikerketaren nondik norakoak azaldu ostean, ez dut lan honen argitarapena egin nahi eskerrak eman gabe. Horretarako, pertsona ezberdinak aipatu nahiko nituzke. Lehenik eta behin, mila

esker lan hau aurrera eraman ahal izateko elkarrizketatuak izan zireten ikasle horiei, zuen testigantzak nire ikerketa lan honen bizkar hezur bilakatu dira, nire analisiari leku emanez.

Soziolinguistika Klusterrari ere eskerrak, ikerketa hau posible egitea ahalbidetu izanagatik, datu soziolinguistikoek ikerketa honi babes teorikoa eman diotelako ezinbesteko izanez. Mila esker ere Patxi Juaristiri, lan hau aurrera eramateko izan dudan zurkaitzari, pausu bakoitzean laguntza eta zuzenketa eskeini didanari.

Azkenik, beharrezkoa dut lan hau pertsona bateri omentzea, Txema Egiguren nuen aitari, txikitatik Ipar Euskal Herriko bizitzan murgiltzera bultzatu ninduenari, euskara lehenesten erakutsi zidanari eta gure hizkuntza altxor gisa zaintzera erakutsi zidanari. Hortaz, aita, euskaratik eta euskaraz, zuri omentzen dizut nire lana.

2. Marko Teorikoa

Marko teorikoa jorratzeko esparru teoriko ezberdinak garatu izan dira. Alde batetik Ipar Euskal Herriko testuinguru historikoa ulertu ahal izateko bilakaeraren laburpena egin da, gaur egundaino topatzen dugun identitate frantsesaren erroa eta arrazoiak nondik datozen ulertzeko. Ibilbide historiko horren barne Seaska Ikastolaren elkartearen zein momentu, testuinguruan sortu zen azaldu da. Honekin batera, lan honek Bernat Etxepare lizeoa landu duenez, Seaskaren ibilbidean jokatzen duen papera landu da. Ildotik segituz, ibilbide historikoa esplikatuz eta Ipar Euskal Herriko euskararen erabileraren datuak azaldu dira, gaur egungo errealitatean murgildu ahal izateko, horrekin batera jarrera eta transmisioaren inguruko datuak idatzi dira ere. Amaitzeko, egungo errealitatean Ipar Euskal Herrian arnaguneek duten garrantzia azaldu da, oraindik aukera pertsonala baita euskara ikastea eta garrantzitsutzat jo da horren inguruko informazioa txertatzea.

a. Ipar Euskal Herriko testuinguru historikoa, identitate frantsesaren garrantzia

Euskal Herria bi estaturen barne kokatzeak eragina izan du ikastolaren ibilbidean. Izan ere, ikastolak, era oso ezberdinean sortuak izan dira (Iza, 2011: 31). Lurralde barruan hasiera berdina eduki ez arren, lurralde bereizketak zer esan gehiena sortu izan du. Hortaz gain, bi eremuetan, estatuen hezkuntza politikak ondorioak utzi ditu gaur egun arte. Honenbestez, garrantzitsua dugu ikastolen sorrera eta garapena aipatzerakoan, garai hartan, Espainiak eta Frantziak bizitzen zituzten testuinguruak hausnartzea.

Frantziako testuingurua ulertu ahal izateko, frantsesaren nagusitasunak eduki duen ibilbidea aipatzea ezinbestekoa dugu. Hizkuntza honen nagusitasunak, ondorioztatu baititu euskararen aldeko gertakari asko. Frantsesa eta lurraldean topatzen diren gainerako hizkuntzen harreman ezengonkorra aspalditik eratortzen da. Bernard Cerquiglini Pariseko hizkuntzalari ospetsua dugu. 1999an, Frantzian 72 hizkuntza bazirela zerrendatu zuena, Frantziak plantan zuen eta gaur egun duen monoglosiari¹ erreferentzia eginez. Izan ere, frantsesaren nagusitasunaren pare, baziren Frantziar estatuan existitzen ziren eta diren beste hizkuntzak. Euskara dugu Europako hizkuntza zaharrenetako bat, Frantziar estatu barnean kokatuta dena, baina badira baita ere bi hizkuntza germaniar, bost hizkuntza erromaniko: Frantzia hizkuntza sorta bat da. (Alessio, 2014: 65). Haatik, garai hartatik, gaur egun arte, Frantziako biztanle guztiak frantsesa dakite, lurralde hizkuntzan bakarrik bizitzea ezinezko izanez. Izan ere, hexagonoan sortu diren artean ez da frantsesa ez dakienik, lurralde hizkuntza batekin soilik bizi denik, monoglosia estatu frantsesaren aspaldiko joera baita (Bachoc, 2001: 414).

“Bretoieradun guztiak frantsesdun dira, kortsikeradunak ere bai eta abar. Historian zaharraren ondorioa da, hizkuntza politika arrakastatsua, zoriogaitzez gure herri hizkuntzarentzat” (Bachoc, 2001:414).

¹ Monoglosiak hizkuntza bakarra esan nahi du, diglosia ordea hizkuntz bikoiztasuna.

Hori horrela izanik, Frantziako hizkuntz legediaren barruan kokatzen den irizpide nagusiak, frantsesaren nagusitasuna azpimarratu egiten du. Aspalditik eratorritako ideia da, izan ere, 1539an, Villers Cotteretsek frantsesa estatuaren hizkuntza zela aipatzen zuen dagoeneko:

“Hemendik goiti nahi dugu erabaki guztiak (...) eta beste edozein zuzebidezko akta ahozkatuak izan diton, idatziak eta auzikidei banatuak ama hizkuntza frantsean eta ez bestela” (Bachoc,2001:414).

Eta horrela esaten du gaur egun ere Frantziako konstituzioko 2. artikulua *“La langue de la République est le français”* *“Errepublikaren hizkuntza frantsesa da”* (Konstituzio Frantsesa, 1995). Honako guztia ulertu ahal izateko iraultza frantsesa (1789-1799) kontuan hartzea beharrezkoa dugu. Iraultza frantsesak, Frantziako historiaren une garrantzitsuenetariko bateri egiten dio erreferentzia, baita identitate nazionalaren eraikitzeari ere. Izan ere, askatasunaren eta askatasun indibidualen arloan eragin asko sortu baitzuen. Testuinguru berean, Frantziak ideia ezberdinak barneratu zituela esan dezakegu, horien artean lurralde guztiak amankomunean duen identitate frantsesa, hizkuntza frantsesarekin lotura zuzenean sartzea alegia.

“Hau da, Frantziako Iraultzaz geroztik, norbanakoen askatasunaren eta eskubideen irudi enblematikoa izan da. Frantziako Estatuak bi helburu izan zituen: alde batetik, lurralde osoan frantsesak frantses hizkuntza eta herritar izaerarekin lotzea, gainerako identitate, hizkuntza eta adierazpen kulturalak gutxietsiz edo zapalduz; eta, bestalde, identitate frantsesa ezagutzarekin, berrikuntza eta modernitatea, nazioartean gainerako nortasun handiekin lehiatzea da” (Iza, 2011:33).

Gertakizun politikoa izateaz gain, kutxu kulturala ere izan zuen, gizarte frantsesean zeuden praktika eta balore sozialak goitik behera aldatuz. Frantziako iraultzan frantsesa bilakatu zen nazioaren ikurra, askatasunaren tresna gisa zabaldua izan zena. Transformazio sozial zein politikoa izan zen, kontzientzia berri bat sortu eta identitate nazional berria suspertu zuena. Honenbestez, gertakari honek zer esana piztu izan du Frantziako historian, identitate nazionalean inpaktu handia sortuz. Iraultzak lehen errepublika frantsesari eman zion leku, *“liberté, égalité, fraternité”* lelopean izendatu zena. Ideia hauen atzean frantsesen arteko elkartasuna eman zen, sortu ziren balore berri horiek partekatu egiten zituztelako identitate frantsesaren izenean.

Amankomunean ezarritako identitate honek sendotasuna irabazi zuen, lurralde osoan frantses identitatea frantses hizkuntzarekin eta hiritar izaerarekin lotzea zen helburua, gainerako identitate, hizkuntza eta adierazpen kulturalak gutxietzen edo zapaltzen, eta bestetik, identitate frantsesa ezagutzarekin, berrikuntzarekin eta modernitatearekin lotzen zen, hau da, nazioartean gainerako identitate handiekin lehiatzea (Iza, 2011: 32). Beste modura esanik, estatu zentralizatu edo jabokino bilakatu zenaren trilogia ondorioztatu zen: nazio batua, lurralde zatiezina eta hizkuntza bakarraren nahia.

“Frantziako iraultza denboran frantsesa zen nazioaren ikurra, argitasunaren hizkuntza eta askatasunaren tresna. Gregoire abadearen ustez beste herri hizkuntzak

sinesmen zaharren eta etsaigoaren hizkuntzak ziren. Orduetik finkatu zen Estatu zentralizatuaren edo jakobinismoaren trilogia: nazio batua, lurralde ezin zatitua eta hizkuntza bakarra” (Bachoc, 2001: 414-415).

Hortaz gain, iraultza frantses eta baita mundu mailako gerrek nolabaiteko zerikusia izan dute frantses identitatearen arloan. Soldagogo eta gerra denboretan Frantziaren frantseseta emateko baliatu izan zen (Bachoc, 2001: 415). Horrela ba, 1789an amaitu zen Iraultza frantsesaren haritik tiraka, lehen (1914-1918) eta bigarren (1939-1945) mundu gerrek ondorio handiak izan zituzten Ipar Euskal Herriko euskaldunen kontzientziaren baitan (Iza, 2011: 33).

Gauzak horrela, XIX.mende bukaeran, hirugarren errepublikak hartu zuen leku Ipar Euskal Herrian, bertan zehazturiko ideia politikoak eskoletara iristeraino. Hirugarren errepublika garaian, denei frantsesa erakastea izan zen helburu nagusia, bere alde iluna izatearekin bat. Izan ere, beste hizkuntza guztiak desikasiz eta debekatuz eraman zen aurrera frantsesaren aldeko apustua. Egoera honetan, Bernard Cerquiglinik “elebakartasun fikziozko eta sakratua”-ren ideia aipatu egin izan du. Hori horrela izanik, errepublika honek lotura sozialak sortu nahi izan zituen, balio politiko unibertsaletan zehazten diren askatasun, berdintasun, eta ahaidetasuna, giza eskubideen atxikimendua baino, hizkuntza nazionala goratzeko. Prozesu guzti hau hizkuntza komuna izatera iristeagatik gertatu zen, baina baita, inplizituki, beste hizkuntza batzuen desagerpenagatik ere (Alessio, 2014: 62). Gainera, frantsesaren nagusitaren aldeko joera hau eskoletan ere eman zen. Iraultza garaian onartutako konbenioak, hots, elebakartasun ofiziala indartu zen irakaskuntza publikoan (Bachoc, 2001: 415). Garai hartan, eskolak laikoak, urririkoak eta beharrezkoak ziren, eskola publiko horietan frantsesa hizkuntza nagusi izanik. Aipaturiko guztiak, XX.mende erdian, Ipar Euskal Herria aitortza gabeko egoerara bidali zuen, garaiko Bearn departamentuaren parte izanik. Iraultza frantsesaren ondotik, 150 urtez, erreinu, errepublika ala inperio, gobernu ooren helburu nagusia Frantziaren frantseseta izan zen hain zuzen ere, administrazioaren eta eskolaren bidez. Nolabait, identitate frantsesaren hedatzea, gerla uneetatik administrazioa salto eginez burutu zuten (Bachoc, 2001: 415).

Honela, euskarak ez zuen inungo onespenerik jaso izan, ez baitzen hizkuntza ofizial bezala kontsideratua, frantsesa hizkuntza bakarra izanik. Hortaz, ez zuen inongo estatusik lortu Frantziako hizkuntzengatik (Alessio, 2014: 62). Hala ere, oraindik ere, euskara tradizionalki erabili egiten zen Iparraldean, kanpaina aldeko barnekaldeko herrietan euskararen presentzia nabaria baitzen. Euskaldun hiztunen kopurua beherantz joaten hasi zen arren, gaur egungo egoerari alderatuz une hobea zen, amesgarria (Camblong, 2001: 405). Baina frantses administrazioa areagotzen hasi zen eremuetan euskarak ez zuen inungo lekurik jaso. Honek guztiak frantsesari geroz eta indar gehiago eman zion, bertan bizitzeko beharra izatera iritsiz. Aipatzekoa dugu, euskara ez zela debekatua izan Ipar Euskal Herrian, baina babesik jaso ezean, egoera ankerrera bidali zuen, eskoletan betora bidalirik. Honenbestez, eremu publikoetan euskara gutxieztu egiten zuten, eskola, lan, zein bestelako lekuetan hizkuntza honekiko beharrik ez izaten. Are gehiago, Ramuntxo Camblong militantearen hitzetan egoera honek euskara hiltzera bideratu zuen, irrati, eskola zein prentsaren bidez euskara egoera

txarrera bideratzen ari baitzen (Camblong, 2001: 405). Egoera honen aurrean, modu egokian hitz egin behar zen frantsesez lana aurkitzeko edo pertsona kultua izatera iristeko.

Honako ideia guztiak konstituzioan plasmatuak geratu dira, 1994.urtean atera zuten Toubon² legeko 1. artikulua horrela esanik:

“Langue de la République en vertu de la Constitution, la langue française est un élément fondamental de la personnalité et du patrimoine de la France. Elle est la langue de l'enseignement, du travail, des échanges et des services publics”. “Konstituzioaren arabera Errepublikaren hizkuntza den frantsesak Frantziaren nortasuna eta ondarea oinarritzen ditu. Ikaskuntzako, laneko, harremanetako eta zerbitzu publikoetako hizkuntza da” (Bachoc, 2001: 416).

Egoera honen pare, euskara debekatua ez izateak, ez du esan nahi hizkuntza honekiko aurkako posturak ez direnik eman. Hau da, 1999an, Konstituzio Kontseiluaren izenean eurokartaren ideia zenbaitekin desados ageri ziren. Horien artean hizkuntz eskubide kolektiboak, lurraldetasuna eta herri hizkuntzen erabilera publikoak zurrunki kritikatu zituzten, errepublikaren ideia eta ezaugarri batzuk dudan jarri egiten zituelako, hots, lurraldearen osotasuna, herritarren berdintasuna eta frantsesaren funtzio orokorra (Bachoc, 2001: 419). Eta ideia honek gaur egun oraindik ere indarrean dirau, euskararen presentzia askotan ukatu egiten delako, frantses guztien arteko berdintasuna urratu egiten duenaren arrazoipean, frantsesa baita biztanle guztiak batu eta era berdinean tratatzen dituen arrazoa. Hots, Frantziako herria berdintasun konstituzionalean bizi izan da gaurdaino, edozein talderi trataera berezia eman ezker, berdintasunaren haustura emango zela ulerturik, horra Frantziak lekuan lekuko hizkuntzen aldeko bultzada handirik ez egitearen arrazoa (Lopez, 2001: 435).

Frantziaren filosofiak berdinean segitu arren, Europako estatuarekin parekatu ahal izateko hizkuntzen aldeko babes minimo batzuk aurrera eramane behar izan du. Hori dela eta, Toubon legearen 21.artikuluak (2021) honela dio:

“Les dispositions de la présente loi ne font pas obstacle à l'usage des langues régionales et aux actions publiques et privées menées en leur faveur” “Lege honetako xedapenek ez dute eragotziko eskualdeetako hizkuntzak erabiltzea eta haien alde egiten diren ekintza publiko eta pribatuak gauzatzea”.

Hala ere, aurkako iritzirik azaleratu ez arren, toki justua geratzen zaio euskarari (Bachoc, 2001: 416). Artikulu honetako lege hauek hein batean euskara sostengatu egiten dute, baina ez da komunitatearen lehen hizkuntza bihurtzeko asmoa, Frantziako ondarea balioztatzeko egiten den apostua baizik, hau da, nolabait, frantsesez biziko den komunitate baten partaide zenbaiten nahi sinbolikoa asetu behar izateko ematen den pausua (Lopez, 2001: 435). Ondorioetan, askotan hizkuntzaren ofizialtasuna exijitua izan da.

² Frantziako lege bat da, eta honen esanetan derrigorrezko bihurtzen du frantsesa erabiltzea eremu ofizial ezberdinetan: iragarki, lantoki, merkataritza-kontratu, estatuak finantzatutako eskoletan eta beste kasu batzuetan. Toubon legearen hiru helburuak hauek dira: hizkuntza aberastea, frantsesa erabiltzeko beharra izatea eta frantsesa Errepublikaren hizkuntza gisa defendatzea.

Horren aurrean, egoerarekin desados zeuden biztanleak baziren, euskal kultura zein hizkuntza suspertzeko gogoaz zuten familia batzuk alegia. 1950-2000 urte tartean, 60.hamarkadak zer esana piztu zuen Ipar Euskal herrian. Horrela ba, frantses identitatearen aurrean euskal abertzaletasunak indarra lortu zuen, nolabaiteko kotzientzia pizteko bidean. Euskararen egoera ankerrera joaten ari zela ikusirik, hizkuntza honekiko babeslekuak sortzen hasi ziren, horietako esanguratsuenetariko bat ikastola izanik, gaur egungo Seaska. (Camblong, 2001: 405).

b. 60.hamarkada: Seaska, Ikastolaren sorrera

Ikastolen sorrera 60.hamarkadan hasi zen, Hego Euskal Herrian lehenago eraman zen proiektua izan arren, Ipar Euskal Herrian ere baziren guraso zenbait eskola euskaldunaren ideia zabaltzen hasi zirenak. Hezkuntza gune berria, hori izan zen bertako guraso euskaldunen nahia, haien haurrentzako irakaskuntza euskalduna sortzea. Ideia honen sormena guraso eta irakasle zenbaiten elkarlanetik sortu zen, baita biztanleriaren batzuen eskutik ere (Iza, 2011: 36).

Seaska orduan Ipar Euskal Herriko ikastola bilakatu zen. Ikastola hitzaren jatorrira jo ezker euskaraz irakasten duen ikastetxea adierazten du. Hau da, ikastola eskola da, alde batetik ikasi eta ola bestetik elkartzen dituenak, nonbait ikasi-(t)-ola sorturik. Hortaz, gaur egun ikastolak euskal eskolari egiten dio erreferentzia, eskolak ordea beste edozeini (Urreza, 2019: 43).

Esan bezala, guraso asko izan ziren helburu honen bultzatzaile, euskarak urteetan zehar, Hego zein Ipar Euskal Herrian pairatu behar izan zuen zapalkuntzari erantzuna emateko asmoz. Sortzaile hauen grina, berrikuntza sortzea zen, garaiko eskola publikoen alternatiba eraikitzea, ezberdina eta aurrerakoa. Guraso askok haiek jasotako hezkuntza haien haurrei ez bideratzea izan zen gura. Ez zuten haiek bizitako esperientzia haien haurrentzako nahi, horren aurrean zerbait egitearen beharra nagusituz. Ikastolaren sorrerak ezjakintasun batzuk sortu arren, identitate euskalduna berreskuratzea garaiko eskolarekin ezinezkoa zela azpimarratu zuten. Hortaz, ikastolak ez ziren planteamendu zurrun batetik eginak izan, erabaki pertsonal zoin kolektibotik sortu zen egitasmo sozialetik alegia (Iza, 2001:36).

Frantziak bizi izan zuen mugimendu sozial garai berean (1968ko maiatza), Ipar Euskal Herrian baziren dagoeneko mugitzen hasi ziren batzuk, ikastola sortu aurretik eman ziren bestelako sustapen bide batzuk. Nolabait, garai honi herri kontzientziaren esnatzea deitu izan zaio batzutan. Enbata³ aldizkariaren sorrera 1963an iragan zen, horrekin batera aurrera eraman ziren zenbait ekintza. Hego Euskal Herritik errefuxiatu andana iristen hasten ziren eta horrek harreman berriei ematen zien leku. Euskarazko lehen emankizun batzuek leku irabazten arren, eskolan, prentsan, eremu ofizial, lantokietan ez zen euskararen erabilpenik egiten (Camblong, 2001: 408). Horrekin batera, musikaren bidez ere eman ziren zenbait

³ Enbata, hilabetero Ipar Euskal Herrian argitaratzen duten aldizkari abertzalea da. Bertan euskaraz eta frantsesez informazio ezberdinak ageri dira, politika gaia eta bestelako artikulatuak argitaratuz. Izen berarekin, mugimendu politikoa ere izan zen Enbata, gerora izen berdina izan duen alderdi politikoa sortzera iritsiz.

pausu, Mixel Labeguerie, Manex Pagola, Txomin Larralde, horietako batzuk izanik. Suspertze bide guzti hauen artean Seaskako lehen ama eskolari eman zitzaion bide.

Seaska, iparraldeko ikastolen elkartea, 1969 ko urtean hasi zen bere ibilbidea loratzen, Libe Goñi bertako lehen irakasle, Elbira Zipitriaren etxe-klaseak⁴ ezagutu zituenetik. Apirilaren 30ean, Manex Pagola, Ramuntxo Camblong eta Argitxu Nobliaren eskutik ikastola aurkeztua izan zen Baionako Suprefeturaren, honek, ofizialki ate irekierari hasiera emanez. Urte hartan, bost ikasle soilentzat izan baldin bazen ere, Arrangoitzen eduki zuen hasiera Iparraldeko ikastolen elkartearen bide guzti honek, Lapurdin hain zuzen ere. 1901.legeak eman zion onespena sortu berri zen irakaskuntza euskaldunari (D eredu). Hortaz, hortik aurrera, Seaska, irabazi asmorik gabeko elkarte definitu zuten, Ipar Euskal Herriko haurrei euskal hezkuntza eta irakaskuntza sustaturik (Seaska.eus). Horrela da, 1969.urtean militante autonomista ezberdinek, lehen murgiltze eskola sortu zuten, metodologia alternatiboak plantan ezarriz, gaur egun, batxilergoarte eskainia den hezkuntza ibilbidea izanik. Ama eskola eta hurrengo urteak euskara hutsean ematea lortu zuen ikastolak, gerora, 7-8 urteak bete aldera frantsesa pixkanaka sartzen hasiz eskola orduetan (Lacroix, 2019: 30-31).

Horrela eman zitzaion hasiera ikastolari, 1969tik landa, bide honek bere uztak jasoz. Izan ere, gerora, herri ezberdinetan hasi ziren ikastola gehiagoren ate irekierak ematen, Donibane Lohitzune, Baiona, Senpere, Hendaia, Donapaleu, Ziburu, Maule, Donibane Garazi, eta beste herri ezberdinetan. Ate irekitze guzti horien barnean zerbait bilatzen zuen ikastolak, bertako haurrak euskaldunak sentitzeko aukera eta beharra bultzatuz, Ipar Euskal Herrian gutxitan topatzen zen euskarazko arnasguneak sorturik. “*El movimiento de las Ikastolas, Un pueblo en marcha*” lanean azpimarratzen da ikastolako seme-alabak euskaldun sentitzea bultzatu duela, mundu euskaldunerat bideratzen. Seaskaren sortzaileak euskaldun izateaz harro zeuden, nortasunaren osagai garrantzitsua izanik.

Ikastola, hizkuntza, hau da, euskara biziberritzeko prozesuaren gune nagusi bilakatzen da, biztanleri ezberdinarengana iritsiz, familian eta inguruan erabiltzen ez duten horiei hizkuntza transmitituz. Hizkuntza biziberritzeko pausuak emateko haurrak jarriak izan dira erdigunean,, hurrengo belaunaldiei hizkuntza transmititzeko joera handiagoa izango dutelako, hizkuntza modu arrunt eta naturalean hitz egitea lortzen badute (Lacroix, 2019: 30). Aipatu dugun bezala, ikastolak beti izan du euskal hizkuntza sustatzeaz gain, euskal kultura eta identitatea bultzatzeko helburua (Iza, 2011: 51). Hori horrela izanik, identitatea bera babestu ahal izateko, ohitura euskaldunak, euskal kultura, ikastolaren barru zein kanpoan lotzen hasi ziren. Bultzada hauen adibide Olentzeroren etorrera dugu, lanketa handi baten ondorioz sortu zena:

“Hemen, Papa Noel eta Jesús ziren opariak ekarri behar zituztenak. Orduan, gurasoei deitu eta Olentzerori buruz hitz egitea erabaki genuen. Haur bat Olentzeroz jantzi genuen, txistuak hartu eta kalera atera ginen. Arrangoitze herria oso sakabanatua zegoen, eta, beraz, abenduko astebururo auzo bat bisitatzen genuen.

⁴ Elbira Zipitria irakaskuntza euskalduna modu klandestinoan ematen hasi zen Donostiako etxeetan. Garai hartan debekatua zegoen euskaraz ikastea, eta Elbira Zipitriak Donostiako alde zaharreko etxe batzuetan klaseak eman zizkien haurrei, euskal hezkuntza jasotzeko aukera izanez.

Etxean, Papa Noel zen opariak ekartzen zizkiena, baina ikastolan, Olentzero” (Iza, 2011: 52).

Olentzeroren etorrerarekin batera, Ipar Euskal Herriko ikastolak zer esan handia sortu zuten euskal kulturaren aldeko desmartxan. Izan ere, Seaska, euskal abeslariak eginiko kontzertuak antolatzen hasi zen, ikastolaren aldeko finantza bultzatzeko asmoz. Hasiera batean komunitate berera mugatzen zen ekimena izaten zen, Maialen Garatek beti jende bera zela esanik (Iza, 2011: 51). Urteak aurrera joan ahala, hasiera batean ehun ikusle soilentzat egiten ziren ekimenak, milaka pertsonaz josiak izatera pasa ziren. Emendaketa horren arrazoi nagusi bat, frankismoa bukatu eta, Hego Euskal Herritik etortzen hasi ziren euskaldunena dugu, Ipar Euskal Herrian, euskal identitate zein kulturarekin harremanetan sentitzen zirenen pertsona kopurua altuagoa izanik.

Poliki hasi baldin bazen ere, esan dezakegu Seaskarekin, irakaskuntza euskaldunak bere leku hartzen hasi zela Ipar Euskal Herrian garai hartan. Hezkuntza zentro honek, euskararen zabalkuntza bermatu nahi zuen aldi berean, hedatu nahiriko bestelako filosofia batzuk ere izan zituen hasiera batetik. Ikastolak, pedagogian metodo bereziak behar zituela azpimarratu izan du hasiera batetik, aurrerakoitzat definituak izan direnak (Seaska.eus).

Esan beharra daukagu, urteen poderioz, aldaketa asko bizi izan direla. Izan ere, barne sistemako iritziak aldatzen joan izan dira, ikastola gizarte eragile ezinbesteko bilakatzen den uneraino:

“Sortu eta hamar urte berantago, ikastola gizarte eragile saihestezina bilakatzen da, guraso, irakasle eta laguntzaileen etengabeko lanari esker” (Seaska.eus).

Ezinbestekotzat jo izan da ikastola, urteen poderioz eduki duen hedapen ezberdinengatik. Izan ere, guraso euskaldunez gain, erdaldunak diren horietako batzuek ere haien haurrak ikastolan ezartzeko aukera egin dute. Egoera honek ikastolako ikasle kopuruari emendaketa argia eraginik. Honen aurrean, ondorioak positibotzat jotzen dira, euskal hezkuntza sistema, inguru euskaldunetik haratago iritsi delako (Ikastolen Elkarte 2009: 18).

Garapenen aipamena egin arren, mahaingaineratzekoa dugu ikastolaren garapena poliki iragan den prozesua izan dela. Euskal hezkuntza honek berrikuntza sortzerako garaian, duda ere sortu baitzuen Ipar Euskal Herriko gurasorengan, hots, sinesgarritasuna eskuratzeko beharra. Honen harira, etxe ezberdinetan, irakaskuntza hau ontzat emateko, Seaskako irakasleei formakuntza ezberdinak ematen hasi ziren. Pantxika Ibarbouren hitzek ere horrela diote:

“Ikastolak emeki eta nekez garatu dira irakaskuntza murgiltze sistema berri honen onuraz (D eredu) gurasoak konbentzitu behar zirelako, erakasleen formakuntza bermatu behar zelako eta eredu honen garapenaren aurkako politikari aurre egin behar zelako” (Ibarboure, 2002).

Seaskaren ibilbidean aldaketa zenbait eman izan dira, honela, hasiera batean eskeintzen zen ama hezkuntza soilari, lehen hezkuntza gehitu zitzaion 1975. urtean. Honek aldaketa esanguratsua eragin zion Ipar Euskal Herriko ikastolei, nolabait, hezkuntza euskaldunaren segida zin egiten baitzion Seaskak euskaldun haur orori. Ikastolaren emendaketa eragin zuen era argi batean, hein batez, geroz eta leku gehiago eskuratzen hasi baitzen Ipar Euskal Herrian. Hala ere, emendatze honek zailtasunak ere sortu egin zituen. Ikastolek, inbertsio handiak egin zituzten eraikuntzak berri eta berriak eraikitzeko, hots, aurrekontua ere igotzen hasi zen. Baina, jasotzen zituzten diru iturriak ez ziren nahiko izan arlo ekonomikoari ondo erantzuteko.

Honen aurrean, arazo ekonomikoak asetuko zituen ekimen bat hasi zen prestatzen, ikastolen aldeko festa, Herri Urrats, 1984ean. Urtero, Senpereko laku inguruan murgildu egiten da, bertako irabazi ekonomikoak Seaskako ikastolara bideratuz. Urteen poderioz, ikastolen festa erritual antzeko bilakatu da, festa honek nolabaiteko identitatea edukitzera sortuz, kantu propioa, logoa, arropa, lema izanik. Honenbestez, hasiera batean, Seaskak diru mailako gastuak bere gain hartzetik, Hezkunde Ministeritzarengana eta baita tokiko erakundeengana jotzera behartua ikusi zen, ikastola haien gain hartu ahal izateko. Horrela, Seaskak, 1994. urtean, Hezkunde Ministeritzarekin hitzarmena adostu egin zuen, ikastolari eskola pribatu estatutua emanik (Seaska.eus).

80. hamarkada esanguratsua izan zen Ipar Euskal Herriko ikastolentzat. Aipatzeke dugu euskaltasunaren berpizte bat eman zela garai hartan. Alde batetik, politika giroa aldatu egin zen, 1981eko maiatzaren 10ean, Francois Mitterrand, alderdi sozialistako kantidatua (PSF), errepublikako lehendakari izendatua izan baitzen. Honek nolabaiteko esperantza sortu zuen euskal lurraldean, lehendakariak hainbat aldaketa proposatu zituelako. Mitterrandek bere kanpaina elektoralerako prestatu zituen proposamen zerrendan bi euskararen aldekoak ziren, euskal departamendu eta herri hizkuntzaren babesa adieraziz. Baina azkenean ez zen proposamen hauen betekizuna aurrera eramanez izan.

Hortaz gain, kontu ekonomikoen arazoen aurrean, Seaskaren bizirautea segurtatzeko Frantses Hezkunde Nazionalari, zor zuen diru parte eskatu zitzaion. Honen harira, manifestazio ezberdinen ondorioz, 1983an lehen hitzarmena izenpetu zuen Seaskak Frantses Hezkunde Nazionalarekin. Laguntza ekonomikoa emateak ondorio positiboak sortu arren, Seaska kultur ministeritzaren esku geratu zen, hezkuntza nazionalari inungo ardurarik eman gabe. Honela, Seaska ez zen eskola bezala kontsideratzera izatera iritsi, laguntza ekonomioa eman arren, integrazioan lagundu gabe. Akordio hauetaz gain, 1985eko urrian, beste akordio bat sinatu zuten aipatutako bi aldeek. Akordio honek Seaskako irakasle guztien integrazio bidea zehaztu zuen. Baina 1986an, Kontseilu Konstituzionalak deuseztatu zuen, eskuindarren boterea gailendu zelako, Seaskaren egoera nolabait okerrera eginik.

Momentu horretan, Seaska kontratu pribatuak izenpetzen egon behar izan zen. Hala ere, bi urteren ostean, sozialistek berriz ere boterea berreskuraturik, Seaskak bere bidean jarraitzea lortu zuen, ezengokortasun ekonomikoa agerian izan arren. Honenbestez, negoziaketa ezberdinei atea ireki zitzaion. 1989. urtean izenpeturiko, eta 1990. urtean horren eraginak

azaleratu ziren, Hezkunde Ministeritzak ama ikastola eta Lehen mailako 61 irakasle bere gain hartzen hasi zen momentuan, nahiz eta Seaskako kolegio era lizeoa kontraturik kanpo geldirik arren.

Kolegio eta lizeoen ezeztapena urte batzuz bermatu arren, 1993. urtean hitzarmena berregitea erabaki zen, honakoa kolegiaraino iritsiz, honela estatuak lehen maila zoin kolegioko erakasleak bere gain harturik. Urte baten ostean ordea, 1994ean, Seaskak, Hezkunde Ministeritzarekin batera izenpetu zuen adostasunean, ikastola euskarazko murgiltze eremuan dagoela onartzen da, oinarrian daraman eskola elebiduna izanik. Estatu frantsesak ikastola lehen aldiz euskal irakaskuntza bezala onartu egiten du, hezkuntza sistema gisa, euskaltzaleengan berri positiboa izanik.

“Estatu Frantsesak, lehen aldiko onartzen du ikastola euskal irakaskuntza obratzen duen eskola gisa, hezkuntza sistema bezala. Hasieran batean xedea sinetsgaitza bada ere, emeki emeki, urak bere bidea egiten du eta urtero urtero, ikastola berriak sortzen dira han hemenka” (Betxepare.eus).

c. Bernat Etxepare lizeoa, Seaskaren azken uzta

Ama hezkuntzan hasi eta lizeoan (4.DBH + Batxilergoa) amaitzen den ibilbidea eskeintzen du Seaskak gaur egun. Ipar Euskal Herriko ikastolako ikasleek, haien hezkuntza ibilbidea herri ezberdinetan hasi egiten dute, gerora burutu beharreko kolegio (6.maila + DBH 1/2/3) eta lizeoa urteak (4.DBH + Batxilergoa) herri soil batzuetan topaturik. Izan ere, Seaskako ikasle guztiek batera ikasten dute lizeoan, hezkuntza etapa hori Baionako Bernat Etxepare lizeoan bakarrik dagoelako. Gaur egun, 452 ikasle osatzen dute Seaskako azken ibilbide eremua. Honek zera esan nahi du, Ipar Euskal Herrian ikasten dauden beste ikasle guztiek, ez dutela euskara hezkuntza hizkuntza gisa, haien bide akademikoa eredu elebidunean edo frantsesez burutuz. Hortaz, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako abantzu ikasle euskaldun guztiak topatzen dira Bernat Etxeparen, euskaraz ikasteko aukerak bultzaturik. Gainera, euskaraz ikasteko lizeo bakarra izanik, barnetegi bat eraikia izan zen bidean ordu askorik egin ez eta asteen zehar Baionan geratzeko aukera emanez (Betxepare.eus).

Bernat Etxepare lizeoak baxo orokorra eskeintzeaz gain, teknologikoa ere dauka, enpresen kudeaketa inguruan izanik eginkizuna. Lizeo honetan dagoen azken aukerari baxo profesionala deitzen zaio, batek, haur eta adinekoentzako animazioaren inguruko hezkuntza eskainiz, eta merkataritzaren saila besteak. Hontaz, bide akademiko ezberdin hauek eskeintzen ditu ikastolak gaur egun euskal lizeoan.

Honen bidez, Ipar Euskal Herrian euskaraz ikasteko aukera dagoela ikusten dugu. Hala ere, datu garrantzitsu bateri egin behar diogu erreferentzia, orain arte pil pilean egon den gaiarena alegia, Baxoa⁵ Euskaraz aldarrikapena (selektibitatea euskaraz). Gaur egun, lizeoan dauen

⁵ Baxoa Frantziako pasa behar den selektibitatea da. Titulu hau beharrezkoa da goi mailako ikasketak egin ahal izateko. Frantziako Errepublikak guztian azterketa berdina egiten du egun berean. Gaur egun, frantsesetik soilik pasa daitekeen azterketa da.

ikasleek, Hego Euskal Herrian egiten den bezala, azterketa batekin bukatu behar izaten dute hezkuntza ibilbidea hau. Ipar Euskal Herrian ordea, azterketa hau frantsesez burutu behar da, nazioko hizkuntza ofizialean soilik bete daitezkelako egin behar ofizialak Frantzian, euskarak babes ofizialik jasotzen ez duenaren ondorioetan, arestian aipatu dugun berdintasun argudioak bideraturik.

“Arazoa ez da frantsesez dugun gaitasuna, azterketako notek argiki frogatzen baitute gainerateko lizeoetako ikasleen pare ibiltzen garela. Euskaraz ikasteko eskubidean datza auzia. Azterketa honetan frantsesez erantzun behar izateak sinbolikoki ere euskarari garrantzia kentzen dio, euskarazko irakaskuntza bigarren mailan utziz” (Madariaga, 2021).

Hortaz gain, Frantziar estatuan, beraz, baita Ipar Euskal Herrian ere, lizeoen urteen ondoren ez dago euskaraz eskainia den segidarik, unibertsitate euskaldunik topatu ezean, bat bakarrik dago aukeran, Baionan egin daitezkeen euskal filologia ikasketak. Honen aurrean, ikasleek ikasketak euskararekin loturan eduki ahal izateko Hego Euskal Herrira joan behar izaten dira, Ipar Euskal Herrian hezkuntza gune euskaldunik ez dagoelako. Honako guztiak egin beharrak gehitzen dizkie ikasle hauei, konbalidazio tramiteak egin behar baitira herrialdez pasatzearen arrazoiarengatik. Euskaraz ikasteko aukera ez egitearen aurrean, ikastolatik ateratako ikasle guztiek hezkuntza ibilbidea erderaz segitzen dute, askorentzat euskararekiko harremana asko aldatuz.

“Iparraldean ez dago goi-mailako ikasketak euskaraz egiteko eskaintzarik. Salbuespen bakarra dago honetan ere: Baionako Fakultatean Euskal Ikasketetako lizentzia egin daiteke euskaraz. Lizentzia hori lortzen dutenak Hegoaldera joan ohi dira, baldin eta *baxoa* gainditzen badute” (Asurmendi, 2016).

Ikastolen ibilbide guztia kontuan harturik, ikasleen emendaketaren aurrean ondorio positiboak atera izan dira, geroz eta familia gehiagok egiten baitu aukera haien haurrak ikastolara bidaltzeko. Honen erakusle izan dugu, herri ezberdinetan ikastola eraikin berriak ireki behar izanaren beharra, txiki geratu baitziren aurrekoak. Modu berean, Bernat Etxepare lizeoa ere hedatu behar izan da ikasle kopuru berriaren aurrean behar bezainbeste gela ireki ahal izateko, beti ere autofinantzazio batekin, elkarte pribatu gisa izendatuak direlako.

Azterketak euskaraz pasatzeko ezintasunari tiraka, azken berrietara jo ezker, 2023ko Apirilaren 22an egin zen Baionako azken manifestazioak aldarri egin zion azterketak euskaraz pasatzearen egoerari, “Euskarak bizi behar du” lelopean. Azken urteetan, Frantziar estatuan kokatzen den Ipar Euskal Herrian euskara debekatua izan ez dela aipatu arren, hizkuntza hau oztopatzen eta debekatzen dutenaren arrazoiak azalera dituzte Peio Jorajuriak, Seaskako lehendakariak. Izan ere, hizkuntza honen biziarazteko, hizkuntza politikak aurrera eramateko elkarteak eskutik eramanak dira, ikastolan ibilitakoek antolatzen baitituzte gau eskolak, aisialdiak, eskolen kudeaketa, besteak beste, lan hau ez baitute egitura publikokoek egiten. Egoera honen aurrean, egitura publikoen babesa, legez, ekonomikoki eta

administratiboki beharrezkoa dela azpimarratzen du Peio Jorajuriak. Babesaz gain, euskararen debekuaz ere mintzatzen da Seaskako lehendakaria:

“Militante gisa eta euskalgintzako kide gisa orain arteko hiru ardatzak segitu behar ditugu: ezagutza, erabilera eta motibazioa. Badakigu epe laburreko etorkizuna segurtatzeko horiek ezin ditugula bazterrera utzi, eta segitu behar dugula hiztunak sortzen, erabilera guneak sortzen, motibazioa bultzatzen... Baina epe luzera bada beste urgentzia bat: debekuak kentzea. Gaur egun, Ipar Euskal Herrian, euskara debekatua da. Azterketen gaiak ongi adierazten du: baxoan debekatzen digute gure hizkuntza baliatzea. Lizeo publikoetan, praktikan, euskara debekatua da. Erreformarekin, hautazkoen aldaketarekin, lizeo publiko batean ezin da euskara ikasi, ezin da euskara baliatu. Ezarri dituzte arau administratibo batzuk euskara debekatzen dutenak. Kanpoko esparru guzietan baditugu horrelako debekuak” (Jorajuria, 2023).

Debeku hauen aurrean, Seaskako lehendakariak erantzun bakarra lan militantea dela aipatzen du. Babes ezak eta baita euskararen debekuak ere kezka jartzen du Ipar Euskal Herriko euskararen etorkizunean, daukagun errealitatearekin segurtatu ezin den etorkizuna baita (Jorajuria, 2023). Bi hamarkadetan hiztun kopuruak behera egin du, %25etik, %20ra pasatuz, hiztun kopuruak puntuak galtzeak, erabilera eragina sortuz. Honen aurrean, hiztun kopuru gehiago jeitsi ezker, erabilera ere galduko dela azpimarratzen du Seaskako lehendakariak, kezka eta larritasun egoera mahain gainean ezarriz. Izan ere, etorkizuneko urteetan erabilera sustatu ezean, euskara egoera larrian izanen da.

“Biztanleen %20 euskaldunak badira, erran nahi du %80 ez direla euskaldunak. Hamar pertsona badira gela batean, estatistikoki badira bi bakarrik euskaldunak direnak, beraz, hamar pertsona baino gutxiagoko talde bat bada, estatistikoki ez da euskaraz aritzen ahal. Gune babestu batzuetan aparte, euskara ez da entzunen, nehor ez da ausartuko euskaraz aritzen, badakielarik bere inguruan denak *frantximent* hutsak direla” (Jorajuria, 2023).

d. Euskararen erabilera Ipar Euskal Herrian

Ikastolako ikasle kopuruak gora egiten du urtero, euskararen ezagutzan puntu positiboa izanik, baina erabilera inguruan galderak sortuz. Euskararen erabilera aldatuz joan da historian zehar. Izan ere, aipaturiko gertakizun historiko guztiek eragina izan dute hizkuntza honen egoeran. 1900 urtera denboran atzera egin ezker, garaiko biztanleen 10etatik 8 euskaraz bizi ziren, kostako herrietan gutxiago erabilirik: Angelu, Miarritze, Baiona, Bidaxune eta D.Lohitzunen (Camblong, 2001: 406). Euskararen erabilera arrazoi nagusietako bat katekesiak izan ziren, bertan ikasi baitzuen jendeak euskaraz irakurtzen eta idazten, garaiko eskolatan ez baitzegen euskarazko klaserik. Hala ere, Ramuntxo

Camblongek izendatzen dituen euskaldun argituenak, euskararen egoeraz kezkatzen hasi ziren, hizkuntza ez galtzeko zerbait egin beharra zegoela ikusiz.

Urte batzuk pasa eta lehen mundu gerrak hartu zuen leku, 1914 urtean hain zuzen ere. Kasu honek orokorrean ondorio latzak eragitearekin batera, Iparraldeari ere eragin zion, frantses nazionalismoa nagusitu baitzen (Camblong, 2001: 406). 1920-1930 urteetan euskara gutxieneko batek soilik erabili egiten zuen. Hala ere, euskarak segitzen zuen, erabilera apala izan arren, bazen nolabaiteko segida 1930-1940 urteetan ere. Honen ostean ordea, bigarren mundu gerrak eztanda egiten du 1939an. Honek, 1940-1950 urte bitarteetan bestelako eraginak sortzen ditu, bizi molde berriekin batera euskarak gainbeherako joera hartzen du, kopuru eta eremu aldeari dagokionez Ipar Euskal Herrian. Presentzia eta erabilerak behera egin arren, oraindik ere euskara erabiltzeko guneak presente dira, igandeko meza, pilota, festa edo merkatu inguruneetan.

Egoera honen aurrean, 1960-1970 urte tarteari herri kontzientziaren esnatzea deitzen dio Ramuntxo Camblongek. Euskararen presentzia eta erabilera sustatuko dituen hainbat irekiera ematen zirelako, teknika eskola batzuk, Hazparnen P.Xarrioten eskutik, “Radio Cote Basque” deituriko euskarazko lehen emankizunak hasi ziren, engaiamendu politikoa zuten kantuak hedatzen hasi ziren, lehen ama ikastola ireki zen, besteak beste. Hala ere, honen pare frantsesak presentzia irabazi zuen, telebista bezalako tresnekin txoko guztietara iristen hasi baitzen:

“Zoritxarrez frantses telebista xoko guztietan eta bereziki sukalde guztietan sartzen da, euskaldunek beren artean euskaraz egiten zituzten mintzaldiak ixiltzen dira, denak tresna horri so baitagotzi, ahoa zabalik...Eskolan, prentsan, eremu ofizialetan, hirietako lantokietan, dendetan euskararik ez da erabiltzen” (Camblong, 2001: 408).

1970 urte inguruan, Ipar Euskal Herrian jendetzea nabari zen, urteekin alderatuz, geroz eta biztanle gehiago baitzeuden hiru probintzia hauetan. Jendetze horrek ez zion mesederik egin euskarari (Bachoc, 2001: 414). Hala ere, euskararen aldeko irekierek ez zuten etenaldirik, modu ezberdinen bidez, sozialki zein ekonomikoki, baita politikoki ere saiaturen zen euskararen erabilera sustatzen. Euskara hirietan sartzen hasi zen poliki poliki, baserria bezalako eremuak galdu arren, beste batzuk irabazi egiten zituen, aurrerakuntza oso motela haatik. 90.hamarkadaren ostean, Ipar Euskal Herrian %30ak bakarrik egiten zuen euskaraz, ehuneko hau urtero beheraka joanik, zaharretan gazteetan baino hiztun gehiago zeudela ulerturik. Legedi ezberdinek, Ipar Euskal Herriko eskola publikoetan euskaraz ordu batzuk izateko aukera onartu zuten, ikastolako ikasleen kopuruak gora egiten zuen aldi berean.

Urte guzti hauen ostean euskara egoera ahulagoan dagoela azpimarratzen da, batez ere erabilpen publikoari dagokionez (Lopez, 2001: 433). Egoera honen aurrean hizkuntzaren ezagutza aski altua dela ikusten da, huts egitea erabilera eta transmisio ezean topaturik. 2001eko datuei erreparatu ezker, erabilera publikoa ezagutza baino sei aldiz apalagoa zen. Honen aurrean, euskara bigarren plano batera bidaltzen da:

“Euskara mugatu da eremu sinbolikora, eta han ere ahultzen ari da, euskararik gabeko euskalduntasunaren kontzeptuak erakusten duten bezala” (Lopez, 2001: 433).

Murgiltze ereduaren geroz eta haur gehiago daude urtero. Hala ere, datu positiboak izan arren, euskararen erabilera beheranzko joera izaten segitu du gaur egun arte. 2021. urteko datuek, euskaraz, erdaraz baino baino gehiago hitz egiten zutenen datua %1.1 baitzen, %78.5 soilik erderaz ari zenean. Gainera, aurreko urteei erreparatu, erdaraz mintzatzen direnen kopuruak goranzko joera izan du, euskaraz ari zirenen hiztunen ehunekoak behera eginik ere.

Aurreko datuek euskararen erabilera orokorraren egoera isladatzen dute, baina mahaingaineratzekoa dugu kalean euskararen erabilera hartzen duen lekua zein den jakitea. Izan ere, ikusi dugu Ikastolaren barruan euskara dela erabiltzen den abantzu hizkuntza bakarra, honek Ipar Euskal Herrian nolabaiteko erabilera sustatuz. Hala ere, kaleko erabileran begirada jartzea garrantzitsua dugu, Seaskatik kanpo erabilera hau nora doan jakin ahal izateko. Honenbestez, ikusi dezakegu kasu honetan ere erdararen erabilera nabarmen gailentzen dela. 2021 urtean, %93.3ren erabilera gaztelania eta frantsesez egiten zen, euskararen erabilera %4.9koa izanik. Kasu honetan ere, euskararen erabilera beherakada izan du urteetan zehar, ehunekoak apalak izan arren, duela urte batzuk goragoak izanik. Egia da, gaztelera eta frantsesaren erabileran ez dela aldaketa handirik eman azken urteotan, baina duela urte batzuk erabili egiten ez ziren hizkuntzen presentzia nabari da Ipar Euskal Herrian 2006tik aurrera, ingelesaren presentzia suposatuz. Nabarmentzekoa dugu 2006 urtetik, momentu batzuetan beste hizkuntza batzuen nagusitasuna euskararen aitzinetik jarri dela. Honela, erabilera nagusia gaztelera eta frantsesarena izanik, ondotik beste hizkuntzena eta azkenik euskararena. Honako egoerak argi utzi du lurraldekoak ez diren hizkuntzen erabilera gehiago nagusitu dela euskararena baino. Hala ere, aipatzeke dugu 2021. urtean beste hizkuntzen ehunekoak jeitsi egin zela eta euskara nolabait bigarren postuan ezarri zuela, oso erabilera ehuneko apalekin.

Ildotik jarraituz, lagunaren artean euskararen erabilera zein den jakitea baliagarria zaigu ere. Datuek argiki erakusten digute lagunaren artean oso gutxi hitz egiten dela euskara hutsean, 2021. urtean %1.5 izanik, beti erdaraz ari direnak %80.7 izanik. 1991ko datuei erreparatu, ikusi dezakegu garaian euskara hutsean ari zirenen ehunekoak goragoa zela, 6.1koa baitzen, datu hauen beherakada nabaria ikusirik azken urte hauetan. Honen pare, beti erdaraz ari direnen kopuruak ere gora egin du, urte hauetan %71.4tik, %80.7ra pasaz.

Adinaren kasua ekarri ezker, ikusi dezakegu Ipar Euskal Herrian euskara erabili egiten duten gehiengoa 65 urte edo gehiagokoak direla. Ehuneko hauetan beherakada handia eman da urteetan artean, duela urte batzuk erabilera gehiengoa ere zaharrenengan ematen baitzen, ehunekoak %9.9koa zen, 2021. urteko datuek %2.2 adieraziz.

Urteak atzera egin, Ipar Euskal Herrian euskararekiko jarrera izanarazlea⁶ nabari zen, Euskal Autonomia Erkidego eta Nafarroari alderatuz agerian jartzen zen ezaugarria izanik.

⁶ Jarrera izanarazlea: Gure hizkuntza euskara dela kontsideratzea, horrek euskaldun egiten gaituela ulerturik. Horren barruan, hizkuntza zaharren balioa, mantentzeko den tradizioa, Euskal Herriko izaera eta oinarri gisa ulerturik.

(Martinez, I & Berrio-Otxoa, K, 2000). Urteak aurrera joan ahala, beste datu batzuk jarri dira agerian ordea.

i. Azken datu estadistikoak: 7.inkesta soziolinguistikako datuak: erabilera, jarrera, transmisioa

Ipar Euskal Herriko 7.inkesta soziolinguistikako datuak hartu ezker, ikusi dezakegu orokortasun batean, aurreko inkestetako datuei erreparatuz, euskararen erabilera jeitsi egin dela. Izan ere, 2021.urteko datuek, 18.200 pertsonen euskararen erabilera trinkoa egiten zutela azpimarratzen du, 2016.urtean argitaratu ziren datuen 20.200 pertsonen erabilera trinkoa egiten zutela ikusirik. Euskararen erabilera lurraldearen arabera ezberdina dela esatekoa dugu. Hau da, 2016 zein 2021eko datuen arabera, BAM⁷ lurraldean euskararen erabilera trinkoa emendatu egin da, kopuru txikian izan arren, %0,8tik, %1.6ra pasatuz. Lapurdin, BAM lurraldea kenduta, erabilera intentsiboa pixka bat beheratu da, 2016-2021 urte tartean -1.6 jeitsiz. Jeitsiera antzekoarekin, Nafarroa Beherea eta Zuberoan -1.5 puntu gutxiago topatzen dugu erabilera trinkoan.

Azken 20 urteak hartu ezker, ikusi dezakegu euskara erdara baino gehiago edo bezainbeste erabili egiten dutenen ehunekoa apaldu egin dela, 3 puntuko beherakada izanik. Apaltze hau hogeitau urteetan eman arren, azken hamar urteetan izan du inpakturik handiena, 2011-2021 urte tartean 4.600 erabiltzaile gutxiago izanik. Bestalde, euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen ehunekoa goraka joan da 2016 eta 2021 urte tartean, 0.8puntuz igoz, hots, 2.600 erabiltzaile gehiago izanik.

Euskararen erabileraren inguruko aipuak egiterakoan, adinaren arabera erabileran begirada jartzea garrantzitsua dugu. Izan ere, erabiltzaileen proportzio handiena 65 urte baino gehiagokoen tartean kokatzen da. Hala ere, erabileraren bilakaera kontuan harturik, 2011-2021 bitartean, euskararen erabilera intentsiboa abantzu adin tarte guztietan jeitsi egin da, 16-24 urte tartean emendaketa bat ikusirik. Noizbehinkako erabileraren kasuan ordea datuek gorako joera adierazten digute adin tarte ezberdinetan.

Etxe eremura salto egin ezker, euskararen erabilera gutxitzen ari dela ikusi dezakegu, azken hogeitau urte hauetan euskaldunen erabilera intentsiboa bost puntuz jeitsi delako. Kasu honetan, azpimarratzekoa da euskaldunek euskara gehiago erabili egiten dutela solaskide bakar batekin, oro har, haurrekin. Ideia honi tiraka, inkesta soziolinguistika honen ondorioetan zera adierazten dute: “Indarrean dago haurren eta helduen arteko solasaldietan euskaraz egitera bultzatzen duen arau soziala”⁸.

Komunikazio formala bermatzen den esparru horietan euskararen erabilera gutxitu egin da, erabilera handiena lagun artean emanik (%12.1), lankideen artean ematen den erabilera bigarren postua egonik (%7.9). Erabilera gutxiena bankuetan ematen dela ikusi dezakegu, ehunekoa 2.4koa izanik. Hala ere, beherakada hauen artean, osasun zerbitzuetan begirada

⁷ Baiona, Angelu eta Miarritze batzen dituen eremua.

⁸ Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntza erabileraren kale neurketa, emaitzen laburpen txostena, 2021, 40.orrialdea

jarririk, azken urteetan euskararen erabilera emendatzen joan da, gorakada horren eremu bakarra izanik, 2011.urtetik 1.4 puntu gehiagoko kasua adieraziz 2021.urtean. Amaitzeko, saltokien kasuak berdin edo antzeko jarraitzen du 2016ko datuei erreparatuz.

Euskararen erabileraren inguruko datuak aipatu bezala, euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak zein diren ezagutzea garrantzitsua dugu. Kasu honetan, 16 urte edo gehiagokoen adin tartean, %36.3 euskararen erabileraren sustatzearen alde da, %49.2 ez alde ez aurka eta %14.5 aurka. Lurraldearen arabera, aipatzeke dugu Nafarroa Beherean (%48.7) eta Zuberoan (%39.2) aldeko jarrera askoz handiagoa dela BAMen baino (%29.2). Aldeko jarrera igo egin da BAMen, Nafarroa Beherean eta Zuberoan jeitsi delarik. Jarrerarekin batera, inkestako datuek, Iparraldeko biztanleek interesa adierazten dute euskararekiko, %29.6ak oso handia, %30.6k nahiko handia eta %21.4k zerbait. Horrekin batera, azken inkesta honetan datu berri bat ageri da, euskararen sustapenaren aldeko ekimen ezagutzari loturikoa. %50ak euskararen aldeko ekimen bat ezagutzen duela adierazten du, hizkuntza gaitasunarekin loturan izanik, euskaldunen %70ak euskararen sustapenaren aldeko gertakari bat ezaguturik, erdaldunen %41ak. Erabilera eta jarrerari loturik, irakaskuntza arloan, %54ak irakaskuntza elebiduna nahi du haien haurrentzat, %40.4ak frantsesezko irakaskuntza nahi dutelarik.

Irakaskuntzan gehiago murgildu ezker, 2016-2023 bitarte murgiltze eredu eta elebidunean dauden ikasleen kopuruak gora egin du. 2017/2018 ikasturtean %19 elebidunean zen eta %7 murgiltze ereduan. 2022/2023 ikasturtean ordea %21 elebidunean eta %8 murgiltze ereduan. Datu hauekin batera, ikusi dezakegu 2021.urtean Iparraldean bizi ziren 16 urte edo gehiagoko adin tartean %20.1 euskalduna dela, %9.4 euskaldun hartzailea eta %70.5 erdaldun elebakarra. Datu hauek aurreko datuak azterturik, euskaldunen mantentze bateri egiten dio erreferentzia, euskaldunen beherakada 0.4 puntukoa izanik. Euskaldun eta elebidun hartzaileen kopuruak elkartu ezker, azken bost urteetan 1.500 hiztun gehiago lortu dira. Lurraldearen arabera zer esana piztu egiten da, Nafarroa Beherea eta Zuberoa baitira euskaldunenak (%47.5), Lapurdin, BAM kenduta gutxiago dira, (%23) eta BAM eremuan euskaldun kopuru gutxiena topatzen dugu, hots, %8.4 bakarrik baita euskalduna. Biztanle kopuruari erreparatuz ordea, aipatzeke dugu Lapurdin (BAM gabe) kopuru nagusia dagoela, 27.000. Kasu honetako bilakaerak zera erakusten digu, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskaldunen ehunekoa bi puntuz jeitsi egin dela, BAM eta Lapurdin euskaldunen kopurua egonkortze momentuan batean egonik, emendaketa txiki batekin.

Euskaldun hauen gehiengoa 65 urte baino gehiagokoetan topatzen da orain ere (%25.7). Hala ere, azken inkestarekin alderatuz, 16-24 adin tarteko indarberritzea nabari da. Adin tarte abantzu guztietan goraka joan da euskaldunen kopurua, 35-49 tartean, 2001etik, lehen aldiz, beherakadarik izan gabe.

Hizkuntza transmisioa ere aldatzen joan da Ipar Euskal Herrian. Nafarroa Beherea eta Zuberoan, euskara, kasik biztanleriaren lehen hizkuntza da (%49), batzuek euskara dute lehen hizkuntza bakar gisa (%38), eta %10.7 erdararekin batera. Datu hauek ikusirik, euskara lehen hizkuntza gisa dutenen ehunekoa era argi batean apaldu da, 2016-2021 tartean 8.5 puntuz jeitsiz. Lapurdin, BAM eremua kontuan hartu gabe, %20ak euskara du lehen hizkuntza gisa,

%13.6 euskara bakarrik, %7.1 euskara eta erdara. BAM lurralde eremuan, euskara lehen hizkuntza dutenen biztanleen kopurua apalena da, %5.1 euskara bakarrik baitu, %3.3 euskara eta frantsesa. Euskara lehen hizkuntza dutenen tasa handiena 65 urte edo gehiagokoengan kokatzen da, gazteengana jo ezkeroko datu hauek apalduz. Izan ere, 16-24 urte tartea hartu ezkeroko, ikusi dezakegu 20 urteetan proportzioa %14.3tik, %3.7ra jeitsi dela. Egoera hau ikusi ondoren, 7.inkesta soziolinguistikoaren ondorioek azaltzen dute geroz eta haur gehiagok bi hizkuntza jasotzen dituztela lehen hizkuntza bezala.

Datue hauen harira, bi gurasoak euskaldunak direlarik, hizkuntza transmisioaren progresioa nabari da, gurasoen %79k euskara transmititu baitiote seme alabei (erdadarekin edo euskara soilik). 2016 datuekin alderatuz, 3.6ko gorakada nabari da euskararen transmisioan hizkuntza bakar gisa.

Azken datu guztiak kontuan hartu ezkeroko, euskararen erabilera apaltzen ari dela ikusi dezakegu, belaunaldi gazteenen kasuan gorako joera izanik, 16-24 urte bitartean oro har. Horrekin batera, euskararen erabilera lurralde euskaldunenetan murrizten ari dela ikusi dezakegu, Nafarroa Beherea eta Zuberoan erabilpen tasarik handiena topaturik. Elkarrizketetan, haurren presentziak euskararen erabilera bultzatu egiten du, testuinguru informalerako salto egin ezkeroko, hizkuntzaren erabilera tasa handiagoa baita haurrekin edo anai arrebeekin ematen diren elkarrizketetan. Lantokietan ordea 2016ko datuei alderatuz, euskara erabilera jeitsi egin da, osasun krisiaren ondorioz emendatu diren tele lanak galdera ikurrean ezarriz. Amaitzeko, osasun zerbitzuetan eman da euskara erabileraren gorakada azken urte hauetan. Erabileraren jeitsiera eta, euskararekiko interesa eta aldeko jarrerak gorakada hartu du.

e. Euskara gaur egun, aukera pertsonala eta pribatua Ipar Euskal Herrian

Gaur egunera salto egin ezkeroko, euskara ikuspegi ezberdinetatik definitua izan da. Horietako nagusienak, Ipar Euskal Herrian, euskararen erabilera aukera pertsonala dela dio, faktore ezberdinek eraginak sortuz, bizilekua, lana, hezkuntza, adina, familia eta lagun taldearen arabera adibidez. Honenbestez, ibilbide historiko guzti honek, euskara, Ipar Euskal Herrian erabaki pertsonalera eraman du. Hau da, aukera indibidualak sortuko du euskara ikasteko gura, gizarterako beharrezkoa ez den hizkuntza izatera iritsi delako.

Honekin, euskararen alorreko aurrerapenak jaso arren, esan dezakegu, gaur egun, ikastolan ikastea aukera pertsonaletik eratortzen dela, euskararekiko lotura sendo batetik sortua, eta ez hainbeste bizitzeko beharrezkotzat autemanten den hizkuntzagatik. Erramun Bachocek euskararen egoera aztertzean, ideia berdinerako iristen da, euskararen erabilera eskubide indibiduala dela azpimarratuz. Horren barruan Frantziako konstituzioak nolabait zaintzen duen libertate bat da, baina Errepublikako hizkuntza bakarra frantsesa da eskubidezko onarpen publiko bakarra jasoz. Honenbestez, euskararen ikaskuntza hautuzko jarrera bilakatzen da, frantsesa beharrezkoa den momentu berean. Euskararen hartuemana familiak

duen loturarekin harremanetan dago, nolabaiteko une oroko militantismoan diharduten (Bachoc, 2001: 422).

Irakaskuntza guneeetan, ikastola ez diren beste hezkuntzetan, ezarriak izan dira euskara ordu batzuk, komunikabideetan ere denbora bat eskeini zaie euskaraz egiteko, beti ere bultzada sinbolikoa izanik, honek euskararen suspertzean ondorio gutxi sorturik. Erakunde publikoek herri hizkuntzak zaintzen ez dituztela egotzi egin zaie. Hau da, euskararen aldeko biziberritzeak elkarre pribatuetatik egitea eskatu egin da, gaur egun hezkuntza euskalduna eremu pribatuan topatuz adibidez.

Hala ere, arestian aipatu dugun Toubon legeak, 21.artikuluan herri hizkuntzak ukatzen ez dituela ikusi dugu. Hala ere, babes ofizialak eduki ezean, zaila da euskaldunei haien hizkuntza erabiltzeko gogoia ematea, ematen diren laguntza sozial, politiko zein finantzarioak eskasak baitira (Lopez, 2001: 434). Horrela, idazle ezberdinen testigantzak hizkuntzaren erabilera sinbolikoa dela diote.

“(…) Hegoaldeko euskaldunekin lotzeko elite mugatu baten baitan. Hots, sentimendu agonikoa” (Lopez, 2001: 434).

Elebitasun ofiziala ez egoteak euskara egoera sinbolikora bidali egiten du, hizkuntza honetik erabilera aukeratzera iritsiz. Hortaz, euskaraz hitz egitearena onartzen da, ofiziala egiten ez den heinean:

“Eskakizun sozialak diren ber, eskakizunak egiten dituzten talde pribatuei erantzunen zaie, baina administrazioa ez da inoiz elebiduna izanen, eta inor ez da “behartua” izanen lekuan lekuko hizkuntzarik ikastera. Hots, babesak ez du izanen eduki kolektiborik, pribatua baino eta ofizialtasuna ez da onartuko” (Lopez, 2001: 436).

Elkarre pribatuan beharrezko papera definitzerako garaian, politika publikoen eskatasuna gertatzen da. Kasu honetan, ez da laguntza ekonomiko nahikorik bultzatzen Ipar Euskal Herrian euskararen aldeko formakuntzak bermatzeko. Egia da, azken urteetan garrantzi sinbolikoa irabazi duela, seinale zenbaitetan euskararen presente izan delako, urrunago joan ez den bultzada izanik. Eta egoera hau eremu guztietara hedatu egiten da, euskararen presentzia era bisual edo sinboliko batean emendatu izan arren, horren atzean ematen diren inbertsio ekonomikoak eskasak izanik hizkuntza honen suspertzea sustatzeko. Honenbestez, euskararen sustepenean erakunde pribatuek sekulako garrantzia dute.

Seaskara joatea aukera pertsonala izateaz gain, Ipar Euskal Herriko arnagune⁹ ere bilakatu egin da, euskara hutsean hitz egiteko aukera bakarra eskeintzen baitu ikastolak. Gainera, hezkuntza eremu honetatik kanpo topatu daitezken euskara hutsezko eremuak oso mugatuak izaten dira, askotan, nazioko hizkuntza jokoan sartzen baita nagusitasuna irabaziz. Hortaz,

⁹ Arnaguneek euskal hiztun asko elkartzen diren ingurugiroei egiten die erreferentzia. Nonbait euskal hiztunek euskara erabili ahal izateko aukera izanik.

azken urteotan asko hedatu izan da arnagunearen kontzeptua, eremu frantses horretan euskaldunek haien hizkuntzan bizitzeko eraiki behar izan dituzten eremuak izanik. Ideia honi tiraka, lanean, eskola arnagune arloan garrantzitsua dela onartzen da, heziketa erdalduna ekiditen delako, euskararen erabilera sustatzeko programak bermatzen. Murgiltze ereduak eragina sortzen duela azpimarratzekoa da, Seaskaren ikastetxeetan euskara hizkuntza bakarra izatera iristen da oro har, honek arnagune izateari leku emanez, nolabaiteko hizkuntza oasi bat, horrelako gutxi topaturik Ipar Euskal Herrian (Coyos, 2021: 22).

Arnagunearen definizioa ematerakoan, garrantzitsua dugu gaurkotu bat zehaztea, gaur egun baldintza soziolinguistikoei erreferentzia egiten diena alegia. Hortaz, arnaguneei hiru ezaugarri nagusi esleitzen zaizkie, euskal kontzentrazio demografiko handia, eguneroko mintzajardun arruntean euskara nagusi izatea eta hizkuntza belaunez belaunaldi transmititzea (Amonarriz, 2018: 85). XIX.mende hasierako arnaguneetan murgildu ezkerok, ikusi dezakegu bertako euskaldun abantzu gehienak euskal elebakarrak zirela, gaurko errealitatea bestelakoa izanik. Egoera horretatik, arnagune horietako jendea euskal elebidunak izatera pasa ziren, nonbait, euskaraz hobeto moldatzen zirenak, erdaraz egiteko erraztasun gutxirekin. Gaur egungo errealitatean murgildu ezkerok ordea, egoera hoberenean topatzen den arnagunean ere topatuko dituzten herritan guztiak euskal elebidunak izanen dira, eta beste batzuk eleaniztunak ere, hots, euskaraz hoberen moldatu arren, gaztelania eta frantsesa hizkuntzetatik beste hizkuntza bat dakitenak.

Arnaguneak, Mikel Zalbideren esanetan, funtsezkoak dira, nolabait, hizkuntza plangintza egiteko justifikazioa bermatzen dutenak. Arnaguneei esker, euskaldun direnak, euskaldun senti daitezke batera, haien mesedetan aurrera eramaten duten hizkuntza plangintza osatuz. Alde batean edo bestean, esatekoa da arnaguneetan dagoela euskal gizataldea, euskara bizien. Beste ingurugiroetara pasatu ezkerok erdal elebiduna nagusitzen da oro har, transmisioa ez dago oso garatua ezta ere, hots, ez da segurtatua.

Arnaguneen harira, aipatzekoa dugu, azken hamarkadetan gertakari ezberdinek arrisku egoeran jarri dituztela hizkuntza komunitateen gehiengoa:

“Arriskutik kanpo dauden bakarrak estatu-hizkuntza hegemonikoak dira. Modernitatea, munduko lekurik urrunenetako arnagune linguistiko ia guztietara heltzen ari den honetan, kasu desberdinei buruzko ikerketak eta albisteak irakurtzean ohartzen gara, aldaketa linguistikoak eragin dituzten faktoreak eta kasuak berdintsuak direla nonahi” (Amonarriz, 2018: 85).

Izan ere, puntu negatiboak zerrendatzerako garaian, behin eta berriz aipatu egiten da, gaur egungo familia euskaldunetan ere gaztelania nahi eta ez sartua izaten dela, izan eskolan ikasi behar izanagatik, edo telebistan entzuten dutenagatik:

“Txostenean aipatzen den bezala, etxean sartu da erdara: telebista, sare sozialak, internet etab. Hor daude, kalea elebidunduz doan heinean etxeko giroa ere elebiduntzen ari da. Egia da euskara transmititzen dutela euskaldunek, orain ere, etxetik hasita. Etxeko transmisio horrek ez du, ordea, lehengo nagusitasun sendo hura

bermatzen. Gaztelaniaz gain txiki-txikitatik ingelesa ere sartzen ari da, bestalde: eskolan oso goiz ari dira ingelesa sartzen, 3-4 urterekin. Horretaz gainera guraso batzuek ingelesezko klase osagarrietara bidaltzen dituzte seme-alabak. Gero eta lehenago egiten da hori, gainera: ingelesarekiko eskaintza 0 urtetik aurrera hasten da, gaur egun, hainbat kasutan. Ingelesa nahiko ondo dakiten guraso batzuek, are, ingelesez egiten diete seme-alabei. Ez naiz jokabide hori kritikatzeko ari, guztion begien bistakoa den gertakaria azaltzen baizik. Ondorioa argia da: euskararen erabateko nagusitasuna indargabetzen ari da adin-tarte horietan, are gunerik euskaldunenetan, gaztelaniaren presentzia indartuz” (Joly, 2018 : 99).

Kike Amonarrizek, aurreko ideiarri tiraka egoera edo arrazoi ezberdinak zerrendatzen ditu, horien artean: estatuak hiritarrei estatu hizkuntza bakarria orokoretzearen beharrak bultzatzea. Telebista, zein bestelako komunikabideak familia arlo guztietara iritsi dira dagoeneko, baita internet eta mugikorraren, zein sare sozialen masifikazioa. Horrekin batera, administrazioaren lan hizkuntza ere azpimarratu du, osasun asistentzia, zaintza zerbitzuak eta migrazio mugimendu zein herritarren mugikortasuna lana edo aisialdiaren arazoipean.

Honen aurrean, autore ezberdinak gizarte aldaketa bat behar dela aipatzen dute, izan ere, gaur egungo harreman sareak, ez omen dira lehen bezain gertukoak, jendea maizago bakarrik bizi baita, telefono mugikorraren erabileraz, pantailak ematen dion informazioarekin batera. Lagun, familia edo bikoterekin kanpoan egon arren, nabari egin da telefonoari begira egotearen ohitura hori. Honek guztiak, arnaguneetan eragin handia izan duela azpimarratzen dute, erdarazko informazio birtuala arnagunearen erdiguneraino sartu egin baita, kasu batzutan “kanpoko mundu” horrek errealitate fisikoak baino inportantzia nagusiagoa eskuratzen iritsiz. Lionel Jolyren hitzetan guzti honek harremanen trinkotasunean eragina sortzen du:

“Nabarmen ahuldu eta, azkenean, desegin egin dezake horrek gertuko komunitatearen trinkotasuna. Edo alderantziz: sare horiek erabiltzea aukera bat izan daiteke komunitatea trinkotzeko, baita arnagunetik kanpora dagoenean ere biztanleria, horretarako aldiz lan handia egin behar da eta euskararen presentziak, arnagunean eta egunerokoan, oso altua izan behar du” (Joly, 2018: 100).

Orain arte, nolabaiteko irakurketa negatibo bat egin arren, aipatzekoa dugu arnaguneen egoerak badituela bestelako puntu positiboak ere, horien artean, Kike Amonarrizek bertsogintzaren adibidea plazaratzen du:

“Konparazio batera, bertsogintza inoiz baino zabalduago eta indartsuago dago arnaguneetan, baita euskal musikaren sorkuntza edo kontsumoa eta euskalgintzaren eta herrigintzaren beste alor batzuk. Eta horiek ere badira, arnaguneak izaten ari diren aldaketaren parte” (Amonarriz, 2018: 87).

Esan bezala, arnaguneez euskarari sustapena eman arren, ez dute ezinbestekotzat bilakatzen oraindik Ipar Euskal Herrian, beharrezkoa ez den tokiko hizkuntza izatera iritsiz. Iparraldeko

kontextuan gune batzuetako funtzio batzuk burutzeko soilik balio du euskarak, erdararen ekarpenak askoz indartsuagoak direlako euskararekin alderatuz:

“Iparraldeko gizartean bizitzeko, frantsesa beharrezkoa da bizi publikoan, administrazioetan, lan munduan, merkataritza-trukeetan, aisialdietan, etab. Nahitaezkoa da, euskara aldiz ez” (Coyos, 2008: 94).

Ikastola arnasmune bilakatu den bezala, beste eremu ezberdinak ere eraikiak izan dira Ipar Euskal Herrian euskaraz bizitzeko leku bakarra honakoa ez izateko. Hori horrela izanik, elkarte ezberdinek ematen dute gaur egun euskaraz aritzeko aukera.

“Azken lauzpabost hamarkada hauetan, euskal elkarte batzuek, euskaltzale ausart eta gogotsuek hizkuntza-politika eremu zenbait ideki eta garatu dituzte: ikastolak (murgiltze ereduarekin, Seaska), helduen euskalduntze eta alfabetatzea (AEK), euskarako pedagogia-tresna sortzea edo euskaratzea (Ikas), euskal irratiak, euskarazko aisialdiak (Uda Leku), etab” (Coyos, 2021: 22-23).

Aisialdi hauetako baten adibide dugu Euskal Abentura, udako hilabate batez egiten den Euskal Herriko ibilaldia. Kasu honetan Euskal Herriko gazteak elkartzen dira, hilabete bateko epean herri ezberdinak trabeskatuz, aktibitate ezberdinak burutuz bidean. Aisialdi honen nahia euskara sustatzea da, ibilaldi honetan zehar erabili beharreko hizkuntza bakarra euskara izanik. Horrelako aisialdiak sortzen dira Euskal Herrian nolabaiteko arnasmuneak sortzeko, euskara hutsezko espazioak eraikitzeko, erabilera sustatu ahal izateko. Izan ere, euskal abenturakoek diote proiektu hau sortzeko lehen motibazioa gazteen arteko euskara sustatzea izan zela. Euskara erabilera datuak harturik, euskaldunen ehunekoak gora egin arren erabilerak ez du gora egiten. Egoera horren aurrean, erabilera sustatzeko sortua izan da aisialdi hau:

“Proiektu hau martxan jartzeko lehendabiziko motibazioa gazteen artean euskara sustatzea izan zen. Izan ere, azken urteetako euskararen erabileren neurketek erakutsi bezala, euskaldunen ehunekoak etengabe gora egiten badu ere eta euskararen biziberritze prozesua hasi zenetik ezagutza inoiz baino altuagoa izanik ere, hizkuntzaren erabilerak ez du neurri berean gora egiten” (Euskarabetura_espeditioa, 2018).

Euskaraz ikasten dutenen kopuruak gora egin du azken urteetan, arnasmune ezberdinen sorrerak iragan dira, horrek euskararen garapenean garrantzia sortuz. Datuen gorada kontuan hartu arren, hizkuntza honek oraindik ere oztopoak ditu, oztopo horiek hizkuntza hau egoera ezegonkor batera bidalirik. Soziolinguistika Klusterrak 2022an buruturiko Hizkuntzen erabileraren kale neurketan horrela dio « Ipar Euskal Herrian euskararen erabilerak beherantz jarraitzen du, beste lurraldeetan gorabeherak daude ».

Honek guztiak euskara hiltzeko arriskura eramaten du, frantsesaren inposaketak eta frantses estatuak harturiko jarrerak erantzule izanik.

“Frantziak frantses inposatzeko eta lekuan lekuko hizkuntzak galtzeko politika linguistikoa ukan du, eta haren baitan erabili ditu kontzientzia nazionala, eskola, armada eta komunikabideak. Orain harra barnean dugu, eta glotozidiorako neurri berri bereziak hartu gabe ere hiltzerat badoa euskara. Jakobinismo bortitzaren ordeztu liberalismo hipokrita dugu: askatasun individualaren errespetuz, estatuak ez du deus eginen alde edo kontra, eta nahi duenak ikas eta erabil dezan eta nahi ez duenak ez. Baina berdintasunik ez da hizkuntza ofizial indartsuaren eta monoria baten hizkuntza pribatuaren artean. Konkurrentzia hori asko eta sobera da euskararen galtzeko” (Lopez, 2001: 436).

3. Justifikazioa

Gai honen aukeraketa arrazoi nagusia Ipar Euskal Herrian bizi naizenetik dator, hots, Hendaian. Izan ere, arrazoa sinplea dela esanen nuke, nire ibilbide akademiko guztia Ipar Euskal Herriko ikastolan burutu dut, Bernat Etxepare lizeoan bukaturik. Behin, Seaskak eskainitako urteak burutu ostean, euskaraz ikasteko nahia segitu behar izateko Hego Euskal Herrira joan behar izan nintzen. Honekin batera zera ikusi nuen, Ikastolaren ibilbidea amaitutzat eman ostean, Ipar Euskal Herrian, euskararen erabilera, ikastolako ibilbidean ezagutu nituen pertsonetara mugatzen zela gehienbat, bestelako esparruetan euskaraz egiteko ezintasuna parez pare topaturik.

Nire kasuan, lehen hizkuntza euskara izanik, hizkuntzaren erabilera ikastolatik at ere hedatu izan dut, nire harreman sozial abantzu guztiak euskara hutsean izanik. Kasu honetan, muga bizirik, azpimarratzekoa dut Hego Euskal herrian ere murgildua izanik, harremanak euskaraz eraikitzea errezagoa izan dudala. Izan ere, Hego Euskal Herrian euskararen egoera bikaina izan ez arren, ikastolakoak ez diren pertsonekin nire hizkuntzan bizitzea posible izan dut. Gainera, euskararen presentzia nabaria izanik, beti izan dut ohitura lehen hitza euskaraz egitea, elkarrizketa euskaraz egiteko aukera ba ote dagoen jakiteko.

Ibilbide amaiera guztiek suposatzen dute distantzia eta aldaketa bat, kasu honetan, Seaskak bere ikasleei azken eskaintza ematean ere, Ipar Euskal Herrian euskaraz ikasteko ezintasunarekin topo eginez. Horrekin batera, ikastolako harremanek distantzia hartzen dute, ikasle bakoitzak bere ibilbide akademikoa leku ezberdinean buruturik. Hori horrela izanik, ikastolan egunerokotasunaren parte nituen harremanak aldatu egin ziren, aldi berean, hizkuntzan ondorioak suposatuz.

Izan ere, aldaketa hori eman zelarik, konturatu nintzen, Ipar Euskal Herrian ikastolarekin harremanik ez zuten pertsonekin frantsesa erabiltzea ezinbestekoa nuela, euskaraz egiterakoan ez nindutelako ulertzen, eta batzuetan hizkuntza ez zuten/dute eremuarekin lotu ere izan, erantzuna gazteleraz emanik (Frantzian euskara hizkuntza ofiziala ez dela gogoratu). Honenbestez, orokortasun batean, konturatu nintzen Ipar Euskal Herrian, euskaraz eraiki nituen euskarazko harremanak, kasik %100ean ikastolaren adar ezberdinetan kokatuak zuedenekin lotuak zeudela. Harreman sare honetatik urrunduz, euskara ere urrundu egin zait Ipar Euskal Herriko egunerokoan. Are gehiago, nire kasuan ez dauden, lehen hizkuntza erdera duten eta euskararen erabilera ikastolako eremura soilik murrizten zitzairen lagun horien aldaketa nabari izan dut ere, aldaketa nabariago batekin gainera, lagun batzuen hizkuntza galera nabaritzuz.

Honek guztiak galdera asko sortu izan dizkit azken urteotan, hortaz, honen aurrean, nire bizipen pertsonaletatik iraganda, egoera honen inguruko ikerketa egitea ezinbestekoa ikusten dut. Askok izan dira euskararen erabileraren inguruko lanak, egin direnak eta egiten segitzen ari direnak. Baina kasu honetan perspektiba ezberdina bermatu nahi dut, izan ere, lan honen bidez, Etxepareko ikasleek euskararen erabilera bermatzeko dituzten eremuak zein diren

jakitea izan da helburua, ikastolatik kanpo, euskararen erabilera hori zein eremutan ematen den jakiteko, bide batez, ikasle hauen etorkizuneko euskara harremanaren proiektioari leku emanez ere. Azkenekoz, garrantzitsua iduritzen zait euskararen erabileraren inguruko ikerketak egitea, baina ezinbestekoa ikusten dut euskara erabilgarri den eremuak ezagutzea, hizkuntzaren erabilera ezintasuna mahaingaineratuz.

4. **Ikerketaren Helburuak eta Hipotesiak**

Ikerketa hau aurrera eramatearen helburu orokorra, Bernat Etxepareko ikasleek, ikastolatik at, euskara erabiltzeko dituzten arnaguneak, oztopoak eta jarrerak zein diren jakite izan da, bertan ageri diren arrazoi eta faktore ezberdinak ikertuz. Ikerketa sakontzeko, helburu orokor honi loturik, bestelako helburu zehatzak ere zehaztuak izan dira:

1. **Helburu zehatza: Ikasleek, euskara zein espazio, harremanetan erabiltzen duten identifikatzea, ikastolatik at euskarak hartzen duen eremua ikertuz.**

Ikerketa honetan aipatuko ditugun ikasleak ikastolako ikasleak direla jakinik, ikasketa akademiko osoa euskaraz egiten dutela oroitzekoa dugu. Izan ere, esan dezakegu espazio honetan barnebiltzen diren pertsona guztiek euskara dutela amankomutasun puntua. Espazio honetatik at ordea errealitate ezberdinak elkartzen dira, bakoitzaren euskara erabilera eta aukera ezberdinak izanik.

Aurreko arrazoiak, ikastolatik at hizkuntza errealitatea aldatzen denetik eratoritzen da, frantsesaren nagusitasuna azpimarratuz. Izan ere, Ipar Euskal Herria Frantziar estatuaren menpe izanik, hiru probintzietako hizkuntza ofizial nagusi eta ofizial bakarra frantsesa da. Hori horrela izanik, Bernat Etxepare lizeoko ikasleek, ikastolatik kanpo euskara erabilgarri dituzten espazioak identifikatzea da nahia.

Idea honi loturiko hipotesia honakoa da: euskaraz hitz egiten duten eremu gehiengoak, ikastola inguruan murgilduak dauden edo egon diren pertsonekin ematen da. Baita ikastolaren ibilbidearekin lotuak dauden aktibitate, aisialdi ezberdinetan ere, Herri Urrats adibide gisa hartuz, nolabaiteko arnaguneekin.

2. **Helburu zehatza: Euskara erabiltzen ez duten espazio horietan arrazoiak zein diren identifikatzea.**

Espazioaren, pertsonaren, egoeraren, edo bestelako faktore ezberdinen arabera hizkuntza bat edo beste erabili ohi izaten da. Kontuan hartu beharra daukagu erabili beharreko hizkuntza aukeratzeko garaian arrazoiak ezberdinak izan daitezkeela, aukera pertsonala arrazoietakoa bat izanik. Euskara erabiltzen ez den une horietan, frantsesa gailendu egiten da gehienetan.

Honen harira, egoera honi loturiko hipotesiak hau esaten du: ikastolatik at kokatzen diren pertsona gehiengoak frantsesa hizkuntza nagusitzat duenez, haiekin hartu emana bermatzeko erdara nagusitu egiten da. Hortaz gain, eremu askotan euskararen ezjakintasuna ematen dela suposatuz, ikasle asko frantsesera pasatzen dira zuzenki.

3. Helburu zehatza: Seaskaren azken etapan daudela jakinik, etorkizunera begira, euskararen erabilera nola eta nun proiektatzen duten jakitea.

Ipar Euskal Herrian, ikastolak eskainitako euskara hutsezko ibilbidea Bernat Etxepare lizeoan amaitzen da, Iparraldean « terminala » deitzen den urteak ibilbide honi atea itxiz (Hego Euskal Herrian « 2.batxilergoa »). Hortik aurrera, Euskal Filologia ikasketak egin daiteke soilik Iparraldean, Baionan dagoen unibertsitatean. Hau da, bestelako ikasketak burutzeko nahia harturik, Ipar Euskal Herriak ez du inolako proposamen edo aukerarik euskaraz egin ahal izateko. Honakoak egoera ezberdinak sortzen ditu, izan ere, ikasle batzuek euskaraz ikasteko nahia hartu ezker Hego Euskal Herrira pasa behar izaten dute, bidean dauden tramite burokratiko guztiei ibilbide emanez. Bestalde ordea, ikasle askok erderaz ikasteko aukera hartu behar/nahi izaten dute, orokorrean Frantziako leku ezberdinetara joanik (Bordale esaguratsuenetariko bat izanik). Honako errealitatearen berri izanik, Bernat Etxepare lizeoan dauden ikasleek, unibertsitate edo bestelako eremu akademiko ezberdinetara joateko erabakiak egin behar izaten dituzte, berezitasunak aukeratuz, etorkizuneko ikasketen aukera zerrendak prestatuz, besteak beste.

Honenbestez, erabaki ezberdinen aukera egiterakoan, etorkizunaren proiektzio minimo bat egiten dela aipatu beharra daukagu, ibilbide akademikoa zein hizkuntzan egitea aukeratu behar izanik. Hortaz, ikerketa honen azkeneko helburu zehatza, lizeo honetan dauden ikasleek, etorkizunera begira, dituzten ibildeak zein hizkuntzatan proiektatzen dituzten ikustea da. Honekin batera, ibilbide akademikoko espazioa bera eta bestelako espazioak zein hizkuntzetan proiektatzen dituzten ikertzea da helburua.

Azken helburu zehatza azalduz, honekin batera proposaturiko hipotesiak honela dio: ikasketak frantsesez egingo dituzten ikasleek euskararen proiektzio urritasun handia nabaritutuko dute, ikastola alde batera utziz, euskararen erabilera asko murriztuz.

5. Diseinu Metodologikoa

Diseinu mota

Modu ezberdinak dira ikerketa bat aurrera eramatea ahalbidetzen duten diseinuak, ikerketa hau burutu ahal izateko erabili den diseinua kualitatiboa izan da. Metodo kualitatiboari, metodo ez tradizionala deitu ohi izan zaio batzutan. Metodo honek generalizazioan ez erotzearen irizpidea dauka. Honen bidez, helburu nagusia ez da neurtzearekin lotzen, arlo kualitatiboak kualifikatu eta fenomeno soziala deskribatzera bultzatzen baitu ordea. Usu, metodo kualitatiboa erabiltzearen aukera egiten denean, egoera sozial bat ulertzea izaten da funtsa, dinamika ezberdinak kontuan harturik.

Ikerketa kualitatiboak eragileekin lan egiteko aukera ematen du, datu deskriptiboak sortzen ditu eta horrela ikerketa bat eratu, bertan pertsona ezberdinen hitzak, idatziak, jokabideak, barnebilduz (Taylos eta Bodgan 1986). Are gehiago, metodologia honen bidez, ikergaia barnebilduak dauden eragile ezberdinekin jardunez, aztergai den arazoari zentzua eta forma ematen dieten arrazoi ezberdinekin lan egin daiteke, horiek ikertuz eta agertzen diren alde, postura ezberdinak aztertu eta alderatzeko aukera emanez (Valles, 1999). Diseinu kualitatiboaren nondik norakoekin segitu ezker, esan beharra daukagu metodologia kualitatiboa, nolabaiteko ikuspegi metodologikoarekin loturan sartzen dela. Hau da, ikuspegi honen bidez, gizarteko errealitatearen testuingurua ulertzen saiatzen da, aurrera eramaten den azterketaren bidez, gizartean topatu daitezkeen egoera, elementu ezberdinen loturak azaleratzen (Garcia, Ibanez eta Alvira, 1986).

Diseinu metodologiaren ezaugarriak kontuan hartuz, ikerketa helburua erantzutea da funtsa, hipotesiaren egiaztapena aurrera eramaten den aldi berean. Ideia honen harira, gizarte kualitatiboan zentratuz, aipatzekoa da, honako metodologia, dinamika malgu eta irekian oinarritzen dela. Izan ere, diseinu hau etengabeko berregituraketa batean dagoela esan dezakegu. Horrekin batera, ikerketa diseinuan gidoi bat erabili izan da, honek barnebiltzen dituen galdera, gai sorta batekin, baina arlo kualitatiboak ematen duen aukera zera da, galdera sorta eta gidioia zehaztuak egon arren, bestelako galdera berrien agerpena sortzea, honakoak aurreikusi ez den informazioa eskuratzea ahalbidetuz. Lan honetan ikasleekin lan egin denez, gidioia ere moldatzen joan da aproposak ikusi diren gaiak azaleratuz, ikergaiarentzat aberasgarri izatekotan, eta parte hartu duten ikasleak eroso sentitzekotan. Arlo kualitatiboak laguntza eman dio gidoiaren osaketari, izan ere, elkarrizketa bakoitzak ikasle bakoitzari moldatu zaiolako, informazio gehiago edo gutxiago landuz, hots, moldatzeko aukera eman du metodologia kualitatibo honek.

Ikerketa teknikak

Ikerketa aurrera eraman ahal izateko elkarrizketak erabili izan dira. Izan ere, teknika hau metodologia kualitatiboaren baitan oinarritzen da. Buruturiko elkarrizketen bidez, interesekoa den gaiari buruzko narrazioa eraikitzeke aukera ematen duela ulertu dugu. Narrazio teknika honen bidez, elkarrizketak, gaira hurbiltzeko aukera eman du, eragileen esperientzia pertsonalaren kontaketa aztertu nahian. Arlo kualitatiboan gaudenez, ikerketa honetan, informazioa eskuratzeko iturri sarea gizabanakoaren baitako informazioan lehenetsi egin da. Arestian aipatu dugun bezala, honako diseinuak malgutasuna ematen duenez, nolabaiteko diskurtso espontaneoak ere sor ditzake (Valles, 1999).

Laginketa eta kontaktazioa

Teknika kualitatibora jo dut nire ikerketan, elkarrizketatuen perfil ezberdinak ikuspuntu ezberdinak azalduko dizkidatelako. Modu horretan, ikuspuntu horiek konparaketan sartzea izan da helburua, horrela, bizipen eta ulerkerak ezberdinei leku emanaz. Honakoa lortu ahal izateko, 12 elkarrizketa burutu ditut, ikasle hauen bizipen eta diskurtsoak zein diren jakin ahal izateko. Honek zera eraginen du, ikasleen bizipen gertuek ikerketa gaia gertuagotik eta sakonago ulertu ahal izatea, nolabait informazioa aberastuz.

Azpimarratzekoa dut ikerketa hau burutzeko erabili izan den lagina 15-18 urte bitarteko ikasleak izan direla. Lagin honekin ikasle hauen bizipenak batzea izan da helburua, elkarrizketa ezberdinetan jasotako erantzunak maihaingaineratuz eta elkarren arteko lotura zein ezberdintasunak jokoan ezarri.

Lagina aukeratzeko garaian, ikertu nahi izan den landa gunearen irudi egokia barneratu nahi izan da. Arestian aipatu dugun bezala, Bernat Etxepare lizeoara joaten diren ikasleak, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoakoak dira. Hori horrela izanik, laginean hiru probintzien presentzia sartu da, probintzia bakoitzetik 4 ikasleri elkarrizketak eginez. Izan ere, kontuan hartu behar dugu hiru eremu hauetan euskararen egoera ezberdina izan daitekeela, honek ikasleen hitzetan egoera ezberdinak islatuz. Hiru probintziak hartu ditugula kontuan harturik, ikasle bakoitzaren herria ezberdina dela azpimarratzekoa dugu, hau da, probintzia bereko ikasleek herri ezberdintasuna dute ikerketa honetan. Izan ere, aberasgarrizak ulertu da ikasle bakoitzak herri ezberdina izatearen ezaugarria, emaitzen analisia gauzatzean ondorio interesgarriak eman ditzakelako. Hortaz honakoak izan dira 12 herri ezberdinak: Hendaia, Baiona, Beskoitze eta Sara Lapurdin. Nafarroa Beherean, Iholdi, Donibane Garazi, Eiheralarre eta Urepele. Zuberoako lau herrialdeak Gotaine, Sohuta, Urdinarbe eta Ligi-Atherei. Horren aurrean, oso garrantzitsutzat nabarmendu da lan honetan kopuru berdina aukeratzeko, Ipar Euskal Herriko lurralde bakoitzaren irudi egokia adierazteko analisirako.

Hortaz gain, ikasleek haien burua emakumezkotzat edo gizonezkotzat definitu dute. Honen aurrean, ikerketa honen lehen lerroan genero perspektiba jarri ez arren, langiketa aukeratzeko garaian garrantzia eman zaio, adierazi nahi den irudia oraindik eta adierazgarriagoa izateko. Ikerketa honetako bost ikasle gizonezkoak izan dira eta zazpi

emakumezkoak. Laginketa aukeratzeko beste irizpide bat ikasleek jasotako lehen hizkuntza izan da, azken urteetan datuak aldatzen joan baitira, bi hizkuntzen presentzia izanik etxean. Honen aurrean, etxeko hizkuntza kontuan hartzea garrantzitsutzat hartu da, ikasleen egunerokoan sortu ditzakeen ondorioetan begirada ezartzeko. Ikasle hauen lehen hizkuntza, euskara edo frantsesa da, batzuen kasuan hizkuntza bakarra, besteean bi lehen hizkuntza. Honenbestez, ezaugarri hauek izan dira laginketaren forman eragin dutenak.

Aukeraturiko elkarrizketatuak pertsona ezberdinak izan arren, haien artean zenbait amankomunitasun topatu egiten dira, horietako bat Bernat Etxepare lizeokoak direla izanik. Izan ere, aukeraturiko lagina Ipar Euskal Herrian bizi diren 15-18 urte bitarteko ikasleak dira. Hortaz gain, hamabi pertsona hauek euskaraz ikasten dute ikastolan, hots, hezkuntza gune berdinetik eratortzen dira. Honen aurrean zera esan dezakegu, herri eta bizipen ezberdinetatik datozen ikasleak izan arren, genero ezberdina duten ikasleak izan arren, amankomunitasun puntuak dituztela aldi berean. Honenbestez, lagin hau batzearen arrazoia herri berean euskal hezkuntza berdina jasotzen dutela izan da.

Ikerketa kualitatiboa erabili eta elkarrizketa sakonen diseinuan oinarritu arren, lagina zein izan den jakitea azpimarratu beharra dugu. Izan ere, ikasle gazteak izanda, elkarrizketa aurrera eramanez ahal izateko, elkarrizketatzailearen partetik galdera zenbait pausatu behar izan dira ikasleen bizipenen inguruko informazioa garatu zedin. Modu horretan ikaslea lasai sentiaraztea izan da helburua, gertutasuna adieraziz, modu natural batean beraien bizipenen berri eman ahal izateko. Ikasleak, elkarrizketa bere eskuetan soilik ez zegoela sentiarazteko, galdera motz eta zehatzak ere bermatu dira ikergaiaren inguruko gako diren kontzeptuak aipatzeko asmoz. Izan ere, ikerketa aurrera eramatearen helburuetako bat elkarrizketatua lasai eta eroso gotea izan da.

Esan bezala, 12 izan dira burutu diren elkarrizketak. Emaitzen analisia egin ahal izateko elkarrizketa hauek transkribatu egin dira haien esanak modu zehatzagoan kontuan hartu eta analisi landua egiteko. Elkarrizketak burutzea irakaspen prozesu bat izan da niretzat, izan ere, elkarrizketak egite aldera nik ere barne lanketa bat eman dudalako. Hau da, elkarrizketen artean ezberdintasunak nabari dira, batzuk besteak baino luzeagoak izan direlako, nik ere ikasleekin nola jardun landu eta ulertu dudalako. Alde batetik, 15-18 urte bitarteko ikasleak izan direla ulertu dut. Nire kasuan ez naiz ezagutza baten kontaktaren bila joan, baizik eta ikasle hauen egunerokoaren inguruko kontaketa jakitera baizik, gerora, errutinako gertakariak lotura sozial eta politikoeekin harremanetan jartzen. Hortaz bai, badira elkarrizketa labur batzuk, eta beste luze batzuk. Izan ditut ikasle lotsatuak, galderari motz erantzun eta bertan geratu direnak. Beste batzuek ordea asko esan didate, hitz egiteko jarioetasun gehiago izan baitute, arrazoi ezberdinengatik.

Baina honen aurrean zera azpimarratu nahi dut: den denak izan zaizkidala oso garrantzitsu, ikasle guztiek eman baitiote ale oso garrantzitsua lan honi. Hortaz bai, elkarrizketa luzeek behar bada informazio gehiago eman eta gehiago analizatzeko joko eman didate, baina elkarrizketa motz oso garrantzitsuak ere topatu ditut, hitz gutxitan aztertu nahi izan dudaren problematika azaleratuz. Honenbestez, lan honetan 12 ikasleak kontuan hartu dira,

batzuek emaitzen analisirako informazio gehiago emanez, baina denak, bere osotasunean izan beharrezko.

□ **1. taula: Elkarrizketatuen ezaugarriak**

	Generoa	Adina	Probintzia	Herria	Lehen hizkuntza
E1	Gizonezkoa	18	Lapurdi	Hendaia	Euskara
E2	Emakumezkoa	17	Lapurdi	Beskoitze	Euskara
E3	Emakumezkoa	17	Lapurdi	Baiona	Euskara
E4	Emakumezkoa	16	Lapurdi	Sara	Frantsesa
E5	Emakumezkoa	16	Nafarroa Beherea	Eiheralarre	Euskara
E6	Gizonezkoa	17	Nafarroa Beherea	Donibane Garazi	Euskara eta frantsesa
E7	Gizonezkoa	15	Nafarroa Beherea	Iholdi	Euskara
E8	Emakumezkoa	17	Nafarroa Beherea	Urepele	Euskara
E9	Emakumezkoa	17	Zuberoa	Ligi-Atherei	Euskara eta frantsesa
E10	Gizonezkoa	18	Zuberoa	Gotaine	Euskara
E11	Emakumezkoa	17	Zuberoa	Sohuta	Frantsesa
E12	Gizonezkoa	17	Zuberoa	Urdinarbe	Frantsesa

- Iturria: lanketa propioa

Hamabi ikasle ezberdinei elkarrizketak egin ostean, lan honetan, haien esanen analisia egin da. Ikasle hauei ordea kodigo batzuk esleitu zaizkie, haien izenen orde, kodigoen bidez zuzenduz. Izan ere, lan honetan haien testigantza funtsezkoa izan da, problematikaren erantzuna osatu dutelako. Hala ere, haien pribazitatea mantendu nahi izan da, ezaugarri ezberdinak publiko egin arren. Horien artean, goi aldean sorturiko taulan ikasleen datu ezberdinak ageri dira, haiek identifikatzen diren generoa, adin, bizilekuaren probintzia zein herria, eta azkenik, etxean jasotako lehen hizkuntza zein izan den. Izan ere, analisia aurrera eramaterakoan, aldagai hauek garrantzitsutzat jo dira, beti ere, adina, lurralde eta jasotako lehen hizkuntzaren arabera emaitzak ezberdinak izan daitezkelako. Hortaz, emaitzen analisia aurrera eraman den garaian, begirada haien esanen anilisian jarri izan arren, aldagai hauek kontuan hartu dira, ondorio esanguratsuak atera ote diren jakiteko.

Honenbestez, analisiaren zatian, ikasle batek esanak erantsiak izan direnean, bere izena erabili ordez kodigo baten bidez zuzendu gatzaio. Gerora, kodigo, hots, pertsona baten ezaugarriak gehiago jakin nahi izateko kasuan, taulara igo eta informazio era bisual batean ageri da.

6. Emaidzak

1. Ikasleek, Ipar Euskal Herrian euskara erabiltzeko arnagune ezberdinak erabiltzen dituzte.

Ondorioztutako ideia nagusien artean, Ipar Euskal Herrian arnaguneen ezinbesteko presentzia azpimarratu dute Bernat Etxepareko ikasleek, nolabait, euskara erabili dezaketen une guztiak arnagune gisa definiturik, Etxepare lizeoa eta baita batzuen kasuan etxea ere. Errepikatu dute askotan, hiru probintzia hauetan euskara ez dela hizkuntza ofiziala, horrek leku abantzu denetan euskararen jakintza eskatu ezean. Gainera, seinalizazio zoin irizpide azalpen kasik guztiak frantsesez ageri direla diote, honek euskara bigarren plano batean utziz. Honen aurrean, ikasle askok, ingurunea frantses hutsean ikusirik euskara nun erabili dezaketen jakiteko arnaguneak beharrezkoak ikusten dituzte, arnaguneak baitira euskararen erabileraren islada gaurko Ipar Euskal Herrian, nunbait, errealitatek at kokatzen direnak. Izan ere, ikastolatik kanpo topatzen duten errealitatean, ikasleen hitzetan, abantzu beti frantsesa lehenetsi behar izaten dute euskararen erabilera oso murrizta izanik.

Arnaguneak aipatzen dituztelarik, euskaraz bizi ahal diren eremu horietaz ari dira, ingurune frantses horren barruan topatzen ahal dituzten euskara erabiltzeko eremuak. Ikasleen hitzak kontuan harturik, arnagune mota ezberdinak daudela ikusi dezakegu, eremu, egun, ingurugiro, harreman ezberdinak azpimarraturik. Honenbestez, ikasle hauen euskara erabilera gehiena arnagune ezberdinetan ematen da, ikasle batzuen hitzetan Bernat Etxepare bera horietako leku izanik gaur egungo Ipar Euskal Herriko euskararen errealitatean. Horrela argudiatzen dut Bernat Etxepareko ikasle batek:

“(...) sinpleki gure inguru guztia lizeotik kanpo, azkenean Etxepare lizeoa da arnagune bat Ipar Euskal Herrian erranen nuke, da leku bat zinez nun badakigu jende guztiak euskara badakitela eta erraza da. Nahiz eta denek ez hitz egin egunerokoan, argi da badakigu hala ere parekoari hitz egiten badiogu badakiela euskara eta ulertuko duela erraten dioguna. Aldiz, lizeotik ateratzean egia da Ipar Euskal Herrian ez duela jende gehienak euskara hitz egiten eta ara, erranen nuke justu ezjakintasunak sortzen duela frantsesera pasatzea”. (E11)

- a. *Jaialdi eta ekimen zehatz batzuk alde aurretik ezagutu eta antzematen dituzten arnagune nagusienak: euskaraz hitz egiteko segurtasun handia Euskal Herria Zuzenean, Herri Urrats, gaztetxe eta herriko festetan.*

Alde batetik, naturaltasunez, ikasleek eremu batzuetan euskara erabili ahal izango dutenaren segurtasuna izaten dute, oro har, euskara hizkuntza edo euskal kultura sustatzeko antolatutak izaten diren ekimenetan, Herri Urrats, Euskal Herria Zuzenean eta gaztetxeak ikasleen hitzetatik gehien atera direnak izanik. Herri Urrats ikastolaren aldeko besta izanik,

ikasleentzat euskara erabiltzeko segurtasun handia izaten dute bertara joaterakoan. Euskal Herria Zuzenean festibala ez da ikastolarekin harreman zuzen zuzenean, baina euskal kultura eta musika eskeintzen duen hiru eguneko jaialdia da, ikasleen hitzen arabera, euskaldunak topatzen dituzten festa giroa izanik. Gainera, bertara joaten diren pertsona asko ezagutzen dituzte, gelakideak, irakasleak, ikastolako familia ezberdinak izanik. Hortaz, festibal honen antolatzaileak ezagutzeak segurtasuna ematen die euskara erabili ahal izateko oro har. Gaztetxeak kasik herri guztietan topatzen dira, eta ikasleek zera diote, errealitate frantsesean topatzen duten euskal ingurugiro nagusia dela gaur egun, bertan euskarak presentzia handia izanik.

Hauek dira euskara erabiltzeko segurtasun handia topatzen dituzten ekimenak. Hala ere, hauetaz gain, Korrika, Euskaradia eta Nafarroaren Egunari ere aipu egiten diote. Honako ekimen edo festak ezberdinak izan arren amankokumean izaten dute euskara edo euskal kultura sustatzea, eta horregatik ikasleek diote egun zehatz hauetara joatean kasik euskara bakarrik erabiltzen dutela, natural egiten baitzaie elkarrizketak euskaraz eraikitzea. Kasu oso gutxitan aipatu arren, batzuk esan dute euskara ez ulertzeko egoera eman den une gutxi horietan beti euskara dakien norbait topatuko dutela, eta ez dakien horrek ere erantzun positiboa izanen duela, euskara jakin ez arren, euskal kulturaren alde dagoela baieztatuz. Are gehiago, ikasle batzuen esanetan, festa hauetan frantses batzuk topa ditzakezula azpimarratzen dute, euskara ikasteko edo euskarara hurbiltzeko prest daudenak oro har.

“Hori, hori da, azkenean ene ustez, ene aldetik joaten niz EHZra hori badakidalako ere, badakigu EHZ zergatik sortua izan zen, eta nor sortu duen, nor diren parte hartzaileak, laguntzaileak, eta joaten nizelarik EHZtat ene ustez ez duzu ezta galdera pausatzen zure buruari « Oh, ene baxoa gomendatzen ahalko dut euskaraz? » Be ez, abian zira eta badakizu baietz, edo beden badakizu parekoak ez baldin badaki norbait atxemanen duzula hurbil edo badakizu izanen dela euskal giro hori eta horrelako momentutan ere zinez untsa da, ze ez duzu galderarik pausatzen eta badakizu horrela izanen dela”. (E11)

“Bai, nire ustez Herri Urrats, Euskal Herria Zuzenean, horiek denak euskara pixka bat da inportantea, euskara da inportanteena, denek euskaraz hitz egiten dute eta hori da festibal horien inportanteena, eta helburua. Badakigu festibal hauek direla euskararentzat, gure Euskal Herriko kultura eta hori dena garrantzitsua dena”. (E4)

“Bai, bai arrunt, hori da ere EHZ, badira adin orotakoak, badira aitamak, haurrak, adin guztietakoak eta azkenean gehienak edo kasik denak euskaldunak dira eta horrelako momentutan zinez libre sentitzen zira, ni nire aldetik libre sentitzen niz sentitzen duzu zure inguruan denak euskaldun sentitzen direla eta denek badugula asmo hori, euskara biziartztea, fe horrelako momentutan hori sentitzen dut”. (E11)

“Esango nuke lizeotik harago, gaztetxea, ba agian euskal dantza talde batzuk, baina ez denak, taberna zehatz batzuk eta hori, horiek dira pixkat euskal eremu horiek”. (E2)

“(…)Donapaulen frantsesa biziki presenta da, ikastola aparte erranen nuke ez da beste euskararen arnasgunerik Donapaulen, edo kasik bate, gaztetzearekin ere bai baina bestenaz bate(…)”. (E8)

“(…) gero bo gaztetzear, fe Pitxu gaztetzear, Xiberuko gaztetzear euskara emaiten dugu bistan dena eta bestenaz gero ez, ez dakit”. (E10)

“(…) ekimenak antolatuak direnak, Herri Urrats, Euskaraldia eta horiek untsa dira euskara bultzatzeko. Korrika, euskaraldia...Herri Urrats, horrelako gauzetan gu euskaraz ari gira zenta bo horrela mintzatzen gira. Baina besteak, frantsimentak eta hala ere horiek dute egiten indarra momentu horietan euskaraz aritzeko, hori da ederra hala ere, horiek dute iten indarra horrelakoetan euskaraz aritzeko pixkat. Denak inguruan euskaraz ari baitira, badakizu Seaskaren besta dela, euskal giroa dela momentu hortan, beraz ene ustez horrek du ematen ere euskaraz mintzatzeko emeia ere, beraz, bai ene ustez horrentzat da”. (E7)

“Herriko bestak, eta gero Nafarroaren eguna, Herri Urrats, horrelako bestak, gero denpende, besta biziki orokorra da. Bestara abian baniz ene lagun euskaldunekin euskaraz inen dut besta, baina abian baldin baniz, d'ailleurs ez naiz sekula horiekin abian, baina ene Urepeleko lagunekin bestara, hoiekin frantsesez eginen dut besta. Ah bai, hor bai aldiz, egia errateko ez zitzaidan sekula burutik pasa frantsesez baso baten manatzea. Enetzat denek badakite, ez dakit zendako, ah! Hor ohartzan niz ez zaut sekulan burura jin frantsesez baso bat manatzea”. (E8)

“(…) Gero ere, noski gaztetzear, herriko festetan, euskal tabernetan eta hori, ahal dudan guztitan euskaraz. Baden jendea, baden giroa, baden musika, nire ustez ohartzan zara iristen zarenean euskal giro batera edo euskaldunetz bete den leku batera ez baita besteen berdina, frantses edo espagnolaz askoz ezberdinago da, eta nire irudiko giroa askoz sanogaoa bada bertan. Baina gero jendeak ere asko egiten du, badakizu horrelako leku batera zoazenean ze jende mota gurutzatuko duzun, eta gehienbat izaten da ikastolakoa, zure lizeoko lagunak, edo lagunak lagunak edo, eta horrela ere bai egiten dituzu ezagutza berriak, euskaldunak, beti giro berdinean eta beti euskaraz hitz egiteko aukera izaten da”. (E1)

“(…) gainera hor ari gira gaztetzear bat sortzen Xiberuan beraz leku horrek ere denbora hartzen du, ekitaldiak eta azkenean leku horietan ere bakarrik euskaraz egiten dugu eta ara”. (E11)

“Bai hori besta euskaldunetan erranen dugu, nun giroa euskalduna den, adibidez gaztetzear eta dena, hor bai ere sentitzen ahal duzu euskara erabiltzen

ahal duzula, lasaiki, nahiz eta denetan hori sentitzen ahal duzun, baina bon! Hor erosoago zira. Ez dakit baina egiazki bai sentitzen duzu, beharba lehen hitza euskaraz inen duzu, eta nahiz eta aitzinekoak ez duen ulertzen hala ere entseatuko da, eta egoera hori ez da denetan agertzen eta hori da ene ustez ere euskal giroa, badira frantses batzuk baina hala ere iten dute esfortzu bat hor euskal giro hortan sartzeko”. (E12)

Euskal jaialdi ezberdinetaz gain, herriko bestetan euskara erabiltzeko aukera izaten dutela diote ikasle batzuek. Kasu hauetan, euskara erabiltzearen lasaitasuna ez da guztiz berdina, aipatu ditugun bestelako eremuetan ikasleek oro har euskara dute kasik hizkuntza bakar bezala, batzuen kasuan frantsesaren erabilera ez baitzaie ezta burutik pasatzen ere. Herriko festetan ordea egoera pixka bat aldatzen da. Aipatzekoa dugu euskararen erabilera presente dagoela, ikasleen eremu honetan haien hizkuntza erabiltzeko aukerak nabari dituztelako oraindik ere. Ezberdintasuna kasu honetan, euskararen erabilera, diferentzia gutxiz izan arren, pixkat mugatuagoa izaten da. Hala ere, ikasleen hitzak kontuan hartu ezker, herriko festetan euskara erabiltzeko aukera ikusten dute, nonbait, parekoak euskara jakin ezean erantzun baikorra izanen duela segurtatzen baitute. Herriko festetan euskara erabiltzera pasatzeko arrazoiak ezberdinak dira, baina oro har, ikasleek euskal kulturari lotuak dauden seinaleak identifikatzen dituzte, ikasle batek azpimarratzen duen ideia, euskal taldeen presentziak euskara erabiltzeko aukera bezala ikusirik.

“(...) edo herriko bestetan ere, gehienetan, beden Ipar Euskal Herrian taldeak gehienak, edo erranen nuke denak kasik euskaldunak dira, edo beden hitzak euskaraz dituzte taldeek. Ez dut erran nahi horrek dena egiten duela, baina hala ere, denek badugu besta giroa euskaraz, musika euskaraz entzuten dugu, kultura euskaraz dugu eta nik gainera lagunak euskaldunak izanik eta haiekin euskaraz hitz eginik, badakit ene besta giroa beti beti beti euskaraz dela”. (E11)

“(...) gero ez dakit nahiz eta ziren herriko besta batean entzungo duzu zure aitzinekoa euskaraz hitz egiten eta bai. Ni hasteko saiatzen naiz herriko bestetan eta lehenik euskaraz manatzen eta ez badute ulertzen frantsesez”. (E5)

“(...) Gero ere, noski gaztetxeetan, herriko festetan, euskal tabernetan eta hori, ahal dudan guztitan euskaraz”. (E1)

“(...) Eta bestetan anitz erabiltzen dute gazteek, gazteek geroz eta gehiago erabiltzen diela ikusten du eta harreman bereziak sortzen ditu, harreman tinkoagoak”. (E7)

- b. *Ikasleek alde z aurretik ezagutzen dituzten eremu ezberdinak arnasmuneak ote diren jakiten dute, ezezagunak dituzten arnasmuneetan ordea seinaleak behar dituzte.*

Euskararen erabilera komertzio batzuetan posible dela aipatzen dute ikasleek. Izan ere, Ipar Euskal Herriko denda, taberna ezberdinak aipatu dituzte, esanez, bertan euskaraz aritzeko aukera izaten dutela. Honi loturik, esan beharra dugu, oro har, eremu hauek ikasleek lehenagotik ezagutu egiten dituztela, eta hori da euskara erabili ahal dutenaren segurtasuna ematen diena. Izan ere, arrazoiak ezberdinak dira, baina kasu guzti hauetan, ikasleak dagoeneko egon diren eremu bateri egiten diete erreferentzia, bertako langileak ezaguturik, euskara dakitela ziurtaturik. Batzuen kasuan txikitatik herrian izan duten denda bat izan da, betidanik euskaraz egin, eta oraino horrela darraiena. Beste batzuetan, behin euskaraz hitz egitea saiatu eta erantzuna euskaraz jasotzeak segurtasuna eman izan die hurrengo alditan haien hizkuntzan hitz egiteko. Eta parekoak euskaraz erantzun ez arren, ulertuak direla ziurtatua daukate.

Horren aurrean, ikasle askoren hitzetan, haien tabernak horren arabera aukeratzen dituzte ere, euskara erabili ahal dituzten ostatueta joanik. Hortaz gain, herri txikietako kasuak ere azaleratu dira, nonbait bertan bizi den jendea ezagutzen denez, herriko zein komertzioetan euskara erabiltzea alde z aurretik jakiten dute, bertako lankideak ezagutu egiten dituztelako. Honenbestez, ikasleek zera esaten dute, euskara erabili egiten duten une asko lehenagotik ezagutu egiten dituztela, eta ezagutzen ez badituzte mezu, seinaleak behar izaten dituztela euskara ulertuko dutela segurtatzeko, modu ondean erantzungo dituztela jakiteko.

“(...)Beraz hor, gero beste nola erran, beti badira leku euskaldunak, Baigorri badakit okindegira beti sartuko nizala euskaraz, edo adibidez Donapaulen bada magasin (denda) bat jauntzi eta liburu eta diska magasin bat eta hor ere badakit euskaraz sartuko nizala. Be ez dakit, ttipidanik abian niz horrat eta ene burasoekin ttipidanik eta usaiak dira eta gero ez dakit”. (E8)

“Lizeoan, etxean eta erranen nuke Baionako arnasmuneetan, ez dakit, adibidez gaztetxean, Baionan adibidez Baiona ttipian¹⁰, Kalostrapen¹¹, Xinan¹², eta karriketan, adibidez Baiona ttikiko karrikan entzuten duzu euskara eta hor bai entzuten da”. (E3)

“Bai badira saltegi batzuk, ostatu batzuk ere eta hortan badakigu aritzen ahal girela euskaraz saltzailearekin baina gero sartu aitzin, gauza berrietan usutan frantsesez bai”. (E12)

¹⁰ Baiona Ttipia Baionako auzo bat da.

¹¹ AEKren ondoan kokatua dagoen taberna.

¹² Herriko taberna.

“Ene ustez Xiberuan gehienbat lehen hitza frantsesez egiten dut, zeta badakit zein dendetan edo zein ostatutan badakiten euskara ala ez, beraz, baldin badakit euskara badakitela euskaraz inen dute lehen hitza, bestenaz frantsesez gehienbat. Baina gero adibidez Baionan baldin baniz, lizeoan ateratzen bagira edo, hor gehienbat euskaraz. Bai fe Xiberoa aski ttipia da. Denak ezagutzen gira, badakit nork badakien eta nork ez dakien”. (E9)

“Bai bai hori da, azkenean ene ustez badakigu denek Etxeparen baditugu lekuak, badakigu ze lekutan ostatukoek euskaraz erantzunen diguten edo beden indar hori eginen duten, nahiz eta ez untsa jakin eta hori atzematen dut goxoa dela ere, batzuetan guk euskaraz lehen hitza egitea eta haiek indarra egitea guri erantzuteko, nik hori adibidez ainitz maite dut, jendeek indar ttipi hori egiten dutelarik”. (E11)

“Bai, gertatzen zait, nahiz eta parekoak frantsesez erantzungo duen ulertzen du, beraz, edo adibidez ogia erosterakoan badakit euskaraz eskatzen ahal dudala nahiz eta ez duten euskaraz erantzungo ulertuko dute eta nahi dudana emango didate, adibidez okindegian badakit euskara erabiltzen ahal dudala. Baina, supermerkatuan eta gehiago frantsesez egia erran. Egia da Garazin gehienetan ezagutzen ditut eta bai”. (E5)

“Bai badakit Baionan badela hori, zinez pixkat da Baiona ttipia euskaldunen gunea da, ez dakit nola erran eta gune hori da. Gero zeharkatzen duzu zubi bat eta arras beste mundu bat da, inpresio hori da, Baionan zubiek auzo guztiak separatzen dituzte, pasa zara alde batetik bestera eta ez da batere berdina...”. (E3)

“Abian zira, Xina da ostatu ttipi bat, hor, gune ttipietan indar gehiago eginen dute beharba, atzematen dut euskaraz mintzatzeko eta horrela”. (E7)

Euskal arnasmune hauek ezagutu baino lehen ordea, ezezagunak izaten dira, alde zurririk jakin gabe existitzen direnak, euskal hiztunek euskara erabili ahal izango dutela jakiteko seinale batzuk erabili behar izaten dituzte. Hau da, ikasleen hitzetan, komertzio edo eremu batera sartzen direlarik, seinale ezberdinen pertzepzioak euskara edo erdara erabiltzera bultzatzen die. Izan ere, ikusi edo entzuten dituzten mezu ezberdin batzuek euskara erabili dezaketela baieztatzen dietela aipatzen dute. Kasu batzuetan, parekoak euskara ez jakitea gerta daitekela azpimarratzen dute, baina egoera hauetan jarrera baikorra izaten omen du parekoak, nonbait euskal komunitate, euskal kultura edo eta hizkuntzarekin loturan egoten direlako. Honenbestez, ikasleek seinaleak behar izaten dituzte euskara erabili dezaketan segurtatzeko, edo behintzat ulertuak ez izan arren, jarrera baikorrenekin erantzungo dituztela segurtatzeko.

“Jadanik nik uste kokapenak, adibidez badakit Baionan auzo batzuetan euskaldun guttiago izango direla beste batean baino, eta bo esango nuke tontakeri bat dirudi, baina askotan apainketak ere egiten du, ba ez dakit, publikitate edo modu elebidunean egiteak ere ba ematen du segurtasun hori esateko « Ba begira hemen

behintzat gehiago ulertuko naute edo egin dezaket euskaraz ». Eta hori, bai tokiak, gero kanpotik ba ez dakit, ematen duen irudiak ere eta hori gero ezagutzen ditugun txokoetan badakigu euskaraz egin dezakelgula, beraz, baina hori, oro har...” Ikasle berak, seinaleen beharra, jarrera baikorra segurtatzeko modu gisa interpretatzeko “*Bai hori da, eta azkenean ez delarik seinalerik, beti saiakera egoitea zailagoa da ze ez dakigu sekulan ea parekoak baikorki erantzungo duen edo ez, eta beraz, egia da pausu hori ematea ba seinalerik gabe nahiko zaila izaten dela*”. (E2)

“Baden jendea, baden giroa, baden musika, nire ustez ohartzen zara iristen zarenean euskal giro batera edo euskaldunetz betea den leku batera ez baita besteen berdina, frantses edo espagnolentz askoz ezberdinago da, eta nire irudiko giroa askoz sanagoa bada bertan. Ba lehen erran bezala musika, gero ere izan daiteke dantza, baden giroa. Baina gero jendeak ere asko egiten du, badakizu horrelako leku batera zoazenean ze jende mota gurutzatuko duzun, eta gehienbat izaten da ikastolakoa, zure lizeoko lagunak, edo lagunen lagunak edo, eta horrela ere bai egiten dituzu ezagutza berriak, euskaldunak, beti giro berdinean eta beti euskaraz hitz egiteko aukera izaten da. Agian ez bortxaz, zu joan zaitezke bakarrik festa batera adibidez, eta badakizu horrelako bestetan minimo, gutxienez bat ezagutuko duzula, hori seguru da eta behintzat, eta ez baduzu ezagutzen bat ezagutuko duzula seguru bukaeran”. (E1)

“Adibidez sartzen zira magasin batetarat eta ikusten duzu Fermin Muguruzaren disko bat, eta Su TA Garren beste bat, bo ez dakit, eni laguntzen nu. Bai, eta kasu larrienen edo au pir erranen dute ez dutela ulertu eta frantsesez erranen diet baina hala!”. (E8)

“Agian bai hala ere, sentitzen duzu fite hala ere euskaraz ariko denez. Bai, sentitzen da hala ere, ikusten duzu, jendea, sartzen zirelarik entzuten duzu frantsesa edo euskara deia, edo denetarik. Eta ikusten duzu ere pixkat jendea nola den, musean ari denez, edo horrelako gauzak. Eta horiek ere handitzen dute euskal giro bati, euskal giroa identifikatzeko eta dena. Beraz, ene ustez bai, ez dut sobera adibiderik hor baina...ene ustez sartzen zira gune batean eta aski fite jakiten ahal duzu euskaraz mintzatzen ahalko zirenez edo frantsesez zuk deus erran gabe”. (E7)

c. *Trikitixa eta euskal dantza bezalako aktibitateetan euskara nagusi, euskal kulturarekin loturan ez daudenetan frantsesa ordea.*

Ikastolako presentziak, eta baita euskal kulturarekin loturan dauden ingurugiroetan euskara erabiltzeko aukera ikusten dute ikastolakoek, gune horiek arnagune bezala ikusirik. Besta giro batzuk arnagune diren hein berean, bestelako aktibitateak ere zerrendatu dituzte ikasleek. E6k horrela dio:

“Eh, lehen musika egiten nuen tokian, egiten nuen txistua eta han beti euskaraz ari ginen ere, han zinez arnasgunea bezala zen eta gero ez dakit, Udaleku, Negu leku, Euskal Abentura eta horrelako elkarteetan, lizeotik kanpo egiten diren gauzetan, hor ere kriston arnasguneak”.

Honek, ikastolatik kanpo ikasleek egiten dituzten aktibitateetan erabiltzen duten hizkuntza ezberdintasunari egiten dio islada. Izan ere, oro har, ikasleetan nabarmentzen diren aktibitate ezberdinak honakoak dira: euskal dantza, eskubaloia, errugbia, trikitixa/txistu, eta musika, besteak beste. Gune hauetan erabiltzen duten hizkuntza zein den galdetzerakoan azpimarragarriak ditugun ondorio batzuk ageri zaizkigu. Izan ere, trikitixa/txistu eta euskal dantzan euskara nabarmendu egiten da, besteetan abantzu frantsesa bakarrik erabiltzen den une berean. Kasu honen aurrean zera esan dezakegu, euskal kulturarekin loturan dauden aktibitateek euskal hizkuntzarekin lotura minimoa badutela oraindik ere Ipar Euskal Herrian. Hala ere, azpimarratzekoa dugu, ikasle hauek eskeiniriko testigantzen arabera, euskal kulturarekin loturan dauden aktibitate hauetan ikastolako ikasleak izaten direla askotan gehiengoa, edo gutxienez, etxean euskara jaso izan duten ikasleak.

“Beste taldekideak, beraz, baziren batzuk ikastolakoak, haien ibilbidea ikastolan egin dutena, eta beste batzuk Xiberutarrak ziren ere, baina ez ziren baitezpada ikastolatik pasa baina neska horiek adibidez euskara etxean bazuten. Edo aita, edo amarekin edo biekin euskaraz egiten zuten etxean eta eskolan ere elebidun sailean ziren”. (E11)

“Bai, be guk hor gure taldean Arrolan, bo Baigorriin, gure erakasleak aski gazteak dira, badituzte 20-30 urteren artean eta horiek ikastolatik pastu dira, beraz horiek euskaraz. Gero baditugu beste erakasle batzuk zaharragoak, ez direnak bortxaz ikastolatik pasa, zaharragoak baitira eta horiek badute etxeko euskara eta beti etxean eta herrian euskaraz mintzatu dira eta horiek haurrak dituzte ikastolan ere bai eta beraz horiek ere euskaraz”. (E8)

Ikasle batek aipatzen du euskal kulturari loturiko aktibitateetan ikastolako ikasleak elkartzen direla gehienbat, nonbait ikastolak euskal kulturarekiko lotura sustatzen duelako, modu horretan Seaskako ikasleak modu erraz eta naturalago batean aktibitate hauetara hurbilduz, adibidez euskal dantzara.

“Ebe, denak gira ikastolatik pasatiak deia, eta ene ustez be da justu ene ustez frantsesak ez dira ausartzen euskal dantzara hurbiltzea. Ene ustez bai, ene ustez ikastolatik pastean garatzen duzu ere sentsibilitate bat zure kulturarekiko eta be nahi duzu edo ez denek baina ainitzek nahi dute parte hartu eta izan herri, Euskal Herriaren parte. Eta beraz kultura mailan ere inplikatu, eta beraz hortako ere dantzak hori ahalbidetzen du eta ainitz dantzan ari gira”. (E8)

Esan bezala, ikasle kasik guztiek esan digute euskal dantza eta trikitixan euskarazko klaseak jasotzen dituztela, egiten dituzten bestelako aktibitatei alderatuz, kasik euskarazko arnasmune bakarrik euskal kulturarekin lotuak daudenak izanik.

“Ba, txikitan karate egiten nuen eta bertan erdara erabiltzen zen, futbola ere egin dut urte luzaz eta frantsesa nagusitzen zen. Dantzan, euskal dantzan euskara eta eskalada azken urte hauetan euskaraz ere, eta frantsesarekin pixkat nahasia”. (E1)

“Mmmm ez dakit deia pilotan gehiago fe euskara sartua da errugbian baino ebe ez dakit bai batzutan lagun anitz pilota egiten dutenak eh dira, ez bortsaz ikastolakoak baina badakite euskara. Ta entrenatzaileak ere, eta horren arabera da ene ustez entrenatzailea edo ara”. (E12)

“Eh nik bai eskubaloina iten dut, eskubaloinean frantsesez ari gira, zeta gure entrenatzaileek ez dakite euskara, beraz frantsesez eta ene lagun batzuekin euskaraz, mais gehienik frantsesez. Eta euskal dantza iten dut ere, eta euskal dantzan dena euskaraz, eta trikia ere, eta trikian ere euskaraz”. (E9)

“Bai, beraz nik eskuibaloina egin izan dut 7 urtez, eskubaloinean gehienbat frantsesez ari ginen, frantsesez aritu gira, ez zakiten euskara, eta taldekideekin ere frantsesez. Gero, trikitixa egin dut ere 10 urtez, eta hor aldiz euskaraz egiten ginuen, gure artean eta erakaslearekin ere, erakasleak euskara bazekielako eta ara, bestenaz beste deus”. (E11)

Hala ere, egoera hau ez da ikasle guztien kasuan ematen, batzuen bizipenak kontuan harturik, kasu gutxiago izan arren, euskal dantza frantsesez jaso izan dituzten ikasleak ere badira, honek ikasleengan sentazio arraroak sorturik. Are gehiago, ikasle batek euskal dantza taldea aldatu zuen, ez zuelako logikoa ikusten euskal kulturarekin loturiko oro frantsesez jasotze hutsak. E3k horrela dio:

“Hiriburun, eta hor euskal dantza irakasten zuten frantsesez, eta fe horrek zinez mindu ninduen, nintzen “Mais, zer da hori?”, joan nintzen hortik ze ez zen posible, “zergatik euskal dantza irakasten duzue frantsesez?” Fe ez du logikarik. Eta beraz utzi nuen eta hasi nintzen Zabala Buruan, hor lagunekin, Baionako kontserbatorioan, da dantza garaikidea eta euskal dantza. Eta hor euskaraz eta gainera lagunak denak euskaraz ari gira beraz bada giro euskaldun hori”. Egoera antzekoa bizi izan du E2 ikasleak, *“Hainbat taldetan egon izan naiz, baina egia da talde batean euskaraz ezin zela egin eta frantsesez ematen zela...nahiko arraro ematen du jakinda euskal dantza dela, baina bai, klaseak frantsesez ematen ziren”.*

Beste aktibitateetan ordea frantsesa nagusitu egiten da oro har, euskara abantzu presentziarik gabe agerturik. Kasu hauetan, ikasle gehienagoa beste eskoletakoekin elkartu egiten da, harreman hauek frantses hutsean emanik. Ikasleen esperientziak direla eta, euskara

erabiltzeko aukera bakarra, ikastolakoak elkartzen direlako izaten da, edo irakasle, entrenatzailea ikastolako ikasle ohia denean. Hau da, frantsesa izaten da nagusitu egiten den hizkuntza nagusia euskal kulturarekin harremanik ez duten kiroletan, euskararen erabilera ikastolarekin loturan daudenen artean emanik soilik.

“Ez, ez dakite, eta banituen bi entrenatzaile, bazen bat ikastolatik pastu zena, beraz berarekin buruz buru euskaraz, baina bestenez kurtsoak frantsesez”. (E2)

“Egin dut musika, beraz, txistua eta solfeoa, eta haiek euskaraz. Egin dut ere bi urtez eskubaloia eta hori frantsesez zen, nahiz eta ikastolako lagunekin mintzatu baina trebaketak frantsesez. Eta hor dantza egiten dut, bo ttipitatik, Garazin, garaztarrak taldean eta euskaraz kurtsoak”. (E5)

“Eh nik nire aktibitate guztiak egin ditut Baiona eta Baiona inguruan, eta batzuk egin ditut euskaraz eta batzuk aldiz erdaraz. Hasi nuen bo ttipi ttipia nintzelarik hasi nuen Hand Balla eta hor den dena frantsesa zen eta sei urtetan horrelako, pixkat, ez dakit pixkat berezia zen, fe sei urte dituzularik bakarrik antsu ezagutzen duzu euskara eta frantsesa gutti eta zaila zen. Eta gero hasi nintzen gimnastika eta gimnastikan egia da bazirela ikastolako beste haur batzuk eta haiekin euskaraz ari nintzen. Bo egia da kurtsoak frantsesez zirela baina ez zen voila, ez zen hori”. (E3)

“Eh bai, mendiko bizikleta, hori kublean, eta hor ez, euskaraz ez ginen ari, zango baloia ere, bo hor euskara kasik denek baganekien, baina entrenatzailea gurekin ez zelako ari, ez ginen euskaraz ari, ez deus, kriston frantses giro ustela, eta gero hori”. (E6)

“Gero egin izan dut eskubaloia Donapaulen, hor frantsesa ere, bakarrik frantsesa. Eta gero joan nintzen Garazira eskubaloia itera, beraz aldatu nin taldez, eta hor aldiz badira hemengo ainitz, ene lagunak direnak, eta santza dugu zenta gure belaunaldian badira ez dakit nolaz, eskubaloian badira ainitz neska ari direnak, Baigorri Garazi aldean. Eta beraz hor, horiekin euskaraz baina gero bistan dena badira beste batzuk frantsesak direnak eta horiekin frantsesez, beraz pixkat bietarik bazen eta gero egiten dut dantza ttipidanik eta hor dantzan beti euskaraz, eta hor bai euskal dantza bakarrik herriko, herritarrak eta herritar euskaldunak eta horiekin beti euskaraz. Bai bai arras hori da, zeta beste bai, hor aritu nintzelarik Garazin eskubaloian baziren ene ainitz lagun Garazi Baigorri alderdikoak eta horiek ikastolakoak izanki be horiekin beti euskaraz gero aldiz besteekin frantsesez”. (E8)

“Ba euskararen erabilera gehienbat izan da ikastolako edo txikitako lagunak ondoan nituelako. Karatean adibidez ikastolako bakarra nintzen eta nehorrek ez zekien euskaraz hitz egiten. Futboleko gehiengoak eskola frantsesekoak ziren baina egia da batzuk txikitakoak zirela edo ikastolakoak zirela eta orduan beraiekin euskaraz egiten nuen. Eta hori, dantza eta eskaladan ikastolakoak”. (E1)

- d. *Herri batzuetan euskararen presentzia handiagoa: Lapurdin Sara bezalako herri euskaldunak, Xiberotar euskalkiaren indarra eta adinekoen euskara erabilera aipatu dituzte ikasleek.*

Orain arte aipatu ditugun arnasmuneak ikasleek amankomunean atera dituzten ondorio nagusienak izan dira. Baina, bada ikasle batek azpimarratzen duen bestelako errealitate bat, Ipar Euskal Herriko herriaren arabera euskara gehiago erabiltzeko aukera izatearena. Izan ere, bera Sarakoa da eta behin eta berriz aipatzen du bere herrian euskaraz hitz egiteko aukera duela, azpimarratuz herri batzuetan euskaraz egitea posible dela, beste batzuetan zailagoa denean.

“(...) beraz Saran dena euskara, gaztetxean ere euskara, entseetzen gira bakarrik euskaraz mintzatzea baina gero, hori biziki inportantea da Saran baina gero Baionan adibidez frantsesez da hizkuntza nagusia”. Bere elkarrizketan behin eta berriz errepikatzen du Saran euskaraz egitearen aukera ikastolatik at dauden eremuetan. “Bai bai, segur naiz, be Saran bakarrik euskaraz ari naiz, Zugarramurdin ere, badira horrelako herriak nun euskara biziki bizki inportantea den, transmisio biziki ona egiten da ere bai, beraz badakit entseatuko naiz euskaraz bakarrik hitz egitea”. (E4)

Bestalde, ikasle batzuk azpimarratu egin dute Zuberoan, Nafarroa Behereari eta Lapurdiri alderaturik, oraindik ere, Zuberotarrak indarra duela, nunbait, ikastolara joan ez arren, etxean batzuek ikasten duten hizkuntza izanik. Honako ideia azpimarratu duten ikasleak zuberotarrak dira, edo lotura izan dute Zuberoako pertsona ezberdinekin. Hala ere, ikasle batzuek argi utzi dute zuberotarraren indarra galtzen ari dela urteekin, geroz eta frantses gehiago sartzen ari baita haien egunerokoan, baina oraino, pixka bat bada ere, zuberotar euskalkiak badu presentzia minimoa etxe ezberdinetan. Honakoa jakinda, Zuberoako ikasle ezberdinek aipatu digute ikastolan ez diren beste zuberotarrekin euskaraz aritzea posible dela, gehiengoak ulertzen duela ziurtatuz. Honako puntua deigarri eta garrantzitsu zaigu, hiru probintzien artean Zuberoak ezberdintasun hau agerian utzi digutelako Bernat Etxepareko lau ikasle zuberotarrek.

“Ez dut uste ikastolatik pasa direla, baina euskara ikasi dute etxean ene ustez. Ez dakit batere baina Xiberoan hala ere ainitzek badakite horrela euskara, Xiberoan bada zinez xiberutarra, mintzatua da ainitz. Bai. Xuberoan bada zinez, ene ustez Iparraldean Lapurdin eta Baxe Nafarroan ez den zer bait, hala ere familia guztietan euskara ez da bortxaz mintzatzen baina denek ulertzen dute eta zinez euskarak badu presentzia gehiago Xiberoan atxematen dut nik, denek ulertzen dute eta denek entzuten dute horien herrian eta. Eta xiberutarra pixkat nortasunaren barne baita, gehiago lapurtarrentzat edo baxe nafartarrentzat baino, xibererak zinez

karakterizatzen baititu ene ustez, gehiago mintzatzen dute eta garrantzia gehiago ematen dute horri”. (E7)

“(...)beste batzuk Xiberutarrak ziren ere, baina ez ziren baitezpada ikastolatik pasa baina neska horiek adibidez euskara etxean bazuten. Edo aita, edo amarekin edo biekin euskaraz egiten zuten etxean eta eskolan ere elebidun sailean ziren. Bai badira kasu batzuk, ez dira batere arruntak, ez dira ainitz, badira batzuk seur, badira kasu batzuk baina ene ustez hori galtzeko puntuan da, ene ustez, ez dakit nola erran, xiberuan adibidez gauza gehienak frantsesez egiten dira, ez da batere euskara nagusi eta ene ustez orain nahiz eta beharbada aitamek pixka bat euskaraz egin etxean, ez da hizkuntza hainbeste atxikiko, jakinez orain badirela sare sozialak eta gure ingurumen guztia frantsesez, ene ustez...” (E11)

“Baina eh bai fe Xiberuan anitzek badakite edo entzun dute, fe anitzek ez baina badute xiberutarra etxetik, ari dira haien gurasoekin eta badute egiazki euskara ez ezberdina baina ainitz aldatzen dira”. (E12)

Beste ikasle baten hitzetara salto egin ezkerro, etorkizunean euskara galtzearen inguruko galdera aipatzean etxeko euskara mantenduko duenaren baieztapena egiten du, hots, zuberotarrarena, nonbait, oraindik etxeko euskarak izan dezakeen garrantzia azaleratuz.

“Ene ustez hala ere etxean ainitz euskaraz ari niz, “voila” kasik denekin, beraz, ene ustez ez dut galduko, “mais” beharba, xiberutarrez bakarrik ari niz ene etxean, beraz beharba hemen ikasi dudana euskara pixkat galduko dut, mais xiberutarra ez dut pentsatzen”. (E9)

Hala ere, Etxepareko zuberotar batek aipatzen du ezberdintasunak nabari dituela ikastolako eta ikastolakoak ez diren zuberotarren artean, nolabait etxean soilik jaso duten zuberotar horiek kalean ez baitute euskara asko erabiltzen, frantsesez hitz egiten dutelako. Hala ere, erabili ez arren, oraindik euskara ulertzen dutela aipatu egiten du.

“Bai bai ni ere haiekin xiberotarra baina ez dakit, etxeko xiberotarra eta ikastolakoak ez da sobera berdina, bo euskalki anitzetan bezala. Bai badira baina usutan ez dakit ez ditugu sobera ikusten edo, ez da asumitzeagatik baina ez dira ausartzen euskaldunekin ere euskaraz aritzea. Baina adibidez badakit batzutan badirela antzerkiak eta dena euskaraz eta ohartzen zira “to berak badaki euskara” ta aldiz ezagutzen duzu duela hamar urte baina...Bai, edo ez dakit ohituragatik ere, etxetik kanpo beti frantsesez aritu dira eta beraz hor denekin frantsesez aritu”. (E12)

“Ainitzek ulertzen dute baina ez dute emaiten, beraz ez dut bortxaz emaiten haiekin”. (E10)

Arestian euskal aktibitate, euskal kulturari loturiko aisialdiak aipatu ditugu, bertan euskara erabili egiten dela ikusirik. Zuberotan murgildurik oraindik, aipatzekoa dugu lurralde honetan

egiten diren aktibitate ezberdinetan, maskarada edo pastoraletan euskara nagusitu egiten dela oraindik parte hartzaileen artean. Izan ere, Etxepareko Urdinarbeko ikasleak aipatu digu haiekin batzen den bakoitzean euskara erabili egiten dutela prestaketak aurrera eramateko, bere hitzek horrela diote:

“Eta hor ere adibidez badira Xiberuan pastoral eta maskaradak, horiek dira antzerkiak, hor aurten badugu Urdinarben urte bateko proiektua eta larunbat ats guziz badugu gaualdia eta errepika, eta hor dena egiten da xiberutarrez, eta hor adibidez hor, aurten larunbat ats guziz ari naiz beste herritarrekin euskaraz, bestelan usutan frantsesez ai gira bai lizeotik kanpo”. (E12)

Hortaz gain, herri batzuetan gazte eta adinekoengan jarri dute begirada ikasleek, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herri batzuetan euskara erabilera adin tarte zehatz batzuetan nabarmenagoa dela zehaztuz. Honakoa barnekaldeko herriko kasuetan ageri izan da gehien, ikasleek, adin zaharrenetakoekin eta gazteen artean euskara erabiltzeko aukera ikusten baitute oraino.

“(...) Horiek entzuten dira, nik nire herrikoetan, bo gero ene herrikoetan badakite euskara, gure, erran dudan bezala, gure herri inguruetan denda ttipiak anitz zaharrek dituzte, zaharrek eta kasik instate geldituko dutena, baina zaharrek anitz euskara dakite gure inguruetan. Baxe Nafarroan zahar anitz euskaldunak dira zinez”. (E7)

“(...)Baigorri egia da gazteen artean euskara hori ainitz atxiki dela, gero badira bi mundu Baigorri erran behar da, badira euskaldunak eta euskaldunak ez direnak. Eta egia Baigorri ez girela bate nahasten, bo ene ustez ere horri esker euskaraz mintzo gira gure artean bortxaz, erran behar da(...)” (E8)

“(...) Eta bestetan anitz erabiltzen dute gazteek, gazteek geroz eta gehiago erabiltzen diela ikusten du eta harreman bereziak sortzen ditu, harreman tinkoagoak”. (E7)

- e. *Lehen hizkuntza euskara dutenen kasuan, etxean euskara nagusitzen zaie guraso eta anai arrebeekin.*

Bernat Etxepareko ikasle batzuek euskara dute lehen hizkuntza gisa, besteek frantsesa eta kasu batzuetan biak ere izaten dira. Ikusi dezakegu euskara lehen hizkuntza bakar gisa izan dutenen kasuan euskara bakarrik erabili egiten dutela familiar kide gertuenekin, kasu gutxitan hitz batzuk frantsesez esanik. Ikasle hauen kasuan euskal arnagune bat eskuratzen dute etxean euskaraz egiteko aukera naturala baitute, nonbait frantsesa sartzea arraroagoa izaten baita.

“Ah ni euskaraz. Beti euskaraz, zinez, beti euskaraz ez da posible frantsesez mintzatzea horiekin, da zinez usaia bat, ez da...beti euskaraz”. (E8)

(...) eta anairekin, badut ania bat txiki bat, bigarreanean dena, eta berekin puf batzutan frantsesez mais izango da gauza espezifiko baten mintzatzeko edo insultatzeko bestenaz dena euskaraz”. (E6)

“Beti euskaraz, gertatzen dira gauza batzuk, beste batzuk, baina gehienetan beti euskaraz, bai bai”. (E7)

“Nik uste egoera gehientsuenetan euskaraz egiten dugula, gero posible da batzutan hitz batzuekin edo lerratzea frantsesera baina iruditzen zait oro har beti egiten dugula euskaraz, ze nahiko arrotza egiten zaigu etxean frantsesez egitea nik uste”. (E2)

“Nire ama hizkuntza beraz euskara da, eta familian mintzatzen gira euskaraz, bi aldeetatik, bai amarekin eta bai aitarekin. Eta ahizparekin ere euskaraz”. (E3)

“Bai, ene ama hizkuntza euskara da eta etxean, baditut bi anai arreba eta haiekin ere euskaraz, gurasoekin eta anai arrebeekin euskaraz”. (E5)

“Nire ama hizkuntza euskara izan da eta txikitatik eta betidanik euskara erabili izan dugu etxean. Bai euskara izan da guretzat nagusiarena”. (E1)

2. Euskara erabiltzeko oztopoak nabari, frantsesa erabiltzearen beharra ikasle guztien egunerokoan.

Ikasleen artean ezberdintasunak daudela agerikoa da, herriaren arabera, euskararen erabileraren jarreraren arabera, lehen hizkuntzaren arabera, bakoitzak ezaugarri ezberdinak dituelako. Hala ere, aipatzekoa dugu, den denek Ipar Euskal Herrian frantsesaren beharraren erabilera azpimarratu dutela, euskara erabili nahi izaterako garaian oztopo zenbaitekin topatzen baitira. Izan ere, ikasleen esanetan, askotan, euskara erabiltzeko aukera egin arren, frantsesera pasa behar izaten dira, honakoa haien hizkuntza erabiltzeko zailtasun gisa identifikaturik.

Alde batetik, ikasleek nagusitu duten ideia bat hau izan da: beste eskoletakoekin elkartzen diren unean frantsesa nagusitzen dela haien ezjakintasuna dela eta. Egoera horren aurrean, Bernat Etxepare lizeoko ikasleek laguntasun harremanak euskaraz eraiki ahal izateko, oro har, ikastolako lagunekin elkartu behar izaten dira, beste harreman abantzu guztiak frantsesez

egiten direlako. Honako egoera esparru ezberdinetan gertatzen da, eskola ezberdinetako ikasleek aktibitate bera egiten dutelarik adibidez. Baina, badira beste modura sortu diren laguntasunak ere, eta kasu horretan ere berdina da ondorioa, frantsesa, euskararen aitzinetik, beti.

a. Beste eskoletako ikasleekin frantsesa nagusi, euskara erabiltzeko ezintasuna.

Euskararen ezjakintasuna aipatzen dutelarik, ikasle asko dira Ipar Euskal Herriko biztanle gehienak euskara erabiltzeko gai ez direla aipatzen dutenak. Kasu honetan, ikastola ez diren beste eskolak aipatzen dituzte, hezkuntza elebidunean dituzten ikasleekin euskara erabiltzea abantzu ezinezkoa dela aipatuz. Honako ideia azpimarratu egiten du ikasle batek, hasieran eskola frantsesean ikasten hasi eta euskara ikasteko ikastolara pasatzeko aukera egin zuenak. Bere esanetan, beste eskolan zegoelarik, bide elebiduna aukeratu arren, ez zuen euskara maila batere berdina orain bezala eta eskolan ez zen batere euskara erabiltzen. Gainera, bere bizipenak mahaingaineratuz, ahizpa eskola frantses bateko aukera elebidunean dauka eta berarekin euskaraz hitz egiteko ezintasuna du eguneroko.

“Bai bai bai, ez da batere berdina. Ikastolan lehen hizkuntza da euskara ez da frantsesa, eta frantses kolegio batean da beraz euskara da bigarren hizkuntza eta nik zertako joan naiz ikastolara? Euskara nire lehen hizkuntza izateko eta bera bere maila euskararen biziki apala da, ez da batere, ez du erabiltzen, bai ulertzen du baina ez dena baina ez du erabiltzen”. (E4)

Gainera, ikasle hau eskola frantsesean ibili dela kontuan harturik, Etxepare lizeoa ezberdina dela azaltzen du, hizkuntzaz gain, euskara eta euskal herriko kulturak barnebiltzen dituela aipaturik.

“Bai bai, be orain dena euskaraz da, giroa ez da batere berdina Seaskan izatea eta frantses lizo batean, beraz bai ez da batere berdina, eta biziki konten naiz euskara ikastea Etxeparen”. “(...) Etxepare, gure kultura ere bai biziki garrantzitsua da musika badugu, taldeak ditugu, Etxepareko txaranga, biziki inportantea da eta niretzat biziki garrantzitsua da gure kultura ezagutzea eta hori dena, beraz Etxepare lizeo biziki biziki biziki on bat da nire ustez”. (E4)

Frantses eskolak eskaintzen duten hezkuntza elebidunarekin segitu ezker, beste ikasle batek azpimarratzen du etxeko hizkuntza frantsesa izanik, ikastolari esker euskara erabiltzeko gai izatera iritsi dela, arlo elebidunean izango balitz egoera ezberdina izango zela azalduz.

“Ah bai, segur niz hortaz, arrunt ezberdina izanen zen. Egia erran baditut ene inguruan ni bezala, haien aitamak euskaraz ez dakitenak eta azkenean ageri da nahiz eta elebidunean izan edo beste eredu batean, ebe ez dakitela ni bezain untsa, ni bezain untsa erran nahi dut, ez dira batere gai gu bezala euskaraz hitz egiteko edo

bizitzeko, beraz, segur niz. Gainera nire aitamek ez dakitenez euskara ez nuen batere ber maila lortuko". (E11)

"Bai eskola frantsesetatik, beraz nahiz eta elebidunean diren ez dakite, ez dute asko ongi menperatzen euskara ulerrizketa bat euskaraz egiteko". (E5)

Egoera hau islatzen duten baieztapen ezberdinak izan ditugu. Beste baten kasuan, etxeko hizkuntza euskara izan dute, baina anaia ikastolatik pasa ez denez, horren arrazoipean ikaslearen eta bere anaiaren arteko elkarrizketa zorbaitetan frantsesez izaten da.

(...) Ene anaiarekin pixkat gehio frantsesez berak ikasi baitzuen euskara etxean eta bon ez zen ikastolan izan beraz gehio berarekin frantsesez (...) (E10)

- b. *Frantsesa erabiltzeaz gain, euskara erabiltzean, parekoak izaten duen erantzunagatik ikasle asko deseros sentitzen dira.*

Hortaz, ikastolako ikasleek haien lagunekin euskara erabili ahal izateko ikastolako lagunak izan behar direla azpimarratzen dute, oro har beste lagun guztiekin frantsesa erabiliz. Gainera, hasieran aipatu ditugun aktibitateen gaia gogora ekarriz, beste eskoletako kideekin elkartu ezker, aktibitateen hizkuntza frantsesa bilakatzen da. Gainera, frantsesa erabili behar izatearen kasua azaltzeaz gain, ikasle batzuk deseroso edo bakarrik sentitu izan dira ikastolakoak izateagatik.

Horrela dio E3 ikasleak: *"Bai ene ustez bai, badakit, ene irudiko askoz hobeki pasatzen nuen euskaraz ari nintzelarik aisialdian eta badakit gimnastikan jendea joan delarik, ikastolako jendea joan delarik eta utzi duelarik gimnastika hor bakarrik nintzela, eta aipatzen nuelarik "bai bihar noa berriz ikastolara" eta parean zen ikastola, ikusten ginuen lehioetatik eta erraten zuten "ah mais euskalduna zira?" badakit mindu ninduela eta pixkat bakardade hori sentitzen duzu, gainera haurra zirelarik zaila da, mais..."*

"Iruditzen zait hasteko ainitz pertsonak ez dutela ulertzen ikastola baten helburua. Neri deia gertatua zait adibidez elkarrizketa bat ukatea pertsona batekin eta erraitea "zendako ez zira joan frantses kolegio batera, hartuz elebidun euskara?", kontzientzia ez dute iruditzen zait, edo gu baino guttiago". (E5)

Beste eskoletako lagunez gain, haien egunerokoan, aktibitate txikietan, sal erosketa, garraio publikoetako hartu emanak ematen direnean frantsesa nagusitzen da ere. Ikasle gehiengoak askotan lehen hitza euskaraz egiten duela azpimarratzen du, askoren ustez lizeoak emandako kontzientzia puntu izanik. Baina, abantzu denek erantzuna erderaz jasotzen dutela aitortzen dute, hots, frantsesez edo beste hizkuntza batean. Izan ere, arlo honetan puntu deigarri zenbait

ditugu. Alde batetik, kasu askotan euskaraz zuzendu arren, erantzuna frantsesez izaten da, nunbait lurraldeko hizkuntza ofizialean.

“Bai, adibidez, eh arrunt. Ene etxean edo Baionan orokorrean iruditzen zait nahiz eta indarra egin, ez da indar bat baina azkenean beti egiten dugu lehen hitza edo azken hitza euskaraz, mais inork ez digu erantzuten berdin. Autobusera sartzean beti egiten dugu, hartzen dugu kasik egunero autobusa eta beti “egun on, mila esker” eta inork ez digu erantzuten euskaraz, okindegian berdin, eta ostatueta, be erranen nuke hala ere ostatuak horren arabera ere hautatu digula, fe erran nahi dut, baditugu leku batzuk aski aproposak nun badakigun euskaraz hitz egiten ahal dugula, baina bai gehienetan erranen nuke frantsesez erantzuten digula jendeak”. (E11)

Baina beste ideia garrantzitsu batzuk aipatu dituzte Etxepareko ikasleek. Askok, euskara erabiltzeagatik kanpotarrak bezala tratatuak direla aipatzen dute, nunbait euskara erabiltzerakoan, frantsesa ez den beste hizkuntza batean erantzun izan dietelako adibidez.

“Oro har frantsesez, batzutan tokatu izan zait ere ingelesez erantzutea behin baino gehiagotan, baina oro har frantsesez bai”. (E2)

“Hizkuntza horretan hitz egitea normal bilakarazten dut pixkat iruditzen zait. Eta azkenean hor iruditzen zait ere euskaraz mintzo girelarik autobusean edo batzuk geratzen dira «ua, mais euskaraz mintzo zizte!» fe ez da bate naturala edo jendartean euskaraz hitz egitea. Eta bai, ene ustez, segur da ofiziala ez izateak oztopo batzuk sortzen dituela”. (E11)

“Eh gehienetan galdera, edo adibidez supermerkatuan euskaraz hitz egiten dudanean, gazteleraz erantzuten dute. Gure, ez dakit zergatik español bezala kontsideratzen gaituztelako euskaraz hitz egiteagatik, baina guztiz kontrakoa da. Eta ez badakizu euskara benetan pasatu zuk gainditzen duzun hizkuntza batera, ez pasatu españolera, zuk gaztelera ez duzunean nik baino okerrago hitz egiten frantsesa, esan nahi dut, nahaste oso handi bat da. Eta gero guk nahiz eta frantsesera pasa, besteak gazteleraz segitzen du, ez du zentzurik hartzen duten aldaketa hori gu euskaraz hitz egiten hasi garelako”. (E1)

“Da pixkat, bo aldi oro geratzen naiz nahiko harritia, pixka bat, oso deserosoa egia esanda. Ze hori da erantzutea pixkat atzerriko hizkuntza batean, bo berez frantsesa ere atzerriko hizkuntza bat da baina ez dakit. Baina ez dakit, ez jakintasunetik den edo bazterkeriatik tiratzen den arrazoia, baina pixkat ez dakit, atzera botatzen du, eta ematen du euskara da Euskal Herriko hizkuntza eta pixkat ez dakit, arrotz sentiarazten nau ere nire herri propioan ez? Horrelako erreakzio batek ba pixkat ez dakit, ez dakit ze hizkuntzetan ari ziren beraz hitz egingo dizut kanpoko hizkuntza batean, pixkat kanpotiar bat banintz bezala edo, beraz deseroso eta arrotz”. (E2)

- c. *Ikasle batzuek lehen hitza direktuki frantsesez egiten dute erantzuna frantsesez izanen dutela aurreikusirik.*

Ikasle batzuek nolabaiteko sarearen inguruan hitz egiten dute. Hau da, euskararen inguruan egiten diren ekimenei esker egindako ezagutza ematen dela diote, behin eta berriz jende berdina elkartzearen arrazoiagatik. Sare edo komunitate horretan elkartzen direnak euskaldunak izaten dira usu, euskal munduarekin lotura izanez. Hortaz, sare honetan ikusi ez dituzten pertsonekin frantsesara pasatzeko joera izaten dute, ezezaguna izateak, euskal komunitate honetatik kanpo dagoela pentsaraziz.

“Be ene ustez da ere gure ingurumena edo sarea pixkat eta jendeak beti ber lekuan biltzen gira, ber jendea, eta beraz badakigu nor den nor, noren ahizpa den noren ahizpa eta ez dakit zer, azkenean gure sareko guztiak sareko guztiak eta kasik guztiak elkar ezagutzen dugu. Eta adibidez abian niz l’Eclercera eta ikusten ditut ezezagun batzuk, arrunt ezezagunak, be hor pentsatzen dut, ez dakit, frantsesez, ez dakit, edo entseatzen niz euskaraz baina esperantza gutxirekin eta gero frantsesez erantzutzen daut. Eta gero bizki handia da l’Eclerc, handiagoa da, ez dakit. Bai, nik batzuk ikusten ditut horrela, badakit nor diren, ene ustez ttipidanik ere, adibidez ene aitarekin Amikuze aldean gainera hain gutti gira euskaldunak Amikuzen, be beti badakigu nor den nor, ez dakit, manifetan edo elkarretaratzeetan, Korrikan ere beti berdina ikusten ditugu eta ikusten dutalarik ene aita mintzo dela euskaraz berarekin badakit euskalduna dela, beraz horrekin edo ene ama berdina”. (E8)

“Ez dakit, izan behar da usaia zerbait. Egia da orokorrean, hemen, Baionan, eta inguruetan, edo jende hori ezagutzen duzu eta usu gertatzen da Baionako karraketan, badakizu, ageri da, ikusten baduzu norbait ez duzuna ezagutzen pixkat ezagutzen dituzun guneetatik kanpo “be bai, ez daki euskara berak”. (E3)

Beste ikasle batek ordea presa izatearen arrazoiarekin frantsesera pasatu egiten dela arrazoitzen du, nonbait erantzuna euskaraz ez izateak amorrua sortzen diolako, eta denbora galtze hori eman ez dadin direktuki frantses hitza jartzen du lehenik.

“Ba adibidez, presa dudan momentuan edo denbora galdu nahi ez dudan momentuan ba adibidez super merkatura noa edozer gauza erostera, direktuki frantsesera pasatzen naiz, batzutan ez dudalako denbora galdu nahi bestek gazteleraz erantzuteko edo agian gazteleraz erantzuten badit haserretzen naiz, edo ez daukat gogorik hain gaizki ateratzeko super merkatutik eta frantsesera pasatuz ba azkarrago egiten da”. (E1)

Arrazoi ezberdinak azaleratze aldera, beste ikasle batzuek aipatzen dute nolabaiteko aurreikuspena izaten dutela aurrekoak euskara ez jakitea, izan duten bizipenarekin, euskaraz

lehen hitza esaterakoan askotan izan baita erantzun frantsesa, horrek oraino lehen hitza frantsesez egitera bultzaturik.

“Be batzutan egiten dut euskaraz baina bo kasik, beti “egun on” eta gero ez dakite deus erraiten, eta bai da ohitura eta hala ere batzutan, ez dakit, ostatuetan ikusten duzulaik pixkat beharba euskara, hor bai euskaraz baina ez dakit bestenez autobus gidariekin eta bai saltzaileekin eta dena usutan frantsesez”. (E12)

“Eh, nik erranen nuke zerbitzuetan orokorrean, ez dakit. Garraio batera igotzen bazira eta hor mintzatzan zira usu erdaraz automatikoki, zenta badakizu parekoak ez dakiela euskara. Eta be voila, eta ostatuetan edo okidengian, hor ez dakit, pixkat automatikoki badakizu parekoak ez dakiela euskara, beraz ari zira berekin...” (E3)

“Ene ustez bai sinpleki, egunon erratean, eta frantsesez edo horrelako gauzak erantzuten badizkizute, segitzen ahal duzu pixkat, baina ikusten baduzu ez dutela bate lortzen eta batzutan uff ez zira ezta entseatzen, iten duzu frantsesez, kasik segur zira ez dakiela euskaraz, ez litzateke horrela izan behar, baina gehienetan gertatzen da”. (E6)

“Besteak erranen duena eta fu, bestearen lehen hitzak anitz, erraiten duen lehen hitza frantsesez edo euskaraz baldin bada, ainitz erabakiko du zein hizkuntzetan ariko nintzen, ene ustez frantsesez erraten bada lehen hitza ene ustez erreskiago ariko naiz frantsesez euskaraz baino. Euskaraz baldin bada kontrarioa da, eta gero badakitelarik euskaraz ez dakiela edo segidan hasiko naiz frantsesez ta dena. Bai bai, hori bai, ikusten da. Ikusten da eta badakizu ere mintzatzan zira batzuekin, ikusten duzu eta oroitzen zira, leku batzutan ez da batere euskaraz mintzatzan”. (E7)

d. Euskararen ezjakintasunaren aurrean, ikasleek adaptazio beharra dutela azpimarratzen dute.

Arnasguneetan erabili egiten dute euskara Iparraldeko Bernat Etxepareko ikasleen gehiengoak. Hala ere, batzuek euskara erabiltzeko aukera gehiago izan arren, denek erdararen presentzia dute haien eguneroko bizitzan. Lehen hizkuntza euskara duten ikasleek ere frantsesaren nagusitasuna nabari dute haien egunerokoan etxe eta ikastolatik kanpo. Frantsesa erabiltzearen arrazoiak ezberdinak dira, izan ere, batzuen kasuan haien etxeko hizkuntza baita, txikitatik izan duten lehen hizkuntza etxean. Besteen kasuan ordea, frantsesa denborarekin ikasi behar izan duten hizkuntza izan da, nonbait bestelako hartu emanak bermatzeko nahitaezkoak hizkuntza suposaturik.

Idea honi tiraka, frantsesa etxetik kanpo ikasi dutenen kasuan egoera zailagoa izan da, hizkuntza hori menperatzeko denbora gehiago behar izan dutelako. Hortaz, oro har, txikiak

zirelarik, ikasle batzuek zailtasunak izan zituzten frantsesez hitz egiteko, garai hartako haien hizkuntza bakarra euskara zelarik.

“Bai bai erabat nik uste, kalean ez banu izan horrela ba pixkat inposaketa, bai nunbait inposaketa hori frantsesez hitz egiteko, bestela ez zen beste aukerarik, hau da, euskaraz esparru askotan ezin zenik hitz egin, ba nunbait bai horrek bultzatu nau baita ere ba beste hizkuntzak baino gehiago ikastera edo, hau da, euskaratik haragoko hizkuntzetara, hau dut gehienbat sakondu, behar nuelako ere”. (E2)

“(...) Hasi nuen bo ttipi ttipia nintzelarik hasi nuen Hand Balla eta hor den dena frantsesa zen eta sei urtetan horrelako, pixkat, ez dakit pixkat berezia zen, fe sei urte dituzularik bakarrik antsu ezagutzen duzu euskara eta frantsesa gutti eta zaila zen (...)” (E3)

“Bai bai, azkenean behartuak ginen beste manera batez komunikatzera eta voila fe, nik hasteko izan ditut hastapen batean, gero usaiatzen zira, mais, arazoak komunikatzeko. Gainera ez arras ber mundua, batzuekin, batzuek ulertzen zuten ikastolarena eta zenta ikasten zuten eskolan zer pasten zen euskararekin, mais batzuek aldiz ez zuten deus ezagutzen eta aurreiritziekin eta hor zaila zen komunikatzen”. (E3)

“Bai, nire ustez, ni bezalako pertsona bateri ez zaio erraza frantsesera jotzea, ez baita gure ama hizkuntza ezta agian bortxaz bigarrena, eta frantses asko agian gure akzentua hitz egiteko moldea ez dutenez ulertzen, bai kakotsen artean ulertzen, ba pixkat jenagarria izan daiteke guretzat”. (E1)

Frantses hizkuntzaren zailtasunak, lehen hizkuntza euskara zutenen kasutan orokortu izan da. Baina, esan beharra daukagu, ikasle askok adaptazioaren beharra aipatu dutela. Hau da, batzuentzat frantsesez hitz egitea zaila izan ez arren, ikasleek errepikatu izan dute beti ere besteekin harremanetan sartzeko adaptatu behar izan direla, euskaratik frantsesera pasaz, nolabaiteko indar bat eginez.

“Gehienbat egitearen arazorik ez zen, baina besteen ulertzeko momentuan agian zailtasunak edo zituzten eta hitz egiteko ez zuten kapazitaterik. Eta orduan guk frantsesa dakigunez ba maleruski gu pasatu behar gara frantsesera beraiek euskara ez dutelako”. (E1)

“Beraz, kirola, amarekin etxean, ainitz eta gero bai lagunekin ikusten girenean, baina ez ainitz geio. Adibidez, joatean erosketak egitera, komertzioetan edo horrelako gauzetan ez dut batere aukera ikusten, eta batzutan euskaraz hasi eta dena, bortxatuak gira frantsesez erantzuera, ez da bate aukerarik hortan”. (E6)

“Zeta batzutan edo ttipidanik usatu gira pertsona horikin frantsesez aritzen, beraz segitzen dugu, edo be ez dakite euskara, behartuak gira frantsesez aritzera”. (E9)

“Bai baditut batzuk, ez asko baina baditut ze egia da ez naizela hainbeste esparru frantsesetan ibiltzen, baina bai baditut lagun batzuk horrela eta haiekin bo harremana frantsesez egiten da, ez dakitelako euskaraz eta beti bada egokitzapen hori, parekoak ez du euskaraz egiten baina guk egin behar dugu egokitzapen hori euskaratik frantsesera pasatzean”. (E2)

“Bai bai. Atxematen dut hala ere beti gure zentzuan izan dela adaptatzea, beti euskaldunei adaptatzea eta ez horier guri adaptatzea. Biak gure eremuan gira eta beti guri da indarra egitea adaptatzea eta nik frantsesa hasi dut ikasten, ez dakit ikastolan noiz hasten da? 6-7 hor inguru, beraz hastapenean ez duzu hain untsa mintzatzen, eta beraz beti guri da adaptatzea eta indarra egitea, eta hori domaia atxematen dut, besteek ere behar lukete egin gure indarra pixka bat zeta bo orain mintzatzen dugu eta behar da adaptatu eta fite egiten da, mintzatzen badakigu, baina bai lehenoz zailago zen”. (E7)

“Arrunt! Hori segur, arrunt. Adibidez ni frantses batekin be egoten baldin baniz, bortxaz nik adaptatu beharko dut berari eta frantsesez mintzatu beharko dut. Zenta berak ez du jakinen euskara eta nik badakit frantsesa. Beraz komunikatzeko bortxaz beharko du adaptatu, eta ene hizkuntza aldatu, hori bortxaz”. (E8)

- e. *Ikasle batzuek sare sozial eta transnazional hitzak erabili dituzte euskararen mehatsu bezala.*

Ikasle guztiek hau aipatu ez arren, bat baino gehiago izan dira sare sozial edo transnazional hitzen bidez frantsesak euskararen gaindi presentzia gehiago hartzen duenaren arrazoia aipatu dutenak. Ikasleak gaur egunean kokatu egin dira, gaur egungo sare sozialen presentziak euskara hizkuntzarengan dituen eraginak aipatzeko, ikasle batzuen ustetan honakoek ez diote euskarari presentzia handirik uzten, frantsesa gailenduz.

“(…) Eta gero, bai edo ez ulertzen bat badelarik edo ere erreferentzia, ez dakit atzoko matcha ez dakit nun eta hori telebistan, irratian eta sare sozialetan, denetan ikusten dugu frantsesez, eta hortaz mintzatzeko usutan pasten gira frantsesera”. (E12)

“(…) ene ustez, ez dakit nola erran, Xiberuan adibidez gauza gehienak frantsesez egiten dira, ez da batere euskara nagusi eta eta ene ustez orain nahiz eta beharbada aitamek pixka bat euskaraz egin etxean, ez da hizkuntza hainbeste

atxikiko, jakinez orain badirela sare sozialak eta gure ingurumen guztia frantsesez, ene ustez...” (E11)

“Bai bai guneak anitz aldatzen du ere, L’Eclerlean ez duzu sentitzen badela euskal giro berezi bat eta dena eta ez duzu, ikusten duzu, horiek dute lehen hitza beti erraten frantsesez, “bonjour”, eta ez dautzute uzten, ez dute uzten lekua euskarari beharba. Mais hori da gauza handi guztietan, transnizionalak eta horrelako gauzak”. (E7)

“Eta adibidez abian niz l’Eclercera eta ikusten ditut ezezagun batzuk, arrunt ezezagunak, be hor pentsatzen dut, ez dakit, frantsesez, ez dakit, edo entseatzen niz euskaraz baina esperantza gutxirekin eta gero frantsesez erantzutzen da. Eta gero bizki handia da l’Eclerc, handiagoa da, ez dakit”. (E8)

f. Ikasle batzuek euskararen ofizialtasuna lagungarri ikusten dute gaur egungo Ipar Euskal Herriko errealitatean.

Oztopo hauen aurrean ikasle batzuk, euskara ofiziala izan beharko zela azpimarratzen dute, aterabidea ez dela azpimarratuz, baina hein batean laguntza ekarriko lukeela aipatuz. Oraingo egoera ikusi ezker, askok euskara aukerazko hizkuntza dela ikusten dute, biztanleriaren gehiengoak hizkuntza honekiko loturarik izan gabe, eta nolabaiteko desinteres jarrera topaturik. Ikasleek argi esaten dute ofizialtasunak ez diola konponbidea emango euskarak gaur egun topatzen dituen zailtasunei, baina hein batean hizkuntza honekiko lotura gehiago eskatuko luke, Ipar Euskal Herriko eremuan euskararen ezagutza minimoa izateko. Gaur egun, ikasleen hitzetan, jendeak ez du euskara deus ulertzen, nonbait bi mundu oso ezberdin sorturik, euskaldun eta frantsesen artean.

“Ah bai bai erabat, zeren nunbait ikastolan bakarrik euskara ikasteak ematen du euskara soilik ikasteko hizkuntza dela eta ez duela balio bizitzeko eta kalerako, nik uste ofizialitzaeak ba hori, askoz ere gune gehiago sortuko lituzkela eta eguneroko bizi normal bat euskaraz eramaten ahalko genukela hori esker”. (E2)

“Bai eta ez. Ez dakit ofizialaren horrek bortxaz eragiten duela baina da bereziki ez dela bortxaz aipatua. Fe badakit jende anitz inkontziente dela, badela beste hizkuntza bat, beste kultura bat haien ondoan eta ez dakit jendea zinez ohartzen den, ez dakit barneratua den hori eta ene ustez da gauza kultural bat arras. Eta ofizialtasunari bortxaz lotua”. (E3)

“Azkenean...bo nahiz eta ofiziala izan EAEn ere ageri da bon denek ez dakitela, ez da hori pentsatu behar ere, ageri da denek ez dakitela nahiz eta ofiziala izan, baina uste dut hala ere ofiziala izateak inportantzia ematen duela hizkuntzari eta azkenean berdintasun bat pixkat sortzen duela, normalizazio bat sortzen duela, bo ez dakit, ez dut untsa adierazten...” (E11)

“Erabat. Nire ustez pausu handi edo golpe handi bat izanen zen Ipar Euskal Herri osoan, euskara ez baita bortxaz ezagutua eremu honetan eta ez dakigulako edo ez du irudi euskara hemen mintzo dela, ez da nabari euskaldunok benetan hizkuntza bat badugula, gehienbat badiren pertsona guztiak, hainbeste turistekin eta frantsesak indarra hartzen du, eta irudi du ba euskara bigarren plano batean badela eta bai nire ustez ofiziltasun horrek euskarari indar asko emanen zion eta bai programazio, anuntzio edo publizitate edo horrelako gauzetan askoz gehiago erabiliko zen, eta hobeto izango zen bai”. (E1)

“Bai ene ustez argiki, zenta justu komertzioetan adibidez, ez izatea adibidez eh, bi hizkuntzetan produktuak prosatuak edo horrela, horrelako gauzak sinpleak eta dena, ez dute bate motibatzen jendea euskaraz aritzea, ez du deus laguntzen. Ez baduzu jendea sustatzen edo arrazoi bat ematen badakizu, ikasteko horientzat berdin zaie, aski dute haien hizkuntzarekin eta ez dute ikusten zein interes duen beste baten ikastea edo zeta ofizialtasunak hori ekarriko luke ene ustez, pixkat helburu bat bezala ematea euskara eta beraz jendeak ikasi nahi izatea eta gauzen bizi bat eraikitzeak hizkuntza horrekin, hori gabe pixkat abstraktoa da hizkuntza hori ikastea”. (E6)

3. Jarrera ezberdinak Ipar Euskal Herrian, desinteresa eta kontzientzia falta azpimarratu dituzte. Bestalde, euskara galtzeko beldurra ez, atxikimendua eta aldeko jarrera nabari Etxepartarren.

- a. *Ikasleek desinteres jarrera dute gehien nabari, hala ere, batzuen jarrera baikorra ere azpimarratzen dute.*

Bernat Etxepareko ikasleek Ipar Euskal Herrian euskararekiko desinteresa nabari dute. Izan ere, euskararen aurka daudela ez dute nabari, baina nonbait hizkuntza honen inguruko jakintza gutxi dutela diote, horrek desinteresera bidalirik. Askok honako ideia aipatzerakoan honakoa esaten dute: haiek ikastolako ikasleak izanik Seaskan jaso duten kontzientzia batetik datorrela, Seaskatik kanpo pertsona askok honekiko buru hausterik eman gabe.

Ikasleek hizkuntzarekiko kontzientzia aipatzen dutelarik, azpimarratu egiten dute Seaskak nolabaiteko bestelako ezagutza eta loturak eman dizkietela, beste eskolei alderatuz ezberdinak direla. Izan ere, azpimarratu egiten dute Seaskak emandako hezkuntza ezberdina dela, Ipar Euskal Herriko beste eskoletan topatzen ez dena. Honako arrazoia azaltzen dutenean hizkuntzatik haratago doaz ikasleak, nolabait euskal kulturarekiko lotura ikastolako eman diela ziurtatuz, etxeko euskara bakarrik izateak honako lotura ematen ez duela azalduz.

Honenbestez, ideia honen harira arrazoitu egiten dute ikastolatik pasatu ez direnek desinteresa izatearena.

“Bai bai nik uste erabat ezberdintzen dela, ze iruditzen zait beste eskoletan naiz eta ikasteko aukera murrizagoa den edo, beste eskolatetan irakasten zaiela soilik euskara bere osotasunean, hau da, gramatikalki, baina gero ez zait iruditzen euskarari lotuak zaizkion kultura transmititzen denik. Euskararekiko lotura bera ere transmititzen denik eta ez dakit, euskararen herriaren ikuspegi, hau da, Euskal Herriaren ikuspegi hori aipatzen denik ere. Iruditzen zait dela beste edozein hizkuntzaren irakaspena egiten zaiela beste ikastetxeetan eta ez dakit, Seaskan iruditzen zait ba lehen aipatu ditudan kulturak, herriarekiko ikuspegia eta ez dakit, euskararekiko atxikimendua edo transmititzeaz gain, elkarlana asko lantzen dela, izpiritu kritikoa ere nik uste eztabaidarako esparruak sortzen direla, erreskiako Seaskan beste tokietan baino”. (E2)

“Ez dakit batere, ene ustez ez dira gutaz trufatzen bortxaz, edo ez gituzte gutxiezten, ez denek, bada ainitz ezjakintasuna, ez dira jakinean eta ez dakite hori dena, ez dira ohartzen zeta ez zaie neoiz erakutsia izan, badela euskaldun komunitate bat eta hori guztia, ene ustez hortako ere bada, gero zinez iruditzen zait horrela dela Ipar Euskal Herrian arrunt bi talde bezala dira, badira euskaldunak eta frantsesak, ez dira batere nahasten, edo nahasten diren batzuk badira ere, bainan adibidez beti pertsona, nik badakit pertsona Etxepareko pertsona bat besta gehienetan ikusiko dut ber pertsonekin, eta bortxaz euskalduna baldin bada, ber euskaldunekin ikusiko dut eta beharba beste batzutan beste frantses batekin baina, harremanak baititu ere, mais gehiengoan beti ber pertsonekin egonen da”. (E8)

“Bai, ene ustez bai. Jendearendako ez da baitezbadakoa adibidez, itzulpenak egitea. Adibide bat, sartu naiz nire herriko besta komitean eta komite hori badu ez berria hala ere, eta hau aurtendanik, gu, ikastolako lagun batekin sartu naizelako, galdegin dugulako itzulpenak ere euskaraz egitea, euskaraz dira. Baina haiendako ez zuten inportantziarik ikusten adibidez informazioa euskaraz eta frantsesez helaratzeari, haientzako bakarrik frantsesez eta ez dute haien buruari, nahiz eta Eiheralarre herri ttipi bat den eta kasik denek badakiten euskara, baina...” (E5)

“Beh...batzutan batzuk interesatzen dira, hori guttitan hala ere. Eta gero, ez ez ulertze bat baina justu ez dakit, bai haiek segitzen dute frantsesez eta ez dakit, pixkat futitzen dira, irudi du”. (E12)

“Ah bai bai, arrunt. Ene ustez bai, ene ustez ikastolatik pasten ez denak ez du santza hori ezagutzeko ere zer den ikastola, zenta zinez bada giro, bada zinez, beharba pixka bat iten du sekta bat baina egiazki zinez ene ustez da giro bat eta garrantzitsua da horren atxikitzea ere eta euskalduna izanki ene ustez ikastolatik ez pasatzea zinez domaiia atzematen dut. Ene ustez bai, ene ustez segur da enukuela ber pentsatzeko manera ukanen egin baldin banitu ene haurtzaroko, ez banintz ikastolatik

pasa. Ene ustez bai, zenta beharbada, nahiz eta ikastolan ez izan, izanen nintzen eskola publikoan eta etxean euskara, baina ene ustez hala ez da berdin, kontzientzia bat piztu da hala ere, deia badakizularik Seaska nola den, ene ustez, Seaskako anitz ere beharbada ez dute kontzientzia, hori ere...” (E8)

“Parekoak ez dakielako euskaraz, nik uste. Azkenean iruditzen zait, adibidez Ipar Euskal Herrian euskara ez denez ofiziala badela hizkuntza bat horrela, ba nahi duzu ikasi edo ez duzu nahi, interesa duzu edo ez, eta iruditzen zait oro har jende guzti guztiak ikusirik ez dela hainbesteko ikuspeirik, interesik euskararekiko. Dela hizkuntza bat hitz egiten dela leku zehatz batean eta ia, ez dela ezta iritzirik horren inguruan, azkenean pentsatzen dut euskara ofiziala izango balitz nolabait euskaragarriagoa izango zela agian, jendeak azalpen gehiago izango zuela parean edo esku artean, eta ondorioz ba interes gehiago piztuko zitzaioala jende horreri”. (E2)

“Hori ez dira kontziente, beharbada hizkuntza batek eremu bat sortzen duela. Hizkuntza batek sortzen du, euskarak du sortzen Euskal Herria, euskarak du batzen Euskal Herria eta dena, eta beraz eremu bat sortzen da hizkuntzari esker, eta beraz guk kontsideratzen dugu eremu hortan girela Frantzia bezanbait edo gehio. Bai, gero ez dut pentsatzen horien falta denik, guk horrela ikasi dugu ttipidanik, euskaraz bizitu gira, handitu gira, batzuek ez dute horrelako santza izan, edo hautu bat da eta dena. Beraz, ez da, normala da pixkat horrelako urruntasuna eta ez gure ber pentsatzeko moldea izatea, zenta ez dira berdin heziak izan”. (E7)

Ikasle batek egoera hau aldatzen ari dela aipatzen du, nonbait ikastola eta euskararekiko desinteresa hasiera batean kritikatuak izan zirenetik eratoritzen dela dio. Bere ustetan ordea egoera aldatzen ari da, gaur egun gazteen artean euskara gehiago erabiltzen baita eta aukera hori izan ez dutenak ikastolara hurbiltzeko gogoia adierazten dutela ikusten du:

“Ez dira ikastolat joan eta beraz bortxaz ez dakite euskara. Mais gero horiekin mintzo zirelarik orain ikusten duzu gauzak aldatzen zirela zeta erraiten dizute “nik beharba ikastolat joateko emeia ukanen nuen” zeta hor ikusten dugu euskaraz mintzatzea untsa dela, gauz batzuk irekitzen dauzkizula eta dena eta hor ikusten duzu aldatzen dela hala ere, jendeak nahi zuen ikastolara joan baina horien burasoek ez zuten nahi edo horrela, ze ez zen biziki untsa ikusia hastapenean ikastola, kritikatu zen aski, baina ikusten duzu hala ere jendeak nahi, orain ikusten duela euskara jakitea ere santza bat dela eta beraz jelos dira pixkat gutaz, bai horiekin frantsesez ari gira baina berdin ulertzen dute euskara anitzek”. (E7)

Idea hau arrazoitzen duen ikasleek aipatzen du azken aldian euskal kultura garatzen eta indartzen ari dela Ipar Euskal Herrian, nonbait frantses komunitatera hurbiltzen ere. Egoera honek euskarari hurbiltzeko balio izaten ari dela azpimarratzen du.

“Bo nik gehituko nuke beharba hor euskara nik sentitzen dudala geroz eta gehio, fe ez geroz eta gehio, baina euskara geroz eta gehio entzuten dugula, ez euskaldun gehio badela, baina gehio entzuten dela eta hori ene ustez da euskal kulturari esker; pilota eta mus txapelketak eta dena. Nik baditut lagun batzuk frantsesak, orain adibidez pilotan ikasten dituzten, pilotan erraiteko zonbat den eta dena ikasten dituzten hitzak, badazkite orain euskaraz eta hainbeste entzunik eta dena, eta erabiltzen dituzte. Eta mus txapelketan berdin, mus txapelketa geroz eta gehiago badira barnekaldean, zinez igande guztiz egiten ahal duzu eta hori untsa da ze jende euskalduna batzen du eta beraz pentsatzen dut euskal kultura behar dela segitu bermatzen euskara ez galdetzeko zeta ahalbidetzen du euskara zaintzea eta euskara zabaltzea. Bai hori da, euskal dantzan eta hori guztiek batzen zitute zire hizkuntzari eta ez dira bortxaz, euskal dantzan ez dira bortxaz euskaldunak abian hori egitea, ikasten dute zenta nahi dute, nahi dute euskarara hurbildu, kultura hortatik hurbildu eta nik atxematen du hori biziki untsa dela, zeta ahalbidetzen du euskara ikastea”. (E7)

Ikasleek, orokorrean Ipar Euskal Herriko biztanleen interes falta azpimarratu dute, euskararen kontzientzia ez dutela behin eta berriz azpimarratuz. Arestian, seinaleen beharraren inguruan hitz egin dugu, ikasleak eremu ezberdinetara joaterakoan, parekoaren partetik euskararen aldeko seinalea jaso behar izaten dutelako, modu baikor batean erantzungo dietela segurtatzeko, euskara jakin ez arren, aurkako jarrera edukiko ez dutela baieztatzen. Ikasle asko dira parekoaren jarreraren gaia mahaingaineratu dutenak, frantsesez erantzuteaz gain, euskara erabili izanagatik deseros edo lekuz kanpo sentitu izan direla aipatu dutenak.

Ikasleek, oro har, euskara erabiltzen dituzten esparruetan erantzuna erdaraz jasotzen dute, eta haien hitzetan nolabaiteko kontzientzia falta eta desinteresa izaten dute pertsona horiek. Hala ere, jarrera ezberdinak ikusten dituztela aipatzen dute, batzuen euskara ezjakintasunaren kasuan, erantzuna baikorra izaten baita. Hala ere, aipatzen dute jarrera baikorra izaten duten askok nolabaiteko lotura izaten dute ikastolarekin, euskararekin, euskal kulturarekin.

“Bai bai, horrelako txokoetan badakigu Seaska inguruan ibili izan direla, euskaraz ez badakite ere, badakigu Seaskan ez badira egon ere beti euskara sustengatzen egon direla, edo behintzat ez dakit, ideia berezi batzuen alde ibili izan direla betidanik, nahiko ez dakit, ez da edozein pertsona ere ez”. (E2)

“(…) baina badira batzuk irudiz gau eskoletan ari direnak zenta aipatzen dute eta dena, eta beraz, ez dakitenak baina entseatzen direnak, dirudienez entseatzen dira batzuk”. (E6)

“Ba bada bi motatako pertsonak. Badira lehen esan bezala, batzuk españolera, gaztelera pasatzen direla eta agian gaizki hartzen dute edo gaizki begiratzen dizute, gaizki, beste mundu batekoa bazina bezala, agian ez dizute aurrekoa bezain beste errepestatzen edo ez dakit, nire ustez aski eredu itsusia daukate horrela aldatzeak . Eta bigarren pertsona horrek edo euskara pixkat badaki eta

saiatzen da edo txintxoki esaten dizu ez dakiela euskara edo behintzat alegin bat egiten du, agian izan daiteke ikastolako guraso bat horren alde dela baina ez duena euskara ikasi edo nahiko lukeena baina beti ezin da azkenean, ez da errez euskara bezalako hizkuntza bat ikastea, ezberdina delako eta hori bi motatako pertsonak badira”. (E1)

- b. *Lizeoan direnetik, ikasle batzuek euskararekiko kontzientzia piztu zaiela aipatzen dute.*

Egunerokoan frantsesaren erabilera nabari da, ikastolatik eta etxeetatik kanpo abantzu harreman guztiak frantsesez eraikiz. Seaskaren hezkuntza ibilbideak ordea amaiera bat dauka, euskara erabiltzeko eremu hori amaituz. Egoera hau kontuan harturik, gutxik aipatu dute euskara galtzearen beldurra, ikasle asko izan baitira euskarekiko lotura eta atxikimendua bezalako hitzekin haien euskara mantenduko dutenaren arrazoi izan dituztenak. Batzuen kasuan lizeoa izaten da abantzu leku bakarria euskara segurtasunez erabili ahal izateko, beste batzuen kasuan etxeko hizkuntza euskara izanik, bi eremu finko izaten dituzte. Honen harira, azpimarratzekoa dugu Bernat Etxepareko ikasle askok euskararen egoeraren kontzientziazioaren inguruko aipuak egin dituztela.

Honako ideia aipaturik, ikasleen hitzetatik atera diren beste ideia batzuk azaleratu behar ditugu, nunbait, ikasle zenbaitek ikusten dute Etxepare lizeoan izateak nolabaiteko kontzientziazio bat eman diela, baita euskara eta euskal kulturari lotuak izatearen sententzia ere. Honek, aipatuko sententzia honek, batzuen ustetan euskara gehiago erabiltzeko arrazoi izan da.

“Oro har, orain duela urte batzuk nik esango nuke lizeoan naizenetik ohitura hartu dudala beti lehen hitza euskaraz egitea, hau da, autobusean sartzera, beti izaten da lehen hitza euskaraz eta ohartu naiz adibidez toki batzutan sartzen naizenean dudak jartzen dela aurrerapusu hori egitearena edo ez. Baina oro har kasu gehienetan, duela, hori urte ez zen hainbeste, baina gaur egun lehen hitza euskaraz egitera ohitu naizela beintzat”. (E2)

“...Eta beraz aita eta amarekin oraindik frantsesez ari niz, baina ene anai arrebeekin, badut ahizpa handi bat eta anai ttipi bat. Haiekin ttipitan frantsesez hitz egiten genuen etxeko hizkuntza hori zelako, baina gero kolegiara sartzean, ene ahizpa lizeora sartu zen eta egia da ohartu zela pixkat egoeraz, handitzean ohartzen baikira gehiago eta hautua egin ginuen euskaraz bakarrik aritzeko eta uai ene ahizparekin enuen ezta pentsatuko frantsesez hitz egitea, beraz bai uai bakarrik euskaraz ari niz, ene ahizpa eta anaiarekin”. (E11)

Ikasleek euskararen erabileraren inguruko jarrerak aipatzearekin, aipatzekoa dugu, hasieran aipatu dugun lehen hizkuntza ezberdinak ondorio ezberdinak sortzen dituela, euskara etxean jasotzeak euskara erabiltzeko aukera handitzen baititu, besteenak murrizten direnean. Hala ere, ezberdintasun honek ez du ikasleen jarreraren ezberdintasunik sortzen, etorkizunera begirako proiektzioaren aurreikuspenean denek aipatzen baitute norberak euskararekiko izan behar duen atxikimendua, euskara mantentzeko bermatu beharreko indar edo jarrera. Honekin loturik, Etxepartar askok, hezkuntza euskalduna bukatzean erabilera frantsesa nagusituko zaiela onartu arren, orain arte eraiki dituzten harreman euskaldunak, orokorrean ikastolako harremanak, segituko dituztela argi argudiatzen dute.

“Nere ustez dena, noski aldatzen da, baina nire ustez dena da bakoitzaren arabera, bakoitzak ikusi behar du noiz, non eta nola hitz egin behar duen euskaraz, egia da etxean frantsesa hitz egiten baduzu, zer dakit nik, ama hizkuntza delako, edo gurasoek ez dutelako menperatzen, ba bai, kasu zailagoa izan daiteke baina zure hautua bada eta ez baduzu euskara galdu nahi, ahaleginak egin beharko liratezke lagunekin oraindikan kontaktua jarraitzeko edo euskara ez galtzeko”. (E1)

“Badakit euskara ez dudala galduko baina guttiago erabiliko nuke, erabiliko nuke familiarekin, hemengo lagunekin, eta gaztetxean, horrela. Badakit astean zehar hasteko euskaraz guttiago hitz egingo nuela”. (E5)

“Mais bai, hori da, azkenean nik ukan dudana santza adibidez, eta beti erraten dut ene aitamei eta ene laguneri, nik etxean frantsesetik hitz egiten dudalako ez dit hala ere, ene etxeko hizkuntzak aukera eman euskara biziki untsa jakiteko eta aukera hori eman didana da nire lagunak ezagutu ditudanak, lizeoan adibidez euskara maila ainitz hobetu dut, ene laguneri esker eta hortaz ohartzen niz eta azkenean nire lagun taldean ez da beste manera batez hitz egiten, euskaraz baizik. Eta horrekin ere, Seaskak eman dit ene lagun taldea, euskaraz bizitzea egunerokoan eta horren ondorioz ene maila hobetu da. Eta beraz, argi dut ere ene lagunak ez dakit nora joanez eta ni Frantziara izanik, ene maila ez dakit, ez dela bortsaz edo hobetuko edo espero dut bederen ez dela apalduko ene maila, baina azkenean ene lagunekin izateak egunerokoan, ene hobetze hori eragin du eta pixkat lotsa ematen dit hala ere ohartzea joaten banaiz Frantziara ikastera edo joaten banaiz frantsesetik ikastera, ebe maila hori jaustea edo, zeta azkenean ez naiz gehiago euskaraz mintzatuko egunerokoan eta asteburutan sartzean ene aitamak ikusiko ditut eta hor ere frantsesetik, beraz bada lotsa hori hala ere, hortako ere hegoaldera joan nahi dut, euskaraz bizitzeko azkenean eta ene maila berdinean egoteko, hala”. (E11)

“Bo jadanik, egoera horretan egongo banitz espero dut euskaldun batzuk izango nituela inguruan, ikasketak egingo nituzkeen hiri horretan, ba euskara egunerokoan presente izateko. Eta ba bestela etxekoekin segituko nuen euskaraz, baina bai bua niretzat sekulako gabezia izango zen ba klaseak ezin euskaraz segitu

ahal izatea, eta egunerokoan euskaraz ez hitz egin ahal izatea, zinez zama bat ezarri lidake bizkar gainean, muga hori ba izateaz egunerokoan”. (E2)

“Euh, ene ustez hastepen batean zaila izanen da eta egia da ene bizitza osoan euskaraz ikasi dudala. Ene harremanak ere euskaraz egin ditut eta eraiki ditut eta beraz pixkat segur da moztuko duela. Euh baina zaila izanen da, ene ustez gero usaiatuko naiz eta gero hala ere mantenduko dut hemen dudan lotura, ez dakit, jendeekin eta Zizparekin ere, distantziarekin, ez dakit, lortuko dut harreman bat izaten. Beraz ez dut uste hainbeste galduko dudanez, baina egia da Bordale eta Baiona ez dela ber errealitatea...Ene ustez ez dakit lortuko dut mantentzen, ez dakit, lortzen badut harremanak mantentzea, gurasoak deitzen baditut arratsetan, euskaraz mintzatuko naiz haiekin edo koloka egiten badut Etxepareko batekin berekin arituko naiz euskaraz eta ez dakit...” (E3)

“Be nik euskararekin harremana ez zen aldatuko, arazo bat niretzak nire ikasketak euskaraz ez egitea zenta etxean bakarrik frantsesez ari naiz, gero bai nire lagunekin euskaraz baina zaila izanen da”. (E4)

“Ba ene ustez, ene maila ez litaike hobetuko, hori seur, baina harremana berdina egongo, ene uste, zenta ba hori ikustean berriz lagunak eta dena euskaraz berriz aritzeko aukera ukanen dudanez eta dena, ene ustez, plazer bat bezala hartuko dut, santza bat bezala, segur da ene euskara maila ez dela hobetuko baina euskaraz aritzeko gogoia espero dut egongo dela, eta segur naiz baietz. Hemen ikusten ditudan lagunez, Etxeparen ditudan lagunetaz, zeta Frantzian noski euskaldun bat edo bi gurutzatu arren ez naiz euskaraz mintzatuko eta kontziente naiz hortaz, baina asteburuetan Euskal Herrira jeutsiz, eta gero bakantzatetan eta dena aukera ukanen dut segur”. (E6)

“Hori lagunekin kontaktuan, dependitzen du familiarekin hitz egiten duenez edo ez, baina ba gehienbat lagunekin kontaktuan, edo zer dakit nik, orain famatuak diren TikTokeko gauza, istorio, bideo guztiak ba ez dakit, euskarazko bideoak, influencer euskaldun bat segituz edo beti ba egotea egunerokoan”. (E1)

“Ah bai! Ene ustez mantendu nahi baduzu abian bazira gaztetxe batera, edo elkarte euskal batera, hala ere entseatzen baduzu ez ahanzteaz ez duzu ahaztuko baina hala ere erran behar da pixka guttituko dela zure egoera uaikoa konparatuz”. (E12)

“Ah bai, zeta ene ustez jarrera bat da, eta bai bada santzarena eta aukera, denek ez ditugu aukera berdinak, baina azkenean aukera horiek aldatzen ahal dira gure jarrera aldatzen baldin badugu, adibidez beharba etxean frantsesez mintzatuko niz ama hizkuntza frantsesa dutalako, baina adibidez burasoak hasten baldin badira pixkat ikasten euskara, haurrekin aritzeko ene ustez, eta haurrek ere iten baditu aktibitateak euskaraz eta gainera pasten baldin bada ikastolatik haurra be berak ere

bultzatzen ahal du euskara etxean, eta ene ustez jarrera bai ere garrantzitsua da”.
(E8)

“Bai bai, lagunekin mintzatuz, deietan eta entsetau behar da hala ere atxikitzen euskara, deitzen duzunean familia, ene ustez bai, jarrera behar da indar bat egin ere ez galtzeko, jarrera on bat ukan eta segitu euskalduna izaten gure barnean ez galtzeko, eta ez da utzi behar gure ingurumena guri berriz aldatzen zeta ingurumenak ainitz eragiten du gu giren pertsonan eta nortasunean, beraz bai behar da jarrera zaindu eta kasu eman ene euskarari eta nola erabiliko dugun geroan”. **(E7)**

“Orokorrean bai, posible da arrunt, azkenean euskara alde batera uztea, azkenean zure egunerokoan beti frantsesera pasako zira. Baina hori ere pentsatzen dut ere dela pertsonaren interesaren arabera, azkenean Frantzian bukatzen badut ikasketak egiten, badut interes handia, interesa eta atxikimendu handia ene hizkuntzari. Eta azkenean badakit interes hori badudalako ez dudala galduko harreman hori, euskararekin dudan harreman hori eta gainera badakit ere ez dudala batere Euskal Herria alde batera utziko edo ene hizkuntzari badakit oso atxikia nintzala eta badakit zein den ene egoera etxean eta hori guztia jakinez badakit ere, segur niz ez dudala galduko, gero posible da atxikimendua ez duen pertsona batek alde batera uztea, hori da zinez pertsonaren arabera ene ustez”. **(E11)**

7. Ondorioak

Emaitzen analisia egin ostean, ondorio ezberdinak atera ditzakegu Ipar Euskal Herriko euskararen egoeraren inguruan.

Bernat Etxepareko ikasleen esanen harira, gaur egun, Ipar Euskal Herriko euskararen errealitatean, Seaska ikastolak sekulako arnagunea betetzen du, etxean euskaraz egiten dutenen kasua beste puntu garrantzitsu bat izanik. Bi arnagune hauetaz gain bestelako arnagune ezberdinak topatzen dira hiru probintzia hauetan. Arnagune gehienetan euskal kulturarekiko lotura sendoa ageri da, nonbait euskal kulturak euskara behar eta eskatzen duela arrazoiturik, horrek, euskal dantza, txistu edo trikitixa bezalako aktibitateetan euskararen presentzia minimoa bultzatu eta ondorioztaturik. Euskal kultura jaialdi ezberdinetan topatzeak ere euskara erabiltzea eragiten du, Herri Urrats, Euskal Herria Zuzenean, Nafarroaren Eguna bezalako egun puntual berezietan oro har. Euskara, aipaturiko arnaguneetara mugatu ez arren, hauek hartzen dute erabileraren indar eta presentzia handiena.

Euskararen erabilera, euskal kulturarekin loturan ageri den aldi berean, ikastolarekin duen lotura ere ageri zaigu. Izan ere, Ipar Euskal Herriko biztanleen artean, ikastolakoak izaten dira gehienbat euskal kulturarekin harremanetan daudenak, arestian aipatu ditugun trikitixa bezalako aktibitateetara joaten direnak edo eta Herri Urrats bezalako besta ingurugiroetara. Esan dezakegu, ikastolako ikasleek tendentzia handiagoa izaten dutela euskal kulturarekin loturan dauden jardunaldietan murgiltzeko, horrek euskara erabiltzera bultzatuz. Honenbestez, euskara euskal kultura arloetan erabili egiten da, bertan topatzen dugun biztanleen gehiengoa Seaskakoak edo ingurukoak izanik, ikasle, irakasle, ikasle ohi, guraso, besteak beste.

Euskara eta euskal kulturaren arteko lotura argia ondorioztatzeaz gain, euskara beste harreman eta eremu batzuetara ere iritsi egiten da. Hala ere, euskara abantzu kasu guztietan ikastolarekin harremanetan sartzen da, ikasleek lagun arteko harremanak euskaraz ikastolako arteko lagunekin izaten dituzte gehienbat, beste harreman guztiak frantsesez eraikiz. Honen aurrean, fenomeno baten aipamena ondorioztatzen da, nolabait, Ipar Euskal Herrian euskaraz ari den jendearen komunitatea zein den ezagutzearena. Hau da, gaur egun, Ipar Euskal Herrian gertatzen ari dena hau da: ikastolako ikasleek lizeotik kanpo euskaraz egiteko dituzten aukeretan euskal kulturarekin loturan dauden gune-harremanetan izaten dira, bertan elkartzeko den jende gehiengoa ikastolarekin loturan egonik. Hortaz, eremu horietatik kanpo dauden biztanleekin frantsesa nagusitzen da, euskaraz ari den jendea alde aurretik ezaguturik, duela urte batzuetako fenomeno bera errepikaturik, “*Beti jende bera zen*” (Iza, 2011: 51).

Euskararen erabileraren inguruko ondorioetan murgildurik, aipatzeko dugun beste puntu bat honakoa da, hiru probintzien artean euskararen erabileraren egoera ezberdina dela. Nafarroa Beherean eta Zuberoan adineko pertsona batzuen euskara erabilera nabari da Lapurdiri

alderaturik. Eta hortaz gain, Zuberoa probintzian zuberotar euskalkiak indar berezi bat dauka oraindik Iparraldeko beste euskalkei alderaturik. Izan ere, transmisioa behera joan arren, Zuberoan, oraindik ere herritar batzuk zuberotarrarekin loturan daude, batzuen kasuan eskola frantsesez egin arren, etxeko hizkuntza izanik.

Hori dela eta, esan dezakegu lehen hipotesia baieztatu dezakegula. Izan ere, hipotesiak honela dio: euskaraz hitz egiten duten eremu gehiengoa, ikastola inguruan murgilduak dauden edo egon diren pertsonekin ematen da. Baita ikastolaren ibilbidearekin lotuak dauden aktibitate, aisialdi ezberdinetan ere, Herri Urrats adibide gisa hartuz, nolabaiteko arnasmuneekin.

Izan ere, ikusi dugu Bernat Etxepareko ikasleek zailtasunak dituztela ikastolakoak ez direnekin harremanak euskaraz burutzeko. Kasu ezberdinak egon arren, inorrek ez du baieztatu ikastolatik at dituen lagunekin euskaraz egiten duenik. Hortaz, euskarazko harreman kasik denak ikastolakoekin ematen dira. Bestalde, baieztatu dezakegun beste puntu bat zera da, ikastolarekin lotuak dauden akitibitate ezberdinetan arnasmuneak direla ikasleentzat. Behar bada hemen gehitzeko izango genukeen ideia honakoa da: ikastolarekin lotura duten horietan ikasleek euskara egiten dutela, baita euskal kulturarekin loturan daudenetan ere.

Bestalde, frantsesaren erabilera nagusi da Ipar Euskal Herrian, arrazoi nagusia biztanle gehiengoaren euskararen ezjakintasunetik eratorrita. Ikastolatik kanpo, gehiengoak frantsesa du hizkuntza bakar gisa. Are gehiago, Ipar Euskal Herrian euskara badakiten gehiengoa Seaskako ikaslea izan da, ikastolatik kanpo euskararen irakaspena oso murrizta izanik. Egoera honen aurrean, historian zehar eman den fenomenoaren segida ikusi dezakegu. Ofizialki euskara ez da debekatua, baina ez du babes ofizialak jasotzen, horrek hizkuntza hau nolabait airean utzirik. Historian atzera egin ezkerro, egoera oso antzekoa zela ikusi dezakegu, bere garaian ez baitzen euskara debekatu baina babestu ere ez. Honek jendearen ezjakintasuna eta inkontzientzia ondorioztatzen ditu, beharrezkoa ez den hizkuntza izanik jende gehiengoak frantsesa soilik ikasten du, euskara aho gutxi batzuetan hitz eginik.

Honenbestez, euskararen aurkako jarrera asko ez dira nabari Ipar Euskal Herrian, baina gailentzen den jarrera ezjakintasunarena izaten da, honek euskarari mesederik egin gabe. Izan ere, ezjakintasunaren jarrerak euskarari ez dio garrantzirik ematen, euskara erabili nahi duten biztanleentzat arazo eta oztopoa izanik haien hizkuntzan bizi ahal izateko. Egoera honen aurrean Bernat Etxepare lizeokoek frantsesa erabili behar izaten dute oro har ikastolatik kanpo dituzten eremu eta harremanetan, ikastolarekin loturarik ez duten horiek euskararen ezjakintasuna izanik, euskaratik frantsesera pasatzeko adaptazioa eman beharrik.

Bigarren hipotesiak honela dio: ikastolatik at kokatzen diren pertsona gehiengoak frantsesa hizkuntza nagusitzat duenez, haiekin hartu emana bermatzeko erdara nagusitu egiten da. Hortaz gain, eremu askotan euskararen ezjakintasuna ematen dela suposatuz, ikasle asko frantsesera pasatzen dira zuzenki. Kasu honetan ere baieztapena egin behar dugu, emaitzen analisisian ikusi dugulako Etxepareko ikasleek ikastolatik kanpo dituzten harreman abantzu guztiak frantsesez eraiki behar izaten dituztela. Ezjakintasuna izan da ikasleen ahotik ateratako hitz nagusienetako bat, honi, kontzientzia faltaren arrazoia gehitzen ahalko genioke.

Frantsesera zuzenki pasatzearen gaia ikusi dugu ikasle batzuegan, horrek bigarren hipotesi hau baieztatuz, hala ere, aipatu beharra daukagu ikasle batzuek kontzientzia piztu zaienaren arrazoipean lehen hitza euskaraz egitea saitzen dutela.

Ondorioak ateratze aldera, euskararen erabilera Seaskakoen ahotik ematen da gehienbat, gaur egungo ikasleengan, ikastola horren sorreran aritu zirenean eta ikasle ohiengan, kasuak kasu. Hala ere, erabileraren gaia mahaingaineraturik, ondorioztatu behar dugu ikasle askok euskararen murriztasuna aurreikusten dutela Seaska amaitzerakoan eta ikasketak frantsesez egiteko aukera hartu izatekotan. Kasu honen aurrean, Seaskatik ateratzean euskal arnagune handi bat galtzen dutela errealitatea da egungo Ipar Euskal Herrian, ikasle batzuen kasuan euskararen presentzia oso apala izanen baita hezkuntza ere frantsesez izatera pasatzen baldin bada. Errealitate honek berriz ere argi isladatzen du Ipar Euskal Herrian euskararen erabileraren ehuneko handi bat Seaskan ematen dela, hezkuntza euskaraz izaten amaitzean euskararen erabilera aukerak kopuru handi batez jeisten baitira.

Egoera honekin topo egin arren, Etxepare lizeokoek ikastolak eman dien kontzientzia jaso dutela ondorioztatu da, euskara erabili eta mantentzeko jarrera barneratuz. Ondorioek, azpimarragarri egiten dute Ipar Euskal Herrian topatzen den desinteres jarreraren aurrean ikastolak honen inguruan ere ondorioak sortzen dituela, nonbait, Seaskako ikasleengan euskara erabili eta atxikitzekeo jarrera nabarmenduz. Honen aurrean, Etxepareko ikasleek euskara galtzeko beldurra ez dute nabari, argi dute Seaskako hezkuntza amaitzean, ikasketak frantsesez egin ezkeroko euskararen erabilera asko murriztuko zaiela, baina egoera horren aurrean euskara mantentzeko beharra eta jarrera azpimarratzen dira. Are gehiago, lizeoko ikasleen hitzek ondorioztatzen dute euskara mantentzea norberak izan behar duen jarreraren ere dependitzen duela, interesa eta inizatiba izatea puntu garrantzitsu bat izanik. Izan ere, Bernat Etxepareko ikasleek euskara mantentzeko harremanak eta indarrak egingo dituztela argi dute.

Azken hipotesiari tiraka, hein batean baiezta dezakegu, izan ere ikasleek etorkizunaren proiektzioan euskararen erabilera jeitsiko zaiela aurreikusten dute. Hipotesiaren hitzek diote: ikasketak frantsesez egingo dituzten ikasleek euskararen proiektzio urritasun handia nabaritutako dute, ikastola alde batera utziz, euskararen erabilera asko murriztuz. Hala ere, hipotesi honetan ikasleek azpimarratu dutena jarrera da, euskararen erabilera jeitsi arren, euskara atxikiko dutela aipatu baitute ikasle guztiek. Hizkuntza bera mantentzeko jarrera baikorra eta norberak egin beharreko indarra dela aipatu dute, nonbait hizkuntza ez galtzeko izan behar den kontzientzia izanik.

Ikerketa honen emaitzak aztertu ostean, eta hipotesi ezberdinak landurik, ateratako ondorioek gogoeta pizten didatela esan beharra daukat, nolabaiteko hausnarketa pertsonalera bultzaturik.

Ondorioak ondorio, egungo Ipar Euskal Herrian euskarak asko du egiteko oraino. Ikusi dezakegu euskararen ezjakintasunaren fenomeno aspalditik eratortzen den errealitatea dela, Iraultza frantsesean identitate frantsesak hartu zuen nagusitasuna presente baitugu oraino gaur egun. Biztanleen gehiengoak euskara ez jakitea hizkuntza frantsesak duen nagusitasunatik

eratorri egiten da, frantsesa baita oraino Ipar Euskal Herriko hizkuntza ofizial bakarra, beste hizkuntzen presentzia onartzeak frantsesa arriskuan jartzen duenaren arrazoipean. Oraindik ere, azterketak euskaraz ez pasatzearen arrazoieta bat frantses guztiek amankomunean izan behar duten hizkuntzaren ideiak pil pilean segitzen baitu. Euskara ez da bizitzeko nahitaezko hizkuntza, ofiziala ez den heinean ez baita inon beharrezko hizkuntza gisa eskatuko, hortaz, aukera da euskara ikastea, aukera euskaraz bizitzea. Zuzenki hitz eginda, euskara debekatua ez da, baina gaur egun esku pribatuetan utzia da, euskaraz bizi nahi dutenen artean antolatuta eta finantzatu beharreko errealitatea izanik, babes sozial zein ekonomikorik izan gabe. Horrek euskara gutxi batzuen artean erabiltzea eragiten du, babes publikorik gabe euskara ez baita hedatzen, erabiltzen arlo pribatutik at, horra ikastolako ikasleek hezkuntza eremutik kanpo euskara erabiltzeko dituzten oztopen arrazoa. Egoera honakoa izanik, ez da kasualitatea biztanleriaren euskara ezjakintasuna nagusitzea, debekatua ez den hizkuntza izan ez arren frantsesa da behar den hizkuntza bakarra egungo Ipar Euskal Herrian.

Aipatu dugun bezala, orain arte euskararen babesa bide pribatutik eraman behar izan da, eta egoera berdina da gaurdino. Euskaraz hitz egitea posible da, euskaraz ikastea ere, baina beti arlo pribatu eta aufinantzazioa nagusi. Euskara hitz egitea ezin da aukera bat izan, euskara eskatu eta baliatu behar da Ipar Euskal Herrian, eta biztanleak ez dira haien kabuz euskara ikasten hasiko hautazko hizkuntza den heinean. Honen aurrean hizkuntza politikak, laguntza ekonomiko eta sozialak beharrezkoak ditugu.

Honen aurrean euskarak aitortza behar du, ofizialtasuna. Ez gara inora iritsiko gure hizkuntzak ez badu inolako onarpenik jasotzen. Urte asko dira dagoeneko euskarak babesik gabeko errealitatean biziraun behar izan duela, biztanle zombaiten izpiritu militantetik sustatua izan behar izan dela hizkuntza honek iraun zezan. Horregatik, euskarak behar dituen hamaika egitasmoen artean, bat ofiziala bilakatzea izan behar da, euskaraz bizitzeko aukera gehiago irekitzeko. Ez dugu sinistu behar ofizialtasunak euskara asetuko duenik, euskararen bidea loretuko duenik, baina bai, beharrezkoa dugu. Ofizialtasunak arlo administratiboan jokatu luke paper nagusia, eta lortu beharreko apustu bakarra izan ez arren, garrantzitsu dugu. Babes administratibo hori behar dugu, euskara esparru ezberdinetara bultzatu ahal izateko, zerbitzu eta hezkuntzara adibidez. Euskara arlo guztietara bultzatu behar da, hezkuntza arloan euskara ez da ikastolako eskoletara murriztu behar. Haratago joan behar da Ipar Euskal Herriko haur orok euskaraz ikasteko aukera izan dezaten. Honekin loturik, Seaskaz gain euskarazko ikasketak sustatu behar eta eskeini behar dira unibertsitatean, lanbide heziketan, hezkuntzako esparru guztietan.

Ofizialtasuna behar den aldi berean, izpiritu kritiko zein militanteak iraun behar du oraino, egungo Ipar Euskal Herrian euskaragatik lan eta borrokatu dutenen segida eraikitzen murgildu behar garelako. Legeak lege, herriak ere mugitu behar du, herriak ere hitz egin eta euskarak behar dituen arnagune berriak eraiki. Herritarren beharrak entzun eta horiei erantzun, herritik eta herriarentzat eraiki behar delako Ipar Euskal Herri euskaldun bat.

Jarreretan ere lana dago egiteko, euskaratik urrun dauden biztanleekin egoera landuz. Ezin dugu hizkuntza inposatu eta euskara ikasi nahi ez duten horiei behartu. Baina bada euskarak,

historiako gertakari ezberdinengatik oraindik pairatzen duen gutxiezte fenomeno. Horren aurrean euskara edonork ikasteko aukerak eskeini behar ditu, askatasun osoz hizkuntza hau aho ezberdinetan hitz egitera iritsi dadin. Egungo errealitatean kokatu, sare sozialen emendaketa, etorkinen errealitatea, fenomeno asko dira azken urteetan gailentzen ari zaizkigunak. Honakoak arazo gisa hartu ordez, euskara fenomeno horietan nola murgildu dezakegun lantzeko dago. Euskara mantendu, euskal kultura landu, eta denei eskeinia izan, euskaldun zahar, euskaldun berri, etorkin edo frantses izanik, ez baikara inora iritsiko gure artean soilik mantentzen dugun hizkuntza bada, hedatu, etxeetara, kalera, hezkuntzara, goitik behera, ezkerretik eskubira.

Idea asko dira, egitasmo asko dira euskarak behar dituenak, eta batzutan zaila da hizkuntza batek bizitzeko behar dituen bultzadak zein diren jakitea. Baina batzuk aipatzekotan honakoak: bide burokratikoetik aitorza, ofizialtasuna. Horrekin batera euskal komunitatearen, sarearen mantentzea, herritik, izpiritu kritikotik euskaratik eta euskararentzat lanketa burutuko duena, momentuko errealitateari erantzunez. Eta azkenik, komunitate eta sarea ez ixtea, lanketa eta egitasmoak izpiritu ireki batetik eginik, jende berriarengana iritsiz.

Honakoa izan da euskararen inguruan lan egin eta ikerketa bat burutzeko izan dudan lehen aukera, eta azkena ez izatea espero dut. Gradu Amaierako Lanak etapa bat ixten duen aldi berean, bestelako batzuk irekiko dizkidanaren esperantza badut, euskararen inguruko ikerketan aritzea baita nire ametsa, poliki poliki Ipar Euskal Herriko euskararen errealitatean lan egin ahal izanez, ikerketa ezberdinak burutuz eta ondorioztatzen diren ondorio ezberdinen aurrean ate berriak irekiko dituen aukeretan lanean.

Momentuz, Soziolinguistika Klusterrean arituko naiz irakaspena garatze bidean hilabete batzuz eta horrekin batera, euskal kulturaren transmisioaren inguruko ikasketak burutzea da nire nahia, hizkuntza teknikari izatearen ideia buruan eramanik ere. Urte hauetan ikasten eta irakaspenak jaso nahi ditut, etorkizun gertu batean euskal ikerkuntzan murgildu ahal izateko, nire ale txikia eskeini ahal izateko gure hizkuntzari, euskarari.

Gu euskaraz bizitzeko lanean ibili ziren horiei esker, lan egin dezagun biharko egunean gure haurrek Euskal Herri euskaldun bat izan dezaten.

8. Bibliografía

Alessio, M. (2014). Les langues de France. *Autour du mot: Pratiques et compétences*, 59.

Amonarriz, K. (2019). Arnasguneak: zer ziren, zer dira eta zer izango ote dira?. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (110), 81-94.

Asurmendi, M. (2016ko ekainaren 15a). Baxoa euskaraz: ikasleen aldarrikapenak indarrean. [online] Argia.

Eskuragarri: <https://www.argia.eus/albiste/baxoa-euskaraz-ikasleen-aldarrikapenak-indarrean> [Azken kontsulta 2023 ko maiatzaren 2a].

Coyos, J. B. (2021). Euskararen indarrak eta ahuleziak gaur egun Ipar Euskal Herrian: hizkuntza-bizindarra. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (118), 11-25.

Etxepare, B. (2023). Bernat Etxepare lizeoa [online] Eskuragarri: <https://www.betxepare.eus/eu/> [Azken kontsulta 2023 ko maiatzaren 12a].

Iza, I. (2011). *El movimiento de las Ikastolas: un pueblo en marcha: el modelo Ikastola, 1960-2010*. Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/75409.pdf

Frantziako konstituzioa. (2023). Republique Francaise webgunean. https://www.legifrance.gouv.fr/loda/article_lc/LEGIARTI000006527453/1995-08-05/#LEGIARTI000006527453

García, M; Ibañez, J & Alvira, F. (1986). *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Eskuragarri: Madrid, Alianza Editorial.

Ibarboure, P. (2002). Zer da Seaska? [online] Eusko Ikaskuntza. Eskuragarri: <https://www.euskonews.eus/zbk/189/zer-da-seaska/ar-0189001004E/#> [Azken kontsulta 2023 ko maiatzaren 12a].

Ikastolen Elkartea. (2009). Le Projet linguistique des Ikastola. <https://ibaizabalikastola.eus/sites/default/files/page/48/file/Le%20Projet%20Linguistique%20des%20Ikastola.pdf>

Joly, L. (2019). Arnasguneen eta RLS-en etorkizuneko erronka nagusiak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (110), 95-112.

Jorajuria, P. (2023). «Ipar Euskal Herrian, euskara debekatua da» [online] Berria. Eskuragarri: <https://www.berria.eus/paperekoa/1951/004/001/2023-04-23/ipar-euskal-herrian-euskara-debekatua-da.htm> [Azken kontsulta 2023 ko maiatzaren 12a].

Lacroix, I. (2019). Renverser la situation de diglossie entre le basque et le français: mobilisations des parents d'élèves dans l'espace public et choix d'une scolarité immersive en langue basque. *La Bretagne Linguistique*, (23), 29-44.

Madariaga, I. (2021eko uztailaren 27a). Euskaraz erantzundako Baxoko filosofia azterketak ez dituzte zuzendu, "izaera politikoa" dutela argudiatuta. [online] Argia. Eskuragarri: <https://www.argia.eus/albiste/euskaraz-erantzundako-baxoko-filosofia-azterketak-ez-dituzte-zuzendu-izaera-politiko-dutela-argudiatuta> [Azken kontsulta 2023 ko maiatzaren 12a].

Martinez, I & Berrio-Otxoa, K. (2000). *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*.

Mintzaira. (2023). 7.inkesta soziolinguistikoa, Ipar Euskal Herriko emaitzak. https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/Prentsaurrekoak/2023/2023_03_30/Emaitzen_laburpena-eus.pdf

Mintzaira. (2023). VII. Inkesta Soziolinguistikoa Iparraldeko emaitzen aurkezpena. https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/Prentsaurrekoak/2023/2023_03_30/Aurkezpena.pdf

Bachoc, E; Camblong, R & López, I. (2001). Sabino Arana Kultur Elkargoaren Jardunaldiak. *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*.

Seaska. (2023). Seaska. [online] Eskuragarri: <https://seaska.eus/> [Azken kontsulta 2023 ko maiatzaren 12a].

Taylor, Steve eta Bogdan, Robert. (1986). Introducción. Ir hacia la gente. Introducción a los métodos cualitativos de investigación. *Buenos Aires: Paidós*, pp. 15-27.

Urraza, K. P. (2019). Ikastola euskal irakaskuntzaren ardatzean. *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria= revista de pensamiento e historia*, (62), 42-56.

Valles, Miguel S. (1999). Técnicas cualitativas de investigación social. Reflexión metodológica y práctica profesional. Madrid: Editorial Síntesis.: https://eva.fic.udelar.edu.uy/pluginfile.php/25827/mod_resource/content/1/Valles%20C%20Miguel%20%281999%29%20Tecnicas_Cualitativas_De_Investigacion_Social.pdf

9. Eranskinak

a. Elkarrizketak egiteko erabili den gidoia

1. Hasiera

- a. Eskertzea
- a. Lan honen azalpena
- b. Dudak eta galderak izatekotan aipatzeko azalpena
- c. Ikaslearen aurkezpena

2. Ikasleak euskararekin duen erabilera

- a. Ikastolako ibilbidearen azalpena
- b. Ikastolan egotearen arrazoia zein den
- c. Etxeko hizkuntza zein den
 - i. Etxekoen artean ze hizkuntza erabiltzen duen
- d. Ikastolatik at egiten dituen aktibitate-aisialdiak
 - i. Zeintzuk eta erabiltzen den hizkuntza
 - ii. Aktibitate horietan norekin elkartzen den
- e. Ikastolatik at dituen lagun, bestelako harreman sareak
 - i. Ze hizkuntza erabili egiten duen
 - ii. Nondik datozen harreman horiek
- f. Euskara egunerokoan non identifikatzen duen
 - i. Lehen hitza zein hizkuntza egiten duen

3. Frantsesa erabiltzearen arrazoiak

- a. Nun erabiltzen duen frantsesa
- b. Zergatik erabiltzen duen frantsesa
- c. Norekin erabiltzen duen frantsesa
- d. Euskarak frantsesaren aurrean dituen oztopoak
- e. Ikasleek identifikatzen dituzten adaptazioak

4. Etorkizunera begirako proiektzioa

- a. Zer eta non ikasi nahi duen
- b. Ikasi nahi dutena ze hizkuntzan ikasi nahi duen
- c. Seaskaren amaiera eta gero euskara nola proiektatzen duen
- d. Euskara galtzearen beldurra oten duen
- e. Etxean euskara izateak dituen ondorioak

5. Amaiera

- a. Zerbait gehitzeko proposamena
- b. Dudak azaltzeko unea
- c. Amaierako eskertzea

Eskerrik asko

b. Elkarrizketatuen baimen informatua

BAIMEN INFORMATUA



Arantza Eguiguren Aizpiolea, neronek, Soziologia ikasketak amaitzeko, Gradu Amaierako Lana burutu behar izan dut Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Nik aukeratutako ikerketa gaia honakoa izan da: “Baionako Bernat Etxepareko 15-18 urte bitarteko ikasleek, Ipar Euskal Herrian, ikastolatik kanpo, euskara erabiltzeko dituzten arnaguneak, oztopoak eta jarrerak”. Horretarako, ikerketa honen begirada Bernat Etxepareko ikasleengan jarri da. Izan ere, ikerketa honen bidez, ikasleek, haien egunerokoan euskara erabiltzeko garaian topatzen duten errealitatea zein den jakitea izan da helburua. Horretarako, nerabe hauek dituzten harreman ezberdinak zein diren jakitea izan da nahia, bertan erabiltzen duten hizkuntza zein den jakinik. Hortaz gain, haien egunerokoan burutzen dituzten aktibitateak zein diren jakin eta beti ere hizkuntzaren erabileraren inguruko problematika jarri da zentroan. Ikasle hauekin harremanetan jartzearen arrazoia, Ipar Euskal Herriko errealitatera modu gertuago batean hurbiltzea izan da, haien diskurtso, hitzak kontuan harturik, gerora lan honetan analizaturik.

Hori burutzeko, hau da, ikerketa hau aurrera eraman ahal izateko, elkarrizketa batzuk egitea erabaki dut, lizeoko ikasle ezberdinak aukeratuz. Horretarako, ikerketa hau egiteko perfilean sartzen diren ikasleei parte hartzeko prest ote dauden galdetu diet, baieztapena, baimen informatu baten bidez burutuz. Ikasle hauen adina kontuan harturik, eta batzuk adingabeak izanik, garrantzitsua iruditu zait ikerketa gaiaren azalpena ematea, haien baieztapena jasotzea eta burutuko diren elkarrizketak zertarako erabiliko diren aipatzea.

Baimena eskatu arren, elkarrizketa hauek modu anonimoan geratuko dira, ikasle hauen izenak ez baitira publiko egingo nire Gradu Amaierako Lanean, ikasle bakoitzari kodigo ezberdin bat esleituko zaio bere pribazitatea errespetatze aldera. Honenbestez, ikasle hauen parte hartzea oso garrantzitsua izango da Gradu Amaierako Lanean, baina begirada haien esanetan jarriko da batez ere, izenak modu pribatuan mantendurik. Publiko egingo diren ezaugarriak honakoak izango dira: identifikatzen diren generoa, urtea, probintzia, herria eta

lehen hizkuntza.

Honenbestez, **ikaslearen aitortzak dio**, modu eta bide egokian azalduak izan direla elkarrizketaren protokoloaren irizpideak. Baimen honen bidez, ziurtatua geratzen da parte hartzailearen baldintzak errespetatzen direla.

- Adin nagusikoek:

Parte hartzaileak baieztatzen du, baimena ematen diola ikerketa akademiko honetan parte hartzeko. Parte hartzea onartu eta baimen informatua ere kontuan hartu da.

Nik,.....

..... (parte-hartzailearen izen-abizenak) ikerketa proiektu hau burutzeko elkarrizketan parte hartzeko baimena onartzen dut.

SINADURA

- Adingabekoek:

Parte hartzailearen tutoreak baieztatzen du, baimena ematen diola ikerketa akademiko honetan parte hartzeko. Parte hartzea onartu eta baimen informatua ere kontuan hartu da.

Nik,.....

.....(tutorearen izen-abizenak),
.....ren

(parte-hartzailearen izen-abizenak) tutore legala bezala ikerketa proiektu hau burutzeko elkarrizketan parte hartzeko baimena ematen diot.

SINADURA

c. Transkribapenak

- ❖ Transkribapenak ahozkatu bezala idatzi dira, ikasleen hitzak gertuagotik analizatzeko, euskalkien ahozkerak islatzeko. Hortaz, transkribatutakoa ez da euskara zuzenean idatzi, ikasleen ahozkerari garrantzia eman baitzaio.

E1	Gizonezkoa	18 urte	Lapurdi	Hendaia	Lehen hizkuntza: Euskara
----	------------	---------	---------	---------	--------------------------

ARANTZA: Arratsalde on ! Bueno, aipatu nizun bezala nire Gradu Amaierako Lanarekin nabil eta nire helburua izan da pixkat Ipar Euskal Herriko euskararen erabileraren inguruko lan bat egitea, eta horretarako eskertzen dizut elkarrizketa honetan parte hartzeagatik. Eta lehenik eta behin hasiko gara pixkat zure buruaren aurkezpenarekin. Ba aipatzen ahal badidazu ze herritik zatozen, eta baita ere ikastolako ibilbidea zein izan den. Hau da, txikitatik gaur egun arte ze ikastola ezberdinetatik pasa izan zaren.

E1: Ba arratsalde on! Ni E1 naiz, Hendaia, txikitatik gure gurasoen hautuz Hendaia gure ikastolan ibili naiz. Hendaia ikastolatik, Pausura pasatu naiz eta horren ondoren kolegioan iragan ditut lau urte eta bukatzeko orain nagoen Etxepare lizeoan pasa ditut azken hiru urte hauek eta azken urtea dut orain terminalean eta hara.

ARANTZA: Ados, erran duzu ikastolan gurasoen hautuz, gurasoen hautua izan zela, badakizu arrazoa zein izan zen?

E1: Nire ustez arrazoi handiena izan zen euskarari, gure euskarari bizia ematea.

ARANTZA: Ados. Zure etxeke ama hizkuntz zein izan da eta zure gurasoekin eta anai arrebeekin zein hizkuntza nagusitzen da?

E1: Nire ama hizkuntza euskara izan da eta txikitatik eta betidanik euskara erabili izan dugu etxean. Bai euskara izan guretzat nagusia.

ARANTZA: Ados, beraz etxean euskara eduki duzu, ikastolan ere bai. Hortaz gain, bi arlo horietaz gain, ez dakit ikastolatik kanpo egin izan dituzun aktibitateak. Bai kirol edo dena delakoak, bizitzan zehar edo azken urtean zehar zein aktibitate izan diren eta bertan ze hizkuntza erabili izan duzun.

E1: Ba, txikitan karate egiten nuen eta bertan erdara erabiltzen zen, futbola ere egin dut urte luzaz eta frantsesa nagusitzen zen. Dantzan, euskal dantzan euskara eta eskalada azken urte hauetan euskaraz ere, eta frantsesarekin pixkat nahasia.

ARANTZA: Ados, ikusi dezakegu pixkat aktibitate ezberdinak egin dituzula. Zuk esan duzu batzuetan frantsesa nagusitu dela, bestetan euskara, esaten ahalko zenuke zein izan den arrazoa? Ba leku batzutan erdaraz edo frantsesaz egiteko, eta bestetan euskaraz?

E1: Ba euskararen erabilera gehienbat izan da ikastolako edo txikitako lagunak ondoan nituelako. Karatean adibidez ikastolako bakarra nintzen eta nehorrek ez zekien euskaraz hitz egiten. Futboleko gehiengoak eskola frantsesekoak ziren baina egia da batzuk txikitakoak zirela edo ikastolakoak zirela eta orduan beraiekin euskaraz egiten nuen. Eta hori, dantza eta eskaladan ikastolakoak.

ARANTZA: Ados, orduan esango zenuke agian, ikastolakoekin elkartu izan zaren aktibitate horietan igual euskara lehenetsi dela frantsesaren aurretik?

E1: Hori da, gure hizkuntza erabili izan dugu gure artean eta bai.

ARANTZA: Ados, esan duzu adibidez beste aktibitateetan eskola frantsesekoekin elkartu izan zarela, haiekin euskaraz hitz egitea edo euskara erabiltzea zaila egiten zitzaizuen? Edo zein izaten zen azkenean arazoa edo arrazoia?

E1: Gehienbat egitearen arazorik ez zen, baina besteen ulertzeko momentuan agian zailtasunak edo zituaten eta hitz egiteko ez zuten kapazitatearik. Eta orduan guk frantsesa dakigunez ba maleruski gu pasatu behar gara frantsesera beraiek euskara ez dutelako.

ARANTZA: Ados, zuk adibidez aipatu duzu etxean ama hizkuntza euskara izan duzula, frantsesa nola ikasi duzu? Suposatzen dut aktibitate horiek egiten zenituen txikiagoa zinela, ez dakit, menperatzen zenuen frantsesa frantsesera pasatu behar zinen une horietan?

E1: Ba egia esan ez dut asko oroitzen, ikastolan egin nituen nire lehen hitzak frantsesez. Horrez gain, badugu lengusu bat bakarrik frantsesez mintzo dena eta berarekin beti frantsesez ibili behar garela. Eh... nere ustez txikitatik hitz batzuk edo komunikazio txiki bat banuen frantsesez, baina hori, ikastolaren laguntzaz pixkat frantses hori indartu da eta lagundu dit, esan bezala, nire aktibitateetan komunikatzen.

ARANTZA: Ados, eta noizbait zaila egin izan zaizu agian frantsesez komunikatzea aktibitateetan? Zaila, edo ez erraza?

E1: Bai, nire ustez, ni bezalako pertsona bateri ez zaio erraza frantsesera jotzea, ez baita gure ama hizkuntza ezta agian bortxaz bigarrena, eta frantses askok agian gure akzentua, hitz egiteko moldea ez dutenez ulertzen, bai kakotsen artean ulertzen, ba pixkat jenagarria izan daiteke guretzat.

ARANTZA: Bai, esan duzu alde batetik eduki duzula ohitura agian frantsesera pasatzea, eta gainera frantsesez hitz egiteagatik agian ez dakit, bueno agian barreak ez, zure akzentuataz komentarioak egin dituztela ezta?

E1: Bai hori da. Ez da inoiz erraza esan bezala zurea ez den hizkuntza batean bat batean hastea.

ARANTZA: Ados, orain arte aktibitateak aipatu dituzu. Ez dakit ikastolatik kanpo Ipar Euskal Herrian badituzun beste lagun batzuk, gurasoen partetik dituzuen lagun batzuen gazteak edo aktibitateetan egin dituzun lagunak, lagun horiek baldin badituzu, horiekin elkartzean ze hizkuntzan hitz egiten duzu?

E1: Ba nik gehienbat ikastolako lagunekin dut harreman gehiena, orduan, futboleko edo txikitako aktibitate lagunak gurutzatzerakoan hortan gehiago pasatzen naiz frantsesera.

ARANTZA: Ados, orduan zuk esan bezala, euskara duzu nagusi zure eguneroko bizitzan, azpimarratu duzu ikastolakoekin elkartzen zarela gehienbat. Orain, ikastola alde batera utzita, nun esango zenuke erabiltzen duzula euskara zure egunerokoan?

E1: Nire ustez gehiena normala den bezala etxean, etxetik aparte behintzat beti saiatzen naiz orokorrean, nire bizitza osoan lehen hitza euskaraz egitea, ez dakizulako parekoak zein hizkuntzatan erantzuten ahal dizun, beti dago aukera bat ulertzea baina ez hitz egitea. Orduan zuk euskaraz hitz egiten ahal duzu besteak ulertzen eta erantzuten dizun bitartean. Gero ere, noski gaztetxeetan, herriko festetan, euskal tabernetan eta hori, ahal dudan guztitan euskaraz.

ARANTZA: Ados, orain aipatu dituzu leku batzuk, festa, gaztetxe eta ostatu batzuk. Leku horietan zerk bultzatzen zaitu esatera, “hemen bai euskara erabili dezaket”.

E1: Baden jendea, baden giroa, baden musika, nire ustez oihartzaren zara iristen zaren euskal giro batera edo euskaldunez bete den leku batera ez baita besteen berdina, frantses edo espagnolaren askoz ezberdina da, eta nire irudiko giroa askoz sanogoa bada bertan.

ARANTZA: Aipatzen duzu askotan giro euskaldun batean baduzula lasaitasun hori euskaraz egiteko, baina zerk esaten dizu adibidez giro hori euskalduna dela edo zer ikusten duzu? Ze seinale edo zer baduzu?

E1: Ba lehen erran bezala musika, gero ere izan daiteke dantza, baden giroa. Baina gero jendeak ere asko egiten du, badakizu horrelako leku batera zoazenean ze jende mota gurutzatuko duzun, eta gehienbat izaten da ikastolako, zure lizeoko lagunak, edo lagunak lagunak edo, eta horrela ere bai egiten dituzu ezagutza berriak, euskaldunak, beti giro berdinean eta beti euskaraz hitz egiteko aukera izaten da.

ARANTZA: Orduan esango zenuke agian leku horietan batzutan parekoa alde aurretik ezagutzen duzula?

E1: Agian ez bortxaz, zu joan zaitezke bakarrik festa batera adibidez, eta badakizu horrelako bestetan minimo, gutxienez bat ezagutuko duzula, hori seguro da eta behintzat, eta ez baduzu ezagutzen bat ezagutuko duzula seguru bukaeran.

ARANTZA: Orduan baduzu nolabaiteko segurtasun bat agian eremu horietan euskaraz egiteko ezta?

E1: Bai hori da.

ARANTZA: Ados, eta orain beste postura edo beste egoerara salto eginez, euskaraz egiten ez duzunean, suposatzen dut Ipar Euskal Herrian frantsesa erabili behar izaten duzula. Zein izaten da arrazoa? Zein guneetan frantsesa erabili behar izaten duzu? Lehen aipatu duzu oro har lehen hitza euskaraz egiten duzula, erantzuna askotan zein hizkuntza edukitzen duzu?

E1: Eh gehienetan galdera, edo adibidez supermerkatuan euskaraz hitz egiten dudanean, gazteleraz erantzuten dute. Gure, ez dakit zergatik español bezala kontsideratzen gaituztelako euskaraz hitz egiteagatik, baina guztiz kontrakoa da. Eta ez badakizu euskara benetan pasatu zuk gainditzen duzun hizkuntza batera, ez pasatu espainolera, zuk gaztelera ez duzunean nik baino okerrago hitz egiten frantsesa, esan nahi dut, nahaste oso handi bat da. Eta gero guk nahiz eta frantsesera pasa, besteak gazteleraz segitzen du, ez du zentzurik hartzen duten aldaketa hori gu euskaraz hitz egiten hasi garelako.

ARANTZA: Bai ze azkenena Ipar Euskal Herriko hizkuntza ofiziala frantsesa da, gero euskara ere erabili egiten da hein apalago batean, baina gaztelera berez espainiako estatuaren hizkuntza da, zergatik uste duzu ba Ipar Euskal Herriko supermerkatu ezberdinetan gazteleraz erantzuten dizutela eta ez frantsesez?

E1: Nire ustez Hegoaldeko Euskal Herrian ez bezala, Ipar Euskal Herrian ez da ofiziala euskara eta horrek indarra, adibidez Hegoaldean euskarak indar asko badu ofizial delako eta pena bat da hemen Ipar Euskal Herrian oraindik horrela izatea eta hizkuntza hain eder hau eta zaharra nire ustez historia markatzen duena, ez dela ofiziala izan.

ARANTZA: Eta orduan uste duzu euskara ofizial bilakatzeak pixka bat lagunduko lukeela Ipar Euskal Herrian?

E1: Erabat. Nire ustez pausu handi edo golpe handi bat izanen zen Ipar Euskal Herri osoan, euskara ez baita bortxaz ezagutua eremu honetan eta ez dakigulako edo ez du irudi euskara hemen mintzo dela, ez da nabari euskaldunok benetan hizkuntza bat badugula, gehienbat badiren pertsona guztiak, hainbeste turistekin eta frantsesak indarra hartzen du, eta irudi du ba euskara bigarren plano batean badela eta bai nire ustez ofiziltasun horrek euskarari indar asko emanen zion eta bai programazio, anuntzio edo publizitate edo horrelako gauzetan askoz gehiago erabiliko zen, eta hobeto izango zen bai.

ARANTZA: Aipatu dituzu publizitate eta horrelako gauzak. Ipar Euskal Herriarekiko ikusten dituzunean adibidez, ba ez dakit, seinale edo dena delakoak, zein hizkuntza nagusitzen da hor?

E1: Gehienbat frantsesa, egia da euskaraz ere izaten ohi dela, baina beti beti beti frantsesa lodiago egon behar da eta beltz beltza, denek ulertzeko moduan, euskarak ez baitu noski inorrek ulertzen.

ARANTZA: Ados, ofizialatsunaren gaia aipatu duzu, esan duzu ere askotan gazteleraz erantzuteko ohitura izaten dutela, zer esango zenuke zuk euskaraz egiten duzunean, parekoak edukitzen duen jarreraren inguruan?

E1: Ba bada bi motatako pertsonak. Badira lehen esan bezala, batzuk españolera, gaztelerara pasatzen direla eta agian gaizki hartzen dute edo gaizki begiratzen dizute, gaizki, beste mundu batekoa bazina bezala, agian ez dizute aurrekoa bezain beste errepestatzen edo ez dakit, nire ustez aski eredu itsusia daukate horrela aldatzeak . Eta bigarren pertsona horrek edo euskara pixkat badaki eta saiatzen da edo txintxoki esaten dizu ez dakiela euskara edo behintzat alegin bat egiten du, agian izan daiteke ikastolako guraso bat horren alde dela baina ez duena euskara ikasi edo nahiko lukeena baina beti ezin da azkenean, ez da errez euskara bezalako hizkuntza bat ikastea, ezberdina delako eta hori bi motatako pertsonak badira.

ARANTZA: Ados bikain. Eta lehen hitza euskaraz egin arren, baduzu une batzutan, pasatzen zara frantsesera agian lekuaren arabera?

E1: Ba adibidez, presa dudan momentuan edo denbora galdu nahi ez dudan momentuan ba adibidez super merkatura noa edozer gauza erostera, direktuki frantsesera pasatzen naiz, batzutan ez dudalako denbora galdu nahi besteak gazteleraz erantzuteko edo agian gazteleraz erantzuten badit haserretzen naiz, edo ez daukat gogorik hain gaizki ateratzeko super merkatutik eta frantsesera pasatuz ba azkarrago egiten da.

ARANTZA: Ados. Orain arte pixkat aipatu duzu euskara eta frantsesa nun erabiltzen dituzun zure eguneroko bizitzan. Orain beste galdera batzuetara pasako gara. Hor Etxepareko azken urtean zaude, suposatzen dut egon zarela etorkizunari begira pentsatzen. Badakizu zein ikasketak egin nahi dituzun eta ze hizkuntzan?

E1: Zuk esan bezala, azken urtean nago, hurrengo utearekiko pentsatua nuen Hegoaldera joatea, eta hautu berdinarkein segitzen dut. Nere ustez euskaraz, euskara, euskaraz egiteko ikasketak bakarrik hegoaldean baitira, segitu nahi baduzu euskaraz Iparraldean bakarrik euskal fakultatea batera joan zaitezke, Baionara, eta nik arkitektura egin nahi dudanez ez dut frantsesez egin nahi, euskaraz egin nahi baitut, saiatuko naiz Donostin sartzen euskaraz egiteko ikasketa horiek.

ARANTZA: Eta uste duzu ikasle askok hartzen dutela aukera hori? Nolabait ikasketak euskaraz segitzeko, aterabide bezala Hegoaldera begira jartzen direnak?

E1: Eh bai, geroz eta gehiago, urtero jende gehiago joaten da Hegoaldera, egia da agian jende asko ere Iparraldean edo Frantziara joaten dela ez baitaude euskaraz ikasketa guzti

horiek eta gaztelera egin ordez, Iparraldeko jendeak frantsesa gehiago menperatzen duenez ba Frantziara joan ohi da.

ARANTZA: Ados, eta adibidez zure kasuan, esan diguzu zure intentzioa Hego Euskal Herrira joatea dela, baina eman dezagun kasu hipotetiko batean, Iparraldean edo Frantzian bukatu behar duzula ikasketak frantsesez egiten. Zuk, hor, nola aurreikusiko zenuke zure etorkizuna? Nun erabiliko zenuke euskara eta zein aldaketa emango ziren hezkuntza euskalduna izatetik frantsesera pasatzen?

E1: Puf, da gauza bat ez dudana inoiz pentsatu. Egia erran zaila zait pentsatzea ere ez baitut bakarrik nire ikasketak edo lagunak denekin frantsesez hitz egitea zaila zait horrerik pentsatzea. Oso kasu hipotetiko handi bat izan behar da, baina aber, nere ustez euskara familiarekin oraindik, pentsatzen dut hala ere izanen dela behintzat imaginatu dezagun Bordalen bukatzen dudala, ba Bordalen oraindik Etxepartar batzuk orduan ba ez dakit, atsaldeko kafe hori edo ba beraiekin euskaraz hitz egiteko momentua izanen zen eta hara.

ARANTZA: Zuk adibidez aipatu duzu etxean euskaraz egingo zenukela, suposatzen dut Etxeparen badituzula lagun batzuk etxean ama hizkuntza frantsesa dutenak. Kasu hoietan zuk uste egoera aldatzen dela? Hau da, etxean frantsesa egiten baduzu?

E1: Nere ustez dena, noski aldatzen da, baina nire ustez dena da bakoitzaren arabera, bakoitzak ikusi behar du noiz, non eta nola hitz egin behar duen euskaraz, egia da etxean frantsesa hitz egiten baduzu, zer dakit nik, ama hizkuntza delako, edo gurasoek ez dutelako menperatzen, ba bai, kasu zailagoa izan daiteke baina zure hautua bada eta ez baduzu euskara galdu nahi, ahaleginak egin beharko liratezke lagunekin oraindikan kontaktua jarraitzeko edo euskara ez galtzeko.

ARANTZA: Orduan esango zenuke ere agian pertsonaren, ez dakit, jarrera ere izan daitekela ere euskara mantentzea edo ez?

E1: Bai hori da, bakoitzak ikusi behar du zer egin berarekin eta hala ere pena bat izanen zen txikitatik pasa ditugun urte guztiak euskaraz ikasi ondoren ba frantses ikasketa batzuetatik euskara hori galtzea.

ARANTZA: Frantses ikasketetara pasa, baina azkenean hor nun zuk uste duzu nun mantendu dezaketela euskara?

E1: Hori lagunekin kontaktuan, dependitzen du familiarekin hitz egiten duenez edo ez, baina ba gehienbat lagunekin kontaktuan, edo zer dakit nik, orain famatuak diren tiktokeko gauza, istorio, bideo guztiak ba ez dakit, euskarazko bideoak, influencer euskaldun bat segituz edo beti ba egotea egunerokoan.

ARANTZA: Ados, agian haien arteko postura bat, eta haien esku izatea ere euskara mantentzea.

E1: Bai hori da.

ARANTZA: Ados, ba bikain. Nire partez galdera guztiak egin dizkizut E1. Zerbait gehitzeko baldin baduzu, ahaztu zaizun zerbait edo dena delakoa, esan lasai.

E1: Ba orain bertan ez zait okurritzen, oso interesgarria, mila esker Arantza!

ARANTZA: Zuri!

E2	Emakumezkoa	17 urte	Lapurdi	Beskoitze	Lehen hizkuntza: Euskara
-----------	-------------	---------	---------	-----------	--------------------------

ARANTZA: Lehenik eta behin mila esker elkarrizketan parte hartzeagatik. Aipatu dizudan bezala, unibertsitateko Gradu Amaierako Lana egiten ari naiz eta zuen perfila beharrezkoa nuenez eskertzen dizut elkarrizketa honetan parte hartzeagatik. Eta eskatuko dizudan lehen gauza izanen da ba zure burua pixkat aurkerkeztea, bai zure izena, zein herritik zatozen, zenbat urte dituzun eta zein izan den zure ikastolako ibilbidea.

E2: Ados, ba jadanik mila esker zuri elkarrizketa eginik eta plazer bat da. Ni E2 naiz, 17 urte ditut eta Beskoitzekoa naiz, beraz, Baiona nahiko inguruan kokatzen den herri batekoa. Eta ba ni ttiki ttikitatik Seaskan hasi nintzen eta geroztik Seaskaren bidean segitu dut eta aurten beraz lizeoa bukatzen ari naiz, beti ere Seaskan, eta hori. Eta momentuz hau izan da nire ibilbidea.

ARANTZA: Txikitatik ikastolan egon zira beraz, suposatzen dut zure gurasoen hautua izan zela, zure familiarena, badakizu zein izan zen arrazoa ikastolan ezartzearena eta ez adibidez beste eskola batean?

E2: Ba iadanik nik uste arrazoietako bat da gure etxean beti hitz egin dela euskaraz, ama hizkuntza euskara dugula. Eta beraz, horregatik naturalatasun osoz nik uste gurasoek egin zutela ni ikastolan ezartzearen hautu hori. Jakinik burasoetariko bat Seaskaren hasiera hasieretan ba ikastolan egon zela ere, beraz nik uste naturalki planteatu zitzaizela ba hori, ni Seaskako ikastolara eramatea eta ez beste batera.

ARANTZA: Ados, bikain, Seaska askotan lotzen da euskal hizkuntzarekin, uste duzu Iparraldean kokatzen diren beste eskoletan euskaraz ikasteko aukera zati bat egon arren, egoera ezberdina dela? Ala uste duzu Seaska beste ikastoletatik ezberdintzen ahal dela euskara hitzkuntzaren arloan?

E2: Bai bai nik uste erabat ezberdintzen dela, ze iruditzen zait beste eskoletan naiz eta ikasteko aukera murriztagoa den edo, beste eskoletan irakasten zaiela soilik euskara bere osotasunean, hau da, gramatikalki, baina gero ez zait iruditzen euskarari lotuak zaizkion

kultura transmititzen denik. Euskararekiko lotura bera ere transmititzen denik eta ez dakit, euskararen herriaren ikuspegi, hau da, Euskal Herriaren ikuspegi hori aipatzen denik ere. Iruditzen zait dela beste edozein hizkuntzaren irakaspena egiten zaiela beste ikastetxeetan eta ez dakit, Seaskan iruditzen zait ba lehen aipatu ditudan kulturak, herriarekiko ikuspegia eta ez dakit, euskararekiko atxikimendua edo transmittitzeaz gain, elkarlana asko lantzen dela, izpiritu kritikoa ere nik uste eztabaidarako esparruak sortzen direla, erreskiako Seaskan beste tokietan baino.

ARANTZA: Erranen zenuke Seaskak euskaraz ikastearen ideia bermatu arren, baduela ere bai kultuta transmisio horren puntua?

E2: Bai bai.

ARANTZA: Aipatu duzu etxean euskaraz egiten duzula, zure ama hizkuntza euskara izan da soilik?

E2: Bai, euskara izan da, nik frantsesa ikastolan ikasi nuen, eta hori kalean entzuna ere, baina etxean beti euskaraz aritu izan gira.

ARANTZA: Hortaz, suposatzen dut gurasoekin, eta ez dakit, anai arrebak baldin badituzun, haiekin beraz euskaraz bakarrik mintzo zira, ala beste hizkuntzarenbat erabiltzen da?

E2: Nik uste egoera gehientsuenetan euskaraz egiten dugula, gero posible da batzutan hitz batzuekin edo lerratzea frantsesera baina iruditzen zait oro har beti egiten dugula euskaraz, ze nahiko arrotza egiten zaigu etxean frantsesez egitea nik uste.

ARANTZA: Jakinik euskara zure ama hizkuntza dela, frantsesa ikastolan ikasi zenuela, ikastolan frantsesa ikasi arren, hizkuntza bezala eduki baitzenuen, uste duzu kanpoan, ikastolatik kanpo duzun egoeran, eguneroko bizitzan frantsesa erabili behar izateak bultzatu zaituela hein batean frantsesa ikastera?

E2: Bai bai erabat nik uste, kalean ez banu izan horrela ba pixkat inposaketa, bai nunbait inposaketa hori frantsesez hitz egiteko, bestela ez zen beste aukerarik, hau da, euskaraz esparru askotan ezin zenik hitz egin, ba nunbait bai horrek bultzatu nau baita ere ba beste hizkuntzak baino gehiago ikastera edo, hau da, euskaratik haragoko hizkuntzetara, hau dut gehienbat sakondu, behar nuelako ere.

ARANTZA: Ados, bikain. Ez dakit ikastolatik kanpo aisiladirik egiten duzun edo egin izan duzun, bai kirol aktibitate edo edozein aktibitate. Baiezkoa baldin bada, ba zein izan den, edo zein den, eta hor ere zein hizkuntza erabili izan duzuen.

E2: Bai egin izan ditut, gero ttikitan orain baino gehiago. Ttikitan egin izan nituen hainbat kirol, musika ere bai, eta horrez gain dantza eta orain dantzarekin segitzen dut, eta ba esparru horietan ere frantsesa da gailentzen den hizkuntza, eta euskara alde batera utzia da.

ARANTZA: Dantza aipatzen duzunean, euskal dantzaz ari zara?

E2: Bai euskal dantza eta garaikidea.

ARANTZA: Eta hor ere, euskal dantzan ere frantsesa erabiltzen duzu edo euskara?

E2: Hainbat taldetan egon izan naiz, baina egia da talde batean euskaraz ezin zela egin eta frantsesez ematen zela...nahiko arraro ematen du jakinda euskal dantza dela, baina bai, klaseak frantsesez ematen ziren.

ARANTZA: Eta erraten duzunean zure aktibitate kasik guztietan frantsesez egin dituzula, zein izan da arrazoa frantsesez egitearena?

E2: Parekoek ez zekitelako euskaraz hitz egiten, ez zirelako gai eta ere ez zutelako bortsaz euskara ikasteko irekidurarik ere ez, edo entzuteko interesek ere nik uste.

ARANTZA: Eta gertatu izan zaizu aktibitate horietan ikastolako lagun batzuekin elkartzea?

E2: Bai batzutan bai, baina esparru batzutan kasu batzutan ez nintzen ikastolako lagunekin.

ARANTZA: Aktibitateak aipatu ditugu, ez dakit, badituzun lagun batzuk ikastolatik kanpo kokatzen direnak, hau da, beste eskoletatik etortzen direnak, haiekin harremanik ba ote duzu?

E2: Bai baditut batzuk, ez asko baina baditut ze egia da ez naizela hainbeste esparru frantsesetan ibiltzen, baina bai baditut lagun batzuk horrela, eta haiekin bo harremana frantsesez egiten da, ez dakitelako euskaraz eta beti bada egokitzapen hori, parekoak ez du euskaraz egiten baina guk egin behar dugu egokitzapen hori euskaratik frantsesera pasatzean.

ARANTZA: Behin aipatua zure etxeko egoera, aktibitateak, eta lagun hauek, nik galdetzen badizut ikastolatik kanpo zure euskara guneak identifitazea, zein identifikatu egiten dituzu?

E2: Esango nuke lizeotik harago, gaztetxea, ba agian euskal dantza talde batzuk, baina ez denak, taberna zehatz batzuk eta hori, horiek dira pixkat euskal eremu horiek.

ARANTZA: Gaztetxearen kontua edo tabernarena, hor zerk bultzatzen zaitu euskaraz hitz egitera? Ostatu batera sartzen zirelarik, zerk esaten dizu “ hemen euskaraz egiten ahal dut” .

E2: Jadanik nik uste kokapenak, adibidez badakit Baionan auzo batzutan euskaldun guttiago izango direla beste batean baino, eta bo esango nuke tontakeri bat dirudi, baina askotan apainketak ere egiten du, ba ez dakit, publizitatea edo modu elebidunean egiteak ere ba ematen du segurtasun hori esateko « ba begira hemen beintzat gehiago ulertuko naute edo egin dezaket euskaraz ». Eta hori, bai tokiak, gero kanpotik ba ez dakit ematen duen irudiak

ere, eta hori, gero ezagutzen ditugun txokoetan badakigu euskaraz egin dezakegula, beraz, baina hori, oro har...

ARANTZA: Batzutan beraz seinale batzuk behar direla esanen zenuke parekoak euskara dakiela jakiteko?

E2: Bai hori da, eta azkenean ez delarik seinalerik, beti saiakera egitea zailagoa da ze ez dakigu sekulan ea parekoak baikorki erantzungo duen edo ez, eta beraz, egia da pausu hori ematea ba seinalerik gabe nahiko zaila izaten dela.

ARANTZA: Eta erranen zenuke gune horietan euskaraz, euskaraz mintzatzen zaren gune hortan oro har pertsona horiek ikastola barruan, inguruan ibiliak izan direla?

E2: Bai bai, horrelako txokoetan badakigu Seaska inguruan ibili izan direla, euskaraz ez badakite ere, badakigu Seaskan ez badira egon ere beti euskara sustengatzen egon direla, edo behintzat ez dakit, ideia berezi batzuen alde ibili izan direla betidanik, nahiko ez dakit, ez da edozein pertsona ere ez.

ARANTZA: Hortaz, ikastolarekin harreman zuzenik ez duten horiekin frantsesez egin behar izaten duzu?

E2: Bai bai erabat.

ARANTZA: Aipatu duzu euskara nun, ze gunetan erabiltzen duzun, suposatzen dut euskara erabiltzen ez duzunean frantsesera pasatzen zarela. Lehenago hitz egin dugu pixkat honen inguruan, zein esanen zenuke izanen zela zergati nagusia frantsesez hitz egitearena?

E2: Parekoak ez dakielako euskaraz, nik uste. Azkenean iruditzen zait, adibidez Ipar Euskal Herrian euskara ez denez ofiziala badela hizkuntza bat horrela, ba nahi duzu ikasi edo ez duzu nahi, interesa duzu edo ez, eta iruditzen zait oro har jende guzti guztiak ikusirik ez dela hainbesteko ikuspeirik, interesik euskararekiko. Dela hizkuntza bat hitz egiten dela leku zehatz batean eta ya, ez dela ezta iritzirik horren inguruan, azkenean pentsatzen dut euskara ofiziala izango balitz nolabait euskaragarriagoa izango zela agian, jendeak azalpen gehiago izango zuela parean edo esku artean, eta ondorioz ba interes gehiago piztuko zitzaioela jende horri.

ARANTZA: Euskara aukera bezala ulertzen da?

E2: Bai hori da.

ARANTZA: Eta adibidez, egunerokotasunean zuk topatzen dituzun pertsona horiekin, izan langile, zerbitzari edo horrelako pertsonekin, zure lehen hitza orokorrean zein izaten da? Ze hizkuntzan izaten da?

E2: Oro har, orain duela urte batzuk nik esango nuke lizeoan naizenetik ohitura hartu dudala beti lehen hitza euskaraz egitea, hau da, autobusean sartzekoan, beti izaten da lehen hitza euskaraz eta ohartu naiz adibidez toki batzutan sartzen naizenean dudana jartzen dela aurrerapausu hori egitearena edo ez. Baina oro har kasu gehienetan, duela, hori urte ez zen hainbeste, baina gaur egun lehen hitza euskaraz egitera ohitu naizela beintzat.

ARANTZA: Eta erantzuna oro har ze hizkuntzan jasotzen duzu?

E2: Oro har frantsesez, batzutan tokatu izan zait ere ingelesez erantzutea behin baino gehiagotan, baina oro har frantsesez bai.

ARANTZA: Niri bizipenaeen ere, Ipar Euskal Herrian euskaraz hitz egitean gazteleraz erantzun izana, horrek batzutan ez dakit, egoera bitsi batean uzten zaitu ezta? Ze gauza bat da euskara ez ulertzea, baina beste gauza bat da beste hizkuntza batean erantzunea. Horrek adibidez, ingelesez erantzun izan zizuten egun horretan, zer etorri zitzaizun burura?

E2: Da pixkat, bo aldi oro geratzen naiz nahiko harrিতua, pixka bat, oso deserosoa egia esanda. Ze hori da erantzutea pixkat atzerriko hizkuntza batean, bo berez frantsesa ere atzerriko hizkuntza bat da baina ez dakit. Baina ez dakit, ez jakintasunetik den edo bazterkeriatik tiratzen den arrazoaia, baina pixkat ez dakit, atzera botatzen du, eta ematen du euskara da Euskal Herriko hizkuntza eta pixkat ez dakit, arrotz sentiarazten nau ere nire herri propioan ez? Horrelako erreakzio batek ba pixkat ez dakit, ez dakit ze hizkuntzetan ari ziren beraz hitz egingo dizut kanpoko hizkuntza batean, pixkat kanpotiar bat banintz bezala edo, beraz deseroso eta arrotz.

ARANTZA: Bai bai, gainera kontuan hartuta Etxeparen %100 euskaraz jasotzen duzula, hizkuntzak eta azterketa ofizialak izan ezik, uste duzu badela zu ikastola barruan zaudela, hau da, lizeoan eta zure eguneroko bizitzara pasatzen zarenean, kaleko bizitzara adibidez, sumatzen duzu kontraste hori hizkuntzen artean?

E2: Bai, batez ere Baiona inguruan ibiltzen naizenez bai, Baiona inguruan euskara ez da asko entzuten, beraz bai somatzen da kaletik ibiltzean ba hori, badela kontraste hori ze jendeak ez du berdin jasotzen, gu gure artean euskaraz ari bagira edo, lehen hitza euskaraz egiten badiogu jendeari, beraz bai, erabat ezberdina da. Hala ere, nik uste ere kontrastea are handiagoa izanen zela ez banintz ibili euskararen arnagune horietan, hau da, gaztetxean, taberna horietan.

ARANTZA: Uste duzu euskara arnaguneak beharrezkoak direla ikastolatik kanpo euskaraz bizi ahal izateko?

E2: Ah bai bai erabat, zeren nunbait ikastolan bakarrik euskara ikasteak ematen du euskara soilik ikasteko hizkuntza dela eta ez duela balio bizitzeko eta kalerako, nik uste ofizializatzeko ba hori, askoz ere gune gehiago sortuko lituzkela eta eguneroko bizi normal bat euskaraz eramaten ahalko genukela horri esker.

ARANTZA: Ados bikain. Etxepare Seaskako azken hiru urteak dira, zu ere hor zaude azken etapan, suposatzen du etorkizunera begira pentsatzen egongo zarela, ez dakit zehazki unibertsitatean, baina bai beharbada ba beste hezkuntza esparruetan. Ez dakit ideiarengatik ba ote duzun zure etorkizuneko ikasketen inguruan, eta ea badakizun ze hizkuntza ikasi nahi duzun?

E2: Ba nahiko nuke Antropologia ikasi edo euskal ikasketak, ba hori nire ama hizkuntzan, hau da, euskaraz ikasi nahiko nuke, eta horregatik jarri naiz Hegoaldeari begira ere, ze azkenean Iparraldean bo, euskal ikasketak egin daitezke, baina bestela ez da beste aukerarik euskaraz aritzeko, beraz bai euskaraz segitu nahiko nuke.

ARANTZA: Eman dezagun kasu hipotetiko batean azkenean, arrazoi ezberdinengatik Frantzia bukatzen duzula ikasten, edo Iparraldean baina ikasketak frantsesez izanik. Nola irudikatuko zenuke zure euskararekiko harremana egoera horretan? Nun erabiliko zenuke euskara?

E2: Bo jadanik, egoera horretan egongo banitz espero dut euskaldun batzuk izango nituela inguruan, ikasketak egingo nituzkeen hiri horretan, ba euskara egunerokoan presente izateko. Eta ba bestela etxeokekin segituko nuen euskaraz, baina bai, bua niretzat sekulako gabezia izango zen ba klaseak ezin euskaraz segitu ahal izatea, eta egunerokoan euskaraz ez hitz egin ahal izatea, zinez zama bat ezarriko lidake bizkar gainean, muga hori ba izateaz egunerokoan.

ARANTZA: Kasu hori emango balitz gustatuko litzaizuke euskaldunetz inguratua egon ahal izatea, euskaldunetaz hitz egiten duzunean, nortaz ari zara? Ze lagunetaz?

E2: Euskal hiztunez, nik sentituko nukeen gabezia izango zen euskaraz ez hitz egin ahal izatea naturaltasunez, eta edozein momentutan, nik uste momentu horietan gustatuko litzadakela Seaskako ikasleak euskal hiztunak izatea. Euskaraz ikasi nahi baduzu ez dituzu hamaika aukera Iparraldean, ganoraz euskara ikasteko, beraz bai denak batzen gira nunbait, besteak ez dira hurbiltzen euskara ikastera beraz Seaskara ere nunbait.

ARANTZA: Azkeneko galderara iritsiz, zuk zure etxean euskaraz egiten duzu, ikasketak frantsesez egiteko aukera hartuko bazenu, etxea izango zenuke euskara gune, baina uste duzu etxean frantsesez egiten duten ikasle horien egoera ezberdina izano zela?

E2: Bai, nik uste jadanik etxean ez bada arnagunea euskararentzat euskara erabilera erabat galtzen dela eta pixkanaka pixkanaka gaitasunak ere galtzen direla, beraz nik uste oso zaila dela mantentzea euskarazko maila bat jadanik ez luketela gehiago arnagunerik hitz egiteko.

ARANTZA: Askotan aipatzen da euskara galtzearen beldurra, euskararekin harremana hausteko beldur hori, ikasle batzuen kasuan egoera hori eman daitekela uste duzu?

E2: Bai eta nik uste ez batzuen kasun bakarrik, askoren kasuan ere, geroz eta ikasle gehiago dagoelako ba gurasoek euskaldunak ez dituenak, eta horregatik, nik uste ikasle bat baino gehiago egoera horretan egon daitekela bai.

ARANTZA: Ikastolak, beraz, Etxeparek eta etxeak ze paper jokatzan dute?

E2: Dudarik gabe garrantzitsuenak, ze bertan pasatzen ditugu, gero depende bakoitza, baina eguneroko ordu gehienak, eta iruditzen zait horiek direla arnagune nagusienetarikoak, dudarik gabe.

ARANTZA: Ados. Nire partetik nahiko, zerbait gehitu nahi bauduzu, zerbait ahantzi baduzu, edo hori, esperientziaren bat kontatu nahi baduzu, bestela nigatik amaitutzat.

E2: Momentuz ez zait deusere bururatzen beraz ala.

ARANTZA: Bikain, mila esker.

E2: Bai zuri.

E3	Emakumezkoa	17 urte	Lapurdi	Baiona	Lehen hizkuntza: Euskara
-----------	-------------	---------	---------	--------	--------------------------

ARANTZA: Erran bezala, lehenik eta behin mila esker elkarrizketan parte hartzeagatik, aipatu nizun nire Gradu Amaierako Lana egiten ari nintzela eta zure perfilak lagunduko nauenez, ba eskertzen dizut parte hartzeagatik. Eskatuko dizudan lehen gauza izanen da pixka bat zure burua aurkeztea, nondik heldu ziren, zenbat urte dituzun eta ere zure ikastolako ibilbidea zein izan den.

E3: Beraz ni E3 naiz, 16 urte ditut eta terminalean naiz Bernat Etxepare lizeoan. Euskara ikastolan hasi nintzen ttipidanik, Oihana ikastolan Baionan, eta gero kolegiara joan nintzen urte batez Xalbador kolegiara eta gero ireki zuten laugarren kolegioa, be Ipar Euskal Herriko laugarren kolegio, Estitxu Robles eta beraz horrat joan nintzen ene bidea segitzera eta gero Etxeparera joan naiz eta hor dut azken urtea Etxeparen.

ARANTZA: Suposatzen dut ikastolan zirela zure gurasoek hautatu dutelako, zure gurasoen hautua izan dela, badakizu zendako hautatu zuten zuri ikastolan ezartzea?

E3: Mmm, egia erran ez dakit, pixkat ene ustez bientzat...pixkat ebidenteia zelako, nahi zutelako haien haurrek ikastea euskaraz. Beraz, ene ahizpa lehenik eman dute ikastolan eta bigarren haurra ere. Eta amak ikasi du ikastolan, fe ikasi bai, ikasi zuen ikastola batean, Baionakoan. Eta ene aitak ez, baina elebidunean zen eta burasoengandik ere ukan du euskara, beraz biek nahi zuten presentzia hori euskararen presentzia izatea.

ARANTZA: Ados, eta beraz zu eta zure ahizpa ikastolan zizte ezta?

E3: Bai.

ARANTZA: Suposatzen du zure ama hizkuntza euskara izanen dela, hala ere galdeginen dizut zein izan den zure ama hizkuntza eta zure gurasoekin eta ahizparekin beraz ze hizkuntzan nagusitzen den.

E3: Nire ama hizkuntza beraz euskara da, eta familian mintzatzen gira euskaraz, bi aldeetatik, bai amarekin eta bai aitarekin. Eta ahizparekin ere euskaraz.

ARANTZA: Ados bikain, hortaz gain, ikastolatik kanpo ez dakit aisialdirik egiten duzun edo aktibitatearik egin dituzun, ahal baduzu aipatu zein diren edo zein izan diren eta hor ere zein hizkuntza erabiltzen duzun eta pixkat ba hori hizkuntzarekiko harremana zein den.

E3: Eh nik nire aktibitate guztiak egin ditut Baiona eta Baiona inguruan, eta batzuk egin ditut euskaraz eta batzuk aldiz erdaraz. Hasi nuen bo ttipi ttipia nintzelarik hasi nuen Hand Balla eta hor den dena frantsesa zen eta sei urtetan horrelako, pixkat, ez dakit pixkat berezia zen, fe sei urte dituzularik bakarrik abantzu ezagutzen duzu euskara eta frantsesa gutti eta zaila zen. Eta gero hasi nintzen gimnastika eta gimnastikan egia da bazirela ikastolako beste haur batzuk eta haiekin euskaraz ari nintzen. Bo egia da kurtsoak frantsesez zirela baina ez zen voila, ez zen hori. Eta gero egin dut Pala, hor lagun batekin, beraz hor euskaraz ere eta gero hirugarrenean egin nuen dantza, euskal dantza eta badakit euskal dantza, fe hor egin nuen Hiriburun, eta hor euskal dantza irakasten zuten frantsesez, eta fe horrek zinez mindu ninduen, nintzen “mais, zer da hori?”, joan nintzen hortik ze ez zen posible, zergatik euskal dantza irakasten duzue frantsesez? fe ez du logikarik. Eta beraz utzi nuen eta hasi nintzen zabala buruan, hor lagunekin Baionako kontserbatorioan, da dantza garaikidea eta euskal dantza. Eta hor euskaraz eta gainera lagunak denak euskaraz ari gira beraz bada giro euskaldun hori.

ARANTZA: Adibidez, erran duzu hor dantzan euskaraz ari ziztela, jende hori nundik heldu da? Ikastolatik?

E3 Bai.

ARANTZA: Aipatu duzu hand ballean orokorrean frantsesez ari zinela, uste duzu badela diferentzia bat horrelako kirolean ikastolakoekin zirenean edo ez? Hau da, batzutan erran duzu ikastolakoekin elkartzen zinela, eta agian haiekin euskaraz ari zinela. Uste duzu horrek eragiten duela?

E3: Bai ene ustez bai, badakit, ene irudiko askoz hobeki pasatzen nuen euskaraz ari nintzelarik aisialdian eta badakit gimnastikan jendea joan delarik, ikastolako jendea joan delarik eta utzi duelarik gimnastika hor bakarrik nintzela, eta aipatzen nuelarik “bai bihar noa berriz ikastolara” eta parean zen ikastola, ikusten ginuen lehioetatik eta erraten zuten “ah

mais euskalduna zira?" badakit mindu ninduela eta pixkat bakardade hori sentitzen duzu, gainera haurra zirelarik zaila da, mais...

ARANTZA: Orduan uste duzu orokorrean euskaraz, frantsesak zirenak, ikastolatik heldu ez zirenekin frantsesa egin behar zenuela?

E3: Bai bai, azkenean behartuak ginen beste manera batez komunikatzera eta voila fe, nik hasteko izan ditut hastapen batean, gero usaiatzen zira, mais, arazoak komunikatzeko. Gainera ez da arras ber mundua, batzuekin, batzuek ulertzen zuten ikastolarena eta zenta ikasten zuten eskolan zer pasten zen euskararekin, mais batzuek aldiz ez zuten deus ezagutzen eta aurreiritziekin eta hor zaila zen komunikatzen.

ARANTZA: Behar bada bazenuen frantsesez egitearena eta ikastolakoa izateagatik pixkat berezia edo ezberdina sentitzearena?

E3: Bai.

ARANTZA: Ados. Eta gero suposatzen dut ikastolatik kanpo ukanen dituzula lagun batzuk, ez direla nahitaez ikastolan ezagutu dituzun horiek, herrikoak eta bestelako lagunak. Haiekin nola mintzo zira?

E3: Mm frantsesez, bai zenta ez dugunez. Badakite frantsesa badakidala eta horiek badakite beraz ai dira frantsesez, fe hori da, be azkenean, ez gira hasiko euskaraz...

ARANTZA: Badituzu lagun batzuk ez direnak ikastolan izan eta euskara mintzatzen ahal zarena edo?

E3: Mmm, baditut batzuk ikastolan zirenak lehen eta gero atera direnak ikastolatik. Horiekin bai euskaraz ari naiz. Baina ez dut uste badudanik lagunik, ez dut uste...

ARANTZA: Ados, beraz hori erranda, nun erranen zenuke, ikastola alde batera utzita, zure egunerokoan nun erranen zenuke euskara erabiltzen duzula?

E3: Lizeoan, etxean eta erranen nuke Baionako arnaseguneetan, ez dakit, adibidez gaztetxean, Baionan adibidez Baiona ttipian, Kalostrapen, Xinan, eta karriketean, adibidez Baiona Ttikiko karrikan entzuten duzu euskara eta hor bai entzuten da.

ARANTZA: Eremu batzuetan edo leku batzuetan badakizu ea euskaraz mintzatu? Zuk erran duzu adibidez Baionako gaztetxea, behar bada dira leku batzuk sartu eta euskaraz egiten ahal duzula, zuk ere sentitzen duzu hori? Leku batzuen arabera euskaraz egiten ahal duzula?

E3: Bai badakit Baionan badela hori, zinez pixkat da Baiona ttipia euskaldunen gunea da, ez dakit nola erran eta gunea hori da. Gero zeharkatzen duzu zubi bat eta arras beste mundu bat

da, inpresio hori da, Baionan zubiek auzo guztiak separatzen dituzte, pasa zara alde batetik bestera eta ez da batere berdina...

ARANTZA: Eta adibidez erran duzuna, zubia pasatzean edo horrelako eremuetan, suposatzen dut frantsesera pasa beharko zarela, euskaraz ezin zarenean mintzatu. Nun erranen zenuke frantsesez mintzo zarela eta zein dira arrazoiak? Zergatik uste duzu erraten duzula “bo frantsez egin behar dut”.

E3: Eh, nik erranen nuke zerbitzuetan orokorrean, ez dakit. Garraio batera igotzen bazira eta hor mintzatzen zira usu erdaraz automatikoki, zenta badakizu parekoak ez dakiela euskara. Eta be voila, eta ostatueta edo okidengian, hor ez dakit, pixkat automatikoki badakizu parekoak ez dakiela euskara, beraz ari zira berekin...

ARANTZA: Gure buruari erratea, “honek ez daki euskara”, nola erraten diozu hori zure buruari? Nola badakizu parekoak adibidez ez dakiela euskara?

E3: Ez dakit, izan behar da usaia zerbait. Egia da orokorrean, hemen, Baionan, eta inguruetan, edo jende hori ezagutzen duzu eta usu gertatzen da Baionako karrketan, badakizu, ageri da, ikusten baduzu norbait ez duzuna ezagutzen pixkat ezagutzen dituzun guneetatik kanpo “be bai, ez daki euskara berak”.

ARANTZA: Orduan erranen zenuke, ezagutzen ez baduzu eta euskal guneetatik kanpo baldin bada, ba azkenean ohitura dugula haiekin agian frantsesez egitea? Agian pentsatuz euskara ez dakitela ezta?

E3: Bai.

ARANTZA: Zuk orokorrean lehen hitza, zer egiten duzu euskaraz edo frantsesez? Adibidez mediku edo autobus gidariekin, baduzu ohitura hizkuntza batean edo bestean aritzea?

E3: Mm, usu lehen hitza erraten dut euskaraz hala ere. Sartzen naizelarik erraten dut “egun on”. Ta parekoak erantzuten badit frantsesez, bon be segitzen dut frantsesez zenta badakit ez duela segituko euskaraz. Baina badakit ene medikuak ez dakiela euskara eta ez duela ikasiko, beraz, frantsesez mintzatzen naiz automatikoki.

ARANTZA: Ados, askotan baduzu frantses erantzuna euskaraz mintzo zarelarik?

E3: Bai bai.

ARANTZA: Eta badakizu zergatik gertatzen den? Euskara ez da ofiziala, uste duzu horrek eragina sortzen duela adibidez?

E3: Bai eta ez. Ez dakit ofizialaren horrek bortxaz eragiten duela baina da bereziki ez dela bortxaz aipatua. Fe badakit jende ainitz inkontziente dela, badela beste hizkuntza bat, beste

kultura bat haien ondoan eta ez dakit jendea zinez ohartzen den, ez dakit barneratua den hori eta ene ustez da gauza kultural bat arras. Eta ofizialtasunari bortxaz lotua.

ARANTZA: Ados, beharbada ulertzen dutela azkenan beste kultura bat bezala ezta? Beste pertsona batzuk izango bagina bezala.

E3: Bai.

ARANTZA: Hor suposatzen dut Etxepareko azken urtean zirela eta etorkizunera begira hasi zirela pentsatzen, bai unibertsitate edo beste ikasketen inguruan. Ez dakit pentsatu duzun ze ikasi nahi duzun, eta ze hizkuntzan. Ipar Euskal Herrian euskal filo izan ezik, ezin da beste ikasketarik euskaraz egin, beraz ez dakit horren inguruko ideiarik baduzun.

E3: Eh, hasi naiz pentsatzen berrikitan eta gauza da aspalditik nahi dudala biziki urrun joan etxetik, beraz, horrek pixkat eragin du ene hautuari. Eta gero ez nakien ze ikasketa egin eta berrikitan hasi naiz xerkatzen eta atzeman dut doble lizentzia bat Bordalen, beraz, frantsesez dena eta gauza da ez dela ekibalentea Hegoaldean, beraz.

ARANTZA: Ados, beraz seguraski hartuko duzu hautua frantsesez ikasteko. Hori jakinda, hor frantsesez izanen dituzu ikasketak, nola irudikatzen duzu zure egunerokoa eta zure ustez euskarak, zuk ze erabilera, harreman izanen duzu euskararekin? Jakinda azkenean hezkuntza frantsesez izaera pastuko dela.

E3: Eh, ene ustez hastepen batean zaila izanen da eta egia da ene bizitza osoan euskaraz ikasi dudala. Ene harremanak ere euskaraz egin ditut eta eraiki ditut eta beraz pixkat segur da moztuko duela. Eh, baina zaila izanen da, ene ustez gero usaiatuko naiz eta gero hala ere mantenduko dut hemen dudana lotura, ez dakit, jendeekin eta Zizparekin ere, distantziarekin, ez dakit, lortuko dut harreman bat izaten. Beraz ez dut uste hainbeste galduko dudanez, baina egia da Bordale eta Baiona ez dela ber errealitatea...

ARANTZA: Euskara galtzeko beldurra, zuk beldur hori ez duzu? Pentsatzen duzulako euskara oino mantenduko duzula. Beharbada etxean euskaraz egiten duzulako edo badituzulako ingurune batzuk euskaraz egiteko?

E3: Ene ustez ez dakit lortuko dut mantentzen, ez dakit, lortzen badut harremanak mantentzea, gurasoak deitzen baditut arratsetan, euskaraz mintzatuko naiz haiekin edo koloka egiten badut Etxepareko batekin berekin arituko naiz euskaraz eta ez dakit...

ARANTZA: Eta uste duzu ikasle batek beharba etxean hizkuntza bakarra frantsesa baldin badu, uste duzu egoera behar bada pixkat ezberdina izan daitekela?

E3: Ene ustez izanen du presentzia pixkat, agian guttiago nolaz etxean frantsesez ari den, baina bere berdin, egin dituen lagunak ikastolan eta bai ikasi dituen kurtsoak euskaraz izan

direnez hala ere izanen du lotura bat. Eta nahi badu atxiki ere, hori da beregandik egiten bada ere lotura atxikitzen ahal du.

ARANTZA: Agian da ere pertsonaren hautua?

E3:Bai.

ARANTZA: Nik horrela orokorrean galdera guztiak egin dizkizut, ez dakit baduzun zerbait gehitzeko, aipatzeko honen inguruan.

E3: Ez dakit, ez dakit zure galderari ongi erantzun didan edo ez.

E4	Emakumezkoa	16 urte	Lapurdi	Sara	Lehen hizkuntza: Frantsesa
-----------	-------------	---------	---------	------	----------------------------

ARANTZA: Lehenik eta behin mila esker elkarrizketa honetan parte hartzeagatik, ene unibertsitateko lana bukatzen ari naiz, ene Gradu Amaierako Lana, eta zuen perfila beharrezkoa nuenez, ainitz laguntzen didazu, beraz milesker zuri. Eta lehenik eta behin galdeginen dizut zure burua aurkeztea, ze herritik zatozen. Horrekin batera, zure ikastolako ibilbidea zein izan den, noiz sartu ziren ikastolan eta guzti hori.

E4: Ados, E4 deitzen naiz, 16 urte baditut eta Saran bizitzen naiz. Nere lehen urtea da Seaskan, lehen eskola, kolegioa eta lizeoa frantsesez egin dut, beraz nere lehen urtea da Seaskan eta be gaur, aurten sartu naiz Etxepareko lizeoan.

ARANTZA: Ados,ez dakit zure hautua izan den edo zure gurasoena ikastolan sartzea, esplikatzen ahal duzu pixkat hori?

E4: Bai bai, egin dut urte bat, nire bi urtetik hiru urtera Donostin ikastolan, gero Saran joan naiz bizitzera, eta Saran eskola publikoan sartu naiz eta be aurten be bai sartu naiz Etxeparen, mais da nire hautua, nire euskara hobetzeko eta lizeo euskaldun batean izateko ere bai.

ARANTZA: Lehenago erran duzu eskola publikoan zinela Saran...

E4: Gero kolegioan Donibanen nintzen, Donamariko kolegioan eta gero Donibanen ere lizeoan, nire bigarrena egin dut Ravelen, beraz Donibanen.

ARANTZA: Ados, eta hor kurtsoak ze hizkuntzan zenituen gehienbat?

E4: Denak frantsesez dira, bakarrik nik euskara banuen historia, eta kolegioan ere fisika, zenta egiten nuen euskara bigarren hizkuntza, nire bigarren hizkuntza euskara zen, beraz ala, baina gero lizeoan bakarrik da historia eta gero terminalean bakarrik euskal hizkuntza euskaraz, hiru ordu dira.

ARANTZA: Erranen zenuke Seaskara pasa zinela zure euskara hobetzeko, harreman gehiago ukateko?

E4: Bai, ez nuen aurkitzen frantses lizo batean, beraz bai.

ARANTZA: Esan duzun bezala, historia eta beste gai bat euskaraz izanda, ez zen nahiko behar bada zuretzat?

E4: Bai bai, be orain dena euskaraz da, giroa ez da batere berdina Seaskan izatea eta frantses lizo batean, beraz bai ez da batere berdina, eta biziki konten naiz euskara ikastea Etxeparen.

ARANTZA: Barkatuko didazu hainbeste galdera egitea, lehen ikaslea zara aldaketa eman duena, esaten duzu Seaskan beste giro bat ikusten duzula, uste duzu eskolen artean aldaketa sumatzen duzula?

E4: Bai, frantses lizeo batean jendea ez da batere berdina, irakasle eta ikasle harremana ere ez, Etxepare lizeoan dena... frantses lizeo batean erraten dugu “vous”, irakasleari eta orain Etxeparen ez batere, baduzu konfiantza gehiago eta beste ikasleekin ere bai bada etortzen dira ezagutzera...

ARANTZA: Aipatu didazu ikastolaren ibilbidea, baina zein da zure ama hizkuntza? Etxean zure gurasoekin, eta ez dakit anai arrebak baldin badituzu, haiekin nola mintzo zira?

E4: Nire gurasoak separatuak dira baina biak Donibanen sortu dira, baina biak bakarrik frantsesa badakite, eta bakarrik frantsesa, ez dakite batere euskaraz mintzatzeko eta ez dute ulertzen. Beraz, haiekin bakarrik frantsesez ari naiz. Eta badut ahizpa bat txikiagoa eta ere anai bat, biak txikiagoak dira eta hauekin frantsesez ari naiz ere, biek beraz, etxean beraz bakarrik frantsesez.

ARANTZA: Zure anai arrebak nun dira? Ikastolan ala beste eskola batean?

E4: Nire ahizpa kolegioan da, Donibanen da, Donamariko kolegioan eta nire anaia Baionan da eskolan eta bere eskola Montessori deitzen da, espainola, inglesa eta frantsesa egiten du, baina euskara ez dago eta nire ahizpa badu frantsesa espainola euskara ere baina euskara badu bere, frantses lizeo batean da LV1 uste dut euskara, edo gero badu LV2 eta LV3 ingelesa eta espainola. Eta bera egiten du matematika, historia eta fisika euskaraz eta gero badu ere euskara hizkuntza.

ARANTZA: Eta uste duzu adibidez zure anai arrebak ikusita beste eskola batean direla, zure ahizpak erran duzu hala ere badituela kurtsoak euskaraz, uste duzu orokorrean euskararekin harremana ezberdina dela ikastolan edo zure ahizpa den kolegio horretan?

E4: Bai bai bai, ez da batere berdina. Ikastolan lehen hizkuntza da euskara ez da frantsesa, eta frantses kolegio batean da beraz euskara da bigarren hizkuntza eta nik zertako joan naiz ikastolara? Euskara nire lehen hizkuntza izateko eta bera bere maila euskaran biziki apala da, ez da batere, ez du erabiltzen, bai ulertzen du baina ez dena baina ez du erabiltzen.

ARANTZA: Eskola frantsesean, euskaraz kurtsoak dituztenak, euskara erabiltzen dute haien artean?

E4: Ez batere, bakarrik frantsesez, den dena frantsesez.

ARANTZA: Hortaz, zure etxean hizkuntza nagusia frantsesa da, eta orain Seaskan zira, ikastolatik kanpo, kirolenbat edo aisiladirenbat egiten baduzu, leku horretan, ze hizkuntzan mintzo zira?

E4: Ni Saratarra naiz, Saran euskara biziki bizki inportantea da, euskal dantza egiten dut eta hori bakarrik euskaraz egiten dut, eta gero egiten dut ere antzerkia baina Baionan eta hor Baionan frantsesez da baina batzutan euskal taldeekin pixka bat ezagutzen dugu eta haiekin euskaraz mintzatzen gira. Baina gero frantsesez da, beraz Saran dena euskara, gaztetxean ere euskara, ensteatzen gira bakarrik euskaraz mintzatzea baina gero, hori biziki inportantea da Saran baina gero Baionan adibidez frantsesez da hizkuntza nagusia.

ARANTZA: Sara agian orokorrean herri euskalduna da, euskal dantzan euskara erabiltzen duzu, euskal dantzan badituzun beste dantzariak ze eskoletatik datoz gehiengo?

E4: Eh be denek ikastolan dira, denak Seaskan, eta antzerkia, ez, antzerkian bakarrik naiz ikastolako, besteak denak lizeo frantsesean dira.

ARANTZA: Ados. Hortaz gain, suposatzen dut beste eskola batzuetan egon zarenez, ikastolakoak ez diren lagunak ere ukanen dituzula, beste leku batzuetan ezagutu dituzunak, haiekin elkartzen zarenean zein hizkuntza erabiltzen duzu eta zendako?

E4: Nire euskaldun lagunekin bakarrik euskaraz, entseatzen naiz bakarrik euskaraz hitz egitea, gure hizkuntza inportantea delako, bistan da batzutan frantsesez ari naiz zenta ez dut maila, nire maila ez da biziki ongi batzutan hiztegia faltatzen zait, eta hori dena baina gero nire beste lagunekin frantsesa ari gira.

ARANTZA: Euskaraz mintzo ziren lagun horiekin nungoak izaten dira?

E4: Saran edo euskal dantzan, Saran denek euskaraz mintzatzen dira.

ARANTZA: Nik galdetzen badizut, ikastola ahaztea alde batera, eta zuk identifikatzea nun egiten duzun euskara ikastolatik kanpo, ze eremuetan, norekin? Aipatu duzu euskal dantza, gaztetxea, baduzu beste eremu bat?

E4: Eh, nire lagunekin baina gero nire familiarekin batere, nire aktibitateetan, lizeoan, joaten naizenean beste herri batean, Donostin edo ez dakit euskaraz mintzatzen naiz baina gero bestela frantsesez.

ARANTZA: Erran duzu Donosti, uste duzu Hegoaldera pasatzean euskaraz egitea errazagoa dela?

E4: Bai bai, nire ustez bai, be Baionan inork, biziki guttik badakite euskara eta ez dut batere entzuten Baionan, Donostin bai gehiago, Hegoaldean uste dut gehiago entzuten dela euskara.

ARANTZA: Badakizu zergatik izan daitekeen?

E4: Be uste dut, gero ez dakit, nire ustez Iparraldean transmisioa ez da ainitz, Hegoaldean bezala, Hegoaldean ez dakit, nire ustez bakarrik okindegira joatea denak frantsesez ari dira, eta Hegoaldean ez dakit, nire ustez euskara gehiago dakite.

ARANTZA: Lehen hitza euskaraz egiten baduzu, agian gehiago uelrtuko zaituzte Iparraldean baino?

E4: Bai bai segur.

ARANTZA: Aipatu duzu nun mintzo ziren euskaraz, suposatzen dut euskaraz ez zarenean mintzatzen frantsesera pasatzen zarela, adibidez etxean. Etxeko arrazoa noski aipatu duzu, ez dakitelako, baina adibidez zure egunerokoan, zu pasatzen zarean frantsesera, zein izaten da arrazoa?

E4: Anitz pasatzen da, entseatzen naiz euskara mintzatzea gehienez, baina pertsona batek erraten duenean “barkatu ez dut ulertu”, be direktuki frantsesez mintzatuko dut, edo ere estresarekin ez dakit, ez dut usaia ainitz mintzatu, beraz bai. Gero nik nire lehen urtea da Seaskan, hiru hilabete pasa dira eta nire maila ainitz hobetu da.

ARANTZA: Oso maila ona duzu.

E4: Oraindik bai hiztegia, gramatika, hori dena lantzekoa dira.

ARANTZA: Ados bikain, normala, baina zinez oso maila ona duzu.

E4: Milesker.

ARANTZA: Orduan, okindegira joaten zarenean, edo ostatu batera edo horrela, esan duzu askotan ez dizutela ulertzen euskaraz mintzaterakoan, eta bestetan zu izaten zara frantsesera pasatzen zarena, badaude eremu batzuk erraten duzula ahal duzuna “hemen bai, euskaraz egiten ahal dut eta badakit ulertuko nautela”. Uste duzu badirela horrelako lekuak?

E4: Bai bai, segur naiz, be Saran bakarrik euskaraz ari naiz, Zugarramurdin ere, badira horrelako herriak nun euskara biziki bizki inportantea den, transmisio biziki ona egiten da ere bai, beraz badakit entseatuko naiz euskaraz bakarrik hitz egitea.

ARANTZA: Herriak aipatu dituzu, uste duzu bestak egiten direlarik, hor uste duzu kasu batzuetan euskaraz mintzatzea errazogoa dela?

E4: Bai, nire ustez Herri Urrats, Euskal Herria Zuzenean, horiek denak euskara pixka bat da inportantea, euskara da inportanteena, denek euskaraz hitz egiten dute eta hori da festibal horien inportanteena, eta helburua. Badakigu festibal hauek direla euskararentzat, gure Euskal Herriko kultura eta hori dena garrantzitsua dena.

ARANTZA: Eta hor topatzen duzun jendea orokorrean, ikasle guraso, nungo inguruetatik datozela esanen znuke?

E4: Ikastolan, denak ikastolan edo posible da bere herrian euskara ikasi dute baina gehienak ikastolatik etortzen dira.

ARANTZA: Azken bi galderetara pasaz, Etxeparen zaude, Seaskako azken urteak dira, gero unibertsitate edo beste ikasketa batzuk heldu dira. Iparraldean euskaraz ikasteko aukera asko ez daude, ez dakit pentsatu duzun zer ikasi nahi duzun...

E4: Bai bai bai.

ARANTZA: Ba esplikatzen ahal baduzu zer, nun eta zergatik.

E4: Nahi nuke zientzia politika ikastea, badakit badut aukera bat Bilbon zientzia politika ikastea baina ez dakit kurtsoak euskaraz direla ala ez, niretzat biziki inportantea da zeren eta zientzia politikan ikasi baina, Euskal Herriko politika interesatzen nau, beraz bai nik nahi nuke euskal zientzia politika ikasi eta oraindik Iparraldean ez dago ezer, zientzia politika bada Bordalen eta Parisen, baina bakarrik frantsesez dira, beraz hori, zaila da pixka bat aukeratzea.

ARANTZA: Eta eman dezagun, imaginatu, kasu hipotetiko batean, Bordalera ikastera zoazela zientzia politikoak, dena frantsesez egin beharko zenuke, uste duzu zure euskararekiko erabilera aldatuko zela? Nola uste duzu eraginen zizula euskararen erabaki horrek?

E4: Be nik euskararekin harremana ez zen aldatuko, arazo bat niretzak nire ikasketak euskaraz ez egitea zenta etxean bakarrik frantsesez ari naiz, gero bai nire lagunekin euskaraz baina zaila izanen da.

ARANTZA: Noski, etxean frantsesez egiten baduzu eta zure lagun horiekin euskaraz ari bazara ere uste duzu azkenean hezkuntza ere pasako bazenuke frantsesera behar bada euskara gutxiago egingo zenuela?

E4: Bai bai, ikastola niretzat biziki garrantzitsua da, euskararentzat eta euskal kulturarentzat Iparraldean ikastolak ukatea.

ARANTZA: Ados bikain, nik galdera guztiak egin dizkitut, ez dakit zerbait gehiago gehitu nahi duzun, horrela esperientzia bat, anekdota bat, falta izan zaizun zerbait.

E4: Be ez, bakarrik biziki konten naiz ikastolan izatea eta niretzat maila biziki ona da, ni franstes lizeoan nintzen eta irakaskuntzak biziki onak dira Etxeparen, gure kultura ere bai biziki garrantzitsua da musika badugu, taldeak ditugu, Etxepareko txaranga, biziki inportantea da eta niretzat biziki garrantzitsua da gure kultura ezagutzea eta hori dena, beraz Etxepare lizeo biziki biziki biziki on bat da nire ustez.

ARANTZA: Beraz, alde batetik euskara hobetze aldera eta bestalde kulturaren inguruan erakusteagatik, baduela hizkuntza eta kultura zatia ere. Ba bikain, mila mila esker eta zinez harro egon zintezke ze oso maila ona duzu benetan, ikasle gutxik egiten dute aldaketa hori eta ez dut uste erraza denik aldaketa ematea, beraz ba hori, benetan ezagutu ez arren, harro nagoela zutaz eta oso maila ona duzu.

E4: Oh mila esker ainitz arantza.

E5	Emakumezkoa	16 urte	Nafarroa Beherea	Eihalarre	Lehen hizkuntza: Euskara
-----------	-------------	---------	------------------	-----------	--------------------------

ARANTZA: Lehenik eta behin mila esker elkarrizketan parte hartzeagatik, aipatu nizun hori...

E5: Ah lasai lasai!

ARANTZA: Ene ikasketak bukatzen ari nintzela eta laguntzen nau honek, zuei elkarrizketak egiteak.

E5: Bai bai.

ARANTZA: Lehenik eta behin eskatuko dizut pixkat zure burua aurkeztea, nundik zatozen, zenbat urte dituzun eta baita zure ikastolako ibilbidea zein izan den.

E5: Beraz E5 niz, baditut hamasei urte, bizi naiz Eihalarre, da Donibane Garazitik bost kilometrotan, eta hor lehenean naiz Etxeparen, lehen orokorra.

ARANTZA: Ados, eta ikastola ibilbidea nun hasi zinen? Zein ikastolan, ze kolegiotik pastu zira eta hori guztia?

E5: Eh, Garaziko ikastolan nintzen, ondotik jin niz Manex Erdozaintzi Etxart Kolegiotat, Larzabalerat, eta beraz gero Etxeparera.

ARANTZA: Ados bikain, beraz, suposatzen du Etxeparen eta ikastolan zure gurasoen hautuz zaudela, badakizu zein izan zen arrazoi nagusia?

E5: Ene ama deia ttipitatik ikastolan zen, beraz ttipitatik euskaraz bizi da, beraz beretako logikoa zen bere haurrak ematea ikastolan. Eta ene aita euskaldun berri bat da, euskaldundu da hogeitau urte ingurutan eta beraz beretako ere normala zen bere haurrak ikastolan ematea, beraz naturalki ikastolan.

ARANTZA: Ados bikain, zure ama hizkuntza suposatzen du euskara izango dela, hala ere galdera egiten dizut, eta gero etxean gurasoekin eta anai arrebak baldin badituzu, haiekin ze hizkuntzan mintzo zira?

E5: Bai, ene ama hizkuntza euskara da eta etxean, baditut bi anai arreba eta haiekin ere euskaraz, gurasoekin eta anai arrebekin euskaraz.

ARANTZA: Zure anai arrebak ere ikastolan dira?

E5: Bai bai, ni baino gazteagoak dira.

ARANTZA: Ados. Esan duzun bezala Etxeparen zaude, beraz, ikasketa guztia euskaraz jasotzen duzu, ez dakit ikastolatik kanpo kirolen bat egiten duzun, aktibitate edo aisialdirenbat, orain edo lehen. Horrela baldin bada aipatzea zein izan diren eta hor ere ze hizkuntza nagusitu zaizkizun.

E5: Egin dut musika, beraz, txistua eta solfeoa, eta haiek euskaraz. Egin dut ere bi urtez eskubaloia eta hori frantsesez zen, nahiz eta ikastolako lagunekin mintzatu baina trebaketak frantsesez. Eta hor dantza egiten dut, bo ttipitatik, Garazin, garaztarrak taldean eta euskaraz kurtsuak.

ARANTZA: Dantza, ze dantza mota egiten duzu?

E5: Euskal dantza.

ARANTZA: Hor esan duzu adibidez dantzan eta musikan lehen euskaraz ari zinela, bertan zeuden musikari eta orain dantzariak, ikastolakoak dira ere edo ze ingurutik heldu dira? Badakizu?

E5: Bai bai, bieran ikastolako gurasoak ziren erakasle, beraz. Musikan bazenuen hautua, hautatzen ahal zenuen edo euskara edo frantsesez, hor denak Seaskako ikasleak ginen eta dantza euskaraz egiten dut.

ARANTZA: Erranen zenuke ikastolatik kanpo egiten diren aktibitateetan ikastolako jendeak errazten duela euskaraz egitea?

E5: Bai, arrunt bai.

ARANTZA: Eskubaloiko kasua ere aipatu duzu, frantsesa nagusitzen zela gehienbat, entrenatzaileak ez dakielako edo?

E5: Ez ez dakite eta, banituen bi entrenatzaile, bazen bat ikastolatik pastu zena beraz berarekin buruz buru euskaraz, baina bestenaz kurtsoak frantsesez.

ARANTZA: Ados, eta hortaz aparte, aktibitateak alde batera utzita, ikastolatik kanpo badituzu lagun batzuk?

E5: Bai badituz herriko gazte batzuk, edo Garazi inguruko gazte batzuk, frantsesez haiekin.

ARANTZA: Horiek beste eskola batzuetatik pasa dira?

E5: Bai eskola frantsesetatik, beraz nahiz eta elebidunean diren ez dakite, ez dute asko ongi menperatzen euskara ulerrizketa bat euskaraz egiteko.

ARANTZA: Hortaz, etxean euskaraz mintzo zira, lizoan ere, eta lizeotik kanpo orain dantzan eta lehen musikan ezta?

E5: Bai bai arrunt.

ARANTZA: Uste dut galdera hau erantzun dugula baina, zuzenki galdeturik, nun identifikatuko zenituzke zure euskara erabiltzeko guneak edo nun egin dezakezu euskaraz bizitza?

E5: Beraz, etxea eta dantza. Bestenaz Garazin adibidez ostatu batean salbu ezin dut, nahiz eta euskaraz mintzatuko ziren, parekoak, gehien gehienak frantsesez erantzungo dizu. Errango nuke etxea eta dantza.

ARANTZA: Hor erran duzula ostatua, uste duzu ostatu batzuetan edo besta batzuetan leku batzuetan, zuk erraten ahal diozula zure buruari, “bai hemen bai euskaraz egiten ahal dut”.

E5: Bai, gertatzen zait, nahiz eta parekoak frantsesez erantzungo duen ulertzen du, beraz, edo adibidez ogia erosterakoan badakit euskaraz eskatzen ahal dudala nahiz eta ez duten euskaraz erantzungo ulertuko dute eta nahi dudana emango didate, adibidez okindegian

badakit euskara erabiltzen ahal dudala. Baina, supermerkatuan eta gehiago frantsesez egia erran.

ARANTZA: Zerrek bultzatzen zaitu frantsesez egitera?

E5: Egia da Garazin gehienetan ezagutzen ditut eta bai.

ARANTZA: Garazi txikia dela eta ezagutzen ziztela, euskaraz ez dakiten pertsona horiek badute nolabaiteko lotura ikastolarekin?

E5: Iruditzen zait hasteko anitz pertsonak ez dutela ulertzen ikastola baten helburua. Neri deia gertatua zait adibidez elkarrizketa bat ukatea pertsona batekin eta erraitea zendako ez zira joan frantses kolegio batera, hartuz elebidun euskara, kontzientzia ez dute iruditzen zait, edo gu baino guttiago.

ARANTZA: Hortaz, uste duzu lotura gutxi dutela euskararekin? Ez dituzte haien haurrak ikastolan emanen edo...

E5: Ah ez ez, ez dut pentsatzen.

ARANTZA: Eta zure egunerokoan, baldin bazoaz gaztetxe batera, ostatu batera, gertatu izan zaizu leku zehatz batzuetara joatea, eta bertakoak ezagutu ez arren, zuk erratea “bai hemen euskaraz egiten ahal dut”.

E5: Bo deia gaztetxeetan, eta gero ez dakit nahiz eta ziren herriko besta batean entzungo duzu zure aitzinekoa euskaraz hitz egiten eta bai. Ni hasteko saiatzen naiz herriko bestetan eta lehenik euskaraz manatzen eta ez badute ulertzen frantsesez.

ARANTZA: Adibidez, Herri Urrats edo EHZ bezelako bestetara joaten zarenean beharba errazago egiten zaizula euskaraz egitea lehenengo hitza?

E5: Bai, horrelako bestetan naturalki euskaraz.

ARANTZA: Suposatzen dut euskaraz mintzatzen ez zarenean frantsesera pasten zarela, nun erranen zenuke egiten duzula gehienbat frantsesez eta zergatik uste duzu batzutan pastu behar zarela frantsesera?

E5: Bo gehienetan da parekoak ez duelako ulertzen, beraz frantsesez eta gero nik adibidez etxean aitaxi eta amatxirekin frantsesez iten dut, fe nire amatxirekin eta beste aldeko aitaxirekin. Beraz haiekin eta berdin Garazin gazteen artean edo berehala frantsesa nagusitzen da.

ARANTZA: Eta erranen zenuke, jakinda Ipar Euskal Herrian euskara ez dela ofiziala, uste duzu horrek eragina sortzen duela eguneroko bizitzan frantsesa eta euskara elkartzen direnean?

E5: Bai, ene ustez bai. Jendearendako ez da baitezbadakoa adibidez, itzulpenak egitea. Adibide bat, sartu naiz nire herriko besta komitean eta komite hori badu ez berria hala ere, eta hau aurtendanik, gu, ikastolako lagun batekin sartu naizelako, galdegin dugulako itzulpenak ere euskaraz egitea, euskaraz dira. Baina haiendako ez zuten inportantziarik ikusten adibidez informazioa euskaraz eta frantsesez helaraztea, haientzako bakarrik frantsesez eta ez dute haien buruari, nahiz eta Eiheralarre herri ttipi bat den eta kasik denek badakiten euskara, baina...

ARANTZA: Bai beharbada ez diote garrantzia hori ematen.

E5: Ara, ez dute kontzientziarik, haiendako ez du inportantzairik.

ARANTZA: Hortaz, esango zenuke, ikastolatik kanpo elkartzen ziren jendeekin, ikastolatik pastu ez diren pertsona askok ez dutela lotura hori euskararekin? Hori sentitzen duzu?

E5: Bai bai, ez da egin behar orokortasun bat baina hasteko nire inguruan gehienek ez dute...

ARANTZA: Pixkat mintzatu gira euskara nun erabiltzen duzun jakiteko, noiz frantsesez. Suposatzen dut Etxepare laster utzi beharko duzula, ez dakit zenbatgarren urtean zauden zehazki baina unibertsitateari begira egongo zirela, edo beste ikasketa batzuei begira, pentsatu duzu zer ikasi eta zein hizkuntzan ikasi?

E5: Nik ahalaz euskaraz nahi nuke ikasi, baina ez dakit oraindik xuxen nora joango naizen, parada baldin badut joango naiz Hegoaldera, han euskaraz egiteko eta bestenaz Frantzia aldera eta badakit frantsesez hitz egingo dudala, baina nere lehentasunetan hala ere euskaraz, hautua baldin badut euskaraz.

ARANTZA: Zaila ikusten duzu Hegoaldera pastea?

E5: Zaila ez, baina ez dakit egin nahi dudana, beraz... baina parada baldin badut joango naiz.

ARANTZA: Ados. Eman dezagun frantsesez ikasteko hautua hartu behar duzula arrazoi ezberdinengatik, egoera horretan zaudela suposatuz, nola uste duzu izango zela zure harremana-erabilera euskararekin, jakinda Seaskak amaiera edukiko lukeela zure bizitzan. Nun uste duzu erabiliko zenukela euskara eta ze harreman izango zenuke zuk euskararekin?

E5: Badakit euskara ez dudala galduko baina guttiago erabiliko nuke, erabiliko nuke familiarekin, hemengo lagunekin, eta gaztetxean, horrela. Badakit astean zehar hasteko euskaraz guttiago hitz egingo nuela.

ARANTZA: Erraten duzunean hemengo lagunekin, ze lagunetaz ari zira?

E5: Lizeoko lagunetaz bai.

ARANTZA: Askotan aipatu izan da ba beharbada unibertsitatera pasatzean eta Frantziara egiteko hautua egiten denean, askok beldurra dute behar bada euskara galtzea edo ezin izatea euskaraz bizitzea, zure kasuan esan duzu etxean euskaraz ari zirela, uste duzu etxean frantsesez ari diren ikasle horientzat egoera zailagoa dela?

E5: Bai posible, zenta etxean frantsesez mintzo ari bazira, adibidez Etxeparera etortzen zira eta hor arnagune bat da, euskaraz hitz egiten duzu, euskaraz entzungo duzu. Baina justuki baldin bazira adibidez Bordalen eta etxera sartzerakoan etxean ere frantsesez hitz egiten baduzu ene ustez santza gehiago duzu ez euskara galtzea baina guttiago erabiltzea eta beraz ohitura ere galtzea.

ARANTZA: Hortaz, Ipar Euskal Herrian, euskarak ikastolan eta etxean leku handia hartzen duela esango zenuke?

E5: Bai bai pentsatzen dut, frantsesak toki ainitz ainitz hartzen du Ipar Euskal Herrian beraz bai.

ARANTZA: Nik nire galderekin bukatu dut, ez dakit baduzun zerbait horrela gehitzeko, adibiderenbat, anekdotarenbat edo falta izan zaizun zerbait.

E5: Oh ez dakit, ongi ongi.

ARANTZA: Mila esker ainitz.

E6	Gizonezkoa	17 urte	Nafarroa Beherea	Donibane Garazi	Lehen hizkuntza: Euskara eta frantsesa
-----------	------------	---------	------------------	-----------------	----------------------------------------

ARANTZA: Lehenik eta behin milesker elkarrizketa honetan parte hartzeagatik, esan nizun bezala, hori, nire unibertsitateko lana bukatzen ari naiz eta zuen perfila beharrezkoa nuen, beraz hori, lehenik eta behin eskertzea eta eskatuko dizudan lehen gauza izanen da zure burua aurkeztea, nundik zatozen, zenbat urte dituzun, eta horrekin ere zein izan den zure ikastolako ibilbidea.

E6: Ados, ba ni E6 deitzen niz, eta beraz Donibane Garazikoa niz amarekin, eta Hazparnekoa aitarekin, eta beraz 17 urte ditut orain dela gutti, eta ba ni Ortzaizeko ikastolan hasi niz ikasten gero Manex Erdozaintzi kolegioan Larzabalen zena eta beraz, Seaskan segitzeko eta logikoa zen bezala Etxepare lizeoan orain.

ARANTZA: Ados, suposatzen dut ikastolan zure gurasoengatik izanen zirela, haien hautua izan zela, badakizu zendako ezarri zintuzten ikastolan?

E6: Ba amak nahi izan zuen...gure heziketa guztia euskaraz egin zigun, eta ama eta aitaren xedea baitzen guk segitu ahal izatea euskaraz ikasten eta dena, beraz, ene ama hizkuntza euskara izanki eta dena logikoa ikastolan ezartzea eta Ortzaizen zenta ene herriko ikastola hurbilena zen.

ARANTZA: Ados, erran duzu zure ama hizkuntza euskara dela, euskara bakarrik, edo beste hizkuntza bat ere? Eta zure gurasoekin eta ez dakit anai arrebak badituzun, haiekin nola mintzo zira? Ze hizkuntzan?

E6: Eh ba bai, euskara ama hizkuntza izan da 3-4 urte arte holako zerbait, eta gero frantsesa ikasi dut eta ene aitaren aldeko familia osoa frantsesez ari da, eta beraz orain gurasoak bereziak izanki badut ene amarekin eta amaren aldeko familiairekin euskaraz aritzeko aukera denbora guztitan, eta aitarekin gehiago frantsesez, hori, bo aita euskaldun berri delako eta ez duelako sobera indarra egiten, gehio gu adaptatzen gira eta gu frantsesez ari berekin, eta anaiarekin, badut ania bat txiki bat, bigarrenen dena, eta berekin puf batzutan frantsesez mais izango da gauza espezifikoko baten mintzatzeko edo insultatzeko bestenaz dena euskaraz.

ARANTZA: Ados, bikain, orduan erranen zenuke, amarekin gehiago euskaraz, eta aitarekin beharba batzutan frantsesez.

E6:Hori da, hori da.

ARANTZA: Ados, ez dakit ikastolatik kanpo aisialdirik egiten duzun, kirol edo beste aktibitatearen bat. Baiezkoa baldin bada, nun, zein den eta zein hizkuntzan mintzo ziren.

E6: Eh bai, aurtan egiten dut eskalada, eskalada Baionako Audiamendi elkartearen, eta joaten gira, hor Barnetegiko Etxepareko lagun talde batekin, bi orenez astearteetan, eta han elkarte bat denez eta antolatzaile nagusiak euskaldunak direnez, bada euskal giro, han euskaraz mintzatzeko aukera duzu, bakar batzuek bakarrik ez dute jakingo, baina bai nagusiki euskaraz ari gira.

ARANTZA: Erran duzu adibidez batzuek ez dakitela euskara, pertsona horiek badakizu nun ikasi duten edo nungoak diren? Zendako ez diren euskaraz mintzo?

E6: Gehiengoa bat heldu da... eh badugu, hemen bizia baina aski gaztea da badakizu eta ez da bate ikastoletatik pasa eta ez da seguraski oino gau eskoletan, baina badira batzuk irudiz gau eskoletan ari direnak zenta aipatzen dute eta dena, eta beraz, ez dakitenak baina entseatzen direnak, dirudienek entseatzen dira batzuk.

ARANTZA: Eskaladaz aparte egin duzu beste aktibitatearen bat? Beharbada orain ez duzu gehiago egiten, baina egin izan duzu?

E6: Eh bai, mendiko bizikleta, hori kublean, eta hor ez, euskaraz ez ginen ari, zango baloina ere, bo hor euskara kasik denek bagenekien, baina entrenatzailea gurekin ez zelako ari, ez ginen euskaraz ari, ez deus, kriston frantses giro ustela, eta gero hori.

ARANTZA: Eta erran duzu adibidez hor, zure entrenatzaileak ez zekiela frantsesa, uste duzu horrek eragin zizuela zuen artean ere frantsesez egitera edo?

E6: Ah bai bai segur da, bera ari zenez frantsesez guk denak ari ginen eta bai, ez dakit nolaz, ez zen bate euskara erabiltzen.

ARANTZA: Eta adibidez, erran duzu ere mendiko bizikleta egiten zenuela, nun egiten zenuen?

E6: Hori egiten nuen Heletan, Heletan bazen Lourdestar bat, 50 urteko pertsona bat, etorri zen hunat eta biziki maitatu zuen tokia eta hor duela aspaldi hemen bizi zela eta beraz gazteen artean nahi zuen bizikleta garatu eta beraz bera frantsesez, ez zuen ikasi euskara deus.

ARANTZA: Eta zuen artean, beste kiroleko kideen artean? Frantsesez ere?

E6: Batzuekin ez zenta batzuk euskaldunak ziren, ikastolakoak eta dena, baina besteekin bai, frantsesez.

ARANTZA: Ados, beraz erran duzuna eta gero, badituzu ere lagun batzuk ez direnak ikastolakoak baina ikusten dituzunak zure egunerokoan?

E6: Bai bai baditut, batez ere talde bat Hegoaldeko lagunena, Euskal Abenturan egin ditudan lagunekin, eta horiek ikustean beti beti beti euskaraz, beti beti. Eta gero bai baditut lagun batzuk gehienez Iparraldean beraz frantsesez, frantsesak, eta batzuk orain ez direnak Seaskan eta euskaraz segitzen dutenak, baina gehienik frantsesak.

ARANTZA: Erran duzu Hegoaldean badituzula lagunak, ikusten duzu badela diferentzia Hegoalde eta Iparraldekoen artean euskaraz mintzatzeko garaian?

E6: Bai bai bai argiki, bai bai, horiek horien artean gu baino askoz naturalago erabiltzen dute euskara eta bai, argiki. Eta gainera, guretzat pixkat indar bat egitea den hori, horientzat da maila berean, fe erderaren maila berean edo aitzin, inpresioa hori dut. Gainera, ofiziala dela, laguntzen du ene ustez.

ARANTZA: Beraz, hau erranda, nun erranen zenuke erabiltzen duzula euskara zure egunerokoan, zein eremu identifikatzen dituzu?

E6: Beraz, kirola, amarekin etxean ainitz eta gero bai lagunekin ikusten girenean, baina ez ainitz gehio. Adibidez, joatean erosketak egitera, komertzioetan edo horrelako gauzetan ez dut batere aukera ikusten, eta batzutan euskaraz hasi eta dena, bortxatuak gira frantsesez erantzutera, ez da bate aukerarik hortan.

ARANTZA: Ados, eta adibidez, uste duzu badirela leku batzuk, eremu batzuk bultzatzen zaiztuztela euskaraz egitera? Bada momentu batzuetan erraten duzula, hemen euskaraz egiten ahal dut?

E6: Eh, lehen musika egiten nuen tokian, egiten nuen txistua eta han beti euskaraz ari ginen ere, han zinez arnagunea bezala zen eta gero ez dakit, Uda Leku, Negu Leku, Euskal Abetura eta horrelako elkarteetan, lizeotik kanpo egiten diren gauzetan, hor ere kriston arnaguneak.

ARANTZA: Agian hori euskararekin lotuak diren eremuetan ez?

E6: Hori, bai bai bai.

ARANTZA: Beraz hori, erran duzu euskaraz mintzo zarela, eta suposatzen dut euskaraz ez zarenean mintzo, frantsera pasten zarela, beste lekuetan, ezin bada euskaraz egin, normala den bezala.

E6: Bai hori da.

ARANTZA: Eh, nun erabiltzen duzu frantsesa? Eta zein izaten dira zure arrazoi nagusiak?

E6: Beraz frantsesa erabiltzeko arrazoi nagusia da, zinez nik erabiliko dut besteak ez badu erabiltzen, eta batzutan lagunekin ere, pentsatu gabe sobera frantsesez aritzen ahal niz, batzutan. Baina ez dut sekulan frantsesez segituko besteak baldin badaki euskara.

ARANTZA: Eta adibidez frantsesez ez dakiten pertsona horiek, badakizu orokorrean nun identifikatzen dituzun?

E6: Ene ustez bai sinpleki, egunon erratean, eta frantsesez edo horrelako gauzak erantzuten badizkizute, segitzen ahal duzu pixkat, baina ikusten baduzu ez dutela bate lortzen eta batzutan uff ez zira ezta entseatzen, iten duzu frantsesez, kasik segur zira ez dakiela euskaraz, ez litzateke horrela izan behar, baina gehienetan gertatzen da.

ARANTZA: Eta uste duzu ikastolakoan artean edo ikastola inguruan ibili diren pertsonen artean badela segurtasun euskaraz mintzatzeko?

E6: Bai bai, eta gainera, badakizunean zien pertsonekin, zein pertsona diren gero ere pixkat hurbiltasun bat bezala sortzen du, pertsona batekin ez duzuna sobera ezagutzen baina

badakizu euskaldunak direla eta dena, atxematzen dut sortzen ahal duela hurbiltasun gauza bat pixkat horrela, eta beraz hastea horiekin mintzatzen, ez dakit.

ARANTZA: Honen inguruan, azken galdera gero pasako gara azken zatira. Hasieran, lehen esan duzu ofizialtasunaren gaia aipatu duzu, uste duzu Ipar Euskal Herrian ikastolatik kanpo zaudenean, euskara ofiziala ez izateak eragina sortzen duela?

E6: Bai ene ustez argiki, zenta justu komertzioetan adibidez, ez izatea dibidez eh, bi hizkuntzetan produktuak prosatuak edo horrela, horrelako gauzak sinpleak eta dena, ez dute bate motibatzen jendea euskaraz aritzea, ez du deus laguntzen. Ez baduzu jendea sustatzen edo arrazoi bat ematen badakizu, ikasteko horientzat berdin zaie, aski dute haien hizkuntzarekin eta ez dute ikusten zein interes duen beste baten ikastea edo zeta ofizialtasunak hori ekarriko luke ene ustez, pixkat helburu bat bezala ematea euskara eta beraz jendeak ikasi nahi izatea eta gauzen bizi bat eraikitzeke hizkuntza horrekin, hori gabe pixkat abstraktoa da hizkuntza hori ikastea.

ARANTZA: Hor Seaskako azken urteetan zaude, eta suposatzen dut hasi zirela pentsatzen unibertsitatean edo etorkizuneko ikasketetan, ez dakit deia badakizun zer ikasi nahi duzun, eta ze hizkuntzan, eta horrekin ere zergatia eta zure arrazoiak.

E6: Ba ni aurten bo, pixkat galdua niz, eh termnialean diren ikasle gehien batzuk bezala erranen nuke, eta nahi nuke ene desioetan izango liteke fisioterapia ikastea Hegoaldean, euskaraz, eta baina horrentzat biziki biziki biziki zaila da eta nota biziko ona atera behar da, beraz, hori atxikitzen du topea bezala. Eta bestenaz, hori ez banu egiten ahal, ba Bordalen entseatuko nintzateke egitea fisio berdin, medikuntza urte horrekin eta hori ez balitz posible ere eta santza ukanen banu, Belgikari postulatu, Belgikan zozketan konkurtsoan.

ARANTZA: Beraz, ikusten duzu Hegoaldera pasteko badirela zailtasun batzuk?

E6: Hori, selektibitatearekin eta dena zaila ikusten dut, baina beharba, nork daki.

ARANTZA: Imaginatu Frantzian egiten dituzula zure ikasketak, hau da, frantsesez, arrazoi ezberdinengatik. Nola ikusiko zenuke zure euskararen harremana, ze aurreikusten izango zenuke ikasketak frantsesez eginez?

E6: Ba ene ustez, ene maila ez litaik hobetuko, hori seur, baina harremana berdina egongo, ene uste, zenta ba hori ikustean berriz lagunak eta dena euskaraz berriz aritzeko aukera ukanen dudanez eta dena, ene ustez, plazer bat bezala hartuko dut, santza bat bezala, segur da ene euskara maila ez dela hobetuko baina euskaraz aritzeko gogoia espero dut egongo dela, eta segur naiz baietz.

ARANTZA: Zure lagunak erraten duzunean, ze lagunetaz ari zira?

E6: Hemen ikusten ditudan lagunez, Etxeparen ditudan lagunetaz, zeta Frantzian noski euskaldun bat edo bi gurutzatu arren ez naiz euskaraz mintzatuko eta kontziente naiz hortaz, baina asteburuetan Euskal Herrira jeutsiz, eta gero bakantzetan eta dena aukera ukanen dut segur.

ARANTZA: Zuk adibidez etxean euskaraz egiten duzu, badira batzuk etxean frantsesez egiten dutenak, frantsesa hutsean, uste duzu haien kasuan euskara galtzeko, edo euskara hein batean okertzeko gutxiago mintzatzeko aukerak badirela?

E6: Ez nuke errango dela arrazoi bat, baina horientzat bizki zailago da, askoz, Etxeparen badira hainbat, etxean ez baduzu hori, eta bakarrik eskolan, eta gero gurasoekin ez, zailago atxikitzea, maitatzen ahal duzu noski, baina atxikitzea badakizu, ez dakit, fluidoa izatea hizkuntzan eta horrela mintzatzeko ahalmena izatea ez dakit, etxe gabe, zailago.

ARANTZA: Beraz, erranen zenuke ikastola eta etxea garrantzitsuak direla euskaraz mintzatzeko?

E6: Bai bai..gutziz.

ARANTZA: Bikain, mila esker, ba ene partetik hau da guztia, zerbait gehitu nahi baduzu...

E6: Itzulia egin duzu.

E7	Gizonezkoa	15 urte	Nafarroa Beherea	Iholdi	Lehen hizkuntza: Euskara
-----------	------------	---------	------------------	--------	--------------------------

ARANTZA: Beraz lehenik eta behin milesker elkarrizketan parte hartzeagatik. Zure elkarrizketak anitz lagunduko nau lanerako, beraz eskatuko dizudan lehen gauza izanen da hori, zure burua aurkeztea, nor ziren, ze herrikoa ziren eta ikastolan ze ibilbide egin duzun.

E7: Ni beraz E7 deitzen naiz, baditut 16 urte, istante 17. Eta Iholdin bizi niz, Baxe Nafarroan. Lehenik Ortzaizeko ikastolan izan niz, gero Larzabaleko MEEK kolegioan, Manex Erdozaintzi Etxart, eta hor Etxepareko lizeoan Baionan. Beraz beti Seaskan izan niz, tipidanik.

ARANTZA: Ados, Seaskan izan zira gurasoen hautuz?

E7: Bai gurasoek naute ezarri, azken haurra niz, bi anai arreba zaharrago eta bai. Beti nahi izan dute Seaskan izatea haien haurrak eta, beraz bai.

ARANTZA: Eta badakizu zendako? Zein izan den arrazoin nagusia Seaskan izatearena?

E7: Nahi zuten, horiek beharba bizi ez zuten santza guk ukaitea eta horiek euskara ez dute ikasi eskolan eta haientzat zaila izan zen, euskaraz mintzatzea eta dena zaila zen eta kritikatu zen anitz eta guretzat uste dut nahi zutela hori, nahi zutela hori guk untsa bizitzea, euskaraz ikastea ttipidanik, beraz bai. Uste dut biak horrentzat ados zirela.

ARANTZA: Eta gurasoek badakizu nun ikasi zuten euskara?

E7: Familietan ikasi zuten, familietan. Bai, eskoletan ez zuten euskara ikasten, adibidez ene amak familian eta ene aitak ere bai.

ARANTZA: Beraz, zure ama hizkuntza zein da?

E7: Euskara.

ARANTZA: Euskara, eta erran duzu badituzula anai arreba batzuk, haiekin, bai gurasoekin eta anai arrebekin zein hizkuntza mintzo zira?

E7: Beti euskaraz, gertatzen dira gauza batzuk, beste batzuk, baina gehienetan beti euskaraz, bai bai.

ARANTZA: Hizkuntza nagusia euskara.

E7: Bai bai etxean beti izan da.

ARANTZA: Eh, ez dakit, bo suposatzen dut baietz, Etxeparetik kanpo aktibitate batzuk egin dituzun, kirolenbat...

E7: Bai, eskubaloina egiten dut Irisarrin.

ARANTZA: Ados. Egin dituzun aktibitate ezberdinak bizitzan zehar?

E7: Bai, eskubaloina egin aitzin pilota egiten nuen, ene herri inguruko klubean eta egin dut ere bertsolaritza ikastolan eta kolegioan laugarrena arte uste dut. Eta gero gelditu dut.

ARANTZA: Ados, beraz erran duzu pilota, bertso eta eskubaloina, erraten ahal badidazu bakoitzean zein hizkuntza mintzo zinen.

E7: Bon bertsolaritzan euskaraz, argi da. Pilotan ari nintzen, fe ene adinekoekin frantsesez gehiago, ez zen ainitz euskaldun, edo guti ikusi ditut. Trebalariak hala ere banituen zahar batzuk hastapenean eta euskara bazekiten hala ere, zaharrek gure inguruetan ainitz euskara badakite, mais ukan ditut denetarik, ukan ditut frantsesak ere eta hor eskubaloinean talde batean gira beste kluba batekin Atharratzekoak, Xiberokoak eta beraz, hala ere bada euskaldun giro on bat gure artean, eta euskara, ez dute denek mintzatzen ama hizkuntza gisa,

baina anitzek ulertzen eta hala ere pixkat mintzatzen ahal dute. Eta ene trebatzaileek euskara badakite, beraz goxo da hori ere eguneroko bizian kirolean ere euskaraz aritzea.

ARANTZA: Trebatzaileak erran duzu helduagoak direla, badakizu euskara, ea ikastolatik pastuak diren edo etxean ikasi duten?

E7: Ez dut uste ikastolatik pasa direla, baina euskara ikasi dute etxean ene ustez. Ez dakit batere baina Xiberoan hala ere anitzek badakite horrela euskara, Xiberoan bada zinez xiberutarra, mintzatua da ainitz.

ARANTZA: Erran duzu eskubaloinean Atharratzekoekin elkartzen ziztela, hor gehiengoak edo euskara ulertzen dutela, horiek ere zendako, etxeak euskaraz egiteko dutelako edo?

E7: Bai. Xiberoan bada zinez, ene ustez Iparraldean Lapurdin eta Baxe Nafarroan ez den zerbait, hala ere familia guztietan euskara ez da bortxaz mintzatzen baina denek ulertzen dute eta zinez euskarak badu presentzia gehiago Xiberoan atxematen dut nik, denek ulertzen dute eta denek entzuten dute horien herrian eta. Eta xiberutarra pixkat nortasunaren barne baita, gehiago lapurtarrentzat edo baxe nafartarrentzat baino, xibererak zinez karakterizatzen baititu ene ustez, gehiago mintzatzen dute eta garrantzia gehiago ematen dute horri.

ARANTZA: Eta horiek ez dira beharbada bortxaz denak ikastolan ez?

E7: Ez, baina adibidez baditut ainitz ikastolatik pastu direnak, baina gero urrunegi baitzen kolegioa joan direnak, baina euskara ikasi dutenak hala ere.

ARANTZA: Ados, beraz azpimarratuko zenuke xiberuan beharba euskaldun ainitz badirela etxean ikasten dutelako...

E7: Ez bortxaz euskaldunak, baina euskara entzuten dutenak.

ARANTZA: Fe gertutasun bat baudute ez?

E7: Bai.

ARANTZA: Eta erran didazu beste eskubaloikoekin frantsesez, hor badakizu zendako frantsesez ari ziren?

E7: Ez dira ikastolat joan eta beraz bortxaz ez dakite euskara. Mais gero horiekin mintzo zirelarik orain ikusten duzu gauzak aldatzen direla zeta erraiten dizute “nik beharba ikastolat joateko emeia ukanen nuen” zeta hor ikusten dugu euskaraz mintzatzea untsa dela, gauz batzuk irekitzen daukizula eta dena. Eta hor ikusten duzu aldatzen dela hala ere, jendeak nahi zuen ikastolara joan baina horien burasoek ez zuten nahi edo horrela, ze ez zen biziki untsa ikusia hastapenean ikastola, kritikatu zen aski, baina ikusten duzu hala ere jendeak

nahi, orain ikusten duela euskara jakitea ere santza bat dela eta beraz jelos dira pixkat gutaz, bai horiekin frantsesez ari gira baina berdin ulertzen dute euskara anitzek.

ARANTZA: Beharba ikusten duzu interes gehiago jende...

E7: Nik uste interesa handitzen dela hala ere euskararengan.

ARANTZA: Eta orduan, aktibitateez gain badituzu lagun batzuk Etxeparetik kanpo?

E7: Bai bai bai.

ARANTZA: Horiekin ze hizkuntza nagusitzen da?

E7: Ah frantsesa hala ere erranen nuke. Eskubaloinetik eta Etxeparetik kanpo bai baditut beste lagun batzuk, batzuk euskaldunak dira eta mintzaten ahal naiz euskaraz horiekin, zenta egiten dute ez dakit frantses lizeo batean bilingüe, bi hizkuntzetan, beraz frantsesez, baina hala ere frantsesa da nagusitzen haiekin.

ARANTZA: Geroz eta ikasle gehiago badira frantses lizeoan elebiduna hartzen dutena, uste duzu haiekin euskaraz mintzatzea posible dela?

E7: Bai posible da, baina ez dugu bortxaz lehen urratsa egiten euskaraz. Nik badut lagun biziki on bat ene herrikoa, eta ez dakit berekin mintzaten naizelarik, kasik ahazten dut badakiela euskara eta dena, eta ikasten duela ttipititik, bi hizkuntzetan dela, kasik ahazten dut, indarra egiten dut baina zaila da hori buruan sartzea.

ARANTZA: Ados. Eta orduan Etxepare alde batera utziz, nik galdetzen badizut, Ipar Euskal Herrian ikastolatik kanpo euskara nun erabiltzen duzun? Ze harreman? Ze leku erranen zenituzke?

E7: Denda ttipietan hala ere jendeak orain indarra egiten du ere, lehen hitzak eta dena eta hori untsa da, eta hor erabiltzen dut. Eta bestetan anitz erabiltzen dute gazteek, gazteek geroz eta gehiago erabiltzen diela ikusten dut eta harreman bereziak sortzen ditu, harreman trinkoagoak. Eta gero euskara ez dut sobera erabiltzen...jende batzuek euskara dakitelarik bai, bistan dena, baina...ekimenak antolatuak direnak, Herri Urrats, Euskaraldia eta horiek untsa dira euskara bultzatzeko.

ARANTZA: Adibidez erran duzu Herri Urrats, joaten zarenean Herri Urratsera, erraten diozu zure buruari, "hemen euskaraz mintzaten ahal naiz?"

E7: Bai bai.

ARANTZA: Zerrek bultzatzen, fe erran duzu Herri Urrats, besta batzuk, bestak, zeintzuk erraten dituzu?

E7: Korrika, euskaraldia...Herri Urrats, horrelako gauzetan gu euskaraz ari gira zenta bo horrela mintzatzen gira. Baina besteak, frantsimentak eta hala ere horiek dute egiten indarra momentu horietan euskaraz aritzeko, hori da ederra hala ere, horiek dute iten indarra horrelakoetan euskaraz aritzeko pixkat.

ARANTZA: Eta badakizu zendako? Zerrek ematen dizu segurtasun hori adibidez horrelako lekuetan “be bai, hemen euskaraz mintzatuko naute”.

E7: Denak inguruan euskaraz ari baitira, badakizu Seaskaren besta dela, euskal giroa dela momentu hortan, beraz ene ustez horrek du ematen ere euskaraz mintzatzeko emeia ere, beraz, bai ene ustez horrentzat da.

ARANTZA: Orduan erranen zenuke, behar bada euskal kulturarekin lotuak diren ekimenetan euskaraz mintzo zirela eta gero bestela...erran duzu komertzio txikiak adibidez, hori Ipar Euskal Herri guztian edo herri zehatz batzuetan?

E7: Bo Ipar Euskal Herri guztian ez dakit, baina pixkat denetan, abian nizelarik “egun on, milesker, aio” eta entzuten dira geroz eta gehiago hala ere. Horiek entzuten dira, nik nire herrikoetan, bo gero ene herrikoetan badakite euskara, gure, erran dudan bezala, gure herri inguruetan denda ttipiak anitz zaharrek dituzte, zaharrek eta kasik instate geldituko dutena, baina zaharrek anitz euskara dakite gure inguruetan. Baxe Nafarroan zahar anitz euskaldunak dira zinez.

ARANTZA: Eta orduan, suposatzen dut euskaraz mintzatzen ez zarenean frantsesez mintzo zarela, gune edo harreman horietan zerk bultzatzen zaitu euskaratik frantsesera pasatzea? Zein da arrazoia zuk konbertsazio bat frantsesez egitearena?

E7: Besteak erranen duena eta fu, bestearen lehen hitzak anitz, erraiten duen lehen hitza frantsesez edo euskaraz baldin bada, anitz erabakiko du zein hizkuntzetan ariko nintzen, ene ustez frantsesez erraten bada lehen hitza ene ustez erreskiago ariko naiz frantsesez euskaraz baino. Euskaraz baldin bada kontrarioa da, eta gero badakitelarik euskaraz ez dakiela edo segidan hasiko naiz frantsesez ta dena.

ARANTZA: Batzutan badakizu leku batzuetan euskaraz ez dakitela?

E7: Bai bai, hori bai, ikusten da. Ikusten da eta badakizu ere mintzatzen zira batzuekin, ikusten duzu eta oroitzen zira, leku batzutan ez da batere euskaraz mintzatzen.

ARANTZA: Eta adibidez entseatzen zirenean lehen hitza euskaraz ematen, askotan erantzuna ze hizkuntza ukaten duzu?

E7: Ba denetarik, batzuek erantzunen dute frantsesez, batzuek euskaraz. Eta euskara ez dakitenek ere euskaraz erranen dute hitza hori zeta ezagutzen dituzte hala ere horrelako hitz

ttipiak ta dena baina gero berdin ez dute segituko euskaraz elkarrizketa, baina lehen hitzak eta badakizkitez.

ARANTZA: Eta uste duzu, ez dakit, eremu guztietan ukaten duzula lasaitasun hori, autobusera joan, Xinara joan eta L'Eclercera joan, uste duzu erantzuna ezberdina izanen dela? Hau da, parekoa ezberdina denean, jarrera edo erantzuna uste duzu?

E7: Bai bai guneak anitz aldatzen du ere, L'Eclerlean ez duzu sentitzen badela euskal giro berezi bat eta dena eta ez duzu, ikusten duzu, horiek dute lehen hitza beti erraten frantsesez, "bonjour", eta ez dautzute uzten, ez dute uzten lekua euskarari beharba. Mais hori da gauza handi guztietan, transnizionalak eta horrelako gauzak. Abian zira, Xina da ostatu ttipi bat, hor, gune ttipietan indar gehiago eginen dute beharba, atzematen dut euskaraz mintzatzeko eta horrela.

ARANTZA: Eta adibidez gune ttipi horietan, lehen aipatu duzu adineko jendea adibidez zure herri inguruan, beste lekuetan, sartzen zirenean leku batera, batzutan ikusten duzun gauzen arabera badakizu ea euskaraz egin edo ez? Ez dakit, sartzen zira ostatu batean, edo komertzio ttipi batean...

E7: Agian bai hala ere, sentitzen duzu fite hala ere euskaraz ariko denez.

ARANTZA: Ze erran duzu L'Eclerren adibidez, gauza handietan edo transnizionalaetan behar bada sentsazioa duzula gehiago frantsesez ari direla ez? Kontrarki, badituzu leku batzuk?

E7: Bai, sentitzen da hala ere, ikusten duzu, jendea, sartzen zirelarik entzuten duzu frantsesa edo euskara deia, edo denetarik. Eta ikusten duzu ere pixkat jendea nola den, musean ari denez, edo horrelako gauzak. Eta horiek ere handitzen dute euskal giro bati, euskal giroa identifikatzeko eta dena. Beraz, ene ustez bai, ez dut sobera adibiderik hor baina...ene ustez sartzen zira gune batean eta aski fite jakiten ahal duzu euskaraz mintzatzeko ahalko zirenez edo frantsesez zuk deus erran gabe.

ARANTZA: Eta adibidez, euskal giro batean sartzen zirelarik, uste duzu horko jendea ezagutzen duzula edo?

E7: Ezagutzen, ez bortxaz, zenta ez ditut denak ezagutzen, baina jendea jinen da mintzatzeko eta ezagutzeko emeia emanen du gehiago.

ARANTZA: Edo ez dakit, uste duzu behar bada ezagutu ez, baina ikastola inguruan edo euskal kultura inguruan ibiltzen den jendea dela?

E7: Bai! Bai bai.

ARANTZA: Ados.

E7: Nik pentsatzen dut bai, euskaraz ari direnak hor sustengatzen dutela Seaska eta euskarari lotua dela, zenta borroka garrantzitsu bat da eta ene ustez bai, denek, euskaraz mintzo direnek, denek kontziente dira borroka behar dela segitu eta bai hori senditzen da eta ikusten da fite jendeak interesatzen dela euskarari eta euskararen egoerari.

ARANTZA: Ados. Aipatu duzu interesa behin baino gehiagotan, batzutan suposatzen dut batzuek ondo erantzuten dizutela nahiz eta euskara ez jakin. Uste duzu jarrera ezberdinak badirela? Parekoak euskara ez dakienean, uste duzu erantzun ezberdinak badirela?

E7: Bai bai bai. Badira erantzun ezberdinak, segidan ikusten da jendeak jarrera ezberdina ukanen duela izan euskalduna edo frantsesa, zinez jarrerak ezberdinak dira eta ikusten duzu segidan, horien mintzatzeko maneran, eta nola agurtuko zituten, zer erranen dautzuten segidan eta dena. Euskaldunek horien artean hala ere, euskarak hurbiltzen gaitu eta pixkat konplizitate bat sortzen da fite euskararekin beraz ikusten duzu bai jarreretan aldaketa handiak, nik atxematen dut.

ARANTZA: Euskaldunen artean hurbiltasuna, beste kasuetan, batzutan iritsi zira zerbait bitxia sentitzera erantzun batengatik edo? Batzuek adibidez aipatu dute Ipar Euskal Herrian euskaraz mintzatzean gazteleraz erantzun izan dietela.

E7: Be entzuten dugu batzutan guk eh! Mintzo zira eta “bai Euskal Herria, be ni futitzen niz, ni hemen Frantzian niz” eta dena eta alta badakite euskaraz lehen hitzak eta, baina nola ez dute gure ber sentazioa, gure ber pertzepzioa Euskal Herriataz eta euskarataz eta bai sentitzen duzu, batzutan bitsi egiten zauzu hori entzutea, erraitea “ez hemen Frantzian gira”. Bai teknikoki arrazoin dute, baina Euskal Herrian gira ere eta guk horrela sentitzen dugu gehiago, beraz bai bitsi egiten dauzkigu horrelako gauzak entzutea.

ARANTZA: Gainera erran duzuna, ofizialki bai Frantzian gira, baina gero hizkuntza badela horrela da, Frantzian edo ez.

E7: Hori ez dira kontziente, beharbada hizkuntza batek eremu bat sortzen duela. Hizkuntza batek sortzen du, euskarak du sortzen Euskal Herria, euskarak du batzen Euskal Herria eta dena, eta beraz eremu bat sortzen da hizkuntzari esker, eta beraz guk kontsideratzen dugu eremu hortan girela Frantzia bezanbait edo gehio.

ARANTZA: Eta uste duzu horrekiko batzutan kontzientzia falta dutela edo desinteresa?

E7: Bai, gero ez dut pentsatzen horien falta denik, guk horrela ikasi dugu ttipidanik, euskaraz bizitu gira, handitu gira, batzuek ez dute horrelako santza izan, edo hautu bat da eta dena. Beraz, ez da, normala da pixkat horrelako urruntasuna eta ez gure ber pentsatzeko moldea izatea, zenta ez dira berdin heziak izan.

ARANTZA: Zenta beharbada ere normalizatuena da ezta? Gu beharba Seaskatik pastu gira eta beharba...

E7: Bai guretzat normalizatua dena, haientzat normalizatua da baina desberdinki.

ARANTZA: Agian ikastolatik kanpo ere errealtate hori badaleko ez? Guk azkenean Seaskan ikasi dugu, gure hizkuntza izan da, baina badakigu Etxeparetik ateratzean bai edo bai frantsesa erabili beharko dugula. Orduan beharba, ez dakit, gu ere beste kontzientzia batetik heldu gira.

E7: Bai bai.

ARANTZA: Frantsesera pasten zirenean, hau da, frantsesez mintzo zirenean, uste duzu ez dakit, lehen erran duzu ezjakintasunagatik askotan pasten zirela, uste duzu euskaldunak, edo zuk bi hizkuntza jakiteagatik adaptazio bat egin behar izaten duzula? Zuk adibidez eskubaloinean frantsesez mintzo zira lehen taldearekin, haiekin hitz egiteko beraz hizkuntza aldatu behar duzu.

E7: Bai bai.

ARANTZA: Uste duzu guk azkenean adaptazio bat egiten dugula? Zure ama hizkuntza azkenean euskara izan da ez dakit, beharbada txikitan ere, izan dituzu nozbait zailtasunak frantsesera pasteko edo?

E7: Bai bai. Atxematen dut hala ere beti gure zentzuan izan dela adaptatzea, beti euskaldunei adaptatzea eta ez horier guri adaptatzea. Biak gure eremuan gira eta beti guri da indarra egitea adaptatzea eta nik frantsesa hasi dut ikasten, ez dakit ikastolan noiz hasten da? 6-7 hor inguru, beraz hastapenean ez duzu hain untsa mintzatzen, eta beraz beti guri da adaptatzea eta indarra egitea, eta hori domaia atxematen dut, besteek ere behar lukete egin gure indarra pixka bat zeta bo orain mintzatzen dugu eta behar da adaptatu eta fite egiten da, mintzatzen badakigu, baina bai lehenoz zailago zen.

ARANTZA: Behar bada normalizatu dugu ere, ez?

E7: Bai, usatu gira.

ARANTZA: Hor amaitzeko egingen dizkizu azken bi galderak. Zenbatgarrenean zira?

E7: Lehenean.

ARANTZA: Lehenean ados. Bo oino ez zira azken urtean baina ez dakit hasi ziren pentsatzen etorkizunaren inguruan, ba ikasketak eta horrela. Badakizu zer ikasi nahi duzun eta ze hizkuntzan?

E7: Be nik nahiko nuke egin ingenerientza eskola bat bastimenduan edo horrela, eraikinetan. Baina hori ikusi dutana nik Tolosan edo (toulouse), Frantzian, beraz frantsesez. Gero bisitatu

dugu hala ere EHU Donostian, eta biziki maitatu dut, eta bada nik egin nahi dutana, ingenieritza zibila, hori da egin nahi dutana. Eta biziki interesgarria atzeman dut, ederra eta zendako ez euskaraz segitzeko ikasketak, santza on bat izaten ahal da. Gero ikusiko dut eta...ezberdina baita sartzeko eskolan.

ARANTZA: Uste duzu, eman dezagun Frantzian edo Iparraldean bukatzen duzula frantsesez egiten, nola irudikatzen duzu zure etorkizuna euskararekiko? Jakinda Seaska utziko duzula, bukatuko dela, eman dezagun hezkuntza frantsesez egiten duzula, nun uste duzu erabiliko duzula euskara eta ze aldaketa izanen dira zure egunerokoan euskararekiko?

E7: Ene ustez goi mailako ikasketetan frantsesa askoz gehiago mintzatuko dut, be argi da hori. Eta euskara bo galduko dut, beharba batua ikasi dutana lizeoan. Baina bo hori ez da biziki grabe, zeta ene ustez beti hala ere sartuko nizelarik etxeat bakantzetan eta dena euskara berriz mintzatuko dut eta... ikusten dut ene anaiarekin goi maileko ikasketan da Léman hirian hor, goran Frantzian, eta berriz sartzen da eta plazer bat da beretzat berriz sartzea euskaldunak berriz ikustea, euskara berriz mintzatzea, lizeoko lagunekin, eta besta taldearekin euskaraz kantatzea eta dena. Beraz, euskara ikasia dut orai, ttipidanik ikasia dut beraz ez dut uste orain galtzen ahalko dudarik, segur da gutiago mintzatuko dutala eta kontziente naiz hortaz, segitzen baditut ikasketak Frantzian, baina ez dut uste galduko dudarik zeta zinez ikasia dut eta gero baditut ene kusi batzuk Xiberutarrak eta euskara ez dute ikasi ttipitatik, ez dira ikastolara joan baina berdin ulertzen dute pixkat mintzatzen eta dena, eta MontPellierren ikasten duen batek adibidez abian da euskal etxerat eta horrela eta momentu goxoak pasten ditu eta ikusiko egiten ahalko denez ere, han ikusten ahal dituzu euskaldunak eta giro euskaldun batera berriz sartzen ahal eta untsa izan behar da.

ARANTZA: Zure kasuan etxean baduzu euskara, baina suposatzen dut hemen Etxeparen ezagutzen dituzula batzuk etxean frantsesez mintzo direnak. Haien kasuan uste duzu ezberdina dela?

E7 :Ah horientzat erreskiago galduko dute, baina deia Etxeparen ikusten duzu. Ikusten duzu horiek gehiago ariko direla frantsesez eta dena baina bo, pixkat erreflexio ba bezala da haientzat, eta etxean horrela mintzatzen badira, gero zuk erran duzun bezala, behar da adaptatu berriz lizeora eta ez da segidan egiten, zenta hor ez da epe luze batean, da zinez egunero entzuten dute frantsesa etxean eta adaptatu behar, zailago da horrela ezin eta epe luze batean abian zirelarik eta baduzu beharba bi egun adaptatzeko, baina gero euskaraz aritzen ahalko dira, eta haientzat zailago da, ikusten duzu, horiek ene ustez fiteago galduko lukete euskara.

ARANTZA: Azken galdera egitearren, uste duzu, batzuk egoera zailago edo errezago ukanen dutela, baina norberaren jarrerak garrantzia duela? Zuk ikasketak frantsesez egiten dituzu baina uste duzu norberak euskararekiko hartzen duen jarrera garrantzitsua dela?

E7: Bai bai, lagunekin mintzatuz, deietan eta entsetau behar da hala ere atxikitzen euskara, deitzen duzunean familia, ene ustez bai, jarrera behar da indar bat egin ere ez galtzeko, jarrera

on bat ukan eta segitu euskalduna izaten gure barnean ez galtzeko, eta ez da utzi behar gure ingurumena guri berriz aldatzen zeta ingurumenak anitz eragiten du gu giren pertsonan eta nortasunean, beraz bai behar da jarrera zaindu eta kaxu eman ene euskarari eta nola erabiliko dugun geroan.

ARANTZA: Bikain, nik galdera guztiak egin dizkizut, zerbait ahantzi bazaizu edo horrela erran, bestela nigatik bukatutzat.

E7: Bo nik gehituko nuke beharba hor euskara nik sentitzen dudala geroz eta gehio, fe ez geroz eta gehio, baina euskara geroz eta gehio entzuten dugula, ez euskaldun gehio badela, baina gehio entzuten dela eta hori ene ustez da euskal kulturari esker, pilota eta mus txapelketak eta dena. Nik baditut lagun batzuk frantsesak, orain adibidez pilotan ikasten dituzten, pilotan erraiteko zonbat den eta dena ikasten dituzten hitzak, badazkite orain euskaraz eta hainbeste entzunik eta dena, eta erabiltzen dituzte. Eta mus txapelketan berdin, mus txapelketa geroz eta gehiago badira barnekaldean, zinez igande guztiz egiten ahal duzu eta hori untsa da ze jende euskalduna batzen du eta beraz pentsatzen dut euskal kultura behar dela segitu bermatzen euskara ez galdetzeko zeta ahalbidetzen du euskara zaintzea eta euskara zabaltzea.

ARANTZA: Beharbada euskal kulturara gerturaten zirenean, euskarara ere hurbiltzen zira? Beste ikasle anitzek euskal dantza, trikitixa horrelako aktibitateetan euskaraz egiten dute...

E7: Bai hori da, euskal dantzan eta hori guztiek batzen zitute zire hizkuntzari eta ez dira bortxaz, euskal dantzan ez dira bortxaz euskaldunak abian hori egitera, ikasten dute zenta nahi dute, nahi dute euskarara hurbildu, kultura hortatik hurbildu eta nik atxematen du hori biziki untsa dela, zeta ahalbidetzen du euskara ikastea.

ARANTZA: Ados, beraz kulturari garrantzia ematen diozu hizkuntara hurbiltzeko ez?

E7: Bai.

ARANTZA: Ba bikain mila esker.

E7: Plazerrekin.

E8	Emakumezkoa	17 urte	Nafarroa Beherea	Urepele	Lehen hizkuntza: Euskara
-----------	-------------	---------	------------------	---------	--------------------------

ARANTZA: Beraz lehenik eta behin mila esker, erran dizut nire unibertsitateko Gradu Amaierako Lana egiten ari naizela eta azkenean zuri elkarrizketa egiteak anitz laguntzen nau, beraz hori mila esker. Eta eskatuko dizudan lehen gauza da erratea nundik heldu ziren eta zure ikastolako ibilbidea zein izan den.

E8: Ados. Bon beraz ni bi lekutan bizi niz. Amarekin bizi niz Urepelen eta aitarekin Donapaulen. Beraz ttipidanik Baigorri izan niz ikastolan zenta lehen bizi ginen Urepelen aita eta amarekin eta gure ikastola hurbilena Baiogorri zen, ez zen hurbilago beraz Baigorri izan nintzen ikastolan eta gero aita joan zelarik Donapaulera beti egon niz Baigorri ikastolan eta alde batetik bestera mugitzen nintzen. Eta beraz Baigorri ikastolan, gero ondotik MEEKen nintzen kolegioan, Larzabalen, beti Seaskan eta uai Etxepare Lizeoan eta ala. Eta bai gero nik 17 urte ditut eta voila.

ARANTZA: Ados, zure hezkuntza guztia ikastolan egin duzu, zure gurasoen hautua izan zen?

E8: Bai. Ene aitamen hautua izan zen hastapenetik eta gero beti nik nahi izan dut Seaskan segitu enetzat garrantzitsua baitzen euskaraz segitzea.

ARANTZA: Eta badakizu zein izan zen gurasoen hautua? Zendako erabaki zuten zuri ikastolan ezartzea?

E8: Ene ustez haienetzat garrantzitsua zen nik euskaraz ikasi ahal izatea, eta beraz hortako eta nolaz ama hizkuntza zen ere, betidanik euskaraz mintzatu niz etxean, aitamekin eta horiek ere euskaldunak baitira. Be nahi izan dute ikastolatik pasa, fe ni ikastolatik pastea eta beraz hortan segitzea.

ARANTZA: Erran duzu gero, hasiera batean beharba zure gurasoen hautua izan zela, gero zuk ere erabaki duzula ikastolan segitzea. Arrazoi berdinarengatik zuk ere segitu nahi izan duzu ikastolan edo?

E8: Bai, be gero ez nin ez arrazoinik ez segitzeko ikastolan, beraz hortako, be alde batetik ene etxea bezala baitzen eta fe dena eraikia nin ikastolan, beraz nahi izan dut ikastolan segitu eta hala hortako enin beste arrazoinik ikastolan ez ikasteko.

ARANTZA: Bestenaz badira eskola ezberdinak, bada eskola publikoa bertan elebidun saila ere egiten ahal dela. Uste duzu ikastolarekiko ezberdina dela?

E8: Ah bai bai, arrunt. Ene ustez bai, ene ustez ikastolatik pasten ez denak ez du santza hori ezagutzeko ere zer den ikastola, zenta zinez bada giro, bada zinez, beharba pixka bat iten du sekta bat baina egiazki zinez ene ustez da giro bat eta garrantzitsua da horren atxikitzea ere eta euskalduna izanki ene ustez ikastolatik ez pasatzea zinez domaia atzematen dut.

ARANTZA: Behar bada ikastolaren helburua delako euskaraz ikastea eta hezkuntza euskalduna ematea, beraz horrek ere egiten du pixkat berezi, ezta?

E8: Bai hori da.

ARANTZA: Uste dut erran didazula zure ama hizkuntza euskara dela, hala ere...

E8: Bai hori da.

ARANTZA: Ados, anai arrebak badituzu?

E8: Bai badut ahizpa bat, be berak aldiz nahi izan du, bo lizeora pasatzean, bera ere beti ikastolatik pasa da baina hor arlo profesional behar izan du hartu ze ez zin maite orokorra, eta hemen Etxeparen proposatzen zituzten profesional sailak ez ziren beretzat egokiak eta argi du bere buruan zer nahi din egin eta horrentzat joan da beste lizeo batetara, eta han frantsesez dituzte kurtsoak, badute hala ere euskara, elebiduna da baina hala hortako eta berak nahi baitu egin, nahi baitu hurrekin aritu lanean eta haurtzeindegian eta horrentzat behar zen baxo profesional bat.

ARANTZA: Ados. Adibidez zure ahizpak suposatzen dut euskara maila edo mintzatzen dela, azkenean etxean jaso duelako. Erran duzu bere ikasketetan aukera duela euskaraz egiteko, badakizu ea euskaraz ari diren horiekin euskara klaseak hartu dituenekin euskaraz mintzatzen ahal den edo?

E8: Ebe bai, bo bera den lizeoa aski, ezta lizeo frantsesena bezalakoa, aski giro euskalduna bada hala ere, baditu deia bere kolegioko lagunak, eta beraz horiekin euskaraz ari da zenta ikastolan zen kolegioan eta ikastolako lagunekin euskaraz segitzen du beti, baina aldiz bon egia erran besteekin ez da naturalki euskaraz mintzo, baina iduriz, hala erraten daut, badirela batzutan momentu batzuk nun baduten euskara ere etxeko euskara eta horiekin hala ere euskaraz mintzo da, baina hala ere ez da ikastola bezainbat euskaraz mintzo hango lizeoan.

ARANTZA: Zuk badakizunaren arabera, beraz euskaraz mintzo da ikastolatik pastu direnekin edo euskara etxean dutenekin. Gero izanen dira salbuespen batzuk suposatzen dut.

E8: Bai hori da, badira batzuk ez dakitena batere euskara eta horiekin bortxaz frantsesez.

ARANTZA: Eta zu zure ahizparekin?

E8: Ah ni euskaraz. Beti euskaraz, zinez, beti euskaraz ez da posible frantsesez mintzatzea horiekin, da zinez usaia bat, ez da... beti euskaraz.

ARANTZA: Gero ez dakit ikastolatik kanpo egin dituzun aktibitate batzuk.

E8: Bai, egin izan ditut.

ARANTZA: Ados, aipatzen ahal badituzu, nahiz eta gaur egun ez egin, zure bizitzan zehar zein aktibitate egin dituzun eta pixkat azaltzea aktibitate bakoitzean zein hizkuntza mintzo zinen.

E8: Beraz nik egin izan dut, hastapenean egin izan dut pala, klub batean nintzen, Donapaulen nintzen eta hor frantsesak ziren denak, Donapaulen frantsesa biziki presenta da ez da, ikastola aparte erranen nuke ez da beste euskararen arnagunerik Donapaulen, edo kasik bate, gaztetxearekin ere bai baina bestenaz bate, eta beraz kirola beti frantsesa izanen da Donapaulen. Bo beraz palan beti frantsesez, kideekin eta erakaslearekin ere, ez zakiten euskara. Gero egin izan dut eskubaloia Donapaulen, hor frantsesa ere, bakarrik frantsesa. Eta gero joan nintzen Garazira eskubaloia itera, beraz aldatu nin taldez, eta hor aldiz badira hemengo ainitz, ene lagunak direnak, eta santza dugu zenta gure belaunaldian badira ez dakit nolaz, eskubaloian badira ainitz neska ari direnak, Baigorri Garazi aldean. Eta beraz hor, horiekin euskaraz baina gero bistan dena badira beste batzuk frantsesak direnak eta horiekin frantsesez, beraz pixkat bietarik bazen eta gero egiten dut dantza ttipidanik eta hor dantzan beti euskaraz, eta hor bai euskal dantza bakarrik herriko, herritarrak eta herritar euskaldunak eta horiekin beti euskaraz.

ARANTZA: Hor aipatu duzu adibidez eskubaloiean talde batean euskaraz ari ziztela, uste duzu ikastolakoak elkartzen ziztelako dela?

E8: Bai bai arras hori da, zeta beste bai, hor aritu nintzelarik Garazin eskubaloian baziren ene anitz lagun Garazi Baigorri alderdikoak eta horiek ikastolakoak izanki be horiekin beti euskaraz gero aldiz besteekin frantsesez.

ARANTZA: Ahalbidetu zaituena euskaraz mintzatzen izan da ikastolakoekin elkartzea.

E8: Bai hori da.

ARANTZA: Eta gero euskal dantzan euskaraz. Hori badakizu zendako edo ez dakit jende mota, baina bertan elkartzen ziztenak nola iristen zizte euskaraz egitera?

E8: Ebe, denak gira ikastolatik pasatiak deia, eta ene ustez be da justu ene ustez frantsesak ez dira ausartzen euskal dantzara hurbiltzea.

ARANTZA: Hor uste duzu adibidez, lehen aipatu dugu ikastola nola beste eskolekin ezberdintzen den, uste duzu ba adibidez euskal dantza, bo zure kasuan ez dut uste trikitixa...

E8: Ez, ez dut jotzen.

ARANTZA: Beste batzuen kasuan, hor anitzetan euskara erabiltzen da kasu gehienetan eta erranen nuke abantzu talde guztietan ikastolakoak direla gehiengoa. Uste duzu hori ere dela beharba ikastolatik pasatzegatik baduzun, nahi edo kultura bat agian euskal dantza hasteko edo trikia jotzeko?

E8: Ene ustez bai, ene ustez ikastolatik pastean garatzen duzu ere sentsibilitate bat zure kulturarekiko eta be nahi duzu edo ez denek baina anitzek nahi dute parte hartu eta izan herri,

euskal herriaren parte. Eta beraz kultura mailan ere inplikatu, eta beraz hortako ere dantzak hori ahalbidetzen du eta anitz dantzan ari gira.

ARANTZA: Hor suposatzen dut irakasle batzuk ukanen dituzula, helduagoak?

E8: Bo denetarik.

ARANTZA: Horiek adibidez ikastolatik pastuak dira edo?

E8: Bai.

ARANTZA: Suposatzen du talde askotan ere taldekideekin hizkuntza bat edo beste egiten ahal duzula, baina orokorrean erakaslearen arabera ere izaten da? Euskal dantzan euskaraz mintzo da?

E8: Bai, be guk hor gure taldean Arrolan, bo Baigorriin, gure erakasleak aski gazteak dira, badituzte 20-30 urteren artean eta horiek ikastolatik pastu dira, beraz horiek euskaraz. Gero baditugu beste erakasle batzuk zaharragoak, ez direnak bortxaz ikastolatik pasa, zaharragoak baitira eta horiek badute etxeko euskara eta beti etxean eta herrian euskaraz mintzatu dira eta horiek haurrak dituzte ikastolan ere bai eta beraz horiek ere euskaraz.

ARANTZA: Lotura bat dute ikastolarekin.

E8: Gero beharba ez da dantza talde guztietan horrela, baina Baigorriin, Arrolan horrela da.

ARANTZA: Bada lotura minimo bat behintzat euskararekin.

E8: Bai ene ustez gehiengoan hori erranen nuke.

ARANTZA: Ados. Aktibitateak aipatu dituzu, lagunak, lagunak edo harremanak. Suposatzen dut Etxepare barnean lagunak ukanen dituzula, Etxeparetik kanpo badituzu ez dakit, herrian, gurasoen lagunena badituzu beste harreman batzuk?

E8: Bai baditut beste harreman batzuk, nik erran bezala Urepelen bizi niz eta beti Baigorriin izan niz ikastolan, beraz pixkat hor egin dut ene sarea, ene lagunak, ikastolaren inguruan, dantzaren inguruan, zenta beti kasik denbora gehiago pasa dut Baigorriin ene bi etxeetan baino. Bainan hor joanden udan sartu niz ene herriko besta komitean, beraz Urepelen, eta arrunt beste zerbait da, zinez ez da, denak frantsesez mintzo dira, nahiz eta batzuk izan etxeko euskara, baina gehiengoak ez du hainbeste etxeko euskara eta horiekin frantsesez ari niz, eta ez da bate ber giroa. Bo gero nik pertsona horiek maite ditut diren pertsona baitira, hala ere biziki untsa moldatzen niz, ez dira bortxaz beti ber ikusteko manerak, ez dugu hainbeste aipatzen hori.

ARANTZA: Ez ez, eta batak ez du bestea kentzen, azkenean frantsesez mintzatu arren pertsona onak izaten ahal dira.

E8: Bai eta horiekin biziki untsa moldatzen niz eta harremanak lortzen ditut egiten nahiz eta ez hizkuntza berdina ukan edo pentsatzeko manera berdina. Eta badakit badituztala ene lagunak ttipatik dituztan lagunak, lagun hurbilenak, bo horiekin beti euskaraz, eta gero beste harreman batzuk eta horiekin frantsesez bortxaz, baina.

ARANTZA: Ttipitako lagunak, ikastolakoak erraten duzu?

E8: Bai.

ARANTZA: Badituzu alde batetik ikastolako lagunak eta gero beharba justu orain besta komitekoak edo eta horiekin orokorrean frantsesez.

E8: Bai.

ARANTZA: Haiekin frantsesez, zendako, zein da arrazoi nagusia haiekin frantsesez mintzatzeko?

E8: Be ene ustez izan da haustura bat zenta nahi baduzu bada Baigorri, Baigorri da pixkat, en fait badugu Urepele, Aldude, Banka eta Baigorri, lau herri ttipi dira eta Baigorri da pixkat herri handiena, eta Urepeletik Baigorri bada 20 minuta. Eta hori da pixkat balea deitzen dena, eta lehen ikastola hurbilena Urepeletik zen Baiogorrikoa eta beraz beti behar zen egin 20 minuta bide joan eta jin. Eta beraz ez du neorek bere haurra, edo kasik neorek, badira uste dut, bagira bi familia, ene familia eta beste baten familia ezarri dituztenak haurrak ikastolan Baigorriin, egin dutena hautu hori. Eta beste guztiek, herriko beste guztiek beren haurrak ezarri dituzte Urepelen, Alduden edo Bankako eskola publikoan eta han bortxaz frantsesez eta horrek ene ustez eragin du haustura bat izan dela eta hurrek ez dute euskaraz segitu, ez dute euskaraz ikasi, gero kolegiara joan dira publikora ere bai, lizeora berdin eta ene ustez hortako ere izan da haustura bat tranmisioan eta ez da transmititu euskara.

ARANTZA: Beharbada gurasoek hartu duten hautu ezberdinaren arabera ez?

E8: Hori da. Gero ere ulertzen da gurasoen hautua, konplikatia izaten ahal da itea bidea, da bakotxaren zer emaiten duen lehentasun eta ene ustez hor izan da haustura bat.

ARANTZA: Eta beharba zure etxean lehenetsi euskaraz ikastearena eta...

E8: Bai, ene etxean, ene gurasoek beti argi ukan dute horintzat zen garrantzitsua berdin zitzaien bidearen egitea, behar zen euskaraz ikasi.

ARANTZA: Eta uste duzu hori lotua dela nolabaiteko ideia jarrera edo?

E8: Ene ustez bai, ene ustez segur da enukela ber pentsatzeko manera ukanen egin baldin banitu ene haurtzaroko, ez banintz ikastolatik pasa.

ARANTZA: Kontzientzia bat eman dizula erranen zenuke?

E8: Ene ustez bai, zenta beharbada, nahiz eta ikastolan ez izan, izanen nintzen eskola publikoan eta etxean euskara, baina ene ustez hala ez da berdin, kontzientzia bat piztu da hala ere, deia badakizularik Seaska nola den, ene ustez, Seaskako anitz ere beharbada ez dute kontzientzia, hori ere...

ARANTZA: Bai noski, leku guztietan beti bada jende guztirakoa, baina zure kasuan erranen zenuke eman dizula lotura bat, edo kontzientzia bat ez, Seaskak?

E8: Bai.

ARANTZA: Ados! Eta hor adibidez, aipatu dituzu aktibitateak eta lagunak, Etxepare alde batera utzita, nun erranen zenuke erabiltzen duzula euskara, m ikastolatik kanpo? Ze harreman, leku identifikatzen dituzu?

E8: Beraz bo deia dantzan, gero lagun artean bestan, gero elkarteetan ere, adibidez Basaizean Baigorriin elkarteetan, beste komiteetan ere, zenta Baigorriin niz ere komiteetan, bi komitetan niz, beraz Baigorriko beste komiteetan. Baigorriin egia da gazteen artean euskara hori anitz atxiki dela, gero badira bi mundu Baigorriin erran behar da, badira euskaldunak eta euskaldunak ez direnak. Eta egia Baigorriin ez girela bate nahasten, bo ene ustez ere horri esker euskaraz mintzo gira gure artean bortxaz, erran behar da. Beraz hor, gero beste nola erran, beti badira leku euskaldunak, Baigorriin badakit okindegira beti sartuko nizala euskaraz, edo adibidez Donapaulen bada magasin (denda) bat jauntzi eta liburu eta diska magasin bat eta hor ere badakit euskaraz sartuko nizala, gero badira beste leku batzuk, adibidez Donapauleko l'Eclerca bezala edo Baionako l'Eclerca bezala hor frantsesez, behar bada erranen dut lehen hitza euskaraz baina beti frantsesez segituko dut zeta badakit parekoa frantsesa dela. Eta hala.

ARANTZA: Alde batetik erran duzu besta, ze besta erranen zenituzke, zeintzuk etortzen zaizkizu burura?

E8: Herriko bestak, eta gero Nafarroaren eguna, Herri Urrats, horrelako bestak, gero denpende, besta biziki orokorra da. Bestara abian baniz ene lagun euskaldunekin euskaraz inen dut besta, baina abian baldin baniz, d'aiellur ez naiz sekula horiekin abian, baina ene Urepeleko lagunekin bestara, hoiekin frantsesez eginen dut besta.

ARANTZA: Baina, joaten bazira Herriko besta batera edo Nafarroaren egunera, basoa eskatu nahi duzu, uste duzu hor zure buruari erranen diozula, "bai, hemen euskaraz gomendatzen ahal dut".

E8: Ah bai, hor bai aldiz, egia errateko ez zitzaidan sekula burutik pasa frantsesez baso baten manatzea. Enetzat denek badakite, ez dakit zendako, ah! Hor ohartzen niz ez zaut sekulan burura jin frantsesez baso bat manatzea.

ARANTZA: Ez dakit, aipatu duzu Herri Urrats, justu ere ikastolen besta da, Nafarroaren eguna ikastolarekin ez da lotura zehatzean baina euskal kulturaren inguruan...ez dakit, uste duzu leku horietan ikusten duzunean nolabaiteko euskal kultura edo, ematen dizu konfiantza bat, behintzat entseatzeko euskaraz egiten?

E8: Bai bai bai, horiekin beti euskaraz, beti manatuko dut euskaraz. Gero adibidez abian baniz ostatu batetara hor desberdin da deia, ez dakit, gero depende ostatu, depende zein ostatu den, adibidez Baionako Xinat agian baniz euskaraz erranen dut. Baina bai, dependi...

ARANTZA: Hor erraten duzu adibidez Xina, gero Baiogarriko okindegia eta Donapaualeko jantzien denda. Hor adibidez nola badakizu euskaraz egiten ahal duzula?

E8: Be ez dakit, ttipidanik abian niz horrat eta ene burasoekin ttipidanik eta usaiak dira eta gero ez dakit. Adibidez sartzen zira magasin batetarat eta ikusten duzu Fermin Muguruzaren disko bat, eta Su TA Garren beste bat, bo ez dakit, eni laguntzen nu.

ARANTZA: Noski! Beharbada sartzen zira, zuk aipatu duzu besta batzutara bazoaz eta badakizu euskaraz egiten ahal duzula. Eta gero beste leku batzutan berriak direnean , ikusten baduzu euskararekin lotura bat, zuri ere agian gertutasun bat ematen dizu, beharba ez dakite baina Ferminen argazki bat badute beharba entseatzeko zira, jakinen dute zer den euskara, ez?

E8: Bai, hori da! Eta bai, eta kasu larrienen edo au pir erranen dute ez dutela ulertu eta frantsesez erranen diet baina hala!

ARANTZA: Komentatu duzu orduan euskaraz mintzatzeko lekuak, gero leku batzutan entseatzeko zirela, ostatueta eta horrela, eta gero erran duzu adibidez l'Eclercen frantsesez mintzatzeko zirela. Hor kontrarki zendako edo nun erraiten diozu zure buruari, "bo hemen frantsesez inen dut".

E8: Be ene ustez da ere gure ingurumena edo sarea pixkat eta jendeak beti ber lekuan biltzen gira ber jendea eta beraz badakigu nor den nor, noren ahizpa den noren ahizpa eta ez dakit zer, azkenean gure sareko guztiak sareko guztiek eta kasik guztiek elkar ezagutzen dugu. Eta adibidez abian niz l'Eclercera eta ikusten ditut ezezagun batzuk, arrunt ezezagunak, be hor pentsatzen dut, ez dakit, frantsesez, ez dakit, edo entseatzeko niz euskaraz baina esperantza gutxirekin eta gero frantsesez erantzutzen da. Eta gero bizki handia da l'Eclerc, handiagoa da, ez dakit.

ARANTZA: Bai beharba...

E8: Lekua edo ez dakit...

ARANTZA: Erran duzu adibidez batzuen ahizpak eta, jendea ezagutzen duzula. Jende hori erranen zenuke ikastolaren barnekoa dela edo loturan direla?

E8: Bai, nik batzuk ikusten ditut horrela, badakit nor diren, ene ustez ttipidanik ere, adibidez ene aitarekin Amikuze aldean gainera hain gutti gira euskaldunak Amikuzen, be beti badakigu nor den nor, ez dakit, manifestan edo elkarretaratzeetan, Korrikan ere beti berdinak ikusten ditugu eta ikusten dutalarik ene aita mintzo dela euskaraz berarekin badakit euskalduna dela, beraz horrekin edo ene ama berdin.

ARANTZA: Beharba leku edo egun berezietan behin eta berriz ikusten dituzu pertsona horiek eta badakizu, pixkat okindegiarena, usaiatzen zirenean eta badakizunean parekoa nola mintzo den, hor ez duzu ezta pentsatzen ere, ez?

E8: Hori da bai!

ARANTZA: Eta adibidez entseaten bazira lehen hitza euskaraz ematen l'Eclerc batean, horrelako lekutan edo autobus batean, erantzuna orokorrean ze hizkuntzan?

E8: Ah, frantsesez!

ARANTZA: Eta nola, pentsatzen dut erantzun ezberdinak ukan dituzula zure bizitzan zehar, nola definituko zenuke, behar bada zu sartzen zira autobus batean "egun on", zer erantzun mota ezberdinak ukan dituzu? Baduzu anekdota haien jarrerei buruz?

E8: Hor ez dut gogoan deus, mais gero erantzunik ez sobera, baina gero beti entzuten ditugu gure, edo bai gure lagunek erraten daukate "gaizki so egin du horrengatik!" edo...Badugu adibide bat afrusa dena, per cent egunean, ni enintzen hor, baina Etxeparekoak sagardotegira sartu direlarik beste lizeokoak hasi dira kantatzen la marseillaise, probokatzen, mais gero horrelako gauzak, nik uai irringarriak atxematen ditut, zinez inportantzia bat ematen daukute...

ARANTZA: Bai, baina beharba bada oino, beharba euskaldunak izateagatik ezberdinak izatearena edo...eta gero adibidez gertatu izan zaizu Ipar Euskal Herrian euskaraz mintzatu eta beharba gazteleraz erantzun izatea?

E8: Ipar Euskal Herrian ez baina Hegoaldean ukan izana ditugu deia eztabaida batzuk batzuekin, eta gaizki bukatu direnak. Bai, Hegoaldean batzuk badira batzuk nahiz eta euskaraz mintzatu Iparraldekoak izanki egiten dute blockage bat eta horientzat frantsesak gira. Eta bo izan ditugu elkarriketa batzuk Hegoaldekoekin, batzuekin, gehienekin biziki untsa pasatzen da eta zinez iruditzen zauku familia berekoak girela azkenean. Baina bai badira kasu batzuk horrela, hartzen gituzten frantsesentzat, ez dakit.

ARANTZA: Bai, ez dira beharba ezta entseaten ez?

E8: Bai, edo ez dakit, beharba horientzat ofizialtasuna ez dugulako...frantsesak gira beharba, ez dakit. Nahiz eta horiek ere euskaldunak izan, hori da harrigarriena.

ARANTZA: Bai bai bai. Beharba gaur egun oraino presente dugu mugarena eta batzutan bakoitza bere eremuan da eta ematen du Iparraldekoak frantsesak direla baina haiek euskaldunak dira eta...

E8: Bai.

ARANTZA: Eta hor aipatu duzu ofizialtasunarena, badakigu Ipar Euskal Herrian ez dela ofiziala, uste duzu egoera aldatuko lukeela, edo?

E8: Ez dakit, dudak ditut, dudak ditut zenta azkenean ofizialtasuna da zerbait administratiboki edo plantan ezartzen dena, gero baditinak ondorioak eta egiazko bizian, baina ez dakit egiazkiz zerbait aldatuko lukeen, egia errateko hor esperantza pixkat galtzen hasten niz. Zenta azkenean baldin badugu ofizialtasuna baina ez da nehor euskaraz mintzatzen ez du deustako balio, beraz ez dakit, ez dakit zer behar dugun, ene ustez manera bakarra euskara atxikitzeke da gure sarearen atxikitzea bestenez ez ginuke, eta nahastea ere, garrantzitsua da nahastea, jendeekin, jende ezberdinekin eta hori guztia, baina beti gure sarea atxikiz ene ustez, manera bakarra da hizkuntzaren atxikitzeke ene ustez.

ARANTZA: Aipatzen duzu sarea, suposatzen dut sarean ez daudenak euskal komunitate horretan ez daudenak, uste duzu pertsona guzti horiek badutela ez dakit euskararekiko kontzientzia, baina jarerra bat? Edo sentitzen duzu desinteres bat? Edo orokorki frantses komunitatean euskararekiko, alde, aurka, desinteres?

E8: Frantzia mailan?

ARANTZA: Ipar Euskal Herrian. Ipar Euskal Herrian baina erranen dugu frantses komunitatea, adibidez aipatu ditugu zure besta komiteko lagunak, edo komertzioetan topatzen dituzun frantsesak. Suposatzen dut pertsona bakoitza ezberdina dela, bakoitzak bere pentsaera ukanen duela, baina zer uste duzu? Badakitela euskararen inguruan?

E8: Ez dakit batere, ene ustez ez dira gutaz trufatzen bortxaz, edo ez gituzte gutxiezten, ez denek, bada anitz ezjakintasuna, ez dira jakinean eta ez dakite hori dena, ez dira ohartzen zeta ez zaie neoz erakutsia izan, badela euskaldun komunitate bat eta hori guztia, ene ustez hortako ere bada, gero zinez iruditzen zait horrela dela Ipar Euskal Herrian, arrunt bi talde bezala dira, badira euskaldunak eta frantsesak, ez dira batere nahasten, edo nahasten diren batzuk badira ere, bainan adibidez beti pertsona, nik badakit pertsona Etxepareko pertsona bat besta gehienetan ikusiko dut ber pertsonekin, eta bortxaz euskalduna baldin bada, ber euskaldunekin ikusiko dut eta beharba beste batzutan beste frantses batekin baina, harremanak baititu ere, mais gehiengoan beti ber pertsonekin egonen da.

ARANTZA: Gainera, ez dakit, batzutan gertatzen da nahastea euskal eta frantes lagunak, baina hor uste duzu guri izaten dela adaptazio bat ematea? Hizkuntza aldaketa eta guzti hori.

E8: Arrunt! Hori segur, arrunt. Adibidez ni frantses batekin be egoten baldin baniz, bortxaz nik adaptatu beharko dut berari eta frantsesez mintzatu beharko dut. Zenta berak ez du jakinen euskara eta nik badakit frantsesa. Beraz komunikatzeko bortxaz beharko du adaptatu, eta ene hizkuntza aldatu, hori bortxaz.

ARANTZA: Eta hor amaitzeko azken bi galderak egiteko, erran didazu terminalean zirela

E8: Bai.

ARANTZA: Suposatzen dut hasi zirela etorkizunera begira, ahal baldin badidazu berriz aipatu, nahiz eta ideia finkorik ez ukan, ze ideia dituzun eta gero ere batez ere nun egin nahi dituzun, ze hizkuntzan egingo dituzun edo.

E8: Bai, beraz nik eman ditut beraz Ipar Euskal Herri eta Frantzia mailan bakarrik eman ditut ene ikasketa ideiak eta beraz eman ditut BTS batzuk, beraz bi urteko formakuntza gisako bat eta da natura eta ingurumenari buruzko BTS bat, zeta horrek beti ttipidanik badakit interesatzen nindila, gero ez dut sobera ideiarik, ttipidanik badakit nahi izan dudala izan mendiko akonpainatzaile, mais hori da pixkat udan egiten den lan bat, gero horren ondoan behar da beste lan bat. Eta egia errateko ez dakit batere zer nahi dutan egin, beraz eman ditut BTS hauek lehenik eta gero eman dut beste BTS bat argazkilaritzari buruzkoa, biziki maite baitut argazkilaritza eta gero eman dut beste lizentzia bat, euskal lizentzia bat, Baionan, euskal ikasketak.

ARANTZA: Ados, batez ere jarri zira Ipar Euskal Herriari begira, edo Frantziara begira, beharba zure ikasketak hemen dituzulako, ba eman dezakegun bukatzen duzula ikasketa horietako bat egiten frantsesez, beraz Etxepare alde batera uzten duzu, nola irudikatzen duzu zure etorkizuna euskararik loturik, erran nahi dut, nun uste duzu erabiliko duzula euskara? Zer aldaketa egonen diren zure egunerokoan euskararekiko, pixkat, ez dakit, batzutan aipatzen da euskara galtzeraen beldurra...

E8: Bo egia erraiteko ene etorkizuna ez dut batere irudikatzen baina fe lanaren inguruan, lana, ikasketak hori ez dakit sobera baina eman baldin baditut, hemen Baionan eman dut lizentzia, BTS argazkilaritza Biarritzen da, eta BTS ingurumenari eta naturari buruzkoak baditut bi ere Ipar Euskal Herrian. Egia erran horiek eman ditut zenta nahi nin Euskal Herrian gelditu eta nahiz eta horiek frantsesez izan kurtsuak nik arrunt ez dut ber munduan sartzen ene bizia eta ikasketak. Zinez iten dut ezberdintasun bat eta horiek eman baldin baditut da nahi dudalako ere Euskal Herrian segitu, nahi dut denbora ukan ere iten dituztan aktibitateetan oino gehiago inplikatzeko, adibidez Basaizean, edo Baigorriko besta komitean, eta horiekin badakit euskaraz segituko dutala, eta familia hurbil ukanen dut ere, familiarekin beti euskaraz, eta...

ARANTZA: Zure kasuan adibidez baduzu familiaren babesa edo familian euskara mintzo zizte, Etxeparen geroz eta ikasle gehio badira gurasoak frantsesez ari direla baina agian gurasoek nahi dute hurrek euskaraz ikastea beraz Etxeparera heldu dira. Kasu horietan uste duzu egoera ezberdina dela?

E8: Ene ustez bai zenta etxean ama hizkuntza frantsesa izanki eta ikasketak frantsesez izanez ene ustez irriskua litaik euskara pixkat galtzea, bortxaz gutxiago erabiltzea, eta bai, egoera ezberdina da hortan.

ARANTZA: Ados, eta azken galdera egiteko. Beharba ikusten duzu egoera zailagoa ukanen luketela, baina uste duzu norberak duen jarrera euskararekiko garrantzitsua dela?

E8: Ah bai, zeta ene ustez jarrera bat da, eta bai bada santzarena eta aukera, denek ez ditugu aukera berdinak, baina azkenean aukera horiek aldatzen ahal dira gure jarrera aldatzen baldin badugu, adibidez beharba etxean frantsesez mintzatuko niz ama hizkuntza frantsesa dutalako, baina adibidez burasoak hasten baldin badira pixkat ikasten euskara, hurrekin aritzeko ene ustez, eta hurrek ere iten baditu aktibitateak euskaraz eta gainera pasten baldin bada ikastolatik haurra be berak ere bultzatzen ahal du euskara etxean, eta ene ustez jarrera bai ere garrantzitsua da.

ARANTZA: Nik galdera guztiak egin dizkizut, ikusi baduzu zerbait gehitu behar duzula, ahortzi zaizula edo, baduzu aukera, besteneaz hemen uzten dugu.

E8: Bikain! mila esker.

E9	Emakumezkoa	17	Zuberoa	Ligi-Atherei	Euskara eta frantsesa
-----------	-------------	----	---------	--------------	-----------------------

ARANTZA: Lehenik eta behin mila esker elkarrizketa honetan parte hartzeagatik, unibertsitateko lana amaitzen ari naiz eta Etxepareko ikasleak behar nituen ene lana aitzinera eramateko, beraz hori, eskertzen dizut elkarrizketa honetan parte hartzeagatik. Eskatuko dizudan lehen gauza da pixkat zure burua aurkeztea, nungoa ziren, ze herritatik heldu ziren eta zure ikastolako ibilbidea zein izan den.

E9: Ebe ni Xiberoakoa niz, Ligi-Athereikoa, eta baditut 17 urte. Ttipitatik izan naiz ikastolan, kolegioa egin dut MEEKen eta gero Etxeparera pastu nintzen.

ARANTZA: Suposatzen dut txikitatik ikastolan egon zirela, ta zure guraosen hatua izan dela, badakizu zendako hautatu zuten zuri ikastolan ezartzea?

E9: Be zenta ene aitak euskara ttipidanik ikasi du, ene aitatxi eta amatxirekin, eta biek nahi zuten nik euskara jakitea ere, beraz ene ustez horrentzat eman naute ikastolan.

ARANTZA: Eta zein ama hizkuntza izan duzu?

E9: Euskara ene ama hizkuntza da, fe biak ikasi ditut etxean, frantsesa eta euskara, beraz hara. Ebe ene aitarekin beti euskaraz, eta ene amarekin, ene amak ulertzen du euskara, baina fe ttipidanik usatu gira frantsesez aritzera berarekin, beraz frantsesez ari gira eta ene ahizpekin euskaraz, batzutan lerratzen gira frantsesera, mais euskaraz.

ARANTZA: Hortaz gain, ikastolatik kanpo ez dakit kirolenbat edo aisialdirenbat egiten duzun, eta baiezkoa baldin bada ze hizkuntza erabiltzen duzue eta zendako?

E9: Eh nik bai euskubaloina iten dut, euskubaloinean frantsesez ari gira, zeta gure entrenatzaileek ez dakite euskara, beraz frantsesez, eta ene lagun batzuekin euskaraz, mais gehienik frantsesez. Eta euskal dantza iten dut ere, eta euskal dantzan dena euskaraz, eta trikia ere, eta trikian ere euskaraz.

ARANTZA: Eta adibidez, euskal dantzan eta trikian zendako egiten duzu euskataz?

E9: Gehienak, euskaraz ari naizenekin ikastolatik pastu dira, eta batzu horrela etxean ikasi dute, mais gehienak ikastolatik pastu dira.

ARANTZA: Eta gero kirolean suposatzen dut, ez direla ikastolakoak izanen.

E9: Ez guttio.

ARANTZA: Beraz, ikastolatik kanpo nun erranen zenuke erabiltzen duzula euskara? Ze inguruetan, nun identifikatzen duzu euskal ingurua?

E9: Eh be etxean deia, eta aitatxi eta amatxirekin, familia guziarekin, kasik. Eta gero bestetan, gero nun, be trikian eta dantzan, ta gero lagunen artean ere.

ARANTZA: Lagunak, nungoak?

E9: Gehienak ikastolakoak, zeta gero batzuekin ere mais fe biak frantsesa eta euskara.

ARANTZA: Erran duzu besta, besta erraten duzunean, ze bestetaz mintzo zira?

E9: Be herriko bestak gehienbat, Xiberoan edo beste toki batzuetan, mais badakitenekin usu euskaraz ari gira.

ARANTZA: Eta beraz frantsesa, beste lekuetan erabiltzen duzu, euskara erabiltzen ez duzun lekuetan, zein izaten da arazoia frantsesa erabiltzearena?

E9: Zeta batzutan edo ttipidanik usatu gira pertsona horiekin frantsesez aritzen, beraz segitzen dugu, edo be ez dakite euskara, behartuak gira frantsesez aritzera.

ARANTZA: Zure egunerokoan, komertzio batera baldin bazoaz, edo ostatu batera, edo denda batera, hor laginleekin topatzen zira, zure lagunak ez diren pertsonekin, hor lehen hitza zein hizkuntzan egiten duzu? Zerrek bultzatzen zaitu frantsesa edo euskara erbiltzera?

E9: Ene ustez Xiberuan gehienbat lehen hitza frantsesez egiten dut, zeta badakit zein dendetan edo zein ostatutan badakiten euskara ala ez, beraz, baldin badakit euskara badakitela euskaraz inen dut lehen hitza, bestenaz frantsesez gehienbat. Baina gero adibidez Baionan baldin baniz, lizeoan ateratzen bagira edo, hor gehienbat euskaraz.

ARANTZA: Erran duzu badakizula batzutan nork badakien euskara, ezagutzen dituzun pertsonak direlako?

E9: Bai fe Xiberoa aski ttipia da. Denak ezagutzen gira, badakit nork badakien eta nork ez dakien.

ARANTZA: Hor suposatzen dut Seaskako azken urteetan zirela, eta etorkizuna begira suposatu dut deia zure ikasketan inguruan pentsatu izan duzula edo erabaki batzuk hartu izan dituzula, badakizu zer ikasi nahi duzun eta zer hizkuntzan?

E9: Ez dakit bate, ez, kasik zer egin nahi dudan, du coup ez dakit batere euskaraz edo frantsesez ikasiko dudan, mais possible badut euskaraz segitzea euskaraz segituko dut. Mais ezin badut beharko dut frantsesez egin.

ARANTZA: Eta zuk uste duzu frantsesez ikasteko aukera hartu eta, askok erraten dute unibertsitatera joatean eta den frantsesez egitean euskara galtzeko beldurra dutela edo euskararen erabilera aldatzen dela. Nola uste duzu izanen zela zure euskararen pesentzia zure egunerokoan, behin ikastola alde batera utziz.

E9: Ene ustez hala ere etxean ainitz euskaraz ari niz, voila, kasik denekin, beraz, ene ustez ez dut galduko, mais beharba, xiberutarrez bakarrik ari niz ene etxean, beraz beharba hemen ikasi dudan euskara pixkat galduko dut, mais xibetutarra ez dut pentsatzen.

E10	Gizonezkoa	18 urte	Zuberoa	Gotaine	Lehen hizkuntza: Euskara
------------	------------	---------	---------	---------	--------------------------

ARANTZA: Beraz lehenik eta behin milesker elkarrizketan parte hartzeagatik. Zure elkarrizketak anitz lagunduko nau lanerako, beraz eskatuko dizudan lehen gauza izanen da hori, zure burua aurkeztea, nor ziren, ze herrikoa ziren eta ikastolan ze ibilbide egin duzun.

E10: Ados. Beraz ni Xiberukoa niz, Gotainekoa eta 18 urte ditut. Ttipitan ikastolan hasi nintzen gaur egun arte. Izan nintzen MEEKen, Larzabalen, eta hor ene azken urtea dut Etxeparen.

ARANTZA: Ados, eta beraz zein izan duzu etxeko ama hizkuntza?

E10: Ama hizkuntza euskara da, Xiberutarra niz beraz etxean xiberutarrez ari niz, ene bi gurasoekin eta ene arrebarekin be. Ene anaiarekin pixkat gehio frantsesez berak ikasi baitzuen euskara etxean eta bon ez zen ikastolan izan beraz gehio berarekin frantsesez mais gurasoekin gehio euskaraz, fe euskaraz. Ene aitak pixkat galdu zuen baina berriz berreskuratu du hor gurekin mintzatzeaz eta dena.

ARANTZA: Ados, beraz erranen zenuke beharba zure anaiarekin gehio frantsesez mintzo zirela ez delako ikastolan?

E10: Bai voila, bai hori.

ARANTZA: Ados bikain. Eta suposatzen dut ikastolan zure gurasoek ezarri zaituztela haien hautua izan zela, badakizu zendako?

E10: Be ene ustez haiek ikasi didate etxeko euskara, etxeko xiberutarra eta gero ene ustez nahi zuten ere nere euskara azkartzea eta baitzaikiten bazituztela lagunak, haien lagunak haurrak ikastolan, beraz...

ARANTZA: Ados, bikain. Ez dakit ikastolatik kanpo egiten duzun kirolenbat edo aisialdirenbat, eta baiezkoa baldin bada, ze hizkuntzan mintzo ziren eta zergatik.

E10: Beraz bai kirola iten dut, eta beraz ene trebatzailea euskaraz ari da beraz badakitenekin aldiz ez dakitenekin ez du euskara emaiten, eh eta ene kirol kideekin ari niz euskaraz, badakitenekin, aldiz ez dakitenekin.

ARANTZA: Ze kirol iten duzu?

E10: Eskubaloia.

ARANTZA: Ados.

E10: Ainitzek ulertzen dute baina ez dute emaiten, beraz ez dut bortxaz emaiten haiekin.

ARANTZA: Ados, zenta zure eskubaloian diren lagunak zer dira ikastolakoak edo beste?

E10: Badira bizpahiru ikastolakoak eta gero ikastolan izan direnak baina kolegioan utzi dutenak eta lizeoan frantsesez ari direnak.

ARANTZA: Ados bikain. Gero eskubaloiaz aparte pentsatzen dut badituzula beste lagun batzuk ez direla ikastolan ezagutu dituzunak, haiekin ere frantsesez mintzo zira edo batzuekin euskaraz? Adibidez ez dakit, gurasoen lagunene seme alabak edo...

E10: Bai frantsesez, eh bai ikastolan ez direnekin frantsesez, bestenaz besteekin ez, frantsesez beti.

ARANTZA: Bikain. Beraz, ikastolatik kanpo nun erranen zenuke euskara erabiltzen duzula?

E10: Entseatzen niz autobusetan lehen hitza emaita euskaraz, eta gero okindegian, saltegitan hola euskaraz ere, lehen hitza eta gero bo gaztetxean, fe Pitxu gaztetxean, xiberuko gaztetxean euskara emaiten dugu bistan dena eta bestenaz gero ez, ez dakit.

ARANTZA: Adibidez erran duzu lehen hitza euskaraz egiten duzula, orokorrean erantzuna nola izaten da?

E10: Xiberuan euskaraz, baina adibidez hiri handietan, Baionan bezala frantsesez.

ARANTZA: Bikain. Beraz erranen zenuke frantsesa erabiltzen duzun lekuetan arrazoia zein dela?

E10: Ene ustez pu, nik ez dut bortxaz indarra iten beharba, batzuk nahi dute ikasi eta ez dut aipatzen haiekin, beraz, ez dut indarra hau egiten haiekin aipatzeko eta beraz ene ustez haiek ere ez dute indarra iten ez baitute haiek ere aipatzen, beraz ez dugu jakiten ahal, beraz ene ustez da justu aipatu behar da eta elgarrekin...

ARANTZA: Hor azken bi galderak, hor lizeoan zira Etxepareko eta Seaskako azken hiru urteak dira, pentsatzen dut batzutan pentsatu duzula unibertsitatearen inguruan edo etorkizuneko ikasketen inguruan, ez dakit badakizun zer egin nahi duzun, edo ze hizkuntzan egin nahi duzun, zein dira pasa zaizkizun ideiak?

E10: Nik pentsatzen dut itea kine eskola Zaragozan edo erizain eskola Baionan edo Bordenen, beraz...

ARANTZA: Ados, oraindik ez duzu ideia zehatzik baina horiek dira orain arte dituzun ideiak. Eta uste duzu hartzen baduzu hautua frantsesez ikasteko, adibidez erizain eskolara joatea Bordenara edo horrela, nola ikusiko zenuke euskara, zuk segitzen baduzu hezkuntza bidea frantsesez, nun uste duzu erabiliko zenukela euskara zur egunerokoan?

E10: Ene ustez etxean azkartuko nuke ez galtzeko zeta guttiago pratikatuko nuke, gero ere lagunekin gehiago euskaraz mintzatuko niz.

ARANTZA: Entzuna da unibertsitatera pastean euskara galtzearen beldurra, ideia hori pastu zaizu burutik? Beharba ez galtzea, baina aldaketa bat izatea euskararen inguruan?

E10: Hori segur zeta askoz guttiago praktikatzea eta dena, galtzea azkartzen du eta gainera nik badut santza ene gurasoekin euskara praktikatzea beraz, ene aitatxi eta amaxirekin ere, familia osoarekin mintzatzen ahal dit euskaraz, ene lagunekin ere, beraz, ene ustez pixkat aldatuko da beharba baina ez ainitz.

ARANTZA: Ados, azken galdera iteko, hor esan duzu adibidez euskara beharba ez duzula galduko etxean euskaraz iten duzulako, uste duzu adibidez, imaginatu zure gurasoekin frantsesez egingo zenuela, euskararen egoera ezberdina izango litzateke zure ustez?

E10: Bai ene ustez ez baduzu hori mantentzen ene ustez fite galtzen da eta gutiago praktikatzeak ez du, fe zure euskara maila gutitzen du eta, beraz ene ustez biziki garrantzitsua horren mantentzea, guttienik gurasoekin eta lagunekin.

ARANTZA: Azken azkena, lagunak erraten dituzularik, ze lagun erraten dituzu?

E10: Bai ikastolakoak eta eskubaloinekoak.

ARANTZA: Ados, ba galdera guztiak egin dizkizut, beraz bikain.

E10: Bikain.

E11	Emakumezkoa	17 urte	Zuberoa	Sohuta	Lehen hizkuntza: Frantsesa
------------	-------------	---------	---------	--------	----------------------------

ARANTZA: Lehenik eta behin mila esker elkarrizketa honetan parte hartzeagatik, unibertsitateko lana amaitzen ari naiz eta Etxepareko ikasleak behar nituen ene lana aitzinera eramateko, beraz hori, eskertzen dizut elkarrizketa honetan parte hartzeagatik. Eskatuko dizudan lehen gauza da pixkat zure burua aurkeztea, nungoa ziren, ze herritatik heldu ziren eta zure ikastolako ibilbidea zein izan den.

E11: Ados, beraz ni Sohutakoa naiz, Xiberuan, Euskal Herrian. 17 urte ditut, eta E11 deitzen niz, beraz ikastolan hasi nintzen 3 urterekin, Sohutako ikastolan ene bosgarren urte arte, ene 10 urteak arte. Gero Manex Erdozaintzi Etxart kolegiara joan nintzen kolegioko lau urteak egitera, eta han amaitzean Bernat Etxepare lizeora etorri nintzen, eta hor duela hiru urte hemen nintzala eta ene baxoa pasako dut.

ARANTZA: Ados bikain, zure ibilbide guztia beraz ikastolaren barne egin duzu, suposatzen dut zure gurasoen Hautua izan zela, badakizu zendako ikastolan ezarri zintuzten?

E11: Ebe bai, ene aitamen hautua izan zen, egia erran ene aitamek ez dakite euskara, eta betidanik ene ama hala ere euskal munduan ibili da baina ez du inoiz euskara jakin. Eta pixkat gaizki bizi izan du euskara ez jakitea eta beraz, hori nahi zuen bere haurrentzat, hortako ikastolan izanik.

ARANTZA: Ipar Euskal Herrian badira beste eskola batzuk, eskola frantsesak, uste duzu horrelako eskola batera bidalita euskararen erabilera ezberdina izango zela?

E11: Ah bai, segur niz hortaz, arrunt ezberdina izanen zen. Egia erran baditut ene inguruan ni bezala, haien aitamak euskaraz ez dakitenak eta azkenean ageri da nahiz eta elebidunean izan edo beste eredu batean, ebe ez dakitela ni bezain untsa, ni bezain untsa erran nahi dut, ez dira batere gai gu bezala euskaraz hitz egiteko edo bizitzeko, beraz, segur niz. Gainera nire aitamek ez dakitenez euskara ez nuen batere ber maila lortuko.

ARANTZA: Azkenean Seaskak dena euskaraz eskeintzen du, orduan normala da zuk ere euskara maila hobea ukatea.

E11: Bai hori da.

ARANTZA: Beraz erran duzu etxean ez zirela euskaraz mintzo, orduan zein izan da zure ama hizkuntza eta gurasoekin? Eta ez dakit anai arrebak baldin badituzu, ze hizkuntzan mintzo zira?

E11: Ebe ene 0 urtetatik 3 urtetara etxean bakarrik frantsesez hitz egin dut, frantsesez hasi niz mintzatzen ene aitamek euskara ez dakitelako. Eta gero ikastolara sartzean hasi niz euskara ikasten, beraz ikastolan. Ikastola zen nire leku bakarra nun euskaraz hitz egiten nuen. Eta beraz aita eta amarekin oraindik frantsesez ari niz, baina ene anai arrebekin, badut ahizpa handi bat eta anai ttipi bat. Haiekin ttipitan frantsesez hitz egiten genuen etxeko hizkuntza hori zelako, baina gero kolegiara sartzean, ene ahizpa lizeora sartu zen eta egia da ohartu zela pixkat egoeraz, handitzean ohartzen baikira gehiago eta hautua egin ginuen euskaraz bakarrik aritzeko eta uai ene ahizparekin enuen ezta pentsatuko frantsesez hitz egitea, beraz bai uai bakarrik euskaraz ari niz, ene ahizpa eta anaiarekin.

ARANTZA: Zure anaia eta ahizpa ere ikastolatik pastu dira?

E11: Bai, biak. Eta biak lizeo arte.

ARANTZA: Orain arte pixkat mintzatu gira zure familiaz, ikastolaz, ez dakit ikastolatik kanpo aktibitatearen bat egiten duzun edo egin izan duzun lehenago, baiezkoa bada, zein izan diren eta beti ere ze hizkuntza nagusitu den erabileran.

E11: Bai, beraz nik eskuibaloina egin izan dut 7 urtez, eskubaloinean gehienbat frantsesez ari ginen, frantsesez aritu gira, ez zakiten euskara, eta taldekideekin ere frantsesez. Gero, trikitixa egin dut ere 10 urtez, eta hor aldiz euskaraz egiten ginuen, gure artean eta erakaslearekin ere, erakasleak euskara bazekielako eta ara, bestenaz beste deus.

ARANTZA: Trikitixan adibidez euskaraz egiten zenuen, zure beste taldekideak nungoak ziren? Ze eskoletatik heldu ziren?

E11: Beste taldekideak, beraz, baziren batzuk ikastolakoak, haien ibilbidea ikastolan egin dutenak, eta beste batzuk Xiberutarrak ziren ere, baina ez ziren baitezpada ikastolatik pasa baina neska horiek adibidez euskara etxean bazuten. Edo aita, edo amarekin edo biekin euskaraz egiten zuten etxean eta eskolan ere elebidun sailean ziren.

ARANTZA: Erranen zenuke Xiberuan beharbada badirela kasu batzuk ikasle batzuen eskola frantsesean izan arren, etxean euskaraz egiten dutenak?

E11: Bai badira kasu batzuk, ez dira batere arruntak, ez dira ainitz, badira batzuk seur, badira kasu batzuk baina ene ustez hori galtzeko puntuan da, ene ustez, ez dakit nola erran, Xiberuan adibidez gauza gehienak frantsesez egiten dira, ez da batere euskara nagusi eta eta ene ustez orain nahiz eta beharbada aitamek pixka bat euskaraz egin etxean, ez da hizkuntza hainbeste atxikiko, jakinez orian badirela sare sozialak eta gure ingurumen guztia frantsesez, ene ustez...

ARANTZA: Zailtzen duela beharba pixkat egoera?

E11: Bai arrunt.

ARANTZA: Eskubaloian adibidez izan zenituen ikastolako lagun batzuk zurekin jostatzen?

E11: Eh...ukan nuen bat, bat edo bi. Bo ez zen ainitz eh!

ARANTZA: Eta uste duzu horrelako lekuetan, aktibitateak egitean adibidez, zu baldin bazira ikastolako bakarra orokorrean frantsesa nagusitu egiten dela?

E11: Ah bai bai, bederen kasu horretan frantsesa arrunt nagusitzen, eta ez zen ere gauza bat zeini pentsatzen ginuen, fe nomala zen frantsesez hitz egitea eta inork ez zuen euskarari pentsatzen, ez zen batere

ARANTZA: Ez zuten lehenesten batere euskara ezta?

E11: Ez batere ez zuten, ez zen batere haien pentsamenduetan.

ARANTZA: Ados, eta hortaz gain, kirolen inguruan hitz egin dugu, suposatzen dut ikastolatik kanpo ere ukanen dituzula lagun batzuk, behar bada herrikoak edo erran bezala

eskubaloikoak, trikitixakoak, haiekin elkartzen zarenean ze hizkuntzan mintzo zara? Eta zerrek bultzatzen zaitu frantsesez edo euskaraz mintzatzera?

E11: Be eskubaloinekoekin edo trikikoeikin pixkat ezberdin da, trikikoeikin, adibidez kanpo ikusten girelarik, gero ez dut harreman anitz atxiki haiekin, baina uai ikusten girelarik da elkarrizketa arruntak edo, erranen nuke trikitixakoekin euskaraz ari girela, jakinez elkarrizketa arruntak direla eta enuke beste manera batez eginen jakinez ulertzen dutela eta...gai direla erantzuteko. Baina eskubaloinekoekin adibidez ezberdin da, zenta haiek ez zekiten euskara, edo ez zuten bate interesik alde horretatik, beraz, naturalago zen haiekin frantsesez egitea eta gaur egun ere ikusten ditudalarik segidan frantsesez ari gira.

ARANTZA: Ados, eta hau erranda, nun erranen zenuke ikastolatik kanpo euskara presente duzula? Zein eremuetan, harremanetan erabiltzen duzu euskara ikastolatik kanpo?

E11: Beraz, euskara erabiltzen dut ene anai arrebeekin beraz, ene lagunekin bakarrik euskaraz ai gira, barnetegian izanik gainera erraten ahal dut bost egun zazpiren beden euskaraz bizi nintzala arrunt, atsetan beti barnetegian, gainera hor ari gira gaztetxe bat sortzen Xiberuan beraz leku horrek ere denbora hartzen du, ekitaldiak eta azkenean leku horietan ere bakarrik euskaraz egiten dugu eta ara. Gero ene familiako kusiekin euskaraz ari gira, haiek ere ikastolatik pasa direlako eta ere erranen nuke astean zehar euskara dudala gehien bat erabiltzen.

ARANTZA: Erraten duzunean astean zehar adibidez barnetegian zirelako, erraten duzu zendako? Ikastolaren barne kokatzen zirelako astelehenik ostiralera?

E11: Ez, zenta azkenean nik barnetegia ikusten dut pixkat lizeotik kanpo zenta lizeotik ateratzean barnetegian niz, etxea urrun dut, azkenean ene asteko etxea da.

ARANTZA: Noski noski.

E11: Bai barne da, baina ez dut euskaraz hitz egiten lizeoan nizeelako, hitz egiten dut euskaraz lagunekin horrela hitz egiten dugulako ez zaigulako ere beste manera batean hitz egitea, beraz naturala zaut euskara, astean zehar euskara lagunekin, ene hizkuntza delako erranen nuke, ez da lizeoan naizelako.

ARANTZA: Egia da barnetegiko lagunak lizeoan ezagutu dituzula ezta?

E11: Bai.

ARANTZA: Zenta gero adibidez asteburutan etxera itzultzen zarelarik, baduzu sentsazio hori agian etxera itzultzean, ez dut bakarrik etxe fisikoa erraten, zure egunerokotasunean asteburuan, frantsesaren presentzia anitz sartzen zaizu adibidez euskararen pareko?

E11: Be bai zenta azkenean astean zehar ene lagunak lizeoan ditut, Garazi aldekoak dira eta horiek beti euskaraz ari ziren, beraz arribatu naiz lizeora, lagunak bilakatu dira, eta azkenean astean zehar haiekin euskaraz bizi niz eta bada kontraste handi bat erraten duzun bezala etxera sartzean zenta bizi naiz ene aitamekin asteburutan eta ene aitamekin frantsesez ari gira, ene aitatxi eta amatxirekin ere, gero nire aitatxi batekin euskaraz ari gira baina bai azkenean frantsesak gaina hartzen du asteburuetan, kontutan hartu gabe ene anai arrebak eta gaztetxeko lagunak, baina bai.

ARANTZA: Ados, orduan suposatzen dut hori euskaraz badituzu inguru batzuk, zuk aipatu dituzunak, baina noski, euskara erabiltzen ez duzunean frantsesera pasatu egiten zarela, zure gurasoen kasuan, normala den bezala, euskara ez badakite frantsesez hitz egingo diezu. Baina adibidez zure egunerokoan, beste lekuetan, zendako edo zerk arrazoik bultzatzen zaitu zuri frantsesez hitz egitera?

E11: Eh, bo ene ustez egunerokoan frantsesez hitz egiten dugularik da usu parekoak euskara ez dakiela edo sinpleki gure inguru guztia lizeotik kanpo azkenean Etxepare lizeoa da arnasgune bat Ipar Euskal herrian erranen nuke, da leku bat zinez nun badakigun jende guztiak euskara badakitela eta erraza da, nahiz eta denek ez hitz egin egunerokoan, argi da badakigu hala ere parekoari hitz egiten badiogu badakiela euskara eta ulertuko duela erraten dioguna. Aldiz lizeotik ateratzean egia da Ipar Euskal Herrian ez duela jende gehienak euskara hitz egiten eta ara, erranen nuke justu ezjakintasunak sortzen duela frantsesera pasatzea.

ARANTZA: Erranen zenuke adibidez, ikastolatik kanpo orokorrean erantzuna frantsesez jasotzen duzula? Adibidez ostatueta, komertzioetan, leku horietan euskaraz egin ezkeror lehen hitza orokorrean erantzuna ze hizkuntzan jasotzen duzu?

E11: Bai, adibidez, eh arrunt. Ene etxean edo Baionan orokorrean iruditzen zait nahiz eta indarra egin, ez da indar bat baina azkenean beti egiten dugu lehen hitza edo azken hitza euskaraz, mais inork ez digu erantzuten berdin. Autobusera sartzean beti egiten dugu, hartzen dugu kasik egunero autobusa eta beti “Egun on, Mila esker” eta inork ez digu erantzuten euskaraz, okindegian berdin, eta ostatueta, be erranen nuke hala ere ostatuak horren arabera ere hautatu digula, fe erran nahi dut, baditugu leku batzuk aski aproposak nun badakigun euskaraz hitz egiten ahal dugula, baina bai gehienetan erranen nuke frantsesez erantzuten digula jendeak.

ARANTZA: Lehen aipatu duzun gaztetxearen kasua, orain ostatuena, bada batzutan egoera hori ezta? Joatea leku batzuetara eta jakitea elkartuko zaren jendearekin edo parean ukanen duzuna euskalduna izanen dela?

E11: Bai bai hori da, azkenean ene ustez badakigu denek Etxeparen baditugu lekuak, badakigu ze lekutan ostatuok euskaraz erantzunen diguten edo beden indar hori eginen duten, nahiz eta ez untsa jakin eta hori atzematen dut goxoa dela ere, batzuetan guk euskaraz

lehen hitza egitea eta haiek indarra egitea guri erantzuteko, nik hori adibidez ainitz maite dut, jendeek indar ttipi hori egiten dutelarik.

ARANTZA: Eta uste duzu pertsona horiek agian ikastolarekin, ikastola inguruarekin lotura minimo bat badutela?

E11: Indar hori egiten duten jendeek?

ARANTZA: Ba adibidez gaztetxera zoazenean topatzen dituzun jendeak, edo Baionako ostatu zehatz horretara joaten zaren leku horietan topatzen dituzun jendeak ea uste duzun ikastolatik pasatuak diren edo ikastolarekin lotura ba ote duten.

E11: Bai, erranen nuke baietz hala ere. Zenta aski da nun jende horiek badakite Etxeparekoak girela, beti berdinak gira eta ageri da beti ez dute dudatzen, afitxak ezartzen, ikastolaren alde edo, ene ustez horiek ere haien haurrak edo ikastolan izaten ahal dituztela posible da eta ene ustez hala ere iruditzen zait jende gehienek, indar hori egiten duten jende gehienek badutela harreman hori ikastolarekin edo. Ez dakit, militante izpiritu hori atzematen dut hala ere usu, izpiritu hori baduen jendeak baduela lotura ikastolarekin, beden atxematen dut.

ARANTZA: Badakigun bezala, Ipar Euskal Herrian euskara ez da ofiziala, uste duzu horrek eragina duela?

E11: Ofiziala ez izateak?

ARANTZA: Bai, uste duzu ofiziala ez izateak ondorio batzuk sortzen dituela euskararen egoeran?

E11: Azkenean...bo nahiz eta ofiziala izan EAEn ere ageri da bon denek ez dakitela, ez da hori pentsatu behar ere, ageri da denek ez dakitela nahiz eta ofiziala izan, baina uste dut hala ere ofiziala izateak inportantzia ematen duela hizkuntzari eta azkenean berdintasun bat pixkat sortzen duela, normalizazio bat sortzen duela, bo ez dakit, ez dut untsa adierazten...

ARANTZA: Bai bai bikain ulertzen da.

E11: Hizkuntza horretan hitz egitea normal bilakarazten dut pixkat iduritzen zait. Eta azkenean hor iruditzen zait ere euskaraz mintzo girelarik autobusean edo batzuk geratzen dira « Uah, mais euskaraz mintzo zizte! » fe ez da bate naturala edo jendartean euskaraz hitz egitea. Eta bai, ene ustez, segur da ofiziala ez izateak oztopo batzuk sortzen dituela.

ARANTZA: Zuk erran duzuna, beharbada ofiziala izan arren euskararen egoera ez zen bikaina izanen baina batzutan bada sentsazio hori Ipar Euskal Herrian, euskaraz mintzatzean, kanpokoak girela ez? Gazteleraz erantzuten digute edo...

E11: Bai, hori da!

ARANTZA: Ukan duzu noizbait sentsazio hori? Kanpokoa izatearena, edo horrela sentiaraztearena?

E11: Bai, hori da, zenta zu zuretzat zure hizkuntza da eta zure herrian zira, zure hizkuntza baduzu eta ohartzen gira azkenean jende gehienak ez duela bate hori pentsatzen eta....

ARANTZA: Bikain. Hor azken partera pasako gira, azken bi galderak eginen dizkizut. Erran duzun bezala, Etxepareko azken urtean zira orduan suposatzen dut etorkizunera begira pentsatzen hasi izan zirela, ba bai ze ikasketak egin edo ze bide edo, azkenean Seaskak ia zure bizitzan azken aukera eman dizu eta orain aldatzeko unea iritsi da. Pentsatu duzu zer ikasi eta nun?

E11: Bai, beraz, nik argi dut adibidez Hegoaldera joan nahi dudala ikastera, han aukera gehiago ditudalako euskaraz ikasteko, argi da, hemen baditugu euskal ikasketak bakarrik euskaraz ikasteko. Eta beraz nik nahi nuke jakinez ttipidanik euskaraz ikasten dudala eta imertzioan naizela, be hori segitu nahi nuke, eta beraz baditut eskola batzuk pentsatu ditudanak, badira EHUKo ikasketak, nik nahi nuke ingenieritza egin, elektronika, mekanika eta elektronika, eta arlo horretan bederen ingenieritza ez da, ez dakit oraindik baina hasi niz joanden asteburuan egin nituen Arrasateko, Mondragon eskola bisitatzerara, eta han badira aukera ezberdinak, euskaraz ikasteko, EHUn ere, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaiako kanpusetan. Hegoaldean hala ere ageri da badela aukera anitza Iparraldeari konparatuz. Beraz hala, nik nahi nuke euskaraz segitu, hori argi dut hastapenetik, beraz hala, gero ez du erran nahi ez dudala parcoursup edo Frantzia ukatuko, ez dakit ze eskola eman ditudan, baina egia da ez dela erraza hala ere Iparraldekoa izanik Hegoaldera sartzea, ez da bate erreza eta hortaz ohartzen gira hala ere, beraz hortako atxiki dut hala ere, lehentasunez hegoaldera joango naiz.

ARANTZA: Ados, momentuz beraz baduzu ideia euskaraz ikasteko eta aukera baduzu horrela eginen duzu. Eman dezagun, kasu hipotetiko batean, Frantzian edo Iparraldean bukatzen duzula frantsesez ikasten, nola irudikatuko zenuke zure euskararekiko harremana kasu horretan? Jakinda Etxepare alde batera uzten duzula, orduan hezkuntza frantsesez izatera pasatuz, nola irudikatuko zenuke euskara zure egunerokoan?

E11: Mais bai, hori da, azkenean nik ukan dudana santza adibidez, eta beti erraten dut ene aitamei eta ene laguneri, nik etxean frantsesez hitz egiten dudalako ez dit hala ere, ene etxeko hizkuntzak aukera eman euskara biziki untsa jakiteko eta aukera hori eman didana da nire lagunak ezagutu ditudanak, lizeoan adibidez euskara maila anitz hobetu dut, ene laguneri esker eta hortaz ohartzen niz eta azkenean nire lagun taldean ez da beste manera batez hitz egiten, euskaraz baizik. Eta horrekin ere, Seaskak eman dit ene lagun taldea, euskaraz bizitza egunerokoan eta horren ondorioz ene maila hobetu da. Eta beraz, argi dut ere ene lagunak ez dakit nora joanez eta ni Frantzian izanik, ene maila ez dakit, ez dela bortsaz edo hobetuko edo espero dut bederen ez dela apalduko ene maila, baina azkenean ene lagunekin izateak egunerokoan, ene hobetze hori eragin du eta pixkat lotsa ematen dit hala ere ohartzea joaten banaiz Frantziara ikastera edo joaten banaiz frantsesez ikastera, ebe maila hori jaustea

edo, zeta azkenean ez naiz gehiago euskaraz mintzatuko egunerokoan eta asteburutan sartzean ene aitamak ikusiko ditut eta hor ere frantsesez, beraz bada lotsa hori hala ere, hortako ere Hegoaldera joan nahi dut, euskaraz bizitzeko azkenean eta ene maila berdinegoteko, hala.

ARANTZA: Hori erranda, erranen zenuke adibidez Ipar Euskal Herrian ikastola eta zure kasuan frantsesez mintzo zira, baina etxean euskaraz mintzatzeak asko laguntzen duela? Ikastola eta etxeko euskara bi puntu garrantzitsu direla?

E11: Ah bai, ene ustez, nik uste dut, baina gero hori ez da bate denen pentsamendua baina ene ustez behar litaikere, biak oso inportanteak dira eta etxean hitz egitea baita eskolan hitz egitea ere. Etxean egitea bakarrik zaila da, baina ene ustez gehigarria da, fe ene ustez dena behar litaikere euskaraz hitz egin, behar litaikere, ez bat edo bestea.

ARANTZA: Noski, noski.

E11: Bai niretzat fe euskara da, gure hizkuntza da eta behar genuke gure hizkuntzan egin, gero ohartzen naiz ere ene egoera ikusiz, adibidez ene aitamek ez dakitela, beraz badira kasu batzuk nirea bezala nun etxean frantsesez ari giren eta ikastolan euskaraz. Eta beste batzuk etxean euskaraz eta eskolan bate ez direlako ikastolara joan, enetzak biak biziki inportanteak dira eta adibidez badakit ene haurrek segur niz euskaraz hitz egingen dudala, eta segur niz ere ene haurrak ikastolan emanen ditudala, biak biziki inportantak direlako, ez dakit...

ARANTZA: Bai, biak ikusten dituzu azkenean oso garrantzitsuak euskararekiko harremana sortzeko.

E11: Hori da eta osagarriak bata besteari. Biak ikusten ditut elkarrekin, ez bata ala bestea.

ARANTZA: Bai biak, untsa esplikatzen zira. Eta hori erranez, azken azken ondorio bezala, erranen zenuke ikastola, Etxepare bukatzen denean eta gainera etxean frantsesez hitz egiten bada egunerokotasunean beraz orokorrean frantsesa nagusituko dela eta euskara beharbada hein batean gutxituko dela?

E11: Orokorrean bai, posible da arrunt, azkenean euskara alde batera uztea, azkenean zure egunerokoan beti frantsesera pasako zira. Baina hori ere pentsatzen dut ere dela pertsonaren interesaren arabera, azkenean Frantzian bukatzen badut ikasketak egiten, badut interes handia, interesa eta atxikimendu handia ene hizkuntzari. Eta azkenean badakit interes hori badudalako ez dudala galduko harreman hori, euskararekin dudana harreman hori eta gainera badakit ere ez dudala batere Euskal Herria alde batera utziko edo ene hizkuntzari badakit oso atxikia nintzala eta badakit zein den ene egoera etxean eta hori guztia jakinez badakit ere, segur niz ez dudala galduko, gero posible da atxikimendua ez duen pertsona batek alde batera uztea, hori da zinez pertsonaren arabera ene ustez.

ARANTZA: Bai askok hori erran didate, azkenean pertsonaren arabera eta pertsonak duen atxikimendu, ideologia edo bakoitzak pentsaeraren arabera ere ezberdina izan daitekela egoera.

E11: Bai hori da.

ARANTZA: Eta aipatu dituzun lagunak suposatzen dut barnetegiko lagunak ezta? Euskal inguruan mintzo zirenean.

E11: Bai hori da, ene barnetegiko lagunak, lizeokoak eta bestakoak...

ARANTZA: Bestakoak, ze bestetaz ari zira? Besta ezberdin anitz badira, feste diozunean zeri, zein identifikatzen dituzu?

E11: Bai, ebe be festa egia da ere da parte handi bat ere atxematen dut, besta da azkenean kultura ainitz aitzinera eramana da, EHZ bezalako festibaletan, edo herriko bestetan ere, gehinetan beden Ipar Euskal Herrian taldeak gehienak, edo erranen nuke denak kasik euskaldunak dira edo beden hitzak euskaraz dituzte taldeek. Ez dut erran nahi horrek dena egiten duela, baina hala ere, denek badugu besta giroa euskaraz, musika euskaraz entzuten dugu, kultura euskaraz dugu eta nik gainera lagunak euskaldunak izanik eta haiekin euskaraz hitz eginik, badakit ene besta giroa beti beti beti euskaraz dela.

ARANTZA: Baduzu orduan nolabait segurtasuna EHZra joatean suposatzen dut baduzula, zure buruak baduela baieztapen bat euskaraz egiten ahal duzula ezta?

E11: Hori, hori da, azkenean ene ustez, ene aldetik joaten niz EHZra hori badakidalako ere, badakigu EHZ zergatik sortua izan zen, eta nork sortu duen, nor diren parte hartzaileak laguntzaileak, eta joaten nizelarik EHZtat ene ustez ez duzu ezta galdera pausatzen zure buruari « Oh, ene baxoa gomendatzen ahalko dut euskaraz? » be ez, abian zira eta badakizu baietz edo beden badakizu parekoak ez baldin badaki norbait atxemanen duzula hurbil edo badakizu izanen dela euskal giro hori eta horrelako momentutan ere zinez untsa da ze ez duzu galderarik pausatzen eta badakizu horrela izanen dela.

ARANTZA: Eta uste duzu adibidez hor lizeoko ainitz joaten direla? Topatzen dituzu lizeoko lagunak, irakasleak, gurasoak?

E11: Bai, bai arrunt, hori da ere EHZ, badira adin orotakoak, badira aitamak, haurrak, adin guztietakoak eta azkenean gehienak edo kasik denak euskaldunak dira eta horrelako momentutan zinez libre sentitzen zira, ni nire aldetik libre sentitzen niz sentitzen duzu zure inguruan denak euskaldun sentitzen direla eta denek badugula asmo hori, euskara biziaraztea, fe horrelako momentutan hori sentitzen dut.

ARANTZA: Bai bai, bikain. Galdera guztiak egin dizkizut, ez dakit zerbait gehitu nahi duzun, zerbait ahantzi duzun, esperientzia bat. Bestela nigatik amaitutzak ematen ahal dugu, baina hori uzten dizut nahi baduzu azken aukera zerbait errateko.

E11: Bo be nik ez dut beste gauza handirik errateko. Be milesker, biziki interesgarria.

ARANTZA: Milesker zuri zinez.

E12	Gizonezkoa	17 urte	Zuberoa	Urdinarbe	Lehen hizkuntza: Frantsesa
------------	------------	---------	---------	-----------	----------------------------

ARANTZA: Beraz lehenik eta behin mila esker elkarrizketa honetan parte hartzeagatik, erran dizut hori nere Gradu Amaierako Lanerako lagunduko nauzula eta hori, lehenik eta behin eskertzea. Eta eskatuko dizut ea zure burua piskat presentatzen ahal duzun, nundik heldu ziren, ikastolan ze ibilbide ukan duzun, hau da, ze ikastola ezberdinetatik pasatu ziren eta hori pixkat.

E12: Beraz ni E12 deitzen niz, 18 urte ditut eta Urdinarbekoa niz, Xiberoko herri bat. Ikastolan egon niz, Sohutako Eperra ikastolan, gero kolegioan egon niz MEEK kolegioan Larzabalen eta hor Etxeparen niz terminalean.

ARANTZA: Ados, orduan pastu duzu zure ikasketa guztiak ikastolaren barnean.

E12: Bai.

ARANTZA: Zure gurasoen hautua izan zen ikastolan ezartzea?

E12: Bai ene gurasoen hautua izan da, zenta haiek ez dute euskara mintzatzen, hala ere badituzte euskararekin harremanak. Adibidez, ene aitak kantatzen du talde batekin euskaraz, ama entseatzen da ikasten bainan gero bai haien hautua da.

ARANTZA: Ados, beraz suposatzen dut etxean ama hizkuntza frantsesa uka duzula?

E12: Bai frantsesa da.

ARANTZA: Ados, eta badituzu anai-arrebak?

E12: Bai, badut anai bat baditu hamabost urte.

ARANTZA: Eta etxean beraz nola mintzo zizte gurasoekin?

E12: Denekin frantsesez.

ARANTZA: Eta anaiarekin?

E12: Frantsesez ere.

ARANTZA: Bera ikastolan da edo beste?

E12: Bai berdin eginen du, hor Etxeparera heldu da. Baina ohituraz bai frantsesez.

ARANTZA: Bai etxeko ohituragatik, ados. Gero ez dakit ikastolatik kanpo zure bizitzan zehar egin dituzun aktibitate batzuk.

E12: Bai

ARANTZA: Kirolen bat edo hoiek, aipatzen ahal badituzu zein izan diren, nahiz eta gaur egun ez badituzu egiten ere. Zein izan diren eta ze hizkuntzan mintzo izan ziren kirol horietan edo aktibitateetan.

E12: Be nik egiten dut errugbia eta pilota betidanik, eh errugbian eh be bai beti frantsesez izan da, salbu euskaldun lagun guttirekin batzutan euskaraz baina bestenaz bai taldeetan eta beti frantsesez. Eta aldiz pilotan, dependitzen zuen bai gure taldeaz eta entrenatzaileaz ere. Batzuekin euskaraz ari nintzen gero eh entrenatzailea frantsesez ari zelarik eh berarekin frantsesez. Lagunekin euskaraz eta frantsesez dependitzen du egiazki.

ARANTZA: Ados, eta badakizu arrazoina? Zendako batzutan frantsesez ari zinen eta bestetan euskaraz?

E12: Mm ez dakit deia pilotan gehiago fe euskara sartua da errugbian baino ebe ez dakit bai batzutan lagun anitz pilota egiten dutenak eh dira, ez bortsaz ikastolakoak baina badakite euskara. Ta entrenatzaileak ere, eta horren arabera da ene ustez entrenatzailea edo ara.

ARANTZA: Eta noizbat izan zira adibidez aktibitate batean ikastolako batzuekin? Adibidez pilotan edo errugbian?

E12: Bai bai bai eta haiekin be dependitzen du egiazki ohitura bat bada, batzuekin beti euskaraz ari niz, batzuekin frantsesez beti

ARANTZA: Ados

E12: Eta gero batzutan eh piskat biak.

ARANTZA: Ados, aipatu duzu batzuekin eh batzuk ez direla ikastolatik pastu baina haiekin beharba euskaraz mintzo izan zirela.

E12: Bai

ARANTZA: Uste duzu gai direla, ukan dezakezu konbertsazio bat haiekin euskaraz?

E12: Eh bai baina ene ustez ere gutti dira.

ARANTZA: Ados

E12: Baina e bai fe Xiberuan anitzek badakite edo entzun dute, fe anitzek ez baina badute xiberutarra etxetik, ari dira haien gurasoekin eta badute egiazki euskara ez ezberdina baina aintz aldatzen dira. Eta bai baditugu mintzo girelarik euskaraz badugu diskusio bat, egia batzutan aldatzen dela eta bada ere erreferentzia historio eta hor usutan frantsesera lerratzen gira.

ARANTZA: Erran duzunean hori, ze erraten duzu euskalkiagatik? Xiberutarrez mintzo direlako?

E12: Bai bai ni ere haiekin xiberotarra baina ez dakit, etxeko xiberotarra eta ikastolakoa ez da sobera berdina, bo euskalki anitzetan bezala.

ARANTZA: Eta orduan uste duzu Xiberoan oino badirela behar bada ikasle batzuk etxean euskaraz mintzo direnak eta gero beharba eskolan frantsesez?

E12: Bai badira baina usutan ez dakit ez ditugu sobera ikusten edo, ez da asumitzeagatik baina ez dira ausartzen euskaldunekin ere euskaraz aritzea. Baina adibidez badakit batzutan badirela antzerkiak eta dena euskaraz eta ohartzen zira “to berak badaki euskara” ta aldiz ezagutzen duzu duela hamar urte baina...

ARANTZA: Bai beharba etxean gordetzen dute, ez?

E12: Bai, edo ez dakit ohituragatik ere, etxetik kanpo beti frantsesez aritu dira eta beraz hir denekin frantsesez aritu.

ARANTZA: Ados. Hor erran duzu ikasketak Etxeparen egiten dituzula, beraz euskaraz, aktibitate batzuetan euskaraz mintzo izan zira, gaur egun, Etxeparetik kanpo nun identifikatzen dituzu euskara erabiltzeko guneak?

E12: Eh, ba, guneak...

ARANTZA: Guneak edo harremanak, Etxepare alde batera utziz nun erabiltzen du euskara? Berdin du harremanak, eremuak...

E12: Be...depende batzutan pertsona zaharrekin, izan ene familiakoak edo ez, gero lagun batzuekin aktibitateetan ta dena, eta hori dependi. Eta hor ere adibidez badira Xiberuan pastoral eta maskaradak, horiek dira antzerkiak, hor aurtan badugu Urdinarben urte bateko proiektua eta larunbat ats guziz badugu gaualdia eta errepika, eta hor dena egiten da xiberutarrez, eta hor adibidez hor, aurtan larunbat ats guziz ari naiz beste herritarrekin euskaraz, bestelan usutan frantsesez ai gira bai lizeotik kanpo.

ARANTZA: Erran duzunean adineko jendea, hori Xiberuan batez ere edo Ipar Euskal Herri guztian?

E12: Mmm ez dakit hori, baina Xiberuan bai, gero Iparraldean ere ene ustez.

ARANTZA: Aipatu duzu ere pastoralena, agian badira ez dakit egun zehatz batzuk zuk badakizula euskara erabiltzen ahal duzula, pastoraletaz aparte bada beste leku batzuetan zuk erraten diozula zure buruari “bai, hemen euskara erabiltzen ahal dut”.

E12: Bai hori besta euskaldunetan erranen dugu, nun giroa euskalduna den, adibidez gaaztetxeetan eta dena, hor bai ere sentitzen ahal duzu euskara erabiltzen ahal duzula, lasaiki, nahiz eta denetan hori sentitzen ahal duzun, baina bon! Hor erosoago zira.

ARANTZA: Erran duzu adibidez gaztetxea, zerk erraten dizu euskaldun giroa dela edo?

E12: Ez dakit baina egiazki bai sentitzen duzu, beharba lehen hitza euskaraz inen duzu, eta nahiz eta aitzinekoak ez duen ulertzen hala ere entseatuko da, eta egoera hori ez da denetan agertzen eta hori da ene ustez ere euskal giroa, badira frantses batzuk baina hala ere iten dute esfortzu bat hor euskal giro hortan sartzeko.

ARANTZA: Beharba euskara jakin ez arren prest dira ez?

E12: Bai bai hori da.

ARANTZA: Ados eta orduan euskaraz mintzatzen ez zarenean suposatzen dut frantsesez ari zarela, zein izaten da arrazoi nagusia euskaratik frantsesera pasteko?

E12: Mmm ene ustez bada ainitz ohitura, adibidez ari bazira lagun batekin ttipidanik frantsesez nahiz eta euskalduna izan, zaila da egun batetik bestera pastea euskarat. Eta gero, bai edo ez ulertzen bat badelarik edo ere erreferentzia, ez dakit atzoko matcha ez dakit nun eta hori telebistan, irrastian eta sare sozialetan, denetan ikusten dugu frantsesez, eta hortaz mintzatzeko usutan pasten gira frantsesera.

ARANTZA: Zenta hemen Etxeparen lagunekin beharba frantsesez edo euskaraz mintzo zira, baina bauduzue aukera euskaraz mintzatzeko

E12: Bai badugu.

ARANTZA: Suposatzen dut Etxeparetik kanpo badituzula beste lagun batzuk, beharba beste eskoletakoak, baduzu talderen bat ikastolatik kanpo euskaraz mintzatzen ahal zirena?

E12: Pf...bai badut lagun bat edo bi baina egiazki hala ere gehienak ikastolan gelditu dute eta etxean atxiki dute euskara baina, ez dena pastu sekula ikastolatik ez dut ez, ez dut uste.

ARANTZA: Ados, eta gero adibidez zure egunerokoan, joaten zarenean supermerkatu batera edo autobus batera igotzean, lehen hitza orokorrean ze hizkuntzan?

E12: Frantsesean.

ARANTZA: Eta zergatik badakizu?

E12: Be batzutan egiten dut euskaraz baina bo kasik, beti “egun on” eta gero ez dakite deus erraiten, eta bai da ohitura eta hala ere batzutan, ez dakit, ostatueta ikusten duzulaik pixkat beharba euskara, hor bai euskaraz baina ez dakit bestenaz autobus gidariekin eta bai saltzaileekin eta dena usutan frantsesez.

ARANTZA: Beharba aitzinetik pentsatzen duzulako deia euskara ez dakiela.

E12:Bai bai ene ustez haiek ez dakite eta ez dakit...

ARANTZA: Xiberuan adibidez, zure herrian badituzu komertzio zehatz batzuk edo leku zehatz batzuk badakizuna alde aurretik euskaraz egin dezakezula?

E12: Bai badira saltegi batzuk, ostatu batzuk ere eta hortan badakigu aritzen ahal girela euskaraz saltzailearekin baina gero sartu aitzin, gauza berrietan usutan frantsesez bai.

ARANTZA: Ados, eta haien jarrera? Zuk erran duzu hala ere gehienbat frantsesez egiten duzula baina eman dezagun batzutan euskaraz egiten duzula, orokorrean erantzuna ze hizkuntzan eta ze sentitzen duzu?

E12: Beh...batzutan batzuk interesatzen dira, hori guttitan hala ere. Eta gero, ez ez ulertze bat baina justu ez dakit, bai haiek segitzen dute frantsesez eta ez dakit, pixkat futitzen dira, irudi du.

ARANTZA: Adibidez aipatu duzu zure gurasoek euskara ez dakitela baina adibidez zure aita euskal munduan, hein batean euskal inguruan sartua dela adibidez euskal musikarekin. Uste duzu badela agian zure aita edo zure gurasoek bezalako pertsona jakin ez arren beharba euskararen alde diren pertsona batzuk badirela?

E12: Bai bai badira, gero ene aita adibidez, ene aitak ulertzen du euskara baina ez du emaiten zeta hartu zituen kurtxoak duela ez dakit zenbat urte baina gero ezin du batzutan emaiten du

baina ez daki sobera. Mais bai, ene ustez badira pertsona ainitz horrela direla, pixkat interesatuak eta nahi dutena hala ere euskara berpiztu baina hizkuntza bat ez da bi egunez ikasten eta bo ez dakit...

ARANTZA: Uste duzu pertsona horiek ikastolarekin edo euskal munduarekin lotura minimo bat dutela?

E12: Bai ene ustez. Fe, batzuek bai, zeta nahi dute hala ere euskara berpiztu, eta lagundu eta...hala ere ikastolatik pastean baduzu euskara eta frantsesa, da gauza gehigarri bat eta hori ene ustez bai inportantea da guraso batzuentzat. Zeta hor ene kasua gurasoak ez diren euskaraz ari ez da kasu bakarra eta hala ere haientzat da gauza gehigarri bat eta ezagutza gehiago eta hala ere Hegoaldearentzat ate ainitz irekitzen dira eta ene ustez untsa da bai eta badira pertsona gehiago.

ARANTZA: Eta hor azken galderetarat pasteko, erran didazu terminalean zirela, suposatzen dut hasi zirela etorkizunera begira pentsatzen, ez dakit unibertsitate edo beste ikasketak. Badakizu zer egin nahi duzun eta nun?

E12: Bai, ene ustez egonen niz Baionan, seguraski bai ekonomia eta enpresa kudeaketa egiteko, edo horrelako zerbaite eta uste dut unibertsitatean badela opzio bat euskaraz baina ez dakit, erakasle batek erran zidan iten zela pertsona kopuruaren arabera, adibidez bere urtean ez zela izan zeta bakarrik bi ziren baina...ene ustez bai, bestenaz dena frantsesez iten da.

ARANTZA: Bai zenta hemen Ipar Euskal Herrian euskaraz iteo bada euskal ikasketak.

E12: Bai euskal fak eta hara.

ARANTZA: Eta adibidez zuk adibidez aski duzu hemen ikasi nahi duzula, eman dezagun Baionara zoazela ikasketa horiek egitera, beraz Etxepare alde batera uzten duzu, uste duzu zure euskararen egoeran aldaketak egonen direla?

E12: Ene ustez bai pixkat, eh gero hala ere lagun batzuekin beti euskaraz mintzatzen segitzen badugu nola erran, mintzatzeko euskara ez dudala galduko baina gero Etxeparen izanki ez dakit, hitz tekniko batzuk eta ez dakit, ene ustez atxikiko dudana da eguneroko euskara mintzatzeko baina hitz batzuk ez badituzu erabiltzen elkarrizketetan galtzen dira.

ARANTZA: Erran duzu lagunekin, nungo lagunekin mantenduko zenuke euskara?

E12: Be Etxeparetik pastu diren lagunekin bai.

ARANTZA: Ados. Zenta hor adibidez etxean frantsesa egiten baduzu eta Seaska alde batera uzten, erabilera hein batean uste duzu gutituko dela?

E12: Ah bai guttituko da ainitzez hala ere entseatuko niz musika eta kantu eta liburu eta horren bidez atxikitzea baina egia bai gero ez dut egunero entzunen euskara hori segur da.

ARANTZA: Ainitzek aipatu dute ere gero zure jarreraren arabera dela ez? Beharba euskara mintzatzeko aukera anitz ez duzula ukanen baina zuk mantendu nahi baduzu...

E12: Ah bai! Ene ustez mantendu nahi baduzu abian bazira gaztetxe batera, edo elkarte euskal batera, hala ere entseatzen baduzu ez ahanztea ez duzu ahaztuko baina hala ere erran behar da pixka guttituko dela zure egoera uaikoa konparatuz.

ARANTZA: Orduan hor amaitzeko, uste duzu Seaskak eta baita bo zure kasuan ez, baina etxean euskara izateak laguntzen dutela gaur egun Iparl Euskal Herriko euskararen egoeran?

E12: Bai ainitz ene ustez bai baina ene ustez ere atxikitzen badut beti euskara nik pasaraziko det ere ene haurrer edo, hara eta horrek ene ustez laguntzen du anitz euskararen egoeran.

ARANTZA: Ados. Nik galdera guztiak egin dizkizut, ez dakit baldin baduzu zerbait gehitzeko anekdotarenbat edo ahantzi zaizun zerbait..

E12: Ez.

ARANTZA: Ez ados, be bikain, mila esker.

E12: Be milesker zuri.